

Goienkaria

2007ko maiatzaren 18a > Egubakoitza > VII. urtea > 288. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Alderdiei eskatzen diet lehen sektorearen aldeko apustua egin dezatela"

Begoña Aristi
Gipuzkoako EHNEko idazkari nagusia > 09



G2a

Jonah Smith, etzi, Oñatiko gaztelekuan > 43

BERGARA
620.000 euro, lana sortuko duen enpresa proiektu berriarendako > 24

KIROLA
Goñi eta Berraondoren buruz burukoa bihar Antzuolan > 36

GATZAGA
Arlaban gainerako aisialdigunea zehaztu du Udalak > 39

Hauteskundeek gainera lau gehigarri

GOIENKARIArekin batera, gureko hautagaien proposamenak, edizioa



ENPRESA > MCC

MCCk %24,2ko hazkundea izan zuen iazko ekitaldian

MCCk iazko ekitaldiaren eta oraingoaren berri eman du asteen. 2006ko emaitza bate-ratuak 677 milioi euro izan direla azaldu zuten eta hazkundea %24,2. Aurtengo ekitaldiari begira, berriz, 750 milioi euroko irabaziekin ixtea espero dute. > 05

ARRASATE > FERIA

Erdi Aroko azoka asteburuan

Askotariko postu eta ikuskizunak egongo dira bihar eta etzi > 45

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Sailkatuak > 46
Eskelak > 47
Denbora-pasa > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55



HEGOAMERIKARRAK Pakistandarren, bulgariarren eta errumaniarren kopuruak gora egin badu ere, etorkin hegoamerikarrak dira nagusi.

XABIER URTZELAI

IMMIGRAZIOA > MANKOMUNITAKEAK IBARREKO DATUEN GAI NEKO TXOSTENA ARGITARATU DU

Gurean 2.005 etorkin daude erroldatuta

DATUAK Bergara da etorkin gehien duen herria (727) eta Leintz Gatzaga, berriz, gutxien duena (7)

PROFILA Adinaren batez bestekoa 31 urte da; gizonezkoak %53 dira eta emakumezkoak % 47

Mankomunitateko Garapen Ekonomiarako Agentziaren bitartez, Jone Morras arrasatearrak ibarreko immigrazioa aztertzen duen txostena egin du. Ibarreko biztanleria osoa (61.724) kontuan hartuta, etorkinak biztanleriaren %3,25 dira eta batik bat gureko herri handienetan batu dira, lana aurkitzeko aukera gehiago dagoelako. EAEko datuekin alderatuta, gurea etorri den etorkin kopurua pixka bat txikiagoa da. > 02-03

DEPORTIBOTASUNAK ETA DOTOREZIAK BAT EGITEN DUTENEAN...
SEAT LEON BERRIA

Udalaitz
Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Bozkatu aralar

ausartu
Debagoiena aldatzen

www.aralar.net

IMMIGRAZIOA > MANKOMUNITATEAK IBARREKO DATUEN GAINEKO TXOSTENA ARGITARATU DU

Etorkinak herri handienetan batzen dira, lan gehiago dagoen tokian

TXOSTENA Mankomunitateak 2006ko datuak erabilita Debagoienean dagoen immigrazioaren gaineko azterketa egin du

2.005 ETORKIN Iazko datuen arabera, ibarrean 2.005 etorkin zeuden errolatuta; Bergara da etorkin gehien dituen herria eta Arrasate eta Oñati datoz gero

LANERA Txostenaren arabera, etorkinen adinaren batez bestekoa oso gaztea da: 31 urte; izan ere, lan bila datoz, gehienak Hego Ameriketatik

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Mankomunitateko Garapen Ekonomiarako Agentziaren bitartez, Jone Morras arrasatearrak ibarreko immigrazioa aztertzen duen txostena egin du. Hala, egileak berak txostenaren sarreran dioen moduan, migrazio mugimenduak ez dira berriak, gizataldeak, euskaldunak barne, historikoki eta hainbat arrazoirengatik herrialde batetik bestera abiatu dira-eta bizitzan aurrera egiteko aukera hobe baten bila. Egun, gizartearen inoiz baino kolore, kultura eta jaioterri gehiagotako jendea ikusten ari gara, baita Debagoienean ere.

ERREALITATEK GERTUAGO

Hasteko, komeni da argitzea txosten horretan egiten den ikerketak badituela bere mugak. Egileak berak aurreratu moduan, alde batetik, errolatzen agertzen ez diren etorkinen datuak falta dira. Horrekin batera, erroladak askotan aldatzen dira eta immigrazioaren joerak ezagutzeko hainbat urtetako datuak alderatu behar dira. Horrekin guztiarekin, bistan dago azterketa horrek egungo immigrazio egoeraren errealtatera gerturatzen gaituela.

Datozen lerrootan Morrasede azterketan zehar azpimarratu dituen datu esanguratsuenak batu ditugu. Hala, iaz, Debagoienean 2.005 etorkin zeuden errolatuta. Ibarreko biztanleria osoa (61.724) kontuan hartuta, etorkinak biztanleriaren %3,25 dira. Banaketa herrika eginez gero, Bergara da ibarrean etorkin gehien duen herria (727). Hau da, Debagoieneko etorkinen %36,6 Bergaran bizi da. Ondoren datoz Arrasate (530) eta Oñati (298). Aretxabaletan errolatuta daude 178 lagun, Eskoriatzan 107, Antzuolan 90, Elgetan 68 eta Leintz Gatzagan zazpi.

Sexuari dagokionez, gizonen %53 emakumezkoak (%47) baino gehiago dira, nahiz eta Oñatin egoera bestelakoa den: emakumeen portzentajea gizonenak baino handiagoa da han.

ZERGATIK HERRI HANDIETAN?

Erantzuna bistan dago, lana topatzeko aukera handiagoa dagoelako herri handietan txikietan baino. Hori da etorkinen lehentasuna, lana bilatzea, eta, txostenaren arabera, lana bilatzeko etorkinek enplegatze zerbitzuak sarritan

Sexuari dagokionez, ibarrean dauden etorkinen artean gizonen %53 emakumezkoak (%47) baino gehiago dira, nahiz eta Oñatin egoera bestelakoa den

Txostenak dio lana bilatzeko etorkinek enplegatze zerbitzuak sarritan erabiltzen dituztela, nagusiki gizonen %53 emakumezkoen %47 baino gehiago

erabiltzen dituzte. Hala, zerbitzu horietako erabiltzaileak nagusiki gizonen %53 emakumezkoen %47 baino gehiago dira, nahiz eta Oñatin egoera bestelakoa den.

Etorkinek egiten duten lan motari dagokionez, ezberdindu egin behar dira gizonen %53 emakumezkoen %47 baino gehiago dira, nahiz eta Oñatin egoera bestelakoa den. Hala, gizonak erakustean egiten du lan; emakumeak, berriz, etxeko lanak egiten ditu. Adinari dagokionez, berriz, etorkinen kolektiboa oso gaztea da, bereziki gure herrietako biztanleriaren batez bestekoarekin alderatuz gero. Etorkinen adinaren batez bestekoa 31 urte da, eta Elgetan, Oñatik eta Leintz Gatzagan, besteak beste, batez besteko gazteagoak dituzte: 29 urte.

MIGRAZIOEN JOERA ALDATUTA

Txostenak erakusten digu azken urteotan aldatu egin dela migrazio mugimenduen joera. 70eko eta 90eko hamarkada artean etortzen ziren etorkin gehienak komunitarioak –Europa 15 deritzonak– eta Magreb eskualdekoak ziren. Egun baino kopuru txikiagoa zen, eta formazioa edo



ZAINZA LANAK Emakume etorkinek etxeko lanetan

lana bilatzea zuten helburu. 2000. urtetik gaur arte, berriz, Europako erkidegokoak ez diren lurraldeetatik datoz etorkin gehienak, eta bereziki hego-amerikarrak dabilta nagusitzen. Horrekin batera, baina, aipatzekoa da 2001-2003. urte bitartean pakistandarren, bulgariarren eta errumaniarren etorkin kopuruak nabarmen egin duela gora.

EAE-KO DATUEKIN ALDERATUTA

Debagoieneko datuak EAEko datuekin alderatuz gero, gurea etorri den etorkin kopurua apur bat txikiagoa da. Estatuko datuekin alderatuz gero, hauxe dago agerian: estatuan kanpotarren hazkundera bereziki 2000 eta 2003. urte bitartean gertatu bazen, Debagoienean hazkunde tasa handiena azken bizpahiru urteotan izan dugula.

San Miguel
DEKORAZIOA ETA ISOLAMENDUA

Norberaren babeserako ekipamenduak
eta lanerako arropak
Zeramika erakusketa eta salmenta

Zapatu goizetan irekita

Amillaga 5-6 pabilioilla - BERGARA Tel.: 943 76 47 90 - faxa: 943 76 01 15 Zentralita: 649 98 16 70



...edo ume zein nagusiak zaintzen egiten dute lan, Seber Altuben ateratako argazkiak erakusten duen moduan.

XABIER URTZELAI

Jone Morras > Ikerketaren egilea

"Etorkinei zerbitzuak bideratzeko orduan legeak mugak jartzen ditu"

X.U. > ARRASATE

Jone Morras (Arrasate, 1979) antropologian lizentziaduna eta gizarte lanetan diplomaduna da. Mankomunitateko Garapen Agentziaren bitartez egin du Debagoieneko inmigrazioaren gaineko azterketa.

Zer dela eta egin duzue inmigrazioaren gaineko ikerketa hori?

Mankomunitateko Garapen Agentziak eta lan enpleguko beste zerbitzuak ohartuta zeuden geroago eta etorkin gehiagok erabiltzen zituztela euren zerbitzuak. Horrela, beharrezko ikusi zuten Debagoienean inmigrazioaren gaineko diagnosi bat egitea, lehenago ez zegoen eta horrelako lanik, ez zegoen erreferentziarik. Bergarako Udalak, adibidez, badu hango egoeraren berri, baina gainontzean ez zegoen horrelako lanik.

Debagoienean zelan hartzen ditugu etorkinak? Eurei bideratutako nahikoa zerbitzu dugu?

Lehenengo galderari hobeto erantzuteko, etorkinei galdetu beharko genieke, egin dugun azterketan ez dugulako hori aztertu. Nik ikusten dudanez, gai horren inguruan hemengo bizilagunok jarrera ezberdina daukagu. Batzuek etorkinen etorrera mehatxu moduko bat da, eta beste batzuek ondo hartzen dituzte. Horrez



X.U.

gain, beldurra diogu kultura aniztasuna izango duen gizarteari.

Eurei bideratutako zerbitzuei dagokienez, legeak mugak jartzen ditu, eta nire ustez, ez dituzte nahikoa zerbitzu. Baina luze eztabaidatzeko gaia da.

Zeintzuk dira etorkinek lana bilatzeko izaten dituzten zailtasunak?

Batetik egoera administratiboa dago, lan baimena daukatenak, baimenik gabe daudenak... Horrekin batera, leku guztietan ez dago lanerako kultura bera, eta normalean etorkinen hezkuntza maila hemengo baino baxuagoa da. Horrez gain, enpresarien kulturak ere zeresan handia du, batzuk etorkinen egoeraz aprobetxatu egiten dira eta.

ZATOZ
GEURERA!



Bergarako Haurreskola
Boni Laskurain 15
Bergara
(Martinez de Irala
Instituaaren azpian)
Tel: 943 76 25 96

**Arrasateko Bedoñabe
Haurreskola**
Alfontso VIII, 1
Arrasate
(Herri eskolako eraikinean)
Tel: 943 79 76 86

**Eskoriatzako Kulunka
Haurreskola**
Gaztañadui 25
Eskoriatza
Tel: 943 71 57 70

Oñatiko Haurreskola
Olakua auzoa 18
Oñati
Tel: 943 71 64 05

Elgetako Haurreskola
Maala 4, behe
Elgeta
Tel: 675 70 70 15

**Aramaioko Masusta
Haurreskola**
Nardeaga 38
Aramaio
Tel: 688 61 22 28



HAURRESKOLAKO MATRIKULA EPEA ZABALIK
MAIATZAREN 17-tik 31ra BITARTEAN
(2.006 eta 2.007 urteetan jaiotako haurrentzat)

EUSKARA > EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

'Udalak euskaldundu' lelopean bizikleta martxa egingo dute

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

Euskal Herrian Euskaraz taldeak antolatuta, bizikleta martxa egingo dute gaur arratsaldean Debagoieneko herrietan zehar.

Udalak euskaldundu lelopean egingo dute ekitaldi hori. Antzualatik eta Elgetatik 18:00etan abiatuko dira Bergara aldera; Antzulan, Zurrategin jarri dute hitzor-

dua eta Elgetan, gaztetxean. 18:30ean, Bergarako euskaltzaileekin elkartu eta Arrasate aldera abiatuko dira. Arrasate zeharkatu ondoren, Aretxabaletan

amaituko da bizikleta ibilaldia. Hantxe, ekitaldia egingo dute eta parte-hartzaile guztiendako zerjan eta zer edan egongo da, Aretxabaletako EHEren eskutik.

ZINEGOTZI EUSKALDUNAK

Hauteskundeak gainean ditugun honetan, Euskal Herrian Euskaraz taldearen helburua da ekimen honekin, zinegotzi euskaldunak izateko eskubidea aldarrikatzea. EHEren ustez, agintaldi berrian euskara plan egokiak bultzatzeko, zuzenena eta logikoena da hautetsiek euskaraz jakitea.

Oraingo ekimen hau EHEk lantzen duen arlo zabalago baten barruan kokatzen da; izan ere, azaldu digutenez, udalak euskalduntzearen aldeko etengabeko lana egiten du taldeak.

IRAKASKUNTZA

Gurean ere igarri zen grebaren eragina

Maiatzaren 24rako, eguena, greba deialdia eginda dago EAE osorako

AINTZANE IRIZAR > BERGARA

EILAS, LAB, ELA eta UGT sindikatuek deituta, Gipuzkoako eskola publikoetako irakasle askok greba egin zuten, baita ibarrekoek ere, Arrasate eta Elgetako ikastetxeetan izan ezik.

Sindikatuaren eskariak dira, besteak beste, honakoak: 55 urteko gorakoei eskola-orduak murriztea, lan baldintzak hobetzea eta ordezkapen beharriari aurre egiteko neurriak bilatzea.

HAINBAT BATZAR

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hezkuntza ez unibertsitarioko mahai sektoriala berriro bildu zen astelehenean, baina gehienengo sindikala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila ez ziren akordioa iritsi. CCOOk, baina, aurreakordioa sinatu zuen Hezkuntza Sailarekin.

Maiatzaren 24rako EAE osorako greba deialdia eginda dute CCOOk ez gainerako sindikatu guztiek.

> ENPRESA

Fagor Ederlan saritu du Honda automobil ekoizleak

Honda automobil etxeak 2006ko hornitzaile onenaren saria eman dio Fagor Ederlan enpresari. Produktuaren kalitatea eta zerbitzuaren bikaintasuna errekonozitzen ditu sari horrek. Garrantzi berezia du sariak, Honda etxea exigentzia handiko ekoizlea dela kontuan hartuta.

1988an hasi zen Ederlan Hondarendako osagaiak egiten; askotariko produktuak egiten dituzte: balaztak, esekidurak, transmisioak eta abar.

koma
servicios
lingüísticos
language
services

zerbait esan behar dizu

LAN MUNDURAKO SARRERA...

Zure neurriko ikastaroekin hizkuntzarekiko trebetasuna, gaitasuna... izango dira guztion helburuak.

IKASTARO OROKORRAK ETA NEGOZIOEI ZUZENDURIKOAK...

hizkuntza guztientzat (taldeka, pertsonalizatuak...).

UDAN... IKASTARO TRINKOAK!

Umeentzat, helduentzat, enpresetako langileentzat...

AZTERKETA OFIZIALAK PRESTATU:

- > EUSKARA (Hizkuntz Eskakizun maila ezberdinak, EGA...)
- > INGELESA, ALEMANERA, ITALIANOA, FRANTSESA.

ATZERRIAN EGONALDIAK:

- > INGELESA: Irlandan, Britania Handian, Estatu Batuetan, Kanadan eta Australian.
- > ALEMANERA / ITALIANOA / FRANTSESA.

Informa zaitetz

Koma Vitoria-Gasteiz:
Sierra de Andía, 2 - Ofic. 26D
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel. 945 17 00 57

Koma Oñati:
Olakua, 7 behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 82 08

Koma Irún:
Señor de Aranzate, 14
20304 Irún (Gipuzkoa)
Tel. 943 62 86 82

Koma Bizkaia:
Laga Bidea, Edif. 804 - Ofic. 123
48160 Derio (Bizkaia)
Tel. 647 45 42 30

e-mail: info@komalingua.com · www.komalingua.com



ZUZENDARITZA Juan Mari Otaegi, Jesus Catania, Jose Mari Aldekoa eta Constan Dacosta atzoko agerraldian. M.B.

EKONOMIA > MCC-REN URTEKO DATUAK

750 milioi euro irabaztea espero du aurten MCCk

Joan zen ekitaldian emaitza onak izan zituen MCCk: emaitza bateratuak %24,2 hazi zirela azaldu zuen atzo korporazioko presidente Jesus Cataniak

MIRIAN BITERI > ARRASATE
2006. urtean, MCCko industria eta banaketa taldeen salmentak guztira 13.390 milioi eurora iritsi ziren. Hain zuzen, %13 hazi ziren aurreko urtearekin alderatuta. Emaitza bateratuak 677 milioi euro izan ziren, eta hazkundea %24,2. Emaitza horretatik gehiena berriro inbertitu da. Korporazioaren guztizko aktiboa 27.550 milioi euro

izan zen -%20 gehiago-, eta baliabide propioak 4.696 eurotan kokatu ziren, %11ko hazkundearekin. Finantza taldeak ekitaldi bikaina izan zuen. Euskadiko Kutxak baliabide bitartekotuetan

12.333 milioi euro zituela itxi zuen urtea eta zerga aurreko emaitzak %17 hazi zituen. Lagun Aroren ondare fondoaren errentagarritasuna %8,3 izan zen, eta Lagun Aro Aseguruak nabarmen hazi ziren primatan eta etekinetan.

Industria arloan 6.876 eta banaketa taldean 6.514 milioi euro fakturatu ziren. Enpleguari dagokionez, 83.601 langileekin amaitu zuen ekitaldia MCCk.

HAUTESKUNDEAK > OÑATI ETA ARETXABALETARA ERE BAI

EAE-ANVren boto-txartelak ibar osora iritsiko dira

Zerrendak baliogabetu diren arren, herritarrek bozkatu ahal izango dutela dio alderdiak

ko agerraldian. Deba-Urola barrutiko zerrenda ere bertan behera utzi dute, eta ibarreko herrietan ez da boto-txartelak izango.

ARDURADUNAK

Debeku horien harira, hauteskunde "ez-demokratikoak" izango direla azpimarratu zuen Altubek, "Euskal Herriari hitza eta erabakia ukatu nahi diotelako". Ardura "zuzena" PSOErena izan arren, "erabaki politiko" hori hartzeko orduan EAJren "laguntza ezinbestekoa" izan dela salatu zuen.

Bestalde, ibarrerako proposamenak aipatu zituen Eskoriatzako hautagai Pedro Lasgabasterrek. Besteak beste, tren sozialaren, denda txikien, hiritzaintza sozialaren, garraio publikoaren, Zubillagako hiltegi publikoaren eta eskualdeko ospitalea tokiz aldatzearen alde azaldu zen hautagaia.

M.B. > BERGARA

EAE-ANVren boto-txartelak etxez etxe banatuko dituzte, datozen egunetan, Oñatin eta Aretxabaletan. Jakinaenez, bi herri horietan alderdia baliogabetu egin du Espainiako justiziak, eta, ondorioz, hauteslekuetako mahaletan ez da haien hautagaien zerrendarik izango. "Bozkatzeari inportanteena dela" aintzat hartuta, txartelak "herritar guztien esku" egongo direla ziurtatu zuen astelehenean Oñatiko zerrendaburu Marijo Altubek.

Gipuzkoako Batzar Nagusietan ere sistema bera erabiliko dutela esan zuen Bergaran eginda-



IBARREKO GUZTIAK EAE-ANVko hautagaiek Bergaran egin zuten agerraldia. M.B.



LKS INGENIERIA, S. KOOP.

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIALDIA

Eguna: 2007ko maiatzaren 25ean
Ordua: 10:30ean lehenengo deialdia, 11:00etan bigarrena
Tokia: Arantzazuko Gandiaga Topegunea Ekitaldi Aretoa (Oñati)

GAI ZERRENDA

- 2006ko maiatzaren 19ko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onespenerari buruzko txostena.
- Aktaren onespenerako bazkideak izendatzea.
- 2006ko ekitaldiko memoria, emaitzen balantze eta kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
- Soberakin erabilgarrien banaketa.
- Heziketa eta Sustapenerako Fondoa banatzea.
- Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
 - Ekarpinak
 - Kapitalerako ordainketa
 - Kapitalerako ekarpenen eguneratzea
- Estatutu Sozialaren aldaketak onartzeko proposamena.
- Kontseilu Errektorearen Estatutu-berriztapena.
- Kontseilu Sozialaren Estatutu-berriztapena.
- Estatutuaren arabera Zaintza Batzordea berritzea.
- Kontu-auditoreak izendatzea.
- Ingeniaritza eta Zerbitzuen Dibisio kooperatiba elkarteari buruzko txostena.
- MCCri buruzko informazioa.
- Galderak eta eskaerak.

Jon Igarza
Lehendakaria



ULMA Manutencion, Koop. E.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA

DEIA

Eguna: 2007ko maiatzaren 25a
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena
Tokia: Santa Ana Antzokia - Oñati

GAI ZERRENDA

- Aurreko akta onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea
- 2006ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2007ko gestio plana berrestea
- ULMA Taldeari buruzko txostena
- 2006ko ekitaldiko kontuak eta balantzea aztertzeko eta, hala badagokio, onartzea
- Auditorea izendatzea
- Soberakin garbiak banatzea
- Heziketako eta Kooperatiba Sustapenerako Fondoaren (HKSF) erabilera
- Egituraz gairako erakundeekin zerikusia duten gaiak
- Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
- POGU IIIren III. tituluaren 2.1.2 eta 2.2 atalak aldatzea, hala badagokio
- Estatutu Sozialen 13 eta 28. artikulua aldatzea, hala badagokio
- Kooperatibaren Barne Araudiaren 6 eta 82. artikulua aldatzea, hala badagokio
- Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena
- Zaintza Batzordeko kideak berritzea
- Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
- Galderak eta eskaerak

Oñati, 2007ko maiatza

OHARRAK: bazkide guztien jakinaren gainean zera jartzen da: kontabilitate liburuak eta deialdi honetan proposatutako estatutuen, Barne Araudiaren eta POGU IIIren aldaketan testuak eta zergatien txostena egoitza sozialean aztertzeko eskubidea dutela. Hala eskatzekotan, dokumentuok eman egongo zaizkie, edo doan bidaliko.

AURREIKUSPENAK

2007. urterako ere hazkundeak aurreikusten dituzte

Aurtengo lehen hiruhilekoan, salmentak, guztira, %13 inguru hazi dira, eta aurreikusita dago industria eta banaketa arloetan urtearen amaieran fakturazioa 14.430 milioi euro izango dela; hau da, 2006an baino %8 gehiago. Inbertsioak 1.350 milioi euroko zifra historikoraino igoko direla jakinarazi zuen atzo MCCko Kontseilu Orokorreko presidente Jesus Cataniak; hau da, aurreko urtean baino ia %15 gehiago.

Emaitzei dagokionez, %10 hobetzea espero dute. Horrenbestez, ekitaldia 750 milioi euro inguruko etekinarekin ixtea aurreikusita dute. Enpleguari dagokionez, urte honen amaieran 86.000 pertsona baino gehiago izatea espero da. Euskadiko Kutxan eta Lagun Aron ere hazkundeak izatea espero dute.

ZUBILLAGAKO HILTEGIA > 'HILTEGIA BIZIRIK' PLATAFORMAREN AGERRALDIA

Hiltegiaren kudeaketa txarra salatu dute

Mqankomunitateko ordezkariak ez dute kexua ulertzen eta esan dute "hiltegiak martxan jarrai dezan" inbertsio handiak egin direla

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE

Orain dela urte eta erdi, Debagoieneko Mankomunitateak erabaki zuen berak kudeatzea zuzenean Zubillagako hiltegia. Orain, Hiltegia Bizirik plataformak agerraldia egin du urte eta erdi honen balorazioa egiteko. Hala, salatu dute Debagoieneko Mankomunitateak gaizki kudeatu duela hiltegia. Plataformaren esanetan, "ganadu kopurua ez da igo eta bezeroak erakartzeko inolako ahalginik ez dute egin".

Azken urte honetan hainbat inbertsio egin diren arren, kudeaketa plangintza beharrezkoa dela adierazi dute plataformako



AGERRALDIA Martitzeneko agerraldiaren une bat.

ARRITXU BARRUSO

kideek. Azaldu dute, bestetik, Mankomunitateari hainbat proposamen egin dizkiotela kudeaketa hobetzeko eta galerak saihesteko, baina ez dutela inolako erantzunik jaso.

Gaur egun, ibarreko zinegotziek osatutako batzorde batek kudeatzen du hiltegia; plataformak proposatzen du gerente bat jartzea. Ibarreko alderdi politikoetako ordezkariak ere aurkeztu diete euren balorazioa.

KUDEAKETA EZ HAIN TXARRA

Victoriano Gallastegi da hiltegia kudeatzeaz arduratzen den batzordeko lehendakaria. Haren esanetan, hiltegiaren kudeaketa ez da hain txarra, eta gehitu du Mankomunitateak plan estrategikoa egin da daukala eta azken urteetan inbertsio handiak egin direla, "hiltegiak martxan jarrai dezan". Bestalde, esan du ez dituela kexuak ulertzen "hiltegiaren funtzionamendua beti berdina izan bada".

kontsumoa



Abiadura handian ibiltzea zigortuko da, besteak beste.

GOIENKARIA

2008tik aurrera gidari atzerritarrek isunei aurre egin beharko dizkiete

GOIENKARIA > BERGARA

Berea ez den beste herrialde baten gidatzen duena derrigor-tuta dago zirkulazio arauak betetzera. Baina, gaur egun, atzerrian jartzen diren isun gehienak ez dira bideratzen. Isuna jartzeko modu bakarra dago; alegia, patruila batek autoa gelditzea eta isuna esku-dirutan ordaintzea.

Bada, e goera hori aldatu beharra dagoela ikusi du Europar Batasunak. Horren harira, Garraio komisario Jacques Barrotek "urte honen amaierarako" lege proiektu baten onarpena iragarri du. Hain zuzen, gura dute norebere herrialdea ez den Europako Batasuneko herrialde batean egindako zirkulazio arau-hauste "larrienak" zigortzea: alkohol gehiegi edanda gidatzea, segurtasun-uhalik ez jartzea eta ziztu bizian ibiltzea. Arau-hausteez "europar mailako dimentsioa" izatearen alde agertu da Barrot, isun guztiak bete daitezela.

Kale agerraldia egin du LABek lan istripua salatzen

Aurreko egubakoitzean, Arrasateko Olarte kalean etxebizitza bat eraberritzeko lanetan zebilen 56 urteko langilea hil zen. Lan istripu hori salatzen duen LAB sindikatuak eguaztenezan, istripua gertatu zen tokian.

UGT sindikatuak, berriz, prentsa oharra kaleratu du; ohar horretan eskatzen dio Eusko Jurlaritzari lan istripuak saihesteko inplikazio handiagoa izateko eta lan osasunaren arloan politika aktiboak ezartzea.




TXOMIN MADINA



Hartzaileak kobratzeko deiak kobratu dituzte

Kontsumitzaileen elkarte batek salatu du Movistarrek kobratu dituela baimendu gabeko hartzaileak kobratzeko deiak. Enpresak "akats" bat izan dela onartu eta "faktura bidali aurretik zuzenketak egiteko neurriak hartuko dituela" ziurtatu du.



Eraikin bateko garbiketarako 150 bat euro balio du urtero

Eraikinen mantentze-lanek arduratzen diren garbiketarako enpresek 100 eta 200 euro artean kobratzen dizkiote urtero jabe bakoitzari, *Consumer* aldizkariak azaldu duenez; eraikinak duen pisu eta eskatzen den zerbitzua-aren arabera aldatzen da hura.

Rosa Agirrebeña Berasategi

INGURUMEN TEKNIKARIA

Txosten teknikoak eta beharrezkoak diren proposamenak egitea, indarrean dauden ingurumen-kontrolako legeak baimentzen dituen mailei eusteko.

Produktzio prozesuaren optimizazioan laguntzea, hondakin gutxiago sortzeko eta haiek gehiago birziklatzeko.

Kutsadura arriskuen eta prebentzio zein babes neurrien berri ematea.


San Antonio 15 Bergara • Tel.: 627 85 20 80 • raguirrebe@euskalnet.net



GAURKO BABESA, BIHARKO ARNASA.

Kutxa Bizitza Aseguru bat kontratatzen duzunean kezka asko alde batera uzten dituzu. Zatoz guregana eta ziurtatu zeuretzat eta etxekoentzat nahi duzun bizi-maila zeure neurrira egindako aseguru batekin.

KUTXA BIZITZA-ASEGURUAK.
Lasaibidea denontzat.



Biharko Vida y Pensiones, S.A.rekin kontratatutako Kutxa Bizitza-Asegurua. **Kutxa** da bere erregistroan 02 zk.az ageri den aseguru agentziaren sozietatea.

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

gure artekoak

FORD MONDEO > Oraindik ez dute ofizialki merkaturatu, baina dagoeneko ikusgai eta erosgai dugu Arrasateko Mugarri auto-kontzesionarioan. Aurreko modeloa baino itxura deportiboagoa eta dotoreagoa ditu.

Rafa Etxabe > Mugarriko arduraduna

"Teknologia berrienak dakartza Mondeo berriak"

AINZANE IRIZAR > BERGARA

Maiatzaren 23an egingo dute Ford Mondeo berriaren aurkezpen ofiziala, Txapeldunen Ligako finalerako partiduan. Mugarri, baina, dagoeneko ikusgai eta salgai dute.

Rafa Etxabek, Mugarriko arduradunak, hauxe esan digu: "Aurreko modeloarekin alderatuta, aldaketa erabatekoa izan da, izena da mantentzen duen bakarra. Diseinu deportiboagoa eta dotoreagoa ditu; tamainari dago-kionez, antzerakoa da".

Bost edo lau ateko modeloak eta wagon edo familiar erakoa ditugu aukeran.



Rafa Etxabe, Ford Mondeo berriaren ondoan.

A.I.

SEGURTASUNAREN GARRANTZIA

"Segurtasuna da automobil berriaren puntu indartsuenetakoa", diosku Etxabek. Batetik, segurtasun aktiboa dugu; automobilak ematen digun egonkortasunarekin, seguruago gidatu dugu, horrek dakarren erosotasunarekin; gainera, nekea txikiagoa izango da. Bestetik, segurtasun pasiboa dugu: esaterako, airbag guztiak ditu. "Badago beste aspektu bat askotan garrantzi handirik ematen ez zaiona; oinezkoen segurtasunari dagokiona. Automobilaren aurreko alde diseinatuta dago oinezko bat harrapatzekotan ahalik eta minik txikiena eragiteko.

Ambiente Tdci 143 ZP 5 ate

Prezioa	23.300 eurotik hasita
Luzera	4,75 metro
Zabalera	1,88 metro
Maletategia	550 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6,2 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	205 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	9,8 seg.
CO2 isurketak	151 g/km

- (1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepidekoa kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

Horretan, punta-puntako segurtasuna ematen du", azaldu digu Etxabek.

TEKNOLOGIA BERRIENAK

"Teknologia berrienak ditu Mondeo berriak", esan digu Etxabek. Bluetooth sistemarekin, gidariak ahotsaren bitartez kontrolatzen ditu CDa, irratia, aire girogailua eta poltsikoko telefonoa. Beste berrietasun bat da giltza barik atekak zabaltzea, itxi eta automobila martxan jartzeko aukera dugula. Azkenik, aipatzekoa da beste sistema berriak: erregai egokia bakarrik onartzen du.

etxeko leihotik



Eneko Azkarate > GOIENKARIAko zuzendaria

Bergarar handiak, hain ospetsu ez izan arren

Loli Etxeberria eta Pedro Egaña senar-emazte bergararrak Realeko zale finak dira: bazkide eta akziodunak. Hamabostean behin joaten dira Anoetara eta ahal duten bakoitzean kanpoko partiduetara ere bai. Joan zen asteburuan, esaterako, Tarragonan izan ziren, Nasticen aurkako partiduan. Handik ekarri didate *Diari Costa de Tarragona* egunkaria, domekan agertu zen artikulu bat dela-eta.

1971n Nasticen fitxatu zuen bergarar bat, Pablo Gallastegi. Oso estimatua eta gogoratua da Nasticen artean.

Artikuluak idatzi zuen kazetariak, Enric Pujolek, kontatzen duenez, "Gallastegi izan zen Tarragonako zaleei futbolarekiko ilusioa piztu ziena". 16 gol sartu zituen 30 partidutan eta hari esker lortu zuen bigarren mailara igotzea Nasticen. "Txikia zen, baina jauzi harrigarrikoa, eta buruz bikain errematatzen zuen. Oso ausarta zen, edozein atzelariarekin borrokatzen prest. Gainera, oso abila zen baloia hanketan". Kazetariak dioenez, Pablo Gallastegik dauka Nou Estadi futbol zelaiko lehen gol ofiziala sartu izanaren ohorea. 1972ko otsailaren 13an izan zen hori. 2004ko abenduan hil zen bergarar txiki handi hura.

"Bergarar batek sartu zuen Tarragonako Nou Estadiko lehen gol ofiziala"

> **Hauteskundeetara aurkeztu direnak ere handiak dira. Norberekoari begira bizi garenean, herriaren alde jarduteko prest dauden txaloez merezi dute; batzuei, gainera, asko kosta zaie zerrendak osatzea.**

> **Franco osteko bosgarren alkatea aukeratuko dugu Bergaran 27an. Eskatu nahi diot alor bakoitzean jakitun diren herritarrei (zinegotzi izan ez arren) galdetzeko egitasmo garrantzitsuak aurrera atera aurretik.**

begi-bistan



Zuhaixkak orrazten (Bergara) 2007/05/16

Argazkia: Aintzane Irizar.
Testua: Aintzane Irizar.

Bergarako lorezainak lorategi-tako zuhaixkak apaintzen ibili dira oraingo astean. Motozerra eskuan, zuhaixkei forma ematen harrapatu ditugu, Bergarako Irizar jauregiko lorategian.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Pedro Sevilla
KUPOI SALTZAILEA



Markel Irizar
TXIRRINDULARIA



Bittor Rodriguez
IRAKASLEA

Arrasateko Pedro Sevilla ONCEko kupoi saltzaileak 420.000 euro banatu zituen aurreko aste-ko egubakoitzean. 65.458 zenbakia izan zen saritua. BM supermatuaren ondoan eta Kontzezinon saldu zituen zenbaki horren 12 kupoi. Bakoitzak 35.000 euroko saria jaso du.

Danilo di Luca izan zen Giroko eguazte-ko etapako irabazlea. Hura protagonista bilakatu aurretik, baina, Markel Irizar egu-ko ihesaldiko protagonistetako bat izan zen, Brutt eta Krivtsovekin batera. 33. kilometroan ihes egin zuten eta azkeneko portuan harrapatu zituzten.

Ilatargi astronomia taldeak antolatuta, hitzaldi interesgarria egin zuen atzo Bittor Rodriguez bergararrak. *Unibertso osoa, guretzat?* zen hitzaldia- ren izenburua.

Horrez gain, estralurtarren gaia- ren gainean ere jar- dun zuten egueneko hitzaldian.

Begoña Aristi tolosarra Gipuzkoako EHNEko idazkari orokorra da 2003ko azaroa ezkeror, eta, aldi berean, Emakume Baserritarren Elkarteko (EBEL) kidea da. Atzo, eguena, Emakume Txokoak gonbidatuta, Arrasateko Kulturaten izan zen, Amelia Jauregiarekin batera hitzaldia egiten. Martitzenean, nekazarien patroia San Isidro egunez, hitz egin genuen Aristirekin.

Begoña Aristi > Gipuzkoako EHNEko idazkari orokorra eta EBELeko kidea

"Traiektu motzeko salmenta, baserrian produzitutakoa bertan saltzea behar da"

EDU MENDIBIL > BERGARA

Amelia Jauregi EBELeko kidearekin batera, *Baserriaren eta kalearen artean zubiak eraikiz* izenburuko hitzaldia egin zuen Begoña Aristik atzo Arrasaten. Emakume baserritarren problematika eta nekazaritza sektorearen etorkizuneko erronkak izan zituzten aztergai. Emakume baserritarrek isilean egiten duten lana behar den moduan errekonozitzea aldarrikatzen du Gipuzkoako EHNEko idazkariak.

Baserriaren eta kalearen artean zubiak eraiki beharra dago, beraz.

Bai, zalantzarik gabe. Orokorean ezjakintasun handia dago baserriarekiko. Herri ezberdinetan errealitate ezberdinak izango dira: herri txikietan gertuagokoa da harreman hori eta hiri handietan urruntasuna nabaria da... Dena dela, guk bizi dugun errealitate hori kaleratu beharra dago, kaletarrek gure arazoak berri izan dezaten. Azken baten, ez dira gure arazoak bakarrik. Gure arazo bihurtzen diren momentutik eta baserriak ixten diren momentutik kaletarrei ere ixten zaizkie ate batzuk. Baserri guztiak itxiko balira, gauza asko aldatuko lirarteke: elikadura aldetik, ingurumen aldetik, pasaiaren ikuspuntutik...

Eta nola eraiki behar dira zubi horiek, baserria eta kalea nola-bait lotzeko?

Denon artean lan handia egiteko daukagu. Urtetan hemen eraman izan den politikak ez digu balio izan, ez dagoelako bizi dugun egoerara egokituta. Esate baterako, gure orografia ikusita, beharrezkoa da traiektu motzeko salmentak sortzea, eta ez produkzioari lehentasuna ematea. Askotan, kalitateari erreparatu gabe produzitu izan da. Zirkulu motzetan egiteko moduko elikadura behar dugu, bertan egiten dena bertan kontsumitu ahal izateko.

Garai baten zeukan protagonismoa berreskuratzen ari da baserria pixkanaka?

Nahiko gainbeheran dagoela esango nuke. Nahiz eta gazte batzuk bagauden [barre], eta gaudenok gogoz aritu... egoera ez da ona. Momentu honetan lehen sektorea, baserria, ez da erakargarria lanbide moduan: hasteko, lan handia dago baserrian eta baldintza ekonomiko aldetik ez da erakargarria. Gazteek behar



Begoña Aristi Gipuzkoako EHNEko idazkari orokorra da 2003ko azaroa ezkeror. Atzo, eguena, Arrasateko Kulturaten hizlari izan genuen.

GOIENKARIA

ERRONKAK

"Dena handitu eta batzean gertutasuna galtzen da; eta gertutasunari eustea eta bide berriak eraikitzea beharrezkoa da"

POLITIKA

"Lehen sektorearen aldeko benetako apustua egin dezatela eskatzen diet alderdiei"

EMAKUMEAK

"Afektatzen gaituzten gaietan gure ikuspuntua eman nahi dugu emakume baserritarrok"

nean ziurtatzea... Baina zoritxarrez gainbeheran daude azokak, neurri handi batean ez delako egin benetako apustua azoken alde. Dena handitu eta batzean gertutasuna galtzen da. Eta gertutasunari eustea eta bide berriak eraikitzea beharrezkoa da.

Hauteskunde bezperatan gaudela eta, politikariek zer-nolako arreta eskaintzen diote baserriari?

Foru Aldunditik ez da benetako apusturik egiten. Beti pentsatu izan dut nekazaritza departamentuak baserritarren zerbitzura egon beharko lukeela, ez irauteko bakarrik, baizik eta baserritarren bizi kalitatea hobetzeko, prezio duina lortzeko... Horren aldeko apustua egin beharrean, kontrakoa egiten da. Landa Garapen Elkartetik iristen zaizkigun laguntzak eskasak dira. Hauteskunde atarian haxe eskatuko nieke alderdiei: lehen sektorearen aldeko benetako apustua egin dezatela.

Sektorearen problematika eta emakume baserritarrena bereizten al dira?

Sektorearen problematikak zuzenean afektatzen gaitu, baserriko langile garen aldetik. Horrez gain, emakume izateak berak dakarren problematika ere hor dago, gure langile izatera errekonozitua izatea nahi dugulako eta oraindik ere babes batzuk ez ditugulako segurtasun sozialari dagokionez, titulartasunaren gainekoak... Baserriaren titularrak gizonezkoak izan dira, eta, kotitularra emaztea edo bikotekidea izanik, eskubideak ez dira berdinak. Berdintasuna errekonozitzea aldarrikatzen dugu. EBEL sortutakoa, elkarrearen xedea hori zen: emakume baserritarrek elkarrekin gure arazoez hitz egiteko. Urtetan gizonezkoa izan da erabakiguneetan egon dena, eta, sektoreko parte garrantzitsua izanda, afektatzen gaituzten gaietan gure ikuspuntua eman nahi dugu.



zabalik

Joxe Ramon Elortza

Demokrazia ezean...

Madrildik jasotzen ari garen egurrak ez du izenik. Beno, bai, badu: *indarkeria*. Aspalditik, gainera. 1839. urtean foruak murrizten hasi zirenetik gaude horrela, gure esku-bide nazionalak behin eta berriro ukatzen zaizkigula.

Indarkeria hori berori da beste indarkeria guztien sortzailea. Herri bat zapaltzean sortzen den indarkeria, kasu. Hor dugu ETaren bortizkeria, tamalez. Tamalez diot, bortizkeria ezin baitzaio beste indarkeria batekin aurre egin. Injustizia, pobrezia, ezberdintasuna edota kolonialismoa onartzen ez dituen herriak ezin du indarkeria onartu, indarkeria bera edozein tokitik etorrira ere. Ezin du onartu, ezta ere, demokrazia, solidaritatea, ekologia eta abar luze bat defenditzen dituen herriak.

Azken urteotan Madrildik jasaten ari garena sekulakoa da: milaka herritarren eskubideak zapalduz antolatutako hauteskunde ez-demokratikoak, presoen egoera, euskarari egiten zaizkion erasoak, bermerik gabeko epaketak... Hemen, bakea lortzeko asmoz elkarriketatzea ere debekatzen da, baita lehendakariari ere. Erotze-koa benetan.

Elkarrizketa da zulo honetatik atera eta benetako **BAKEA** lortzeko bide bakarra. Bai, letra larriz idatzitako bakea. Eta akordioa. Euskal Herriaren borondatea eta giza eskubideak errespetatuko dituen akordioa. Zaila, baina irtenbide onena. Has gaitezen herriz herri pertsonen arteko elkarrizketa bultzatzen.

Eta ez dezagun ahaztu datozen egunotan izango ditugun hauteskundeak demokratikoak ez direla. Egoera horren erantzule PSOE eta PP bakarrik izanik, ezin ahaztu milaka eta milaka herritar gelditu direla nahi zuten botoa eman ezinik. Gogoan izan dezagula hauteskundeak pasa ondoren. Udaletan eta Batzar Nagusietan, batez ere.

"Bortizkeriari ezin zaio beste indarkeria batekin aurre egin"

"Ez dezagun ahaztu datozen hauteskundeak demokratikoak ez direla"

Goienkaria

Argiraratzaila Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarritzko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Marilú Unamuno.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

OID erakundeak ikuskatutako astekarria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jauriaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

herritarrak galdezka

HAUTESKUNDEEN GAI NEKO ZALANTZAK

Antzuolako irakurle batek dei egin du hauteskundeen gaineko zalantza batekin. Eta hauxe galdetu du: Zelan ematen da boto zuria?

Maiatzaren 27ko hauteskundeetako Mahaikideen Gidaliburuak jasotzen duenaren arabera, boto zuriak dira: batetik, barruan boto-orririk ez duten gutun-azalak, eta, bestetik, inongo hautagairik markatu ez diren boto-orrriak, 100 eta 250 biztanle bitarteko udalerrietarako eta kontzeju irekietarako hauteskundeetan.

Bestalde, boto baliogabeak dira: eredu ofizialekoak ez diren gutun-azal edo boto-orrrietan emandakoak (gogoan izan atzerrian bizi diren hautesleek boto-orrriak desberdinak direla); gutun-azalik gabeko boto-orrriak; barruan boto-orri bat baino gehiago dituzten boto-azalak, salbu eta boto-orri guztiak hautagaitzerrenda berekoak direnean (kasu horretan boto-orri horiek batera boto baliodun baten pareko izango dira); aldatuta dauden gutun-azaletan emandako boto-

ak eta hautagaien izenak aldatu, gehitu, markatu, ezabatu edo ordenaz aldatu diren edo beste-lako aldaketak egin zizkien boto-orrriak.

Horrekin batera, azpimarra edo markaren bat egon arren, boto-orrrian emandako botoa balioduna izango da, baldin eta marka hori inongo hautagairik baztertu, aldatu edo ezabatzeko asmorik gabe egin bada eta hautagaien hurrenkera aldarazten ez badu.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

Bestalde, baliogabeak izango dira, baita ere, lau hautagai baino gehiago markatuta dituzten boto-orrriak, 100 eta 250 biztanle arteko udalerrietan, udal hauteskundeek kasuan. Izen bat, bi edo hiru markatuta dituztenak, aldiz, baliodunak dira.

MEZA EGITEN HASI DIRA URBIAKO ERMITAN

Irakurle batek galdetu digu aste honetan ea Urbiako ermitan dagoeneko hasi diren meza egiten. Baiezkoan dago hura, baina hori ziurtatu nahi izan du.

Bada, bai. Dagoeneko entzun daiteke meza Urbiako ermitan. Maiatzaren 6an ekin zioten. Hala, domekero, Domu Santu egunera arte entzun ahalko da meza han. 11:30ean izango da eta Arantzazuko Aita Joseba Etxeberria frantziskotarrak zuzenduko du elizkizuna. Domekez gain, San Inazio eta abuztu-ko Andre Mari egunez ere izango da meza. 1924an inauguratu zuten ermita eta ordutik hona mantendu izan da domeketan meza emateko ohitura.

marrakiz

Alex Ugalde



Aspalditik, nire alderdiari botoa ematea oso erraza gertatzen zait

Hauteskunde egunean goiz altxa, dutxa hartu lasai...

Eta gosaria prestatu bitartean botoa emateko esku-bidea erabili

To Malatesta!

Markos Zapiain

www.eibar.org/blogak/zapiain

Errepikatzen digute arazoei buruz hitz egiteak arazoak konpontzeko orduan gehiago laguntzen duela isiltzeak baino, komunikazioa eta kontsentsua lantzen dizkigute: Habermasen zaleen eta psikologo askoren eraso orokorraren aldeetako bat da. Ordea, alemaniarrek dioten bezala, mintzatzea zilarra da, baina isiltzea urre. Bikotearekin bizitzeko orduan

bestearen mugak ezagutzea, eta norberarenak, ez da erabaki, itun edo solas baten ondorio izaten, baizik eskarmentuarena.

Etengabe komunikatu beharrak arazo artifizialak asmatu eta puzea dakar, sarritan ez baitago komunikatzeko gauza handirik.

Komunikazioak baino gehiago laguntzen du bikoteki-dearen sekretuenganako begiruneak.

Gure artisten artean bikotekideen arteko komunikazioa eta inkomunikazioa ausardia eta zehaztasun handienaz aztertu duena

Ramon Saizarbitoria idazlea da, bereziki *Hamaika pauso*, *Bihotz bi* eta *Gorde nazazu lurpean* liburuetan.

Garrantzia handia ematen dio egiaren adierazpenari. Zenbaitetan protagonistak sentituko du bikotekideari egia garaiz esan ez izanak usteldu duela harremana.

Beste batzuetan, berriz, egia desorduan edo lekuz kanpo esateak dakar hondamendia.

(...) Saizarbitoriak dioenez, "idealizatu ohi da egia, eta batzuetan ez da errepide ertzean lehertutako arratoi bat baino".

plazara

Euskal curriculumaz dihardu Jose- rra Zubizarretak. Ikastolak egi- tasmu hori eraikitzen hasi zire- netik gaur egunera arteko ibil- bidearen berri ematen du. Orain hirugarren urratsean daudela dio. Urrats horren helburu nagusia da derrigorrezko irakaskun- tza aldirako (16 urte), komun eta oinarrizkotzat jotzen den euskal curriculum espezifikokoaren hau- taketa egitea.

Joserra Zubizarreta *

Konpetentzietan oinarritutako irakaskuntza?

Euskal curriculumaren egi- tasmua eraikitzen bultzatzen gaituen gogo bikoitza da. Euskal kultur ondarearen oinarriko adierazpenen aukera egiten dugun neurrian Euskal Herria eraikitzen eta hemengo hizkuntza eta kultur komunitatea eratzeko, gorpuzteko, sendotzeko eta gartzeko bideak eraikitzen ditugu. Halaber, kultur ondare hori Euskal Herriko eskoletako ikasleek barneratzen eta konpartitzen duten neurrian, guztiok elkarrekin bizitzeko sustrai komunak sortuko ditugu. Erreferentzia komunak konpartitzeak eta horrek eragiten duen gutasun-sentimenduak elkarrekin bizitzeko gogo pizten du. Baina, aurrekoarekin batera, egitasmo honek badu beste gogo osagarri bat: hizkuntza eta kultura anitzeko gure komunitatean, guztiok bateratzen gaituen kultur ondarearekin batera, aniztasunaren eta kulturartekotasunaren planteamendua guztiz beharrezkoa dela aitortzea eta bide horretatik ekitea.

Beharrak eraginda bidea hasi ziren ikastolek euren III. Batzarrean (1996). Berehala jabetu ziren gaiaren hedadura ikastolaren esparrua baino zabalagoa zela, eta kezka berdineko bidelagunak elkarrekin joan ziren eta lan taldea osatzen: Udalbiltza, Sortzen-Ikasbatuaz, Kristau Eskola, Hezkuntza Saila.

Lehen urratsa, *Euskal Curriculum: kultur ibilbidea. Adituen ekarpena* (2004) izenburuko lana plazaratu zen. Lan honen hartzaileak ez dira mugatzen eskolaren esparrura, bizitza osora zabaltzen baizik.

Bigarren urratsa, *Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum. Oinarrizko txostena* (2005) eta



MIKEL ARROIABE

Derrigorrezko eskolaldirako Euskal Curriculum. Baloratzeko eta hobetzeko proposamena (2006) plazaratzea izan zen. Lanok oinarrizko hezkuntzari begira egin ziren. Proposamena 2006an ebaluatu eta emaitzak eta hobetzeko proposamenak 2007an eman dira jakitera. Ebaluazio horretan, Euskal Herri osoko eta hezkuntza sare guztietako partaidetza zabalak, eta zenbait gizar- te eragileek ere parte hartu zuten.

Jasotako balorazioa, oro har, oso ona izan da eta onarpen zabalak jaso duten proposamenen artean, hezkuntza konpetentzia orokorren planteamendua azpimarratuko genuke bereziki. Oinarrizko Hezkuntzaren xede nagusia bizitzarako prestatzea da eta bizitza

"Erreferentzia komunak konpartitzeak eta horrek eragiten duen gutasun-sentimenduak elkarrekin bizitzeko gogo pizten du"

osorako prestatuta egoteko garrantzi handia dute ondorengo hezkuntza konpetentzia orokorrek: pentsatzen eta ikasten ikasi, komunikatzen ikasi, elkarrekin bizitzeko ikasi, norbera izaten ikasi eta egiten eta ekiten ikasi. Konpetentzietan oinarritutako curriculum, aukera paregabea izan daiteke Oinarrizko Hezkuntzaren zen-

tza aztertzeke, irakasleen rola hezitzaile gisa aztertzeke, gizar- te eta hezkuntza-komunitatera irekiago dagoen ikastola-eredua proposatzeko, ebaluazio-sistema partehartzaileagoa planteatzeko, eta interakziora eta testuinguru irekiago dagoen ikaskuntza-ikus- pegia mahai-gaineratzeko.

Bideak jarraitzen du ordea, egitasmoaren fase programatikoa bukatzeko hirugarren urratsa ematea falta baita. Urrats horren helburu nagusia, derrigorrezko irakaskuntza aldirako (16 urte), komun eta oinarrizkotzat jotzen den euskal curriculum espezifikokoaren hautaketa egitea izango da. Galdera bati erantzun nahi diogu: nahiz eta bi Estatu eta hiru Administrazioen eraginpean bizi, euskal kulturari dagokionez, zer daukagu eta batez ere zer eduki nahi dugu elkarrekin Euskal Herrian bizi garenok? Proposamena ezta baidan jarriko da, baina kasu honetan erabakiak hartzeko. Horrekin bat egiten duten ikastetxeek konpromisoa hartu beharko dute indarrean jartzeko eta ebaluatzeko.

Hori prestatzen diharduten bitartean ahalegintzen ari dira Euskal Herri osorako egin eta ebaluatu den proposamena eta Hezkuntza Sailari EAEko esparrurako egitea dagokion curriculum ofiziala, biak uztartzen. Euskal curriculumaren egitasmoa sendotzeko pauso garrantzitsua litzateke.

Bidea luzea izan da, ekaitzak eta barealdiak egon dira eta egongo dira aurrerantz ere, asko baitago oraindik egiteko.

*Joserra Zubizarreta, Arizmendi ikastolako kide

zer deritzozu?

www.goiena.net

Zilegi deritzozu Jon Agirreren egoerari?

BAI	%0
EZ	%100

> INONDIK INORA

Ez dut uste bidezkoa denik Jon Agirrerekin egiten ari direna. Zigorraren hiru laurdenak beteta baldin baditu kalean beharko luke. Legeak interesen arabera egiten direla argi dago. Jon Agirre etxera!

Miren

> ETXERA, ORAIN!

Nola izango da, ba zilegi? Zigorraren hiru laurdenak beteta izateaz gain, gaixorik dago, hainbat ebakuntza egin dizkiote eta nik uste nuen Kode Penalaren 92. artikulua arabera Agirre bezala gaixotasun sendaezinak dituztenak kartzelatik atera egin behar zituztela.

Aitor

> EZ

Ez dago eskubiderik. Nahi dutena egiten dute. Nondik atera dute Parot Doktrina? Garbi dago batzuen interesen arabera aldatzen dela legedia hemen.

Jon Agirre etxera, orain!

Ainara

DATORREN ASTEKOA: Reala mailaz jaitsiko dela uste duzu?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

Lurrean ere ez

Pello Urzelai

www.berria.info/blogak/pello

EAJko zuzendaritzak "eszenatoki txarrena" aurreikusitako du eta azkenaldian horri begira lanean ari da. Madrilen. Egoera "ezin txar- rago" hori (ETAren atentatuen itzulera, jeltzaleen ikuspuntutik) etortzea eragoztearen alde lan egin beharrean, egoera horretatik nola babestu irudi luke kezka nagusia. Josu Jon Imazen hainbat adierazpen eta zenbait informazio kontuan harturik.

Ajuria Eneko Itunaren antzeko zerbait ei dago mahai gainean.

Garrantzi berezia ematen dio EAJk ETArekin ez negoziatzeari. Baina "arazoa" konpondu nahi bada, negoziatu behar- ko da, gutxienez konponbide prozesuaren eredu eta baldintzak. Barajasekoaren aurretik egin zen bezala. EAJren www.eginbehardugu.com kanpainaren lelo edo esaldi deigarrietako bat honako hau da: "Mahaia arazoa bada, eser gaitzen lurrean". Esaldi horrek adierazten duen jarreratik urruti dabil EAJ. Ez du eseri nahi, ezta lurrean ere. Bederen, ezker abertzalearekin.

Irakurketa areagotu

Joxe Arantzabal

www.goiena.net/blogak/faroa

Askotan kontrajartzen dira Internet eta liburuak, Internet eta egunkariak, Internet eta irakurketa. Denak ez datoz bat konparazio horrekin, adibidez, Jason Calacanis, Interneteko enpresari ezaguna. *La Vanguardiak* egindako elkarrizketan zioen: "Internetek lortu du denok irakur eta idatz dezagun sekula baino gehiago".

koplak

Lierni Altuna

Jon Agirre askatu!

Azpiko atxilotu zutela hogetasei urte dira, baina bere ta gure borroka ez du galdu ez disdira.

Hogetasei urte eman ditu dispertsatuta luzaro, gaur egun Langraitzen egon arren, gaixorik ta larri dago.

Hainbat txapeo, tortura eta eskubide urraketa, oraindik borrokan jarraitzen du indarrez tope beteta.

Bera eta guztion borroka eskubide eske gabiltza, Euskal Herriak zilegi du ta erabakitzeke hitza!

Aurreko astean, ostiralean, Aramaixon manifa zen, bertan Azpiko-n etxeratzea aldarrikatu zen ozen.

Baina han agertu zen, beti lez, ordena jartzen Ertxantxa, egun aldarrikatzea ez da Aramaixon ere txantxa.

Aramaio 1977-2007

Jon Andoni Axpe
Aramaio

1977ko Urteberri egunean Guardia Zibilak Teilamendiko gurutzeta dinamitatu eta lurrera botatzearren desadostasuna erakusteko egin zen manifestazioaren kontra botatuko tiro bakarretik 30 urte luze pasatu dira ostiral arratsaldera arte, Ibarretxeren gizon beltz armatuek legez kalean egon beharko lukeen Jon Agirre Agiriano presoaren egoera aldarrikatzen zuen manifestazioa kale erdian arnez oztopatu zuten arte. Bitarte luze horretan herrian egindako enkartelada, bilkura eta manifestazio guztiak bake santuan egin dira, inolako mehatxurik gabe.

Mende laurden dela arratsalde ilun hartako manifestazioan parte hartu genuen oroitzapenean geratu zen urteak joan eta urteak etorri tiro hots lehorrak utzi zuen oihartzuna; harrezkero txotxo baino harroago sentitu izan gara egun haietan ikurrinaren legalizazioari eman genion bultzakadarekin, harro manifestazio hartan parte hartuta egosten ari zen prozesu berriari gure ekarpena egiten ari ginelako, injustiziarren aurrean beldurrik gabe ausardiaz jokatu genuelako herri moduan eta etorkizunean zetorrena aurreikusita, benetako beldurra sentiarazi genielako Bañerako kuartelaren ezkutaturik zeuden Gobernadore Zibilaren gizon armatuei eta, nola ez, etxean ate ostean eta zirrikituetatik begira geratu ziren bat edo beste frankistari.

Marina D'or Aretxabaletan?

Mikel Errasti > Aretxabaleta

Ez dakit jendearen artean nolako oihartzuna izango zuen, baina orain dela denboratxo bat, Urkulun egitekoa zen mega-hiria gelditu egin zen proiektatzeko orduan. Kontua da asmoa ez zela txantxetako. Milaka etxebizitza familiabakarrekoak, Urkuluren pareko beste urtegi bat, golf zelaiak eta horien inguruko lanak.

Berez eraikitzeak denak inguruko pertsonen onura ekonomikoa eta bizi kalitatea sortu ezker, ez daukat horren aurka egotarik. Gertatzen dena da, proiektu honen atzetik betiko interesatuek poltsikoak gehiago betetzeko baino ez lukeela balioko.

Proiektua aurrera irtengo balitz, gutxiengo talde aberats elitista batengandik, biotopo aberats bat galdu, baserritarak beraien bizimodurako traba gehiago jaso eta herritarak aisialdirako toki bat galtzeaz gain, gure zergekin ordaindu beharko genukeela.

Ez naiz aditua halako gaietan, baina beldur apur bat sortzen dit, hain demokratek diren politikoak, ustekabeak eta aurrez kontsultarik egin gabe, ez duten aurrera aterako proiektu zentzugabe hau.

Agian, orain beste *txantxullo* batzuetan izango dituzte hatzaparrak eta ez zaie interesatuko aurrera egitea. Baina Itoitzekin, Boroarekin, Abiadura Handiko Trenarekin eta beste askorekin bezala, hau ere helduko zaigu.

Bukatzeko, eta honen inguruan dagoen gaurko egoeraren jakin gura nahiaz aparte, zera:

Udal hauteskundeak gainean ditugula kontuan hartuz, honako deia Arrasate eta Aretxabaletako politikoei: botoa eskatzeko orduan, argi eta garbi erakuts dezatela gai honen inguruan daukaten jarrera (hitzez zein ekintzez).

Post data: ez dut ulertzen Marbellara begiratu, haserretu eta gero hemen ezer gertatuko ez balitz bezala ibiltzen den jendea. Lehenengo etxeko trapu zikinak garbitu beharrean, kanpokoei begira.

Hogeita hamar urte beranduago legez libre egon beharko lukeen gizon baten alde, bere osasuna kartzelan galdu arren duintasunez etxeratzea eskatzen duen arren bizitza osorako zigorra luzatu dioten herriko seme baten eskubideak aldarrikatzen ari ginenean, herriko kale batean geldiarazi gintuzten PNVren aginduetara

dauden gizon-emakume beltz armatuek.

Ez dut inolako zalantzarik ere gertatutakoa, orain dela hogeita hamar urtekoan bezalaxe, manifestazioan parte hartu eta parte hartu gabe ere manifestazioari segika zihozten ume eta gazteen oroitzapenean geldituko dela betiko, orduan moduan norbaiten

interesei jarraituz arnez oztopatu nahi izan dutelako gure herri osoaren aldarria. Ez dut inolako zalantzarik manifestazio baketsu honetan parte hartzen ari ginen guztiok egosten ari den prozesuari gure ekarpen txikia ematen ari garela. Era berean, 1977ko autoritateek moduan gaur egungo PNVko agintariek atetean dagoen benetako demokraziari dioten beldurra anestesiatuta arrazoien indarra erakutsi beharrean, bigarren aldiz gure historia txikian armenia erakutsi digute.

Eskerrak Pesa-ri eta Lurraldebus-i

Julia Garcia Moreno
Oñati

Beste igande askotan bezala, duela bi aste ere Oñatin autobusa hartu eta Aretxabaletara joan nintzen hango lagun bat bisitatzera, eta bide batez arratsaldea nire herritik kanpo pasatzera. Gorpildun aulki batean dabilen pertsona bat naiz, eta igande hartan, beste batzuetan ez bezala, ez nuen batere arazorik izan Aretxabaletara heltzeko (behin baino gehiagotan utzi bainau Pesa/Lurraldebus Arrasaten). Baina arazoa Aretxabaletatik Oñatira bueltatzerakoan hasi zen. Aretxabaleta-Arrasate bidea egiten duen autobusa berandu iritsi zen, Arrasaten hartu behar nuen autobusa gu heldu baino 10 minutu lehenago joana zelarrik. Ez arduratzeko esan zidaten, hurrengo zeterren autobusa ere (ordubete

beranduago), ezinduentzako egokitua zela-eta. Ez nintzen oso ondo sentitu, baina ezer gutxi nekien oraindik pairatu beharko nuenaz! Ordubete itxaron ondoren, autobusa heldu zen, eta ez zen egokituetakoa. Gidariari azaldu nion gertatutakoa, eta kasik neu jarri ninduen guzti haren erruduntzat! Azkenik, bidaiariari eskatu behar izan nien laguntza autobusera igotzeko, eta lau gazte izan ezik, beste inor ez zen bere tokitik mugitu (eskerrik beroenak, bihotz-bihotzez, lagundu ninduzue-noi). Are gehiago, mugitu ez zirenetako asko protestan hasi zitzaizkidan egoerak sortzen hasia zen atzerapenagatik... Autobusera igotzeko erabiltzen diren eskaileratan eseri ninduten, eta bidaiaria osoan neu heltzen etorri behar izan ziren, nire zangoek ez bainaute eusten. Bidaiaria erabat iraingarria eta lotsagarria izan zen!

Kontatu dudana hau nik eta nik bezala ezintasunen bat dugun pertsonok askotan bizi izaten ditugun egoeren adibide bat besterik ez da. Utzi dezagun alde batera hipokresia, eta onar dezagun aurreiritziz eta burmuin geldoez betetako gizarte batean bizi garela (norainoko mina eta samina sortzen duten ulertzen ez duten burmuinak). Bukatzeko, Pesa / Lurraldebusi eskerrak eman nahi dizkiot biziarazten dizkigun une "ahaztezinengatik", eta ezinduok beste edozein pertsona bezala mugi ezin gaitezen egiten duen ahaleginagatik. Kontuan izan kontatu dudana 20 kilometroren barruan gertatzen dela (Oñati-Aretxabaleta). Izan ere, guretzat Donostiara, Bilbora edo Gasteizera mugitzea pentsaezina izateaz gain, ezinezkoa baita.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com



Julen Iriondo

Goiatz Arana

HAUTESKUNDEAK GOITBn

HERRIEN GAINEKO SAIO BEREZIAK:

Maiatzak 18, egubakoitza: Eskoriatza.
Maiatzak 21, astelehena: Aretxabaleta.
Maiatzak 23, eguaztena: Oñati.
Maiatzak 24, eguena: Bergara.
Maiatzak 25, egubakoitza: Arrasate.

BATZAR NAGUSIEN GAINEKO BEREZIA:

Maiatzak 22, martitzena: Markel Olano (EAJ),
Antton Gomez (EAE-ANV), Iñaki Galdos (EA)
eta Rebeka Ubera (Aralar/EB-Berdeak).
Julen Iriondok aurkeztuta.

HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK:

Maiatzak 27, domeka, Goiatz Aranak
eta Julen Iriondok aurkeztuta.

Saio guztiak: 21:45ean,
hauteskunde eguneko izan ezik: 20:00

Gipuzkoa bizia

langilea

zintzoa

leiala

jatorra

euskalduna

berritzailea


BOZKATU EA!!



**eusko
alkartasuna**

Iñaki Galdos

Diputatu Nagusirako hautagaia





Zure nahiak eta ahalmenak gertutik landu eta garatu nahi dituzu ?

Etorkizunerako prestakuntza eguneratua jaso nahi duzu ?

Bi urte barru zure inguruko enpresa batean lan egin nahi duzu ?

Bidal ezazu SMSa imaltuna hitzarekin 5533ra eta hori egia bihurtzeko informazio guztia zure mugikorrean izango duzu.

Horretaz gain hori egitean, lau **SMStako bonoa** nahi diozunari bidaltzeko **oparitutako** dizkizugu.

AURREMATRIKULA DATA: Ekainaren 1etik 7ra.

GLHBI Miguel Altuna
Ibargarai, 1. 20570 Bergara
Tfnoa.: 943 76 38 40/943 76 24 91
www.imaltuna.com
e-mail: imaltuna@sarenet.es

 EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

* Zure mugikorrek GPRS aktibaturik izan behar du, zenbaki bakoitzak behin bakarrik parte hartuko du eta sustapenaren muga 5.000 SMS izango dira.

MULTIOPTICAS

Betaurreko progresiboak
isla-kontrako lenteekin **149 €**



Diseinuko betaurreko progresiboak

COOL bilduma, MultiOpticas-en eskusiban

Eskaintza hau 07/05/07tik 07/06/30era arte izango da. Cool, Cool + eta Fashion Pro markako armazoi selekzio bat eta 2 lente progresibo Multifoko E 1.5 AR Basic, zil: +2 esfera +4 -6ra; add: +3 hartzen ditu barne.

Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **BERGARA**
Musika Eskolako 500 ikasle inguruk kontzertua egingo dute domekan > 26



> **ARETXABALETA**
Igoera fasea jokatzeko hasiko da bihar, zapatua, UDA taldea > 32



> **ELGETA**
Asentzio Eguna domekan ospatzeko guztia dute gertu > 37



ARAMAIO
AHTren kontrako taldeak ezezko botoa eskatu du galdeketerako > 38

DEBAGOIENA > EUSKARAREN EGOERA UDALETAN

Ibarreko udal guztietako jardunean euskararak zaintza berezia dauka

Hiru udalek dute udal ordenantza; gainerakoek irizpide, arau edo konpromisoa dute euskararekiko

UBANE MADERA > BERGARA

Azkenaldian, euskararen erabilera neurtzen ibili da zenbait udalerritan, besteak beste, Euskararen Aldeko Kontseilua. Hark eta euskararen aldeko bestelako elkarte batzuek gure udalek euskararen erabilera arautzeko udal ordenantzarik baduten edo ez aztertu dute. Eta udal gehienetan gabezia hori dagoela konfirmatu eta euskararen normalizazioaren bidean "akatsen" artean sartu dute.

Eta horrela da. Aretxabaleta, Antzuola eta Oñatiko udalek bakarrik dute euskararen gaineko udal ordenantza.

Hori horrela izan arren, esan beharra dago ibarreko udal guztietan dagoela zela edo hala araututa euskararen erabilera. Eta araututa ez egon arren, badituztela irizpide batzuk zehaztuta euskarari lehentasuna emateko.

GUZTIA EUSKARAZ SORTU

Egoera udalez udal aztertu guran, udaletako euskara arduradunekin izan da GOIENKARIA.

Hala, Oñatiko eta Aramaioko udalek zaintzen dute gehien euskara. Oñatin, udal batzordeetan,

esaterako, %100 egiten dute euskaraz, ahoz eta idatziz. Aramaion, berriz, %95, kasu bietan.

Gainera, kopuruak berez esanguratsuak diren arren, azpimarragarriena da bi udaletan euskaraz sortzen dutela guztia. "Teknikariek txostenak sortu egin behar dituzte euskaraz, eta, norbaitek elebitan eskatuz gero, orduan itzuli egiten dugu espainolera. Sortzen den *paper* guztia euskaraz sortzen da". Hala kontatu dute bai Aramaion eta baita Oñatin ere. "Eta herritarrekin komunikatzeko orduan, lehenengo berba esaten dugu beti euskaraz. Are gehiago, badator eskaera bat egitera eta espainolez egiten badu, harrera egiten dion teknikariak eskaera zuzenean euskaraz jasoko du", gaineratu dute Aramaioitik.

ARRASATE ETA BERGARA

Bestelako udalei dagokionez, Arrasatetik azaldu dute han ez dutela euskararen ordenantzarik, "baina irizpideak jarrita bai. Gainera, datuen arabera, erabilera ez da horren txikia: ahoz %60 euskaraz egiten dute batzordeetan, eta idatziz, %44".



BERGARA Langileen %84 dira euskaldunak; argazkian, Bergarako Euskara Saila. u.m.

Bergarari begiratzen badiogu, berriz, jakinarazi dute han ere ez dutela ordenantzarik udalean, baina bai hizkuntzaren gaineko irizpide orokorrak, "ordenantza baten gisakoak, nahiz eta ez izan kategoriatik hori". Eta Bergarako datuak ez dira batera makalak. %97 da idatzizko erabilera udal batzordeetan eta %90 ahozkoa.

ARETXABALETA ETA ESKORIATZA

Aretxabaletan badute udal ordenantza, "baina aspaldikoa da eta zaharkituta dago. Berria egin beharra dago. Hala ere, gauza batzuetan egiten zaio kasu, eta %100ean egingo balitzaio, gaur egun ere, balioko luke". Erabilerrari dagokionez, idatziz %80 egiten dute euskaraz, eta ahoz, %60.

Eskoriatzan, berriz, barne araudia dute euskararen erabilera arautzeko, hori bai, ordenantza maila bakoia. Datuei begiratu, idatzi, %61 idatzen dute euskaraz eta berba egin, berriz, %60.

Bukatzeke, herri txikien kasuan, Antzuolan "ordenantza badago, baina antzinakoa. Dena den, zenbait kasutan aplikatzen da. Bestalde, baditugu hizkuntza irizpideak onartuta, UEMAtik bidaratutakoak. Hori bai, betetze mailari dagokionez, batzorde bakoitzak bere airera ibiltzen da".

Gatzagan ez dute ordenantzarik, eta idatzitako beste araudirik ere ez, baina zaintzen dute euskara: "Idatzi, iragarki eta bestelakoak elebitan egiten dira eta eskaera bat euskaraz jasotzen badugu, ahalegintzen gara euskaraz erantzuten. Jakina, bereziki, euskaraz eskatu dutenekin, euskaraz egiten dugu. Eta zinegotzi eta langile guztiak euskaldunak gara. Euskararekin badugu konpromisoa".

Eta Elgetako kasua antzerakoa da, araudi bakoia, "baina gauza asko egiten dira euskaraz; batzurrak, adibidez, guztiak jasotzen dira euskaraz Hirigintzakoak salbu. Kartelak, gutunak... euskaraz bakarrik edo elebitan egiten dira". Datuei begiratu, idatziz %100 da euskaraz, eta ahoz, %84.

Alderdi politikoekin hitz egin du Bergarako Berbak, udal ordenantzak garatzeko

Begarako Berba elkarteak, Bergarako Euskaltzaleon Bilguneak, pauso garrantzitsuz jotzen du euskararen udal ordenantzak egitea euskararen normalizaziorako. "Hainbat herritarrek hartu dute konpromisoa euskaraz bizitzeko, baina konpromisoa Udalera iristea ere nahi dugu", esan du Amagoia Ariztegik, Berbako kideak.

Horregatik, herriko alderdi politikoz guztiekin jarri dira harremanetan, galdetzeko eurek zer egingo duten datozen lau urteetan gai horren inguruan. "Alderdi gehienek agertu dute borondatea euskal ordenantzak garatzeko. PPK ez digu eran-

tzun eta PSE-EE alderdiak esan digu ez duela guztiz bat egiten proposatutakoarekin eta momentuz ez duela aurrera egingo. Gainerako guztiak esan digute baietz, ordenantza horiek garatzeko ahalegina eta lana egingo dutela datozen lau urteetan", azaldu du Berbako Iñigo Arregik.

Hauexek dira Berbak alderdi politikoei egindako eskaeraren helburuak: Bergarako hizkuntza ofiziala euskara dela berrestea; administrazioan, kalean eta herriko gunetan euskara erabiltzea; euskarari lehentasuneko tratamendua ematea beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko eta herritarren

hizkuntza-eskubideak errespetatzea Udalarekin erlazioatutako harremanetan.

Berbak egindako azterketen arabera, herri euskalduna da Bergara: herritarren %70ek dakite euskaraz eta %14k ulertzen dute. "Euskararen udal ordenantzekin, aurrerapauso kualitatiboa emango dugu normalizazioaren bidean, eta, horretarako, Udalaren txanda da orain. Saiatuko gara ordenantza horiek Udalarekin, herritarrekin eta alderdi politikoekin gauzatzen. Horretarako, eredu batzuk hartuko ditugu eta horiek oinarri hartuta garatuko ditugu", azaldu du Berbako Jon Unamunok.

Alderdien erantzuna ikusita, Berbak uste du posible dela datozen lau urteetan euskararen udal ordenantzak egitea.



Martitzenean eman zuen asmoaren berri Berbak, kultura etxean. o.e.

kale inkesta

Jaiak prestatzen hasi dira. Zerbait aldatuko zenuke?



Gloria Barredo
Langilea
Elgeta



Juan Mari Otxoa
Langilea
Elgeta



Mikel Arantzeta
Langilea
Elgeta



Josu de Vega
Langilea
Elgeta



Iratxe Belar
Langilea
Elgeta

Jaietako ekitaldi guztiak ditut gustuko, eta, ahal izanez gero, guztietara joaten naiz. Dantzaldiek behera egin dutela iruditzen zait. Zerbait egin beharko litzateke ekimen horietan parte-hartzea bultzatzeko.

Aspalditik ez dago ezkonagai eta ezkonduen arteko futbol partidurik. Bestalde, sokamuturra gustuko dut. Lehen sartzen nintzen, baina orain zahartuta nago. Mozorroak, azoka eta umeen eguna ere ondo daude.

Beti dago zerbait aldatzeko. Egitaraua ondo dago, baina ekimenetan jende gutxi parte hartzen du. Plazako dantzaldia adibide moduan jar daiteke. Niretzako egun nagusien egun gaua da.

Danborradarik aurten ez da egongo. Hori egon ezetan, ekitaldi nagusia falta da. Ekimen herrikoiak ere falta dira. Bestalde, antolakuntzan jende gutxi dago eta Udalaren aurrekontua mugatua da beti.

Zezenek behera egin dutela iruditzen zait, eta, beraz, hori bultzatzea ondo legoke. Lehen egiten zen umeen dantzaldia ere berreskuratu beharko litzateke. Ekimenetara joatea, bestalde, gustuko dut.

5 galdera...

Itziar Martinez Apellaniz

Gizarteratze eta Enpleguko zuzendari nagusia

1. Zirkinka programa ez da oso ezaguna gurean. Zertan datza zehazki?

Gipuzkoako lurralde historikoan biztanleria aktiboa handitzeko helburuarekin, lan mundutik kanpo dauden pertsonen zuzendutako proiektua da. Jendea lanerako motibatu eta haren baliabideak indartzeko asmotan jarri zen martxan. Foru Aldundiko Gizarteratze eta Enpleguko Zuzendariaren babesa eta finantzaketa du eta Lan Fondoak kudeatzen du.

2. Nori dago zuzenduta, bereziki, programa hori?

Langabezian dagoen edonori, Gipuzkoan bizi direnei eta, batez ere, emakumezkoen, lan merkatuan sartzeko oztopo gehiago dituztelako.

3. Nola zuzentzen zarete jendearengana eta nola lortzen duzue haien arreta eskuratzea?

Metodologia berria aplikatzen da. Kale ikuskatzaileen bidez lortzen da jendearengana hurbiltzea. Kaletik, merkataritza zentroetatik eta bestelako tokietatik ibiltzen dira haiek. Behin pertsonaren arreta piztu ondoren, taldeak osatzen dira tailerrak antolatzeko. Ondoren, Txekinbide eta Merkataritzan bezalako programekin osa daiteke prestakuntza, lana lortu aurretik.

4. Hiru urte daramatza egitasmoak martxan. Zer moduzko emaitzak lortu dira Debagoienean?

Debagoienean ez da garatu oraindik. Hala ere, hasieran ere esperimendu txiki bat egin zen bailara horretan. Gipuzkoako beste udalerrri batzuetan, langabezia maila handiagoa denez, horietan saiatu gara, eta, emaitzekin gustura gaudenez, Gipuzkoa osora zabaltzeko asmoa dugu.

5. Egitasmoa ibarrean garatzeko asmoa duzue orduan?

Hala da. Hurrengo deialdirako Debagoienean sakonean sartzeko asmoa dugu. Norbaitek informazioa eskuratu nahiko balu, 943 34 41 22 telefonora dei dezake.



txistuak



JON UNAMUNO

Santa Anako jarlekuak apurtuta daude



Bergarako Santa Ana parkeko eserlekuak egoera txarrean daudela jakinarazi digu Jon Unamunok. Errotalde jauregi ondoan dauden biak apurtuta daudela eta ondo dagoen bakarra urrunago dagoela dio. Ahalik eta bizkorren konpon ditzatela eskatu du.

asteko datua

15.000

Bergarako Tokiko Gobernu Batzordeak hilaren 27an izango diren udal hauteskundee-tan botoa eman ahal izateko txartelak onartu ditu. Hautagaitza bakoitzean 15.000 ale prestatuko dira, 129,05 eurotan. Udalak 48,28 euroko laguntza jasoko du Espainiako Estatuaren eskutik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

ZERBITZUAK > UDAL EUSKALTEGIA

Eraikin berri eta bakarra eskatu dute Udal Euskaltegiarendako

Gaur egun bi eraikinetan dago banatuta Udal Euskaltegia eta uste dute egokiagoa dela eraikin bakarra izatea

UBANE MADERA > ARRASATE

Udal Euskaltegiak idatzia aurkeztu du, dituen gabezien berri eman eta gabezia horiendako konponbideak proposatzeko.

Udal Euskaltegiako arduradunek, oro har, adierazi diote Udalari egokiena litzatekeela euskaltegiarendako eraikin bakarra izatea; eta ez orain dagoen moduan, euskaltegia bi eraikinetan banatuta, Arimazubi plazan bata eta Loramendi kalean bestea.

IRISGARRITASUNA

Bestelako gabezien berri ere eman dute; esaterako, irakasleen gelaren egoeraren gainean, besteak beste, diote: "Gauza batzuk kartoizko kaxetan sartuta lurtean dauzkagu, bata besteari traban ibiltzen gara; egunero esku artean behar

dugun materiala hartu ahal izateko lanean diharduen irakasleari mugitzeko eskatu behar diogu, bestela ezinezkoa da".

Bestelakoan artean, irisgarritasunik eza dutela ere jakinarazi dute: "Ikasle edo irakasle ezinduren bat gurgildun aulkiarekin etorriko balitz, ikasgelan sartzeko eta irteteko arazo handiak izango lituzke; zer esanik ez, komunera joan beharra izango balu".

Horregatik guztiarengatik eta bestelako behararengatik, Udalari eskatu diote eraikin bakarra egokitzera Udal Euskaltegiarendako, honako zerbitzu hauekin: elkarren artean komunikatuta dauden bi bulego, baina, era berean, bereiz daitezkeenak; irakasle gela bat irakasle beste mahai dituen, eta baita artxibadore, apal, armairu, fotokopiagailu eta beharrezko material eta elementu guztiekin.

Horrez gainera, eskatu dute liburutegi egoki bat. Izan ere, gaur egun, liburutegia dute irakasleen gelaren barruan.

Eta bukatzeko, bederatzihamar ikasgela arrunt behar dituztela diote, komunak ere bai, autoikaskuntzarako gela bat eta batzarak egiteko beste bat, baita

ume/gaztetxoendako pare bat gela ere. Izan ere, gero eta jende gehiago dator kanpotik seme-alabekin".

ASPALDIKO ESKAERA

Udal Euskaltegiaren eskaera aspaldikoa da: "Azken urteetan eskatzen ibili gara eraikin berria egitea edo, gutxienez, zenbait konponketa egitea. Eta oraingo ikasurtean, behintzat, zenbait panel mugitu eta apurtxo bat egokitu digute euskaltegia. Orain hobeto gaude. Baina oso urruti baldintza egokietatik, eta kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko baldintza horiek ezinbestekoak dira".

Udalari dagokionez, euskaltegiaren idatzia jasota dagoela adierazi dute Euskara Saitetik: "Azkeneko aldiz aurkeztu zuten 2007ko aurrekontuak prestatzen genbiltzanean. Aurrekontuok ez ziren onartu, iazkoen luzapenarekin gabilta. Ondorioz, aurten ezingo da exekutatu ezer. Urrian, datoren urteko aurrekontua aztertzean landuko dugu berriro. Nik uste dut, gainera, hurrengo korporazioak onartu egingo duela. Eta orain arte Udalak bazuen borondatea, baina ez zegoen lokalik... Irtenbidea aurkitzea zaila zen".



ESKOLAN EAJko kideak Eskola Politeknikoan; Apraitz da erdikoak.

GOIENKARIA

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

EAJkoak MUn, heziketaren garrantziaren gainean

Markel Olano eta Luis Mari Apraitz hautagaiek egin zuten kanpaina, besteak beste

U.M. > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea bisitatu zuten astelehenean Markel Olanok, ahaldun nagusi izateko EAJko hautagaia, eta Luis Mari Apraitzek, Arrasateko alkatezarako hautagaia. Besteak beste, Joseba Egibarrek, GBBko presidentea, eta Rafa Uribarrenek, Landa Inguruenaren Garapenerako diputatu

arrasatearrak, eta Arrasaten zinegotzi izateko hautagaiak lagunduta ibili ziren.

"IKASKUNTZA AUTONOMOA"

Unibertsitatean izan ziren preskakuntzaren garrantziaren gainean berbetan. Apraitzek "ikas-kuntza autonomia eta esanguratsua bizi guztian zehar" duen garrantzia nabarmendu zuen.

arrasate musikal

Matrikulazio epea zabalik:
*Maiatzaren 21etik
ekainaren 22ra.*

Berritasunak: 4 urtetik aurrera.
- *Harmonia modernoa* Helduentzako eskolak.
Balleta



PERTSONA NAGUSIAK > ERRETIRATUEN OMENALDIA

Erretiratuaren Omenaldia prestatzen dabil SUDC

Maiatzaren 26an egingo dute: bazkaria izango da 14:00etan, Musakolako kiroldegian, doan

UBANE MADERA > ARRASATE

SUDC elkarteak badabil aurten Omenaldia prestatzen. Herriko zaharren egoitzetako bazkideendako gaur, egubakoitz, bukatu da izenemate epea. Egoitzetako bazkide ez direnek, berriz, oraindik badute datorren astearen hasierara arteko epea izena emateko, SUDCn egoitzan, Pablo Uranga kalean.

Omenaldiaren eguna maiatzaren 26an izango da. Egitaraua, berriz, honako hauex: 12:30ean meza esango dute, San Juan parrokian; 13:30ean, pare bat autobus aterako dira Abaroa paretik kiroldegirantz, autobusez joan gura duten erretiratuak hartzeko. Izan ere, 14:00etan dute baz-

kaltzeko hitzordua, Musakolan, Auzo Laguneko janariarekin. Bazkalostean, berriz, opariak zozkatuko dituzte, "Arrasateko saltokiek emandakoak", azaldu du

Andoni Altzelaik SUDC elkarteak presidentea, "eta bazkalostean dantzan egiteko musika saioa izango da, 18:30-19:00ak aldera arte". 1.000 lagun inguru espero dituztela gaineratu du Altzelaik.

Musakolatik bueltatzeko autobusa izango da bazkalostetik aurrera, edozein ordutan.

ATZEGI EGUNA

Beste hitzordu bat ere egin du SUDCek: Atzegiren Eguna, ekainaren 9an

Urterokoari jarraituz, Atzegiren Eguna antolatzen ere badabil SUDC elkarteak. Iragarri dute ekainaren 9an, 13:00-13:30ak inguruan egin dutela hitzordua, Uarkape kanpoan. Han elkartuko dira neska-mutikoak eta haien senideak SUDC elkarteak kideekin, eta kalejira egingo dute trikitilariak lagunduta, 14:30-14:45ak arte. Orduan, Alkartu elkartera joango dira, SUDCekoek prestatutakoa bazkaltzera. Eta bazkalostean Uarkape frontoira joango dira atzera, eta han jolasak egingo dituzte, 19:00ak ingurura arte. Bestelako urteetan 40 bat lagun elkartu izan dira.



GOIENKARIA

Eskola utzi zutenetik batera afaltzen

Argazkian ikusten duzuen lagun-talde horrek 16 urte daramatza San Isidro jaietako egubakoitzean elkarrekin afaria egiten. San Frantzisko Xabier Ikastolako ikasle ohiak dira, haurreskolatik ikasketa guztiak Zigorrolan egindakoak. Hori horrela, OHoko 8. maila bukatzean afaria egin zuten agur moduan, eta harrezkero urtero-urtero egin dute, San Isidroan. Jaietan "a tope" ibili zirela kontatu dute.



ESKOLAN EAJko kideak Eskola Politeknikoan; Apraitz da erdikoa.

L.ZEBERIO

POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

Gardentasuna eskaini du ANVk, ustelkeriaren aurrean

Martitzenean aurkeztu zuen zerrenda; legez kanpo utzitako zerrendak gogoan izan zituzten

L.Z./U.M. > ARRASATE

Arrasateko Eusko Abertzale Ekintza-Accion Nacionalista Vasca alderdiak Udalerako prestatu duen zerrenda aurkeztu zuen, Ino Galparsoro alkategaia buru zutela.

Hasteko, legez kanpo utzi dituzten zerrendak izan zituen gogoan, eta gaur egungo egoera politikoa eta horren aurrean gainerako alderdi politiko gehienek jokoera salatu zituen.

"ARRASATEARRIN ZERBITZURA"

Horrez gainera, programaren ildo nagusiak jakinarazi zituen: konpromisoa, herritarren eta elkarrean parte-hartzea udal-txean, ustelkeriaren aurrean,

gardentasuna, politika sozial aurrerakoa eta *apartheid* politikoa gaitzetzeko ahalegina. Oro har, lana, zintzotasuna eta konpromisoa eskaini zituzten.

Bestalde, botoa eskatu zuten Aldundirako hauteskundeetan legez kanpo geratu den ibarrekiko EAE-ANVren zerrendarendako. Jakinarazi zuen hautesleek ez dituztela EAEn zerrenda hauteskunde bulegoetan aurkituko, eta, hortaz, etxetik eraman beharko dituztela.

Bukatzeko, deialdia egin zuten hilaren 24an, Arrasaten egingo den ekitaldi nazionalen parte hartzeko. Ahal badute, Herriko Plazan egingo dute, 19:30ean, bestela Uarkapen.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82



Berezitasunak

**Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak**

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

**MENETA
taberna**

- Eguneroko menua
- Bazkariak eta afariak enkarguz aste bukaeretan
- Pintxoak
- Errazioak

Domeka gauetan
sukaldea itxita

Gipuzkoa Etorbidea 48 • Tel.: 943 79 65 31 • 20500 Arrasate

kapikua
OPARIAK ETA OSAGARRIAK

Bañez doktorea 4
(San Andres auzoan)
Arrasate
Tel.: 943 79 19 94

ERAKUSKETA > IKASLEEN MARGOLANAK

Kulturateko margo eskolako lanak ikusgai

Harresi aretoa gaur arratsalde eta zapatu eta domekan goiz eta arratsalde zabalik egongo da

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Harresi aretoan erakusketa oso txukuna dago ikusgai, eta, gainera etzi, domeka, da hura ikusteko azkeneko eguna.

Urtero moduan, Amaia Bengoa irakasle bergararrarekin margolanak egiten dituzten arrasatearrek erakusketa jarri dute Harresi aretoan. 55 lan batu dituz-

te han, eta egileen artean helduak dira gehienak, baina badira gaztetxo batzuk ere.

KULTURATEN DUTE EGOITZA

Harresi aretoan ikusgai jarri dituzten lanen artean, paisaiak, erretratuak, natura hilak, abstrakturen bat eta beste daude. Orokorrean maila handia dute ikusgai jarritako lanek. Erabilitako estiloei dagokienez, berriz, errealismoa eta impresionismoa dira gehien jorratu dituztenak.

Urte askoan eskola horiek Monterrongo ganbaran eman dituzte, baina aurren Kulturatera eraman dituzte, kultura

etxe berrira. Amaia Bengoa irakasleak esan digu egoitza berrian oso gustura daudela: "Erabiltzen dugun aretoa oso egokia da, eta, gainera, egoitza aldatzearekin batera, ekipamendu berria jarri digute: astoak (kaballeteak) eta beste. Horrez gain, orain igogailua ere badugu, eta hori abantaila handia da lehengo lokalarekin alderatuta".

150 bat ikasle ditu Amaia Bengoak. Horietatik 60 bat helduak dira, eta beste guztiak ume eta gaztetxoak. Astelehenetik egubakoitzera ematen dituzte eskolak. Zapatu goizetan, beste irakasle batek ematen ditu eskolak.



AZKENEKO EGUNAK Etzira arte, domeka, egongo da erakusketa ikusgai Harresi aretoan.

IKER BARANDIARAN



JENDETSUA Herritar ugari hartzen du Al-Andalusen ekitaldian. GOIENKARIA

OSPAKIZUNA > AL-ANDALUSEN KULTURA ASTEA

Al-Andalusen ekintzak Donostian eta Arrasaten

Al-Andalus kultura elkarteak ekintza ugari antolatu ditu asteburuari begira

I.B. > ARRASATE

Al-Andalus elkarteak kultura astea ospatzen dabil azken egunotan. Al-Andalus ahalegintzen da Andaluziako kultura eta usadioak berreskuratzen eta ezagutzera ematen.

Joan den egubakoitzean hasi ziren ekitaldiekin, eta ez dute atsedenik hartu. Horren barruan, Umeen Eguna, Erretiratuen Eguna eta beste ekitaldi ugari egin dituzte.

DONOSTIARA ERE JO DUTE

Ekitaldi gehienak Arrasaten egingo dituzten arren, Donostiara ere joko dute andaluziarrek. Gaur, egubakoitza, Kutzak Donostiako Arrasate kalean duen egoitzan Cadizko

chirigoten gaineko berbaldia egingo dute. 19:30ean izango da, eta hizlaria Rafael Gomez arrasatearra izango da. Horren ostean, Juancojones chirigota taldearen emanaldia izango da. Gauean, berriz, Al-Andalus abesbatza errozieroak kontzertua egingo du egoitza berean.

ZAPATUA, EGUN HANDIA

Bihar, zapatua, egun handia ospatuko dute. Eguerdian parrillada egingo dute; eta, horren ostean, Alegria de la Sierra taldeak ikuskizuna egingo du. Iluntzean, berriz, Sueños de Andalucía dantza taldeak eta Garcia Lorca antzerki taldeak ikuskizunak egingo dituzte, gala-afariaren aurretik.

pinxoak eta bokata onenak geurean!!!

OSTANTZ

Ferrerias 12 behea 20.500 ARRASATE Tel.:943 79 56 04

BERGARA AUTOAK

- AUTO BERRIEN ETA AUKERAKOEN INPORTAZIOA: TURISMOAK, FURGONETAK ETA MONOBOLUMENAK
- GARANTIA IDATZIZ
- FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- PREVER PLANA • ELBARRITASUNAGATIK DESKONTUAK

Autoen eskaerak aukeran: jlegana@terra.es

Amillaga, 10 • BERGARA • ☎ 943 76 04 58

Audi BMW VW Toyota Mercedes Mitsubishi

PUB HAIZEA

arrasate

Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6 (Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Tbilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Seinaleak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

UGARTE

Industria hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40



Patxi
Arburua



Oihana
Aranburu



Arkaitz
Biain



Yolanda
Perez
De Arenaza



Juan Mari
Sanpedro



Izadi
Mondragon



Aitor
Urrutia



Amaia
Pagaldai



Jexux
Garmendia



Ines
Osinaga



Ino
Galparsoro



Unai
Lazkano



Joseba
Ezpeleta



Marijo
Jimenez



Marga
Merkader



Felix
Iturbe



Ibai
Madariaga



Alaitz
Morras



Pilar
Martinez De Ubago



Juanjo
Ansoategi



Illart
Azkarate



Eukene
Mondragon



Ion
Muruamendiaraz



Aintzane
Mondragon

'danok bagara garaile gara'

Bozkatu

EAE

EUSKO ABERTZALE EKINTZA



ANV

ACCION NACIONALISTA VASCA

> ATLETISMOA

Urrezko bi domina eta zilarrezko beste hiru Tolosatik

Domekan egin zituzten, Tolosan, Gipuzkoako infantil mailako atletismo txapelketak, eta Arrasateko atleta gazteak eskuak sariz beteta itzuli ziren. Jian Chen Yin lehena izan zen 80 metroko hesi lasterketan, eta Eukene Dorron sorok ere urrea eskuratu zuen, 150 metroko lasterketan. Maialen Axpek, berriz, zilarrezko domina ekarri zuen 80 metroko hesi lasterketan egindako bigarren postuagatik, eta emaitza bera eskuratu zuten Iñigo Urbarrenen eta Andoni Perezek.

> MENDIA

Ekainaren 9an egingo dute beteranoen martxa

Ekainaren 9an, Besaideko beteranoek urteroko hitzordua dute. Oraingoan, Pasai Donibane eta Hondarribia banatzen dituzten kilometroak egingo dituzte oinez. Ohi-turari jarraituz, zeharkaldia egin eta gero, elkarrekin bazkalduko dute denek; oraingoan, Oizartzenen. Ekainaren lehena izango da izena emateko azken eguna.

BESAIDE MENDI ELKARTEA > MENDI IRTEERAK

Besaidek hainbat irteera antolatu ditu maiatzeko azken astebururako

Maiatzaren 26an mendiko bizikleta irteera egingo dute Artikutza aldera; domekarako, berriz, oinez egiteko irteera antolatu dute

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaide MTB taldekoek martxoan egin behar zuten urteko lehenengo mendiko bizikleta irteera. Hilabete hartan, baina, eguraldiak ez zuen batere lagundu, eta bertan behera utzi behar izan zuten irteera. Hala, maiatzaren 26an, zapatua, estreinatuko dute denboraldia, Artikutza aldean.

Jakinek da parke naturalean bizikletaren ibilera mugatuta dagoela, eta, hori errespetatuta, Besaidekoek dagoeneko gertu dute ibilbidea. Antolatzaileak datorren astelehenean eta



URTEKO LEHENA Eguraldi txarragatik atzeratutako irteera egingo dute. GOIENKARIA

martitzenean izango dira Besaideko egoitzan izenak hartzen, 19:30etik 20:30era arte.

OINEZKO IRTEERAK

Domekan, berriz, maiatzerako prestatuta zuten egitarauko azken hitzordua izango da:

Besaidekoek mendi irteera antolatu dute; Mendibi eta Okina banatzen dituzten kilometroak egingo dituzte oinez. Irteera horretan parte hartzeko datoren astelehenean eguaztenera arte eman ahal izango da izena Besaideko egoitzan (19:30-20:30).


futbitoazaldibar**PARTIDUAK**

Maiatzak 19, zapatua	Epaileak
11:00 AT Celaya-Iluntz	Antolat.
Maiatzak 20, domeka	Epaileak
10:50 Betraye-Cipris Taberna	Antolat.
12:00 Lasagabaster-Omu Dribling	Antolat.
13:00 Iritzu-Saukelu Abian	Antolat.

Omu Dribling Kopako txapeldun!

Joan den zapatuan jokatu zuten Omu Driblingek eta Iritzuk Kopako finala, eta Driblingekoak 4-2 nagusituta egin ziren Kopako jabe. Talde irabazleak uste baino erraztasun handiagoak izan zituen makal ibili zen Iritzuren aurrean. Hala, Iritzu taldeko Julio atezainak egindako lanagatik ez balitz, Driblingekoek alde askoz ere handiagoarekin irabaziko lukete.

Ligari dagokionez, ligaxkan sailkatu diren lehenengo zortzi taldeek txapelketako final-laurdenak jokatu dituzte. Txapelketako zortzi talde onenak aurrez aurre; adi egon datozen jardunaldi, orain dator eta Zaldibarko txapelketako onena.



Ordaindu erdia bakarrik*

ROUTER COMUNICACIONES, S.L

Errebal, 15
Eibar
☎ 943 700 369

Biteri Plaza, 4
Arrasate
☎ 943 71 27 81

* 2007/06/15era arte egongo da indarrean sustapen hau, eta Euskaltel Leihorean, Euskaltel Hautaketaren eta Ondoren ordaintzeko etxeko mugikorraren alta berrientzat balio du. Deskontua kuota finkoetan eta hileko kontsumoan aplikatuko da, alta ematen denetik aurrera lehenengo sei hilabeteetan. Baina ez die eragingo ekipamenduari, lanen araberako ordainketei eta Tarifa Gehigarriko Zerbitzuak trafikoiari dagozkien kuotei. Sustapena amaitu ondoren, une horretan Euskaltel indarrean dituen prezioak aplikatuko dira kontratatutako zerbitzuan.

euskaltel

■ -en Banatzaile Ofiziala

arrasatearrak kanpoan

Kepa Barbarias > Ingelesa ikasi eta lan egiten du
Edinburgon bizi da

"Eskozia aldean ingelesa hobeto ikasiko nuelako etorri nintzen"

MIRIAN BITERI > ARRASATE

Ingelesa ezinbestekotzat ikusten du Kepa Barbariasek. Lanean zegoela jabetu zen horretaz. Hortaz, Edinburgora joatea erabaki zuen duela aste batzuk. Han dituen ezagunen laguntza izan du hasierako egunetan.


Ikasketak amaitu zituenean Fagorren proiektua egin eta sei hilabetez egon zen lanean. Ingelesa "beharrezkoa" zela ikusi zuen han. Ingeleseko eskolak hartzen zituen arren, kanpora irtetea erabaki zuen: "Eskozia aldean hobeto ikasiko nuelakoan animatu egin nintzen", gogoratu du.

Edinburgo bizitzeko toki aproposa izan zitekeela pentsatu zuen. Oporretan egona zen eta hiria eta giroa gustuko zuen. Horretaz gain,

Arrasateko lagunak zituen han, eta horrek "hasieran suerta daitezkeen aldaketak hain bortitzak ez izaten laguntzen du", esan du.

Hartutako erabakiaz ez da damutzen, "oso gustura" dago-eta. Bi arrasatearrek eta hango beste mutil batekin bizi da eta Euskal Herriko jende mordera ezagutu du. Horren harira, "Edinburgon euskaldun nahikotxo gaudela uste dut", adierazi du Barbariasek.

"Han ezagunak izateak hasieran suerta daitezkeen aldaketak hain bortitzak ez izaten laguntzen dizu"



Irudian, Kepa Barbarias.

Eguneroko bizimodua "nahikotxo" aldatu dela gaineratu du. Dena berria izateaz gain, orain ez du "momenturo etxekoek edo betiko lagunak eman ahal duten laguntza, nahiz eta bertako lagun berriek ere asko laguntzen duten". Gainera, ekonomia zaindu eta etxea txukun izaten saiatzen da.

ASTEGUNAK LANEAN EMATEN DITU
Ez du, hala ere, denbora libre handirik, astegunetan egun osoa ematen duelako lanean, Edinburgo ondoko herri batean. Asteburuetan, berriz, ezagunekin futboleak jokatu, parrilladaren bat egin edo ezagutzen ez dituen inguruak bisitatzeko aprobetxatzen du.

Oraindik ez da asko mugitu. Edinburgon gaztelua, elizak, museoak eta lorategi botanikoa ikusi ditu. Stirlingen ere izan da. Gaztelua, William Wallace-ri eskainitako monumentua eta estatua eta Rob Roy-ren estatua ikusi zituen.

Eskoziarrak "kanpoko jendea ezagutu eta ahal duten heinean laguntzeko prest" daudela dio. Oraindik ez, baina denbora aurrera egin ahala "herrimina" izango duela adierazi du arrasatearrak.

bere ustez



Nerea Makazaga

Erroskillen ondorengo banbolinoak

Banbolino zaporea zerien kaleei, banbolino forma zuten "Zirku Handia" izan zitekeenaren instalazioek eta banbolino erraldoiaren zentruan hiriaren diskoa eskenatoki, non banbolino saltzailak kantu inprobisatuak sortzen zituen.

Birak emateko jaio zen Banbolino saltzaila, birak eta birak zirkulu forman ongi etorria eman zion bizitzari. Algodoi zuriko txapelak eusten zion egurrezko platerrean, eta platerrearen gainean, banbolinozko eraikinak, mugimendu

"Banbolinoak saldu eta saldu, amets berrien goseak urrutiratu zuen poliki-poliki"

amaigabeen zerua ikutu guran. Biratuak izandako gozoek bazuten birak isilean kontatzen zituzten ikusleak, etenaldi bakoitzean arnasa ere etengo zutenak, dena amaitu izanaren mirespenez zein tristuraz. Beti izan da birarik eman gabe biratu duenik.

Banbolinoak saldu eta saldu, amets berrien goseak urrutiratu zuen poliki-poliki, gaur oraindik banbolino usaiak irauten duen kaleetatik. Eta denek dakite banbolino saltzaila ez dela denbora luzez azalduko, zirkuluan biratzeak inoiz urrutiratzeko ahalmena duelako.

Rambletako estatua bati jarri nahi zaio Banbolino plater bat harrizko txapelaren gainean, omenaldi gisa, haurrek atzamarren ukituarekin birak ematera gonbidatzeko.

hau be badaukogu

Maitane Mazmelak eta Endika Martinek 7.745 euro irabazi dituzte 'Mihiluze' saioan

Oraingo astean izan dira Maitane Mazmela arrasatearra eta Endika Martin zestoarra ETB1eko *Mihiluze* saioan. Hain zuzen ere, hiru saiotan parte hartu dute. Astelehenekoa lehenengo saioa izan zen, eta fin ibili ziren lehiakideak: puntu gehien lortu ondoren, *Zer da zera* iritsi eta 7.785 euro poltsikoratu zituzten.

Martitzeneko eta eguazteneko saioetan ere parte hartu zuten, baina lehiakide gogorak izan zituzten aurrean, eta, horren ondorioz, ezin izan zuten ezer lortu. Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza ikasten ari dira Mazmela eta Martin. 20 urte dituzte biek.



GOIENKARIA



ZAHARBERRITZEAK

PVC, ALUMINIOA, EGURRA

Erakusketa eta biltegia:

Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak

Ateak

Armairu enpotratuak

Armairu-fronteak

Mota guztietako zoruak

Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak

Gortinak, mahaiak eta aulkiak



**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

DIRULAGUNTZAK > ENPRESA JARDUERA BERRIA

Lanpostuak sortuko dituen enpresa berri bat diruz lagunduko du Udalak

Asko jota 620.000 euroko dirulaguntza emango dio gutxienez 50 lanpostu finko sortuko dituen enpresa jarduera berri bati, lehiaketa bidez

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarako Udalak dirulaguntzak emango dizkio enpleguak sortuko dituen enpresa proiektu berri bati. Hain zuzen, 620.000 euroko dirulaguntza emango du, gehienez. Maiatzaren 11n egindako presazko ezohiko bilkuran hartu zuen erabakia osoko bilkurak, EAJ-EA eta PSE-EE alderdien botoekin. Aralar abstenitu egin zen.

50 LANPOSTU

Dirulaguntza hori eskuratu ahal izateko, lehiaketa antolatuko du Udalak eta aurkezteko asmoa duten enpresek hainbat baldintza bete beharko dituzte. Besteak beste, industria jarduera berriak dakartzaten ekimenak izatea eta lehen hiru urtealdietan gutxienez lan jardun osoko 50 lanpostu finko sortuko dituen enpresa sustapenak izatea. Ez da nahikoa herrian lehendik dauden enpresak tokiz aldatzea; jarduera berriak izan behar dute.

Obra edo eraikuntza proiektuaren exekuzioa beranduenez 2008an hasi beharko dute eta 2009an ekin beharko lirateke lanean: "Pentsatu dugu Muriñondoko industrialde berrian kokatzea industria berri hori", zehaztu du Victoriano Gallastegi alkateak. "Berez enpresa bakarri emango diogu dirulaguntza, nahiz eta enpresa nagusi horren barruan beste enpresa bat ere sortu", jarraitu du alkateak. Gutxienez 20 urtean egon behar du enpresa horrek Bergaran.

Udalak emango duen dirulaguntza ez da aurrekontuan jarri-



ENPRESA Muriñondoko industrialde berrian egongo da enpresa berria.

IRATI AGIRREAZALDEGI

tako 620.000 eurokoa baino handiagoa izango eta dirulaguntza-ren zenbatekoa baloratzeko orduan bi gauza hauek hartuko

dituzte kontuan: enpresa proiektua eta gutxienez sortu behar dituzten 50 lanpostu finkoetatik aparte sortutakoak.

BIGARREN ALDIZ

Ideia hori ez da berria Bergarako Udalarendako, bigarren aldiz deitu baitu horrelako lehiaketa

bat: "Lehenengoa duela bost urte egin genuen", gogoratzen du alkateak. "Orduko lehiaketa GKN enpresak irabazi zuen. Oraindik martxan dagoen enpresa da eta esperientzia hori errepikatzea erabaki dugu", jarraitu du Victoriano Gallastegik.

Udalbatzak onartutako erabaki horren oinarriak eta baldintzak eguaztenean publikatu zituen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialak, eta eskaerak egiteko epea dagoeneko zabalik dago; buletinean agertu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 eguneko epearen barruan aurkeztu behar dira eskaerak Udaleko erregistro nagusian. Eskaerarekin batera, hainbat dokumentu aurkeztu behar dira, tartean enpresa proiektua (produktua, merkata, produkzioa, helburuak, giza baliabideak, inbertsioak).

Aurkeztutako eskaerak Udaleko Ogasun batzordean aztertu-ko dira. Hark udalbatzari proposatuko dio adjudikazioa eta udalbatzak 15 egun izango ditu ebazpena emateko.

Hondakinei buruzko lanak aurkeztu dituzte gaztetxoek

Mariaren Lagundia, Aranzadi, San Martin Agirre eta Ipintza Institutuko ikasleek azaldu zizkieten udalbatzari Agenda 21aren barruan hondakinei buruz lortutako emaitzak: garbiguneak ordutegi zabalagoa izatea, auzoetan edukiontzi gehiago jartzea eta sentsibilizazio kanpainak egitea, besteak beste.



ANABEL DOMINGUEZ

AZPEITXI

Jatetxea

Aranerrek 13 behea. Bergara
943 76 55 00

Mujika

gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

HAUTESKUNDEAK 07 > ARALAR

Pertsonendako herria diseinatu du Aralarrek

Iraunkortasun irizpidea eta herritarren parte-hartzea hartu ditu oinarri udal programa egiteko

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Datozen lau urteetan zer lan egingo duen aurkeztu du Aralar alderdiak prentsaurrekoan. Egindako udal programan bi ardatz nagusi hartu ditu kontuan: "Iraunkortasuna eta herritarren parte-hartzea". Puntu horiek oinarri hartuta, "pertsonendako herri, herri bizi eta

euskaldun" nahi dute ikusi Bergara. Hori nola lortu nahi duten ere azaldu zuten zerrendako lehen hirurek.

PERTSONENDAKO HERRIA

Iñigo Iñurrategi Aralarako kideak esan zuen moduan, "lehenetsuna autoei eman beharrean, oinez edo bizikletan dabilzanei eman nahi diegu. Horretarako, oinezkoendako bidea, bidegorriak eta auzoetara heltzeko mekanismoak bultzatuko ditugu. Horri lotuta, garraio publikoa lehenetsiko dugu eta automobilak beharrezko direnean erabiltzeko bitartekoak bultzatuko ditugu". Etxebizitzaren gaian,

alokairua indartu nahi dute eta berdeguneak babestu. Bergara herri bizi izatea ere nahi du Aralarrek, eta, horregatik, musika taldeendako entsegu lokala lortzea garrantzitsua iruditzen zaio. Hurbileko zerbitzuak ere bultzatu nahi ditu. Euskarari lotuta, plan estrategikoa bultzatzea eta udal ordenantzak garatzea ditu helburu.

AZKEN AGINTALDIAREN BALANTZEA

Mikel Etxaniz zerrendaburuak orain arteko lau urteetako balorazioa ona dela esan zuen: "Lan egitera sartu ginen Udalean eta lan egin dugu, nahiz eta ez den oso agerian gelditu".



O.E.

Markel Olanok, Mizpirualde ikusten

Markel Olanok, Gipuzkoako ahaldu nagusirako EAJren hautagaiak, Mizpirualde egoitza bisitatu zuen atzo, eguena. Ondoa izan zituen German Muruamendiaraz EAJren Bergarako alkategaia eta Maribel Vaqueiro EAJren Batzar Nagusietarako hautagaia. German Iruretagoienak, Mizpirualde egoitzako zuzendariak, egin zituen gidari lanak.

Markel Olanoren esanetan, "gizarte politika EAJren programaren sei puntuetako bat da. Gero eta pertsona nagusi gehiago daude, horrek ardu-za izatea eskatzen du eta horri erantzun egin behar diogu, bai politikariok baita herritarrek ere". "Baina erantzun horrek emankorra eta iraunkorra izan behar du, eta, horregatik, ezinbestekoa da erakundeen arteko harremana, eta egoitzetako nagusiak ez ezik, gutxiuak, etorkinak, etxean daudenak edo adin txikikoak kontuan hartzea", jarraitu du.



AURKEZPENEA Zerrendako hautagaiak egon ziren datozen lau urteetarako alderdiak dituen asmoen aurkezpenean. O.E.

> KILOMETROAK 07

Mahai futbol txapelketa eta kantu poteoa antolatu dituzte astebururako Kilometroen alde

Kilometroen aldeko mahai futbol txapelketa antolatu dute zapa-turako. Kilometroen aldeko lantaldeak eta BTLSk antolatu dute. Zortzi mahai futbol jarriko dituzte San Martin plazan eta hiru talde-tan banatuko dituzte parte-hartzaileak: 12 urtera arte, 12 urte-tik 16ra eta 16tik gorakoak. 18:00etan hasiko da, eta 17:00etan eman behar da izena plazan bertan. Doan da. Bikote irabazleei Kilometroak 07ko kamisetak emango dizkiete. Bestalde, gaur, egubakoitza, kantu poteoa egingo dute. 19:30ean da hitzordua, plazan, eta herriko abesbatzak eta herritarrak daude gonbidatuta.

Uda osoko beltzaran-kolorea erakuts ezazu!

Bost minutuan bakarrik

Oso kolore naturala
%100 naturala
(azukre-kanaberarekin egindakoa)

Estetika zentroa
Igaro

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

Dixula

BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

PINTXOAK eta OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

UREDERRA
ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918



Irrintzi
kafetegia

Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegarieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



IKASLEAK Musika Eskolan diren taldeen lana erakustea da domekako kontzertuaren helburu nagusia.

M. ESKOLA

MUSIKA ESKOLA > IKASLEAK PROTAGONISTA

Udaberriko kontzertua domekan eguerdian frontoian

Musika Eskolako 500 ikasle inguruk jardungo dute 12:30ean hasiko den emanaldian, etzi

EDU MENDIBIL > BERGARA

Udaberriko kontzertuaren 19. ekitaldia izango da domekan. Ohi denez, Musika Eskolan diren taldeen lana erakustea da kontzertuaren helburu nagusia. Orkestra Sinfonikoa, banda gaztea, abesbatza, akordeoi orkestra, Suzuki taldea, txistu taldea eta trikiti taldeak hartuko dute parte domekako emanaldian.

Abeslari gaztetxoak entzuteko aukera ere izango dute Udal Pilotalekura joaten direnek. Gaur egun 500etik gora ikasle dira Musika Eskolan, eta gehienek hartuko dute parte kontzertuan. *Kriskitin* ipuin musikaleko protagonista frontoian izango da, domekan, musikarien bila. Emanaldirako sarrerak 3 eurotan salduko dituzte.

EGITARAUA ETA MATRIKULAZIOA

Egitaraua honako hau izango da: kalejira 11:30ean trikiti taldearekin, kontzertua 12:30ean Udal Pilotalekuan eta ondoren, herri bazkaria Espoioian. Arratsaldean, DJ Angik alaituko du Espoioiko dantzaldia.

Bestalde, hurrengo ikasturterako matrikula kanpaina ekainera arte dago zabalik. Matrikula egiteko, astelehenetik barikura, 15:30etik 19:30era, idazkaritzara jo dezakete interesatuek. Argibideak 943 76 57 80 zenbakian.

ELKARLANEAN > UDAL LIBURUTEGIA, ELKAR ETA JARDUN

'Irakurri, gozatu eta oparitu' egitasmoa abian jarri dute, irakurketa bultzatzeko

Udal Liburutegiarekin eta Elkar liburu dendarekin elkarlanean, irakurritako liburuen deskontuak tartean

E.M. > BERGARA

Jardun euskara elkarteak, Topagunearen bitartez eta Udal Liburutegiarekin eta Elkar liburu dendarekin elkarlanean, *Irakurri, gozatu eta oparitu* egitasmoa jarri du martxan.

Asmoa hau da: Errotaldeko Udal Liburutegian diren ehun euskal liburuen artean aukera egin, maileguan hartu eta irakurri. Liburuarekin batera liburuaren gaineko fitxa bat

emango dute, liburu irakurri ondoren betetzeko. Ondoren, liburu eta fitxa liburutegira bueltatzerakoan %25eko deskontu txartela eskuratuko da liburu hori nork bere buruari edo beste norbaiti oparitzeko. Deskontu txartelarekin liburu erosterakoan %25eko deskontua egingo zaie partaideei Elkarren. Jarduneko bazkideei beste %25eko deskontua egingo diete. Kanpainak ekain erdialdera arte iraungo du.

JOLASLEKU IBILTARIA GAUR

Bestalde, Jarduneko haur eta gazte sailak haurrendako jolasleku ibiltaria antolatu du aurten ere. Gaur, hilak 18, Espoioian eta ekainaren 8an Simon Arrietan izango da jolaslekua, 17:00etan; euskal kantu eta jolasak izango dira.

> IKASTAROA

Gaztetxoei zuzendutako margo eta marrazketa ikastaroa uztailean, Beart elkartean eskutik

Beart elkarrekin 5-13 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako margo eta marrazketa ikastaroa iragarri du uztaileko. Eskolak 10:00etatik 12:00etara izango dira, Boluko egoitzan. Argibide gehiago telefono zenbaki hauetan jaso ditzakezue: 635 71 32 69 (Maitte) edo 665 70 31 75 (Oihana).

> ERAKUSKETAK

Sarasketaren margoak eta Muniategiren azken lana Aroztegin; pinturak Nahikarin eta Errotalden

Aitor Sarasketa eibartarraren margoak eta Manu Muniategiandikoetxearen *Instrucciones para naufragos*. Soilik itxuraz liburu ikusgai daude Aroztegi aretoan; Fernando Azkarate eta Pili Azkarateren erakusketa zabalik dago Nahikari tabernan; eta kultur etxean, Elorrioko eskulan margo taldea, zapatura arte.

> HITZALDIA

'La guerra civil de 1936 en Euskal Herria' hitzaldia, Santiago De Pabloren eskutik

Zinemaren eta historiaren arteko harremanak hitzaldi sortarekin jarraituz, Santiago De Pablak hitzaldia egingo du eguaztanean, maiatzaren 23an, Miguel Altuna institutuan, 18:30ean. EHUko Historia katedradunak *La guerra civil de 1936 en Euskal Herria* izenburuko hitzaldia egingo du.



POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza
materialakTelleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

BERGARA

Margoak



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara@bergaramargoak.com

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

disdira

ile apaindegia
edertze gelaMasterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

JANTZIDENDAK

Bergara Piel. Espaloia 6
Gabilondo. Irala 5
Gallastegi. San Pedro 15
Jauja kirolenda. Irizar 3
Laino Skate&Snow. Bidekurutzeta 7
Laket. Barrenkalea 35
Mujika jostundegia. San Martin plaza
Subijai. Irizar 1
Xuxu. San Pedro 14
Zatoia. Barrenkalea 4
Zubikua. Barrenkalea 24

OINETAKOAK ETA POLTSAK

Agirrebeña. Urteaga 5
Aldasoro. Espaloia 4
Carmen Garate. Bidekurutzeta 15
Egizabal. Bidekurutzeta 13
Galarreta. Irizar 2
Lazkano. Barrenkalea 15
Lonbide. Bidekurutzeta 5
Retegi. San Pedro 18
Yoar. Barrenkale 9

BURDINDEGIAK- BRIKOLAKETA LOREAK ETA PENTSUAK

Ardatza brikolaketa. Masterreka 4
Gaztelu burdindegia. Mintegi 1
Gisasola burdindegia. San Pedro 8
Mujika burdindegia. Bidekurutzeta 8
Narbaiza pentsuak. Masterreka 22
Ninika loradenda. Remon M^a Lili 8

Denda txikietan tratu zuzena, konfiantza eta gertutasuna!
Bergara, zure zentro komertziala



**ONDO IBILI
PAZKOETAN!**

HARATEGIAK

Igarza J.J. Irizar 3
Imaz S. Aranerreka 1
Leturia J.M. San Pedro 24
Mari Kruz. Komenio 2
Rezola L.M. Matxiategi 7
Urzelai P. Ibargarai 7

PAPERDENDAK- TINDATEGIAK- BESTE

Elkar fotokopiadenda. Artekalea 1
Keros markogintza. Espaloia 4
Marco. Bidekurutzeta 44
Onena tindategia. Barrenkalea 29
Renteri tindategia. Ikerleku 4

ELEKTRAGAILUAK

Herran. Matxiategi 3
Radio Bergara. San Pedro 25
Santos RTV. Masterreka 2

PERFUMERIAK ETA ZERBITZUAK

Barcelo bidaiak. Ibargarai 8
Goiara. Irala 3
Infordelta Bergara SL. Artekale 11
Tantana. Irala z/g
TGB aholkularitza. Matxiategi 36

OPTIKAK- BITXITEGIAK- ARGAZKIAK

Argazki. Barrenkalea 16
Etxeberria. Bidekurutzeta 16
Kiñu. Barrenkalea 35
Manso optika. Irizar 2

MERTZERIAK- LENTZERIAK

Gantxegi. Aranzadi 2
Gracian Agirre. Bidekurutzeta 6
Igarza. Irala 5
Itziar. Matxiategi 1
Juana Elgetarra. Zubieta 28
Mirari. Martoko 32

OIHALAK - OPARIAK

Anezka. Espaloia 8
Edel tapizdenda. Bidekurutzeta 14
Fernandez. Ibargarai 2
Maher. Bidekurutzeta 29
Jolas. Barrenkale 27
Txokolate. Barrenkale 28

OSTALARITZA

Arrano. Kruz Gallastegi 5
Azpeitxi. Aranerreka 13
Erreki. Fraiskozuri 3
Euskalduna. Osintxu
Guria. Bidekurutzeta 5
Lasa. Ozaeta jauregia
Miner banatzailea. Matxiategi 23
Pol-Pol. Komenio kalea 11
Zabala. Ibarra 14
Zumelaga. San Antonio 5

ALTZARIAK, DEKORAZIOA

Biltoki. San Martin plaza 2
Biltoki. San Pedro z/g
Edertu. Barrenkalea 23
Edertu. Masterreka 9-11
Guridi. Artekalea 8
Kanela. Espaloia 10

JANARIDENDAK

Hurbil dietetika. Irala z/g
Itxas Eder arraindegia. Mintegia 5
Kabutzia arraindegia. Fraiskozuri 6
Larrañaga gozotegia. San Pedro 9
Mizpildi okindegia. Matxiategi 1
Mujika gozotegia. Artekalea 3
Txukun. Fraiskozuri 6
Zapaterikua. Joan XXIII.a plaza.

PILOTA > BERGARA HIRIA TXAPELKETA

Mugurutza eta Ajuria ez dira finalean izango

Onsalok eta Jauregik partidu bikaina egin zuten; txapelketan jarraitzen duen bergarar bakarra Jon Larrañaga da, 22 urtez azpikoetan

MIRIAN BITERI > BERGARA

Bergara Hiria Txapelketako nagusien partidua jokatu zen lehenik joan den martitzenean. Ander Mugurutza aurrelari bergararrak parte hartu zuen horretan, Ajuriarekin batera. Aurrean Onsalok eta Jauregi zituzten. Azken bi horiek ederki ibili ziren partidu osoan zehar eta 7-22 nagusitza lortu zuten. Nagusien finalera iritsi dira.

Hilaren 22an haien aurkariak ezagutuko dira: Errea eta Linzoin eta Erroizenea eta Bengoetxea bikoteen arteko norgehiagokatik irtengo da beste finalista.

Hasieran ondo aritu ziren Mugurutza eta Ajuria, aurrelari bergararrak eskuetan min sentitu zuen arte. Azkenaldian, arazoa izan ditu eskuetan, eta, ondorioz, ia jokatu barik ibili da azken

hilabetean. Guztiz osatu barik zegoen martitzenean.

22 urtez azpiko partiduan, berriz, Idoatek eta Etxeberriak Azpiri eta Larrinaga menderatu zituzten eta finala jokatuko dute.

BERGARAR BAKARRA

Txapelketan geratzen den bergarar bakarra Jon Larrañaga atzelaria da. 22 urtez azpikoetan jokatzen du hark ere. Datorren martitzenean finalerdiak jokatuko ditu, Aitor Mendizabal antzuolarra ondoan duela. Gorka eta Beroizekin lehiatuko dira. Bergara Hiria Txapelketan Igor Gutierrez bergararra ere izan zen, baina nagusien final-laurdenetatik ezin izan zen pasa, Renobalesekin batera.

Datorren asteko partidua 19:30ean hasiko dira, betiko legez. Larrañagak irabaziz gero, berga-



ONSALOK ETA JAUREGI Mugurutza eta Ajuriaren kontra nagusitu ziren. GOIENKARIA

rar bat sartuko da finalean. Bestalde, herrien arteko txapelketa hasi da. Kadete, gazte eta senior mailetak pilotariek parte hartzen dute. Aste honetan Zarau-

tzen izan dira bergararrak. Hiru partidu irabazi dituzte. Egubakoi-tzean, 20:00etan hasita, zarautzarrak etorriko dira Bergarako udal pilotalekura.

> ESKUBALOIA Norgehiagoka gogorra espero da zapatuan Urdanetaren kontra

Eskubaloi partidu bakarra jokatuko da asteburu honetan etxean. Nagusien taldea Urdanetaren aurka arituko da zapatuan, 18:30ean.

Lehia garrantzitsua da, eta, horregatik, jendea animatzera joan dadila eskatu du taldeak. Loiuko taldea oso indartsu dago. Lehena dago sailkapenean bederatzi punturakin. Bergarak baino puntu bat gehiago du Urdanetak. Hortaz, zapatuko norgehiagoka gogorra izatea espero da.

> LEHIAKETA

Kirol argazki lehiaketaren oinarriak plazaratu dituzte

Bergarako Udalak Kirol argazki lehiaketaren oinarriak atara ditu. Irailaren 12a arte zabalik egongo da epea.

Zuri-beltzeko edo koloretako irudiak izan daitezke eta 40x50 zentimetroko kartoi mehean itsatsiko dira. Lanen atzealdean titulua eta egilearen datu pertsonalak jarri eta udaletxera eramanez edo posta zertifikatuz bidaliko dira. Argibide gehiago gura duenak 943 76 30 90 telefonora dei dezake.



Styloak

Ile - apaindegia

Estetika zerbitzua abian

Hankak + izterondoak + besapeak: 20 €



Gorputz depilazioa • Aurpegi garbiketa
Gorputz masajeak
Makillaje profesionala • Manikura • Pedikura

Prezio bereziak



Osintxu 13, behea • Tel.: 943 77 70 57

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Arrasate

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



LUIS MARI APRAITZ > EAJ

"Hirigintzan zintzo eta gardentasunez jokatu behar dugu"

UBANE MADERA > ARRASATE

EAJ'n eskarmentu handia duen arren, udal politikan berria da Luis Mari Apraitz. Bizkaitarra bada ere, bizitza erdia darama Arrasaten. "Udal kudeaketan kalitatea kantitatearen aurretik" ipini behar dela uste du alkategaiak.

HIRIGINTZA

"Hirigintza garrantzi handikoa da eta haren inguruan sortzen dira interes asko, batez ere, higiezin eta sustatzaileen negozioen artean. Guk arlo horretan zintzo jokatu behar dugu, gardentasunez. Eta zorrotz egin behar dugu legea betearaztea exijituz. Herritarren interesak defendatu behar ditugu.

Dugun tresna garrantzitsu bat da Egitamu Orokorra. Hori eguneratu egin behar dugu eta lege berrira egokitu. Horrez gain, orokorrean hirigintza jasagarria egin behar dugula pentsatzen dut.

Bestelako ekintza batzuk aipatuz, martxan dauden etxebizitza proiektuekin jarraitu eta berriak egingo ditugu.

Azpiegituretan, berriz, Olan-dixoko saihebiderekin jarraituko dugu. Eta jarraituko dugu, baita ere, plan bereziak egiten Zalduspe, Gesalibar eta Garagartza auzoetarako".

INGURUMENA

"Herriaren hazkundera landu behar dugu garapen iraunkorra kontuan hartuta. Horrek esan gura du ingurumenak ipinitako muga batzuk hor daudela, ez dezagun hipotekatu atzetik datozenen bizi kalitatea.

Horretarako landu behar dugu mugikortasun jasagarri baten erdua, autoak sartuko ez diren guneak sortuz, pribatuaren aurre-

an, garraio publikoa bultzatuz eta garraio eredu berriak sortuz; trantzia, esaterako.

Ingurumenarekin lotutako beste proposamen bat da Kurtzetxikirako aktuzioa. Proposatzen dugu hango zuhaitzak erosi eta hango birpopulaketa kudeatu, parke periurbanoa egin ahal izateko.

Proposatzen dugu, baita ere, Ikutixo babestea, gune hartan bizi direlako babestuta dauden landare eta animalia asko.

Bukatzeke, Udalako Natura Eskola indartu egin gura dugu. Handik ateratzen dira, besteak beste, natura ibilbideak".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Kulturaren pauso garrantzitsua eman da Kulturarekin. Oinarritzko azpiegitura da. Erraztuko du hainbat kultur diziplinako formazioa eta indartuko ditu bestelako kultur ekimenak.

Beste pauso garrantzitsu bat izango da musika etxea eta museoa sortzea Zerrajeran, erlojuaren eraikinean.

INGURUMENA

"Herriaren hazkundera landu behar dugu garapen iraunkorra kontuan hartuta"

INO GALPARSORO > EAE-ANV

"Azken agintaldiko ikuskizun lotsagarriari buelta emango diogu"

U.M. > ARRASATE

Eusko Abertzaleen Ekintzako alkategaiak badu esperientzia udal politikan: 14 urtez izan da zinegotzi, 10 alkateorde; "Udal autonomia eta bitarteko gehiago" gura ditu.

HIRIGINTZA

"Arrasate atseginagoa lortu nahi dugu. Eta leku eskasia dugunez, leku hori zuhurtasunez kudeatzea proposatzen dugu, baita ere auzoetako zaharberritze planak gauzatzea (Erguin, Makatzena, Santa Marina...). Eta uste dugu oso garrantzitsua dela oinezkoen mugikortasuna modu oso erosoan antolatzea; auzo eta hirigunaren arteko lotura egiteko eta Arrasateren inguruko lantegietara eroso joan ahal izateko oinez.

Zirkulazioaren eta oinezkoen arteko antolamendua ahalik eta erosoan egiten ahaleginduko gara. Eta etxebizitzaren inguruan bi arlotan jardungo dugu: batetik, parke publiko gehitu eta bestetik, saiatu Arrasateko etxebizitza guztiak erabiliak izan daitezen".

INGURUMENA

"Garapen erkatuaren alde lan egingo dugu. Hala, kanpotik inposatu nahi dituzten proiektu txikitzaileak direla-eta, bereziki AHT-rekin lotuta, pentsatzen dugu Udalatx ezin dela ukitu.

Arrasatearren urradura ekologikoa definitu egin behar dela uste dugu, neurri zuzentzaileak planteatzeko. Bestalde, benetako garraio publiko antolatu beharrean gaude, herri barruan eta kanpora joateko ditugun beharrak asetzeko. Hor sartuko genuke trantziaren proiektua azkartu beharra.

Zaborraren arloan berrerabilpena sustatu nahi dugu; berrerabili ezin dena, berriz, birziklatu.

Errekak biziberritu egin behar dira eta gastu energetikoa zelan murriztu ikusteko ere lan egin behar dugu".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Gai bakoitza arloka antolatu behar dela uste dugu. Kulturari lotuta, Arrasateko kultur taldeen eta Udalaren artean talde egonkorra sortu behar da kultura sustatzeko. Kultur azpiegituren erabilera optimizatu egin behar da eta, nolabait esateko, popularizatu.

Jaiak herriarentzat eta herriarekin izan behar dira, gure kulturaren espresio bilakatuz. Herri folklorea indartu behar dugu (Txerri dantza, Errementari dantza...).

Bestalde, sinesten dugu gazteak ere protagonista direla herrian; hala, haien autoantolaketa eta partaidetza indartuko dugu. Gaztetxearen autogestioa babestuko dugu eta gazteen politika sutatuko duen gazte kontseilua eratzea planteatu, eta pentsatzen dugu drogen gaineko informazio bulego eratu behar dela".

HIRIGINTZA

"Saiatuko gara Arrasateko etxebizitza guztiak erabiliak izan daitezen"



Luis Mari Apraitz
Enpresaria
60 urte • Murueta

BERBA BITAN

ERRONKA HANDIENAK: BAKEA ETA ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

"Kalitatezko kudeaketa sartu behar dugu udal antolamenduan, FQM erdua. Enpresa gestioa bultzatu behar dugu, guztion kolaborazioarekin eta konkordia giroan. Erronkarik handienak dira bakea eta erabakitze eskubidea. Behar egingo dugu bakea nagusitu eta sustatu dadin, Udaletik eta aberriko erakundeekin".

Nekazaritzarekin lotuta, berriz, ahalegina egin behar da hari eusteko, baserri lurrei eusteko eta behar dituzten azpiegiturak nekazariei eman. Lotura estua dauka nekazaritzak naturarekin, paisaiarekin eta aisialdiarekin.

Gazteen kasuan jakitun gara lana aurkitzeko eta etxea eskuratzeko dituzten zailtasunekin; haiei aurre egiten lagunduko diegu".

EUSKARA

"Euskara da gure nortasunaren ikur nagusia. Horregatik garatu eta sakonduko dugu Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia. Egingo dugu udal batzorde berezi bat eta hura arduratuko da euskara ikasteko erraztasunak ematen eta eguneroko erabilera bultzatzen".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gero eta bizi esperantza handiagoa dugu eta nagusiak luzaroago bizi dira. Zerbitzuen kalitate eta kantitatea indartu behar ditugu. Zahartzaro aktiboagoa bultzatu. Belaunaldien arteko harremanak berreskuratu. Pertsona nagusiak zaintzen dituzten familiei eta behar handienak dituztenei lagundu eta egoitzetarako itxaron zerrenda gutxitu. Iturbide berri-tuko dugu, Abaroa berria egin eta etorkinei gizarteratzen lagundu".

KIROLA

Mojategi oinarritzko azpiegitura da. Hari esker, beste erakunde batzuekin kolaboratuz, kirol ekimenak bultzatuko ditugu. Pasealekuak ere bultzatuko ditugu".



Ino Galparsoro
Kooperatibista
60 urte • Beasain

BERBA BITAN

"UDAL KUDEAKETA GARDENA ETA ESKU-HARTZAILEA"

EAEren konpromisoak: "Azken legealdiko ikuskizunari buelta eman; *apartheid*-a gainditzeko saiatu; udal kudeaketa gardena eta esku-hartzaile; ustelkeriaren aurka herritarren parte-hartzea, justizia soziala gogoan izan, etorkinak integratzen saiatu eta ibarra eskualde bezala kohesionatu".

EUSKARA

"Udalak, erakunde publiko moduan, euskalduntze bidean aitzindaritzan izan behar du. Euskara erabiliz planteatu behar du aitzindaritzan hori, barrura eta kanpora begira. Pentsatzen dugu hizkuntza auditoria ezarri behar dela eta horretarako euskararen udal ordenantza sortu. Euskaraz dakitenak egitera bultzatu behar ditugu, ez dakitenak ikasten animatu -erronka berezia dugu etorkinekin- eta pentsatzen dugu Udalarari dagokiola, baita ere, hizkuntza urraketak salatzea".

GIZARTE ONGIZATEA

"Helburua da desoreka sozialei aurre egitea, integrazioerako baliabideak eskainiz, bazterketa sozialari erantzunez, hirugarren adinekoei arreta berezia eskainiz eta zailtasunak dituztenendako ekintzak areagotuz. Berdintasunean oinarritutako gizartearen alde lan egingo dugu; Emakume Kontseilua eta tratu txarren kontrako plataformak indartu egingo ditugu, eta Emakume Txokoa emakume guztiendako izatea nahi dugu".

KIROLA

"Proposatzen dugu AUKEA indartzea azpiegitura berriak kudeatzeko, kirol talde eta erabiltzaileekin. Instalazioek taldeen eta herritarren beharrei erantzun behar die eta bultzatuko dugu haien popularizazioa. Kirol praktika erraztu egingo dugu. Euskal kirolen alde apustua egin eta euskal kirol federazioak aldarrikatuko ditugu".

Arrasaten...



egin behar dugu

www.eginbehardugu.com



Luis Mari Apraiz Iturraran

Arrasateko Alkatetzarako
hautagaia

eman botoa



www.eaj-pnv.com

PELLO URIZAR > EA

"Herritar guztiei udaletxera sarrera eman behar zaie"

UBANE MADERA > ARRASATE

Pello Urizar hautagaia da EAko zerrendaburua. Arrasaterako aurkeztu diren alkategaien artean gazteena da hura (39 urte). Edozelan ere, badu esperientzia luzea politikan, nahiz eta ez izan udal politikan.

HIRIGINTZA

"Sustatu beharreko etxebizitzak dira babes ofizialekoak, tasatuak eta alokairuzkoak.

Industria txikia bultzatzeko bitartekoak jarri behar direla pentsatzen dugu: orain industrialdeetan 1.000 m²-ko moduluak saltzen dira, zatitzeko aukera barik. Hobe 300 m²-koak.

Bestalde, esan beharra dago hirigintza jasangarriaren ikuspegitik, erabili bako lurrik ez dagoela. Beraz, egin beharreko urbanizazio berriak eraikitako lurretan egin beharko dira.

Etxebizitza berriek eta tranbiak Arrasateko fisonomia aldatuko dute. Etorkizuneko mugikortasuna kudeatzea beste erron-

ka bat izango da. Bukatzeko, proposatzen dugu hirigintza planeamendurako aholkularitza kontseilua sortzea".

INGURUMENA

"Kudeaketa jasangarria izan dadin, derrigorrezkoa da ingurumena oinarrizko atal bat izatea.

Hala, Tokiko Agenda 21 bultzatuko dugu erreminta moduan, bai Arrasaten, baita ibarrean ere, ingurumenaren arazoa ez da bukatzen-eta Arrasateko mugetan.

Mugikortasunaren kudeaketan ere ingurumenak berebiziko garrantzia izango du; hala, EAtik garraio publiko eta kutsadurarik sortzen ez duten garraioen -bizi-

kleta, adibidez- aldeko apustua egingo dugu. Bestalde, proposatzen dugu Erosketa publiko berdea; hau da, erosketa eta kontratazio publiko guztietan ingurumen baldintzak bete behar izatea bultzatzea; esaterako, garraio publikoak bio-erregaia erabiltzea".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Kultura arloan gaur egun Arrasaten dagoen premiarik handiena da Arrasate Musikal dagoen tokitik atera eta toki duin batera eroatea.

Euskal kultura sustatzeaz gainera, gure artean bizitzea erabaki duten etorkinen kulturaren ezagupenean sakondu behar dugula pentsatzen dugu, horrek integrazioa eta elkar ezagutzea areagotuko duelako.

Gazteek gaur egun arazo bat dute, etxebizitza eta lan prekarietatearen gain: inplikazioa eskatzen zaie, baina eurek aukeratu ez duten modu batean. Gazteendako programak landu behar dira, baina eurekin batera.

UDALA GERTURATU

"Udalak herritar askorendako urrutiegi daude; hori aldatzeko ahalegina egin behar da"



Pello Urizar

Informatika teknikaria
39 urte • Arrasate

BERBA BITAN

"UDALAK DIRA HERRIAREKIKO GERTUEN DAUDEN ERAKUNDEAK"

"Udalak dira herriarekiko gertuen dauden instituzioak; hala ere, askorendako urrutiegi daude. Hori aldatzeko ahalegina egin behar da. Modua da arazoak konpontzeko eta esplikatzeko herritarrei sarrera ematea udaletxera. Behar duen informazioa emanda, herritarak zentzuz eratzuten duela uste dugu".

Merkataritza eta aisialdiarendako ingurune *lagunkoi* bat sortzea izango da beste erronketako bat. Eta ingurune hori indartuko duen eragile guztiak parte izango diren udal kontseilu baten sorrera bultzatuko dugu".

EUSKARA

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia martxan jarri eta aurrera eroatea izango da agintaldi honetako erronkarik garrantzitsuena guretako.

Euskararen alorrean, AED jaio zenetik, Arrasate aitzindari izan da euskara alor desberdinetan zabalitzen: komunikabideak, aisialdia... Orduetik aurrera, Arrasateko kaleetan euskararen presentzia asko areagotu zen. Plan horrekin, zabaldua ez zegoen txokoetara iristea eta han normalizatzea lortu behar da".

KIROLA

"Mojategiko kirolgunea zabalteketan dagoen honetan, kirol talde askok urte askoko eskaerak aseta izango dituzte, eta hori pozgarria da. Baina gaur egun, gizartearen bizimoduak izan duen aldaketarekin, geroago eta gehiago kostatzen da pertsonak konpetizio antolatuetara erakartzea.

Aldiz, arautu bako kirolak gora egin du, kirola aisialdi osasuntsu moduan hartzen delako.

Kirolaren erabilera ikuspuntu horretatik sustatu behar dugula uste dugu, kirola-osasuna kontzeptu bikoitz horretatik".

ITZIAR LAMARAIN > PP

"Batez ere lan egingo dut adinekoendako egoitza baten alde"

UBANE MADERA > ARRASATE

Itziar Lamarainek lau urte daromatza zinegotzi eta aurten PPK alkategai moduan aurkeztu du. Alkate izateko aurkeztu den hautagai nagusia da. Politikan "iluntasuna"-ren kontra jardungo du.

HIRIGINTZA

"Lan egingo dugu ez gertatzeko oraingo agintaldian gertatu dena: *trapitxeoak*, iluntasuna eta lagunei atzamarrarekin emandako lanak. Hori ezin da onartu, eta orain arte moduan, borrokatuko dut indar guztiekin gerta ez dadin. Horrez gain, badugu zeregina: babes ofizialeko etxebizitzak... Batez ere, lan egingo dugu adinekoendako egoitza berriaren alde, musika etxearendako beste proiektu bat dugu; aurkeztu dutena arrasatearrendako txarra dela pentsatzen dut, eta zerbait hobea merezi dugula. Gelmaren eraikina ere hor dago; Zerrajeran aurreikusita dagoen museo industrial eta zientzietakoa Gelmaren eraikinean egokiago ipin daiteke".

INGURUMENA

"Udalean jardun dugu Arrasate Iraunkorra lantzen. Ingurumenean ere egiteko asko dago, eta ez txapuzekin. Oso larria da babes-tutako espezieak dauden Ikutixo moduko ingurunean zabortegi bat proposatzea Olandixoko tunelko materia hara botatzeko. Zorionez, mahai gainean geratu da hurrengo agintaldirako. Oro har, gure indar guztiekin borroka egingo dugu Ikutixo zabortegi bihurtu ez dadin".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Zorionez, kultura etxe berria, Kulturate eginda dugu. Proiektu horrek nire kritika guztiak izan

ditu, ez eraikinaren esanahiarengatik, izan duen kostu izugarriarengatik baizik, zehaztutako aurrekontuaren bikoitza baino gehiago, eta gainera, aurreikusitako bakoia; dena den, hortxe dago eta arrasatearrek egin behar duguna da gozatu. Bestalde, gura dugu bultzatu Zerrajeran musika etxe bat. Ea, bada, guztien artean gauza garen eraikitzeko musika etxe bat, Arrasateko talde guztiendako duina izango dena. Gutxi barru aurkeztuko dut horren gaineko proiektu bat. Aisialdiari dagokionez, gabezia handiak ditugu: multizinemak egin behar ditugu, eta, adibidez, *txiki park* moduko bat 16 urtetik beharokoendako. Gazteei dagokionez, oro har, gauza gehiago behar dituzte haiek: kulturarako lekuak, aisialdirako...".

EUSKARA

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia garatzeko dugu, gure beste hizkuntza, euskara errealitate izan dadin herri honetan. Askok badaki euskara, txikitatik edo ika-

IKUTIXO

"Gure indar guztiekin borroka egingo dugu Ikutixo zabortegi bihurtu ez dadin"



Itziar Lamarain

Enpresaria
62 urte • Arrasate

BERBA BITAN

"JARDUNGO DUT ZINTZOTASUN, LEIALTASUN, INDAR ETA ILUSIOZ"

"Aurrekoan botoa eman zigutenei eskertzen diet konfiantza eta espero dut eurek eta gehiagok babesa ematea orain. Jardun dut indar, ilusio, leialtasun eta zintzotasunez. Arrasatearra naizelako, eta arrasatearrendako onena gura dudalako. Hala jardungo dut berriro konfiantza ematen badidate".

si egin du, baina gutxi erabiltzen du. Eta garapen egokia izateko, erabili egin behar dugu, berba egin. Euskararen aldeko medio guztiak gutxi dira kontuan hartuta guztiona den ondasun kulturala dela. Bestalde, proiektuen gainean berba egiten gabiltzanez, uste dugu ez litzatekeela txarra izango datorren agintaldian euskararekin lotutako zerbitzu guztiak batzea eraikin bakarrean, kulturarekin egin den moduan. Hau da, euskaltegia, AED, Ekin... nor bere aldetik dago. Ea eraikin duin bakarrean batzen ditugun jarduerak hobeto garatzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Bide guztietatik ahaleginduko gara arrasatearrek egoitza berri bat izan dezaten, orain dagoenarekin osagarria. Gaur egun daude 48 lagun baino gehiago itxaron zerrendan. 2002tik edo lehenagotik Diputazioak aurreikusita zena ez da bete. Guk bultzatuko dugu Batzarretatik eta Udaletik bigarren egoitza eraikitzea. Bizitza osoan lanean ibili diren gure nagusiek izan ditzaten merezi dituzten kalitatezko zerbitzuak".

KIROLA

Mojategiko instalazioei esker, Arrasaten izango dugu kirolgunea bat lehen mailakoa. Oso ondo daude instalazio haiek, orotariko kirolak egin ahal izango ditu adin guztietako jendeak, eta pentsatzen dut harro egon gaitzkeela. Garrantzitsuena da guztiok osasuna izatea haietaz gozatzeko".

Arrasate egit

Beste modu batean

www.euskalherriaegitea.org

Arrasate denon artean eraiki behar dugulako, Hirigintza Planeamendurako Aholkularitza Kontseilua sortuko dugu. Arrasate biziberritzeko, merkataritza eta aisiguneak sustatuko dituen Udal Kontseilu bat sortuko dugu. Arrasaten euskaraz normaltasun osoz bizi behar delako, EBPN bultzatuko dugu. Etorkizuneko Arrasate arrasatearrok erabaki behar dugulako.

emanbotoa
bestemodubatean

Pello Urizar Karetxe
Arrasateko Alkatetzarako Hautagaia
Pertsona fidagarriak.



www.euskalherriaegitea.org

PACO GARTZIA > PSE-EE

"Ez dugu hirigintzan jardungo interes partikularrengatik"

UBANE MADERA > ARRASATE

Paco Gartzia Arrasaten aspalditik da ezaguna, lau legegintzaldi egin ditu eta zinegotzi. Bigarren aldia da PSE-EEk alkategai moduan aurkezten duena. "Politika sektarioak" baztertu ditu.

HIRIGINTZA

"Hirigintza egingo dugu kristalezko poltsikoekin. Pentsatzen herritarrengan, eta ez batzuek legealdi honetan eta bestelako urteetan egin duten moduan, partiduen eta partikularren interes eta poltsikoetan pentsatzen. Etxebizitzak bultzatuko ditugu, oztopo arkitektonikoak ezabatu, bereziki, zailtasun handiak dituzten auzoetan. Ingurumen gehiago duen hirigintza egingo dugu, lorategi gehiagorekin eta naturarekin atseginagoa dena. Azken batean egingo dugu herritarrek merezi duten hirigintza; ez dugu egin behar alderdi politikoen hirigintza, ez gara partidistak izango, eta ez dugu hirigintzan jardungo interes partikularrengatik.

INGURUMENA

"Herri garbi eta duina izateko politikak bultzatuko ditugu, ingurumenarekiko errespetua duen herri baten alde. Ahalik eta auto partikular gehien aterako ditugu hirigunetik, garraio publikoa bultzatu eta kutsadurarik ez sortzeko. Ez dugu, esaterako, hondakin solido urbanoen tratamenduaren kontra egingo. Gaur egun Gipuzkoan, Arrasaten eta inguruan dugun arazo larria da hori. Ingurumena babesteko politika aktiboak egingo ditugu, ez demagogiarekin, ez esanez ingurumena babestu egin behar dela eta, era berean, paretak propaganda elektoralarekin zikinduz".

HIRIGINTZA GARDENA

"Guk egingo dugun hirigintza kristalezko poltsikoekin egingo dugu"

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Ez dugu politika sektariorik egingo. Amaia Udal Antzokia eta kultura etxe bikain berri horren erabilera bultzatuko ditugu. Egin behar da gazteendako, pertsona nagusiendako, etorkinendako, euskaldunendako eta euskaldunak ez direnendako kultura. Herritar guztiak eroso sentitzeke modukoa. Arrasatearrak ez ezik, ibarrekoak ere erakarri behar ditugu kultura etxe bikain horrekin gurera, kulturarekin goza dezaten. Ahaleginduko gara kulturaren ditugun elementu guztiak aprobetxatzen. Kultura soziala egingo dugu. Ez dugu egingo txalapartaren eta ezta gitarren kultura ere, orotariko aisialdia izango duen eta bereziki gazteek behar dutenean pentsatutako kultura egingo dugu".

EUSKARA

"Euskara ezin da izan modu partidistan erabiltzen den jaurtitzeko arma bat. Hizkuntza bat da eta elkarren artean komunikatzeko



Paco Gartzia

Fagorreko langilea eszedentzian
54 urte • Arrasate

BERBA BITAN

SOZIALISTOK POSIBLE EGIN DUGU
ARRASATE ORAIN DENA IZATEA

"Alderdi Sozialista da seriotasuna erakutsi duen bakarra; kristalezko poltsikoduna, bazterkeria barik jardungo duena, garantiak eman ez duen bakarra, demagogiarik egin ez duen bakarra, posible egin duena Arrasate orain dena izatea, eta hori oposiziotik; zer egingo genukeen gobernuan bagina?"

balio behar du. Arrasaten gabezia handiak ditu. Guk bultzatu egingo dugu. Adibidez, Udal Euskaltegiak instalazio berriak behar ditu. Ezin da euskararen alde egin prezio garestiak mantenduz, eta beka gehiago eman barik. Euskara gehiago lagundu behar da diruz. Herritarren %4 etorkinak dira. Haiek euskararen baitan gizarteratu behar dute, ez zaie inposatu behar. Euskara sentiarazi, bizi dezatela lortu behar da. Ez dugu onartuko norbaitek euskara erabiltzea inor baztertzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Ahaleginduko gara bete dadin menpekotasunaren gaineko lege berria. Bestalde, gabeziak daude, esaterako, Iturbide egoitzan; hala-koak handitzeko politika egingo dugu. Diputazioarekin batera, beharrak dituzten familien itxaron zerrendak ezabatzeke politika egingo dugu. Jarraituko dugu lanean herritar guztiendako duina den ospitale baten alde".

KIROLA

"Mojategiko instalazioak ez dira oraingo gobernuaren lanaren emaitza, baizik eta PSE-EEren antzina-ko proiektu bat, 20 urte baino gehiago dituen eta orain guk ere bultzatu duguna. Orain kirolgune berri hori egon behar da kirolariz eta neska-mutikoz beteta. Ezin dugu egin kirol politika bat baztertu diru gutxien dutenak. AUKE-Arekin negoziatu behar dira laguntza gehiago, guztiak goza ditzaten instalazio berriak".

Arrasate gogoan hartu

Paco García ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

PSE-EE PSOE **Eman botoa**

EAE EUSKO ABERTZALE EKINTZA

ANV ACCION NACIONALISTA VASCA

'danok bagara garaile gara!'

JOSEBA UGALDE > EZKER BATUA-BERDEAK/ZUTIK

"Egitamu Orokorra kaltetuekin batera berraztertu gura dugu"

UBANE MADERA > ARRASATE

Esperientzia luzea dauka Joseba Ugaldek udal politikan, hiru agintaldi egin ditu eta zinegotzi. "Beste udal mota bat" posible dela uste du EB-Berdeak/Zutik koalizioko hautagaiak.

HIRIGINTZA

"Egitamu Orokorra eztabaidatzea eta berraztertzea planteatzen dugu, kaltetutako pertsona eta kolektiboekin: Garagartza eta Gesalibarko auzotarrekin, Etxe Txikietakoekin, Uribarriko auzotarrekin, Arrasateko merkatariekin, gazteekin eta abarrekin.

Planteatzen dugu aldaketa Atxabalpe, Akisoalde eta Agerre ingururako. Aldaketa hori eginez gero, uste dugu posible izango dela babes ofizialeko ia 400 etxebizitza eraikitzea.

Zabaletan geraleku intermodala eraikitzeko proiektua aldatzea ere proposatzen dugu, Arruenako parke publikoa salbatzeko. Ikutixoren erabilera, berriz, aldatu egingo dugu, gunea babesteko.

Eta auzoetan jarraituko dugu Izarturen proiektuekin, irisgarritasuna lantzen".

INGURUMENA

"Etxezarreta erostea planteatzen dugu. Uste dut hor dugula parke bat oso ona arrasatearrendako. Eta baita erostea Kurtzetxikiko egurra, hor ere egin daitekeela-ko parke periurbano oso ona.

Bestalde, Hidalgobason ortu ekologikoak egitea planteatzen dugu eta urbanizazio berrietako berdeguneetan, berriz, ortu urbanoak, tartean elbarri psikologikoendakoak. Horrez gain, Deba eta Aramaio ibaiak birpopulatzea planteatzen dugu.

PERTSONA NAGUSIAK

"Espazio publikoetan nagusiendako gimnasioak planteatzen ditugu eta kirola egiteko laguntzak"

Bukatzeko, Udalatxan erabilera erabakitzekeko erreferenduma egitea proposatzen dugu".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Planteatzen dugu lortzea zentro bat interpretatzeko gure ekosistema; ikusi zein arrazoi dauden klima aldaketarako eta zer egin dezakegun Arrasaten hori murrizteko.

Horrekin batera, Aprendizien Eskolan kafe antzokia egitea proposatzen dugu. Baita ere, eta kontuan hartuta Arrasaten bidezko merkataritza mailan pertsona nahiko lanean dabilela, haiendako gune bat egokitzea.

Bestalde, ikusten dugu gazteek ez dutela lokalik auzoetan. Bakarrik dago gaztetxea erdialdean. Planteatzen ditugu euren aisialdirako lokalak. Eta beharrezkoa da Musika Etxea eta Museo Industrialari bultzada ematea.

EUSKARA

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartuta dago Udalean eta hori beteko dugu euskara



Ezker Batua Berdeak

Joseba Ugalde
Fagorreko langilea
56 urte • Arrasate

BERBA BITAN

BESTE UDAL BAT LORTZEKO GURE KOALIZIOA BEHARREZKOA DA

"Udal honetan trantsiziotik izan ditugu gobernu nazionalistak eta ezker abertzalea. Eta ikusten dugu oraindik arazo handiak daudela. Eta beharra dagoela Arrasate atsegina-go eta parte-hartzaileagoa izateko. Horregatik planteatzen dugu araudi bat parte-hartzea bideratzeko. Gukiogiu beste udal bat posible dela".

arloan dabilzan talde guztiekin. Horrez gain, euskaltegi berri bat egitea beharrezkoa da Arrasaten eta uste dugu matrikulak garestiak direla eta murriztu egin behar direla; baita ere beka gehiago eman behar direla".

GIZARTE ONGIZATEA

"Etkez etxeko laguntzaren hari-ra, itxaron zerrenda luzea dagoela eta, aurrekontua handitu eta itxaron zerrendarik ez egoteko lan egingo dugu.

Bestalde, familiek geroago eta gehiago zaintzen dituzte pertsona nagusiak, elbarriak eta abar. Bada, familiek atsedan hartzeko zentroa planteatzen dugu.

Horrez gain, aspaldi proposatu genuen espazio publikoetan desfibriladoreak ipintzea. Proiektua egin barik gelditu da eta uste dugu egin beharko litzatekeela.

Bukatzeko, elbarri psikologikoendako etxebizitza tutelatuetak planteatzen ditugu".

KIROLA

"Espazio publikoetan pertsona nagusiendako gimnasioak aspaldi proposatu genituen eta momentuz ez ditugu lortu. Datorren agintaldian gura dugu lortu.

Pertsona nagusiendako kirola ere bultzatuko dugu, doan, beharra dutelako; askok yoga edo tai-txia egiten dute, baina oso garestia da; beraz, dirulaguntzak ere proposatzen ditugu.

Eta kiroldegian tarifak ipintzea norberak dituen diru sarre-rak kontuan hartuta".

beste Udal bat egin daiteke



zuk zeuk erabakiko duzu!!

Bozkatu

EB Ezker Batua Berdeak

ZUTIK

JOXE ETXEBERRIA > ARALAR

"Bai Arrasate euskaldun eta iraunkorrari eta bai etorkizuneko foroari"

UBANE MADERA > ARRASATE

Aralarrek Joxe Etxeberria aurkeztu du alkategai izateko. Bigarren aldia du hark, aurreko agintaldian zinegotzi izan da-eta. "AHT bertan behera uztea proposatzen" du Aralarko kideak.

HIRIGINTZA

"Beste hirigintza mota bat posible dela uste dugu. Lurzoruaren Legeak esaten duena oinarri hartuta, babestutako eta alokairuzko etxebizitza kopurua handitu egin behar dela uste dugu. Bestalde, Egitamu Orokorrean Garagartzan aurreikusitakoaren gainean zera planteatzen dugu: Barrutietako gunean egin beharreko txaletak ez egitea eta haien ordez dentsitate erdiko etxeak eraikitzea; Bustintzan etxerik ez egitea eta Garagartza auzogunea izango denez, proposatzen dugu behar diren zerbitzu eta azpiegiturekin hornitzea. Bestalde, Ikutixon zabortegia egiteko plana alde batera utzi eta inguru hura babestuko genuke".

INGURUMENA

"Beti esan dugun legez, AHT bertan behera uztea proposatzen dugu, tren soziala delako herriak lotzen dituena.

Bestalde, Bizkaiarekin komunikazio oso eskasa dugula-eta, hori hobetzea derrigorrezkoa zaigu, komunikazio gabezia horrek auto piloa mugiarazten dituelako. Horrez gain, harrobiak berreskuratzeko ahalegin guztiak bultzatuko ditugu.

Zaborrak sorlekuan kudeatzeko plana landu behar dela uste dugu; beraz, erraustegirik ez, ez hemen ez inon. Horren harira, organikoak diren gauzak bereizi eta konpostatzeko hitzarmenak

NORABIDEA FINKATU

"Udalaren eginbeharren norabidea landu behar da hasieratik, noraezean ez erortzeko"

gauzatzeko planak bilatuko ditugu gertuko bitartekoekin. Errepideetan, zaraten kontrako babesa ipintzea proposatzen dugu. Eta bizikletaren erabilera bultzatzeko behar diren bideak egokitu eta baita haiek aparkatzeko guneak ere".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Kultur taldeen dinamika bultzatu behar da eta euren proposamenak era koordinatuan programatu urtean zehar; horrez gain, beste herrietako kultur elkarteekin trukatzeko lana aberasgarria da. Bestalde, antzerki eskolekin hitzarmenak egin behar dira eskolen jarduera ziurtatu eta emanaldiak finantzatzeko. Horrez gain, kultur kontsumitzaileek nolabaiteko aholkulari izateko bitartekoak ipini behar dira Kultura Sailarekin.

Aisiari eta gazteei dagokien, gazteek gaztetxea autogestionatzen dute eta uste dugu hori dela bidea. Gaztetxoagoi begira, berriz, Musakolan eta Erguinen badaude gazte txokoak; erdialdean bat ipintzea proposatzen dugu".



Joxe Etxeberria
Langilea
56 urte • Berastegi

BERBA BITAN

"HERRITARREN PARTE-HARTZEA DA HELBURU NAGUSIETAKO BAT"

"Parte-hartzea da helburu nagusi bat, komunikazioa bi norabidean landuz. Udal eginbeharren norabidea landu behar da hasieratik, baztertzeko noraezean erortzeko arriskua. Erabakiak hartu aurretik landu behar dira informazioa eta ezagutza; hor etorkizuneko foroak lagunduko digu; hori sortu behar da".

EUSKARA

"Euskara Biziberritzeko Plana (EBPN) onartuta dago; hori bultzatzen ibili gara. Udalaz aparte, herrian ditugun erakunde hainbat askotan elkarren artean koordinatu gabe ibili gara; horretarako tresna da EBPN. Neurri horretan, elkarlanean aritzeak onura suposatzen du eta etekin hobeak ateratzeko zerbitzua da. Horren barruan foro bat sortu behar da. Foroaren lana izango da adostu denon artean zeri heldu eta lehen-tasunak jarri. Hori guztia, batez ere eraginkortasuna lortzeko euskararen erabileran; jakitea gauza bat da eta erabiltzea beste bat".

GIZARTE ONGIZATEA

"Iturbide egoitzan lanak egiteak suposatzen du lanek diharduten denboran erabiltzaile gutxiago egongo dela; beraz, itxaron zerrenda luzeagoa izango dela. Dena den, bukatzen dituztenean, plaza gehiago izango ditu. Hala ere, beste egoitza baten beharra aztertu egin beharra dago. Bestalde, Abaroa ere bagoaz osatuz orain Etxaluzen egingo duten eraikin berriarekin. Bukatzeko, etxerik laguntzarekin segituko dugu".

KIROLA

"Kirola egiteko eraikin berriak daude; beraz, kirol taldeei euren jarduera eta dinamikari eustea dagokie. Bestalde, kirola geroago eta gehiago dago uztartuta aisialdiarekin; horrela, autoa hartu barik erabiltzeko moduko paseatzeko bideak egokitu ditugu".

ausartu

Arrasate aldatzen

Bozkatu



www.aralar.net

euskara

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Aramaio

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



IÑAKI NAFARRATE > EAJ

"Esperientzia, lana eta ilusioa eskaintzen ditugu jeltzaleok"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Iñaki Nafarrate Aramaioko alkate izan zen 1995tik 2003ra eta azken agintaldian Arabako Batzar Nagusietako kide izan da. Nafarrateren ustez, "giza eskubideen errespetua ezinbestekoa da eta ezin dira ideien gaineratik beste gauza batzuk erabili".

Bere alderdiak datorren agintaldirako prestatu duen programaren oinarriak azalduko dizki jarraian.

HIRIGINTZA

"Hiri antolamendurako plan nagusia onartzea ezinbestekoa da Aramaion hirigintza arloan edozer gauza egiteko, eta gauza bera gertatzen da mendiekin eta zerbitzuekin. Hori izango da, beraz, gure egitekoa.

Industrialdea garatzen saiatuko gara, enpresek Aramaion kokatzeko aukera izan dezaten.

Auzoetako eta Gasteizko errepideak konpondu nahi ditugu agintaldi honetan eta auzoetako azpiegiturak hobetzen jarraitu.

Auzo batzuei azpiegiturak falta zaizkie, eta lan horiek bukatzea derrigorrezkoa da".

INGURUMENA

"Hondakin urak araztu nahi ditugu; oraindik Aramaion putzu septikoa daukagu eta gure plana da araztegi bat jartzea sortzen diren ur zikinak garbitu ahal izateko. Hondakin solidoei dagokienez, buru-belarri jarriko gara honen inguruko gestioa hobetzeko.

Baso eta mendiak kudeatzeko plan berezia ere egin nahi dugu ingurumena zaintzeko. Derrigorrezko tresna da hori eta legealdi honetan ezinbesteko dugu hau aurrera ateratzea.

GAZTEAK

"Gazteekin daukagun harremana hobetzeko zubiak eraiki nahi ditugu"

Suhiltzaileen parkea Aramaion kokatu nahi dugu; bagabiltza negoziatioetan, eta proiektua nahiko aurreratuta daukagu. Gasteiztik edo Oñatitik suhiltzaileak iristen direnako berandu izaten da askotan".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Babes ofizialeko ahalik eta etxe gehien egin nahi ditugu. Ezin dugu etxebizitzek merkatuan daukaten prezioa onartu. Gure gazteek etxebizitza duin bat izateko eskubidea daukate eta herriko lurzorua etxe merkeagoak egiteko kalifikatuko dugu.

Gazteei dagokienez, orain arte harremanak nahiko makalak izan dira. Horregatik, gure helburua da harremanak hobetzea eta udaletxearen eta gazteen arteko zubiak eraikitzea. Bien arteko elkarlana bultzatuko dugu. Baina konpromiso serioak hartu behar dituzte biek ere: Udalak bai, baina baita gazteek ere".



Iñaki Nafarrate
Fagorreko teknikaria
55 urte • Aramaio

BERBA BITAN

GIZA ESKUBIDEEN ERRESPETUA GUZTIAREN GAINETIK

"Esperientzia eskaintzen dugu guk, azken 20 urteotan udaletxean gauza asko egin baititugu. Lana, ilusioa eta giza eskubideen errespetua eskaintzen dugu. Ideien gaineratik ezin dira beste gauza batzuk ipini. Herriaren kezkak entzun nahi ditugu, ezinbestekoa da hori. Orain, herriak du hitza".

EUSKARA


"Euskara biziberritzeko planarekin jarraituko dugu. Udaletxe-ko langileen artean auditoria bat egin zen eta emaitzak oso positiboak izan ziren. Proiektu bera kalera atera nahi dugu orain; herriko elkarte desberdinetara, esaterako. Euskaraz lan egin ahal izateko erraztasuna eta laguntza eskaini nahi ditugu. Kontuak, albaranak eta abar euskaraz egiteko tresnak eskaini, esaterako".

GIZARTE ONGIZATEA

"Aramaioko erretiratuendako egoitza eraiki nahi dugu eta gure plana da bertan eguneko zentroa kokatzea, aramaioarrak kanpora joan barik senideen alboan egon daitezten. Gaur egun Arrasatera joaten dira. Hasiera batean, bi pertsonarentzat bakarrik zegoen lekua eta legealdi honetan kopurua bost pertsonara handitzea lortu dugu. Baina gure herriko adineko jendeak ez dauka zertan Arrasatera joan. Bertan egin nahi dugu eguneko zentroa".


KIROLAK

"Iruretako kirolgunean lursailak lortu nahi ditugu, hor kirol zerbitzu batzuk jartzeko. Igerilekua litzateke horietako bat. Legealdi honetan, beharbada, ez dugu igerilekurik egingo, baina lurra lortzea aurrerapauso handi litzateke. Horretaz gain, kirolguneko zerbitzu batzuk ere hobetu nahi ditugu".



Ondo egindako lana


BOZKATU EA



eusko
alkartasuna

Andres Osinaga

HAUTESKUNDEAK



UDAL ETA BATZAR NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEAK 07

Maiatzaren 28an
Asteleheneko Goienkaria-n:

- Debagoieneko datu guztiak
- Udalbatza guztien osaketa
- Zinegotzi guztien argazkiak
 - Eguneko gorabeherak
- Ordezkaritza politikoen iritzia
 - Análisi eta balorazioak

Erosi Asteleheneko Goienkaria ohiko tokietan edo egin zaitez harpidedun.


 astelehenean, aste bukaera osoa

ASIER AGIRRE > EAE-ANV

"Jende berri eta gogotsuak osatutako taldea gara"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Asier Agirrek 33 urte ditu eta autonomia da. Aramaion alkatetzarako hautagai gazteena da eta alkatetzarako zerrendaburu aurkezten den lehenengo aldia da.

HIRIGINTZA

"Uste dugu hirigintzak garrantzi dezente duela herrian. Apustu gogorra egiten dugu lantalde sendoa aurkeztuaz. Badaude baserri batzuk bakarrik edota alde batera utzita daudenak, eta horietara beharrezkoa den ura edota saneamendua eraman nahi dugu.

Egunerokotasunari dagokionez, herria ikusten dugu nahiko utzita dagoela: kaleak garbitzeko orduan, lorategiak zaintzeko orduan eta abar. Ez dakigu orain arte zerbitzuen arloan zer gertatu den, baina horri garrantzia emango diogu, inbertitu behar den gauzetan inbertituz. Gai garrantzitsu moduan, uste dugu Aramaion etxebizitzaren kontua dagoela. Orain eraikitzen ari

diren etxebizitza guztiak oso kostu garestikoak dira, eta hori onartezina da. Etxebizitza sozialak lantzea ezinbestekoa da".

INGURUMENA

"Etorkizuneari, ingurumena kolokan dago Aramaion. Begira jarritz gero, AHT proiektua dago, herrian inposatu egin dutena, dena puskatuko duena. Horren aurrean, alderdi batzuek, orain udalean egon direnek eta Eusko Jaurlaritzatik datozenek, proiektu horrekin bat egin eta herriaren erabakia zapaldu dute. Horregatik, ingurumenaren arloan, uste dugu AHTren proiektua ahal dela borrokatu egin behar dela.

INGURUMENA

"AHT proiektuarekin herriaren erabakia zapaldu da, eta horren kontra egingo dugu"

Egunerokotasunean, zaborren kontua ere begiratu nahi dugu. Gertatzen dena da birziklapenaren inguruan planifikazio oso politak egiten direla, baina egunerokotasunean, utzikieriaz jokatu izan da birziklapenaren kontuarekin.

Azkenengo puntu moduan, nekazaritza izan da Aramaioko ogibidea, eta hori ere bultzatu nahi dugu, jendearen laguntzarekin".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Aramaion kultur etxea daukagu eta kultur taldeak ere badauzkagu. Kultur talde horiei, gure aldetik behintzat, ahal den laguntza gehien eskaini nahi diegu. Subentzioak eta laguntzak, Udaketik bideratu ahal direnak behintzat bideratuko ditugu. Beraiekin lan egitea da asmoa. Orain arte ikusi duguna, behintzat, batzuen aurkako jarrera, ukazioarena izan da. Hori saihesteko, jendearen parte-hartzea bultzatu nahi dugu."



EUSKARA

"Euskara funtsezkoa da. Momentu honetan, Euskara teknikari bat dago Aramaion, baina Txiritola euskara elkarte ez balego, ez litzateke euskararen aldeko inongo bultzakadarik egongo. Orain arte badirudi utzi samar geratu dela, jendearen ohiturarengatik-edo, eta gaztetatik hasita euskara indartzen hasi beharra ikusten dugu".

GIZARTE ONGIZATEA

"Berdintasun politika mantenduko dugu. Garrantzitsua da herritar guztiak berdintasun bat mantentzea. Egongo dira gauza puntual batzuk, adinekoei begira egin beharko direnak, gazteei begira egin beharrekoak... Egunez zentro baten beharra badago Aramaion, begiratu egin beharko da eta plangintza bat egin udaletxean sartzen bagara; herriarekin kontaktatu dugu edo zer gauza egiteko".

KIROLAK

"Aramaion kirolari buruz hitz egiten hasten bagara, kirol etxera begira jartzen gara denok. Kiroldegia kirol batzuk praktikatzeke prestatuta dago eta beste kirol batzuk alde batera uzten dira. Eskaladarako, esaterako, ez dago inolako prestaziorik. Kiroldegia, beraz, instalazio bezala hobetu beharra dauka: Udalean badago plangintzaren bat zerbitzu hauek hobetzeko, baina aztertu egin beharko da zer erabilpen ematen zaion".



Asier Agirre

Autonomia
33 urte • Aramaio

BERBA BITAN

"JENDEAREN LAGUNTZAZ, UDALA HARTUKO DUGU"

"Gure alderdiaren oinarri sendoena udaletxera jende berria goazela da, jende gogotsua. Auzo guztietako jendea dago, gainera; beraz, badaukagu zer eskaini. Orain, herriak aukeratu behar du: botoa ematen badigute ondo, eta bestela ere bai. Guk ahal dena egingo dugu, eta, jendearen laguntzaz, udala hartuko dugu".

6 Oleta



Alberto Barrondo

4 Arrixola



Jon Errasti

2 Aixola



Joseba Jauregi

1 Suña



Asier Agirre

3 Ibarra



Martin Arriolabengoa

5 Gantzaga



Ainara Inunziaga

7 Ibarra



Iker Agirreurreta





Aramaixo zure herria, denon aukera.

BOZKATU

8 Urbarri



Gillen Agirre

9 Oleta



Patxi Xabier Bastarrika

10 Ibarra



Naiara Unamuno

11 Barajuen



Miren Errasti

12 Zabola



Roberto Lasaga

ANDRES OSINAGA > EA

"Krisi energetikoa konpondu beharra daukagu ezinbestez"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Andres Osinagak 59 urte dauzka eta azken bi agintaldietan zerbitzuetako zinegotzia izan da Aramaio Udalean. Aramaio krisi energetiko larria bizi duela uste du Osinagak.

HIRIGINTZA

"Hirigintza arloan bi atal berezi behar dira: azpiegiturak eta auzoak, eta kaleak eta etxebizitzak. Azken hauei begiratzen badiegu, 11 etxebizitza egingo dira promozio partikular bitartez eta beste 41 babes ofizialekoak.

Azpiegiturari dagokionez, saneamendu lanak egiten ari gara. Arraga auzoko proiektua bakarrik falta zaigu egiteko. Hurrengo legealdian, beraz, gure helburua hori izango da: proiektu hori bukatu eta jadanik daukagun azpiegiturak hobetzea".

INGURUMENA

"Aramaio ez dauka ia indutrialarik eta kutsadura maila oso

baxua dauka. Hondakinekin daukagu guk arazoa. Aramaion putzu septikoa daukagu eta gure herrian sortzen diren hondakinak Deba ibaira isurtzen dira. Debarroko Mankomunitatean plan berezi bat daukate ibaira isurtzen diren urak arazteko; hemen ere egin zen ikerketa bat, baina ez da ezer egin. Beraz, alferrik garbituko dituzte Deba ibai-ko urak, gero Aramaio ur zikinak bertara isurtzen baditu".

KULTURA, AISIALDI ETA GAZTEAK

"Aramaio herri aberatsa da kulturari dagokionez. Kultur etxea daukagu eta herrian, gainera, elkarte pila bat daude. 12 talde

daude, hain zuzen ere, eta orain beste elkarte bat sortu berri dute: Aramaio Sagardogileen Elkartea. Nik uste dut herritarrak dezente mobilizatzen direla eta kulturazko premiak ondo aseta daudela iruditzen zait.

Gazteekin izan ditugu arazo gehien. Legealdi honetan gorabehera asko sortu dira gaztetxea dela eta. Arazo hori konpontzeko esfortzu handia egin beharko dugu datorren legealdian. Baina konponbidea aurkitzeko beharrezkoa da borondatea izatea, batek besteari errua botatzen ibili beharrean".

EUSKARA

"Udal Euskaldunen Mankomunitatearen parte da Aramaio Udala eta azken urteotan egin diren azterketetan oso emaitza onak ateratu ditugu. Herri oso euskalduna da Aramaio eta zentzu horretan ez dut uste arazo handirik dagoenik. Osoko bilkura guztiak, esaterako, euskaraz egiten dira. Erabilera maila ere oso altua da.

EUSKARA

"Euskararen erabilera maila altua da; zentzu horretan ez dut uste arazorik daukagunik"



Andres Osinaga

Mekanikalan enpresako langilea
59 urte • Aramaio

BERBA BITAN

ARGINDARRA OSO GARESTIA
ETA KALITATE TXARREKOA DA

"Aramaio beti eduki izan du argindar propioa, Aramaio Argindar Banatzailea Udalarena da. Orain, Ibedrolaren zerbitzuak azpikontratatu ditugu, baina hori oso garestia da eta kalitatea ere ez da batere ona. Aramaio krisi energetikoa bizi duela esango nuke, eta hori konpondu behar dugu".

Euskara landu eta bultzatzen duen talde bat ere badaukagu, Txirritola taldea.

Euskararen erabilera eta eza-gutza ona dela uste dut. Dena hobetu daiteke, noski, baina ez dut uste zentzu horretan arazo handirik daukagunik. Euskararen erabilera gaur egun %97 da eta helburua litzateke, beraz, %100era iristea".

GIZARTE ONGIZATEA

"Aramaio daukan arazo larria da jende nagusiarentzat eguneko zentrorik ez daukagula. Udalak Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmen bat dauka sinatuta eta aramaioarrak Arrasateko Aita Menni zentrorra joaten dira. Baina horrek ezin du horrela jarraitu. Aramaioarrek herrian egoteko eskubidea daukate; beraz, lehenago edo beranduago eguneko zentroa eraiki beharko dugu herrian. Ez dakit noiz izango den hori, baina hurrengo legealdian arazoa aztertu eta proiektu batean lanean hasi beharko gara, proiektuari forma ematen hasi, ahalik eta azkarren arazo hau konpontzeko".

KIROLAK

"Hiru kirol talde daukagu herrian, baina instalazioak nahiko eskasak dira. Daukagun kiroldegia ez da nahikoa. Igerilekuri ere ez daukagu. Kiroldegi inguruan lurra lortu nahi ditugu igerilekua eraiki ahal izateko. Kirol arloan hori da gure lehentasun nagusia".

JOSE MIGUEL FERNANDEZ > EB-BERDEAK

"Hirigintza hurbildu behar da derrigorrez herritarrengana"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Jose Miguel Fernandez azken zortzi urteotan Ezker Batuko bozeramailea izan da Arabako Batzar Nagusietan. Aramaio lehen aldiz aurkezten da alkatezara, eta hautagai gazteena da.

Hurrengo agintaldian aurre-eraman nahi dituen asmoen berri eman digu.

HIRIGINTZA

"Lortu behar duguna da hirigintza udalek dirua egiteko makina bat ez izatea. Hirigintza herritarren zerbitzura egon behar da eta hirigintzarako antolamendua herritarrengandik gertu egon behar da. Hiritarrek erabaki behar dute zeintzuk diren euren hirigintzarako beharrak eta hirigintzako planak hori guztia ondo aztertu ostean egin beharko lirateke".

INGURUMENA

"Argi dago gizadia ezin dela lurra-
ren kontra aritu. Garapen iraunkorra ezinbestekoa da eta iraun-

kortasun hori herri txikietan errazago lortzen da. Herritarren eta ingurumenaren arteko oreka lortu beharra daukagu.

Energia berriztagarrien erabilpena bultzatzea ezinbestekoa da, eta horretarako Udala erreferentzia bat izan behar da. Udalaren eraikin guztiek energia berriztagarriak erabili beharko lituzkete, energia garbia erabili. Hori da herritarrengan ingurumena berreskuratzeko kontzientzia sortzeko bide bakarra".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura berreskuratzea ezinbestekoa da, baina ez elitezko kultura, bertako kultura baizik. Ez

daukagu zertan ekitaldi handiak antolatu eta artista handiak ekarri. Bertako kultura sustatu beharko litzateke. Horretarako, ezinbestekoa da autogestioa, hau da, gazteek erabaki dezatela zer kultura eta aisialdi mota nahi duten.

Gero eta herri europarragoak sortzen ari gara, lokaturik dauden herriak. Ez ditugu gazteak kalean nahi eta telebistako kate generalistak ikusten lokartuta daude zer egin ez daukate-lako. Gazteek nahi dutena entzun beharra dago, informazioa jaso eta euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko errekurtsioak eman."

EUSKARA

"Euskara gure kulturaren parte da eta zoritxarrez hori ez da horrela izan beti, eta orain dela gutxi lortu dugu bere erabilera-
ren normalizazioa. Plan konkretuak behar dira euskararen garapena lortzeko. Euskararen erabilera desberdina da bailarako

HIRIGINTZA

"Hirigintza ezin da udalek dirua egiteko makina bat izan; horri buelta eman behar zaio"

Ezker Batua
Berdeak

Jose Miguel Fernandez

Abokatua
35 urte • Aramaio

BERBA BITAN

EZKERRA, EUSKALDUNA,
FEDERALA ETA ERREPUBLIKARRA

"Gure alderditik ez dugu garena baino gehiago aginduko edota zin egingo. Ezkerra gara, euskalduna, federala eta errepublikarra. Horiexek dira Ezker Batua-Berdeak alderdiak dituen baloreak eta bultzatuko ditugun oinarriak, hain zuzen ere. Horregatik, gora Euskal Herriko Errepublika".

herri desberdinetan, horregatik dira beharrezkoak plan zehatzak; eskualdekoak, esaterako. Horrek euskaraz hitz egiten ez den kolektiboetara helaraztea erraztuko digu".

GIZARTE ONGIZATEA

"80ko hamarkadako gizarte ongizatea daukagu egun. Orduan sortu zen gaur egun ongizate estatua bezala ezagutzen dena, baina ez dugu aurrera egiten jakin. Giza eskubideak ezin dira onura gisa ulertu, orain arte horrela izan baita; giza eskubideak eskubide unibertsal moduan ulertu behar dira. Gizarteak funtsezko eskubideak eta beharrak bete-ta izan behar ditu. Adineko jendeak, esaterako, nagusientzako egoitzan egoteko eskubidea dauka. Ezinezkoa da zerrenda luzeak egotea, egoitzetan sartu ahal izateko. Nik uste dut errekurtsioak egon badaudela, baina ez direla ondo erabiltzen".

KIROLAK

"Ezker Batua-Berdeak alderdiak azken urteotan elitezko kirolaren aurka gogor egin du. Uste dugu kirol profesionalera zuzentzen den diru horrek guztiak profesionala ez den kirola kaltetzen duela. Kirola osasuna hobetzeko eta herritarrak integrazteko izan beharko litzateke. Lehiakortasunik gabeko kirolak bultzatu behar dira eta bertako kirol taldeak sortu. Horrek guztiak, noski, azpiegitura beharra eskatzen du".

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Aretxabaleta

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



ARRITXU OLIDEN > EAJ

"Gure herria bizitzeko toki goxoa izan dadin jarraituko dugu lanean"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAKO

Orain dela lau urte agertu zen politikagintzan, eta alkatea izan da azken agintaldian (EAJ-EA).

HIRIGINTZA

"Bi gauza azpimarratuko nituzke datozen lau urteotarako: ibili gara kaleak oinezkoendako jartzen eta berritzen, eta horretan jarraitu behar dugu; Herriko Plaza eta Mitarte kalea, esaterako. Gainera, oso garrantzitsua da kalitateko irizpideak sartzea, ez bakarrik materialari dagokionez, gauza txikiei erreparatuta baizik: altzariak, farolak... Gure herria toki goxoa izan dadin, hutsik dauden espazioak jendez bete eta bizitzeko.

Bestetik, hor daukagu plan orokorraren berrikuspena, eta erabaki beharko da Aretxabaletaren etorkizuna zelakoa izan behar den: nora hazi, zein espazio aprobetxatu...".

INGURUMENA

"Gure erronka da ingurumena osotasunean ikustea, ez bakarrik toki naturalak. Oso garrantzitsua da

udal politika publiko guztietan jasangarritasun irizpideak sartzea, eta plan orokorrean ere kontuan hartu beharko lirerateke.

Ez dugu ahaztu behar Aretxabaletako zati handi bat, heren bat, parke naturala dela. Hor dugu Urkulu, Debagoienarako aisialdigune garrantzitsua eta parke naturalerako sarbidea, eta uste dut ingurune natural horrek balio erantsi handiagoa duela sozializatuta dagoen heinean. Guk ahalegin handia egingo dugu sozializatu, ibilbideak egin eta jendeari zabaltzeko".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kulturaren bi erronka daude. Kultur etxea bera egin dugu, baina

KULTURA

"Kultur etxea, azpiegitura, egin dugu, baina erronka orain bizitza ematea izango da"

orain erronka bizitza ematea izango da, eta dinamismoa ematen diogun heinean herriari ematea. Azken urteotan herriak galdu egin du bizi giroa, eta berreskuratu egin behar du. Horretarako kultura eta aisialdi eskaintzan indarra egin behar dugu, eta bizilagun guztientzako eskaini, bereizten hasi barik.

Bestetik, garrantzitsua da beste toki bat -kafe antzokia, auditorioa edo horrelako zerbait- eskaintza anitzetarako -kongresuak, antzerkiak...-, beste bizitasun eta dinamika bat sortzeko herrian".

EUSKARA

"2004an Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian sartu ginen, eta bide zuzena da euskarako politikak bideratzeko. Saila bera ere egituratu egin dugu. Nahiz eta orain arteko lana ona izan eta fruituak eman, indarrak beste bide batzuetan jarri behar ditugu. Lan mundua ahaztuta dugu, eta Lanhitzen bidez, Jaurlearitzako laguntzen bitartez, lan munduari eutsi behar diogu euskalduntzeko. Eta aisialdia, kirolak



Arritxu Oleden

Komertziala

40 urte • Aretxabaleta

BERBA BITAN

BERRIKUNTZA ETA ETORKIZUNA
ESKAINI HERRITARREI

"Aretxabaletak etorkizunari begira jartzeko aukera ona dauka, eta erronka handiak. Berrikuntza sailean XXI. mendeari begira jarri behar da, eta, lanaren inguruan arazoak sortzen hasi badira ere, berrikuntza aukerak ditugu. Guk berrikuntza eta etorkizuna eskaintzen dizugu".

lak eta mundu hori euskalduntzen ere hasi behar dugu.

Orain arte ezagutzen jarri ditugu indarrak, baina hemendik aurrera erabilera oso garrantzitsua izango da, hor ikusten direlako, estatistiken arabera, zailtasun gehiago".

GIZARTE ONGIZATEA

"Azken urteotako politikak mende-kotasunak dituztenendako bideratuta joan dira, eta hemendik aurrera izan behar dira autonomoendako. Orain arte ez dute izan baliabide espezifikorik; erresidentziak eta tutoretzapeko etxebizitzak jarri behar dira, bai, baina aisialdirako beste zerbitzu batzuk eskaini behar dizkiegu. Kirol etxean badituzte egokiak diren gimnasiak, baina atera egin behar dira handik eta gizartean integratu.

Jarraitu behar dugu irisgarritasun planarekin, eta indartu. Eta familia eta lanaren bateratzea errazteko beste baliabide batzuk martxan jarri behar dira".

KIROLAK

"Herriak azpiegitura gabezia handia dauka. Kirol etxeko ideien lehia-ketako irabazlea proiektua egiten dabil eta horri eutsi behar diogu; erronka handia izango da eta inbertsio garrantzitsua. Aukera handia dugu, gainera, proiektu integratua egiteko, beste zentzu bat eman ez osasunaren inguruan. Aretxabaletan badugu tradizioa bainuetxeen inguruan, eta nolabait berreskuratu eta kirol etxean integratu beharko genuke irizpide berriekin: spa filosofia erabiliz".

Aretxabaletan, egin behar dugu



Arritxu Oleden Bergara

Aretxabaletako
Alkatetzarako
hautagaia

www.eginbehardugu.com



INAXIO GARRO > ARALAR

"Herriko eragileekin landu behar dira aurrera begirako egitasmoak"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Ez du sekula politikagintzan jardun; hortaz, lehenengoz aurkeztuko da udal hauteskundeetara.

HIRIGINTZA

"Guk Aretxabaeta garatzeko egingo dugu apustu. Baina uste dugu garapen orekatua izan behar dela, bi zentzutan: batetik, natura eta landa inguruarekiko errespetuz jokata; eta bestetik, garapen urbanistiko eta sozialarekin zentzuz jokata. Bestalde, etxebizitzaren alorrean aretxabaetarren beharrei, batez ere gazteenen beharrei, erantzun-go dien politika egin beharko litzateke, alokairuko eta babes ofizialeko etxeak bultzatuta eta libreak alde batera utzita. Lurzoruaren kontrola Udalarena izan beharko litzateke espekulatzailerei atek ixteko".

INGURUMENA

"Gure asmoa da Urkulun ikerkuntza eta dokumentazio zentroa zabaldu eta bultzatzea, uste dugulako gune horrek badituela heziketa balore naturalak eta ekologikoak,

eta ikastetxe, herri eta elkarteetan zabaldu egin behar direla.

Autobideko lanak aurrera doaz, eta lanok zaindu eta aztertze lan teknikoak egingo dituen aditu baten laguntza behar da; izan ere, lurrari ahal den kalte gutxien egin eta lanak ganoraz egiten direla ziurtatzea Udalari dagokio.

Ikastetxeekin elkarlanean Eskola Agenda 21 bultzatuko dugu: Aste Berdea, Zuhaitz Eguna... Eta aspaldian herrian porlan asko ikusten da eta berde gutxitxo; hortaz, berdeguneak bultzatuko ditugu".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultur aniztasunetik abiatutako plangintza behar da. Andramai-

INGURUMENA

"Gure asmoa da Urkulun ikerkuntza eta dokumentazio zentroa zabaldu eta bultzatzea"

xak, Aratusteak..., makina bat jai ditugu eta jaiok bultzatu, babestu eta indartzeko ardura Udalarena da; izan ere, berebiziko altxorra dira, eta nortasun berezia ematen diote herriari. Bestalde, talde, elkarre eta eragileak dira herriari bizia ematen diotenak, eta Udalak horiekin landu beharko litzateke beharrek eta aurrera begirako egitasmoak.

Gazteak sortu dugu eta jarduerak bultzatu, eta, herri bizia gura dugunez, derrigorrez izan behar ditugu kontuan gazteak".

EUSKARA

"Unescok dio euskara galdu egingo dela; euskara barik ba ote dago Euskal Herririk? Programa egoki eta eraginkorrak eginda eta elkarlanean jorrotuta, aurreikuspen horri muturrean eman behar diogu. Euskararen normalizazioa kultura esparrutik atera eta herri osora zabaldu behar da, eta Udalak hartu horren ardura. Aretxabaletaren kasua ez da txarra, baina badaude hobetu eta berreskuratu beharreko espazioak. Hortaz, euskara bul-



Inaxio Garro

Euskadiko Kutxako langilea
43 urte • Aretxabaeta

BERBA BITAN

HERRITARREKIN BATERA AURRERA EGINGO DUEN UDALA

"Herriko hainbat talderekin bildu gara, eta Udalaren aldetik ez dela egon informazio eta koordinaziorik jaso dugu. Aretxabaletak herritarrendako eta herritarrekin aurrera egingo duen Udala behar du, erabakiak zentzuz hartu, herritarren hitza entzun eta benetako konpromisoa hartuko duena".

tzatzeko politika eraginkorrak egin behar dira euskaltegiarekin, Lora-mendirekin, Jaurilaritzarekin...

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bultzatu dugu eta proiektu zehatzak daude abian; orain, ekimenak gehitu beharko lirateke".

GIZARTE ONGIZATEA

"Hirugarren adinekoei lotuta, egoitza berriaren mendekotasuna duten aretxabaletar guztiek dutela lekua bermatu beharko luke Udalak. Adineko autonomoei eman beharreko zerbitzua ere Udalaren ardura da, eta hutsune handia dago. Hortaz, gura dugu tutoretzapeko etxebizitzak abian jartzea eta eguneko zentroa bultzatzea.

Etorkinak gero eta gehiago dira; hortaz, harrera eta integrazio programak bultzatuko ditugu. Gure auzoetan, ostera, ia 400 lagun bizi dira, eta garraio zerbitzua bultzatuko dugu. Eta herriko presoen eskubideak defendatuko ditugu".

KIROLAK

"Garbi dago kirol instalakuntza berriak eta egokiak behar ditugula, kanpoko igerilekutik hasita. Orain hilabete batzuk ideia lehia-keta egin zen kirol etxe berria zelan eraiki adosteko. Aukeratu zen proiektu bat, eta Udalari eskatzen diogu martxan ez jartzeko, udal talde berria sartu artean.

Kirol egitura osatzeko herria zeharkatuko duen bidegorriaren alde egin dugu apustu. Lortu dugu, baina errekarren beste aldean eginen dabilzan etxean inguruan beste bat osatzea lortu behar dugu".

ausartu

Aretxabaeta aldatzen

Bozkatu



INDEPENDENTEAK



www.aralar.net

euskara

LORE MARTINEZ > EA

"Aretxabaleta bizi, parte-hartzaile eta euskalduna gura dugu"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

EAKo kidea da, eta lehenengoz aurkezten da udal hauteskundera.

HIRIGINTZA

"Herri erakargarria izatea gura dugu, industria, merkataritza, kirola eta kultura bizitza gizartearekin uztartu dadin. Etxebizitzaren kontuan errentak bultzatzea gura dugu Jaurlearitza planarekin bat eginda: neurri fiskalak eta laguntzak jarrita. Etxabeak betetzea gura dugu, babestutako etxeak jarriaz edo zerbitzueterako erabiliz: bulegoak, enpresa txikiak..."

Zirkulazio eratzuna bultzatu gura dugu Errekabarren kalearen, Andramari auzunearen eta Santa Kurtz kalearen artean, oinezkoendako bidea indartuz eta merkataritza erakargarriago bihurtuz".

INGURUMENA

"Sentsibilizazio falta ikusten dugu, batetik hirigintzaren kudeaketan ez dagoelako orekarik bizitzeko alderdiaren, industriaren eta neka-

zari alderdiaren artean; eta bestetik, herritarren sentsibilizazio falta. Hortaz, *kutsatzen duenak ordaintzen du* leloa bultzatu gura dugu, industriari, nekazaritzari zein herritarrei zuzenduta: zirkulazio zaratagatik, animalien zikin-keriagatik... Eta enpresariak jasagarritasun irizpideak erabiltzea gura dugu: hornitzaile eta materialak aukeratzean..."

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Dinamizazio alorrean bi aukera ditugu: lo egiteko herria izaten jarraitu edo herria biziberritu. EAK gura duena da Aretxabaleta bizi, parte-hartzaile eta euskalduna. Gure bailara erreferentzia izan

EUSKARA

"Euskara bermatzeko lan egin behar du Udalak politika aktiboekin eta laguntzekin"

da lan munduan -kooperatibetan- eta orain izan behar dugu zerbitzuetan, ekintza kulturaletan... Proposatzen dugu kultura plana egitea eta bi helburu egongo lirarteke: kultur etxeari ahalik eta probetxu handiena ateratzea eta herriko kultur elkarteak inplikatzeko eta parte-hartzea, guraso elkarteekin batera.

Gazteen arduretako bat etxebizitza da, eta Udalak erantzuna eman behar die, lursailak erosiz eta espekulazioa txikituz. Eta merkataritza arloan Aretxarte bultzatu behar da".

EUSKARA

"Euskaldunon altxorrik handiena da euskara, eta eskubide bat. Udalak lan egin behar du eskubide hori bermatzeko politika aktiboekin, laguntzak emanaz, baina erregulazio ere bai. Eta lanik handiena egin dezake Udala bera eredu izanda, hau da, lan hizkuntza euskara izanda. Horregatik, hautagai euskaldunak aukeratu ditu Eusko Alkartasunak.



Lore Martinez
Informatika ingeniaria
36 urte • Aretxabaleta

BERBA BITAN

ARETXABAETA BIZIBERRITZEA HELBURU

"Aretxabaleta biziberritzea da gure helburua, mugimendua eman eta ekintza gehiago egiteko. Erreferentzia izan gara kooperatibetan eta herritarrentzat zerbitzuetan ere izan behar dugu. Udal parte-hartzailea gura dugu, herritarrok ahotza izateko, eta horretarako bloga dugu Interneten. Ilusioz gatzoz biziberritza".

Esparru guztietan erabil daiteke euskara: kultura, kirolak, merkataritza, enpresak eta teknologia berriak. Garrantzitsua da teknologia berrietan erabiltzea, euskara hizkuntza aurrerakoa eta modernoa izan behar delako alde guztietara heltzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Politika aktiboak bultzatu gura ditugu. Nagusiei dagokienez: Basotxo, zaharren egoitza berria, gutxieneko pentsioak... Udalak parte hartu behar du guztietan. Beste esparru bat familia ugariak dira. Umeak ekartzea gero eta zailagoa da, eta laguntzak egon behar dira Udaletik kirolatan zein beste arlo batzuetan.

Umeendako jolastoki gehiago jarriko genituzke klimaren araberakoak, hau da, estalita urte guztian erabiltzeko. Laguntza sozialak ere bultzatuko ditugu".

KIROLAK

"Kirola heziketa eta osasunaren parte ikusi gura dugu, eta umeen kasuan Leintz Eskola kirola bultzatuko dugu. Multikirola bultzatuko dugu, umetatik kirol asko egitea ona deritzogu, profesionalak izateko denbora izango dute-eta. Horretarako laguntzak eskatuko genizkioke Aldundiari, orain %13 bakarrik ematen duelako. Nesken partaidetza ere bultzatu gura dugu.

Kirol etxe berriaren kontuan kostu handiak kezkatzen gaitu, eta daukan solariuma agian txiki-kirola dela Aretxabaletaren beharrik betetzeko".

ANJEL BERGARETXE > EAE-ANV

"Etekin atera behar zaio kultur etxeari herri erakargarriagoa izateko"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Udal jarduna ondo baino hobeto ezagutzen du, zinetzia izan da hainbat urtean, eta alkatea aurreko agintaldian Euskal Herritarrok taldearen izenean.

HIRIGINTZA

"Gairik garrantzitsuenetakoa arau subsidiarioen berrikuspena izango da; izan ere, horiek zehaztuko dute hurrengo urteetan Aretxabaleta zelakoa izan eta nondik gartuko den. Momentu ona izango da aldaketa egiteko hirigintzari buruz, kontuan hartzeko ez dela bakarrik porlana, urbanizatzeko dela. Helburu nagusia herri bizigarriak egitea izan behar da, nahiz eta obra batzuk egin behar izan, eta, noski, konponketa batzuk eskatzen dituzten alderdiak dauzkagu: Durana kalea, Herriko Plaza..."

INGURUMENA

"Badaude gai batzuk udal eskumetik ihes egin arren aipatzea merezi dutenak: Aizkorriko parke naturala. 10-15 urte egon gara

zain, eta badugu izendapena, baina efektu praktikorik ez du izan momentuz, eta lotsagarria da kontuak erdizka egitea.

Tranbiaren kontua da beste bat. Agindu zigutenaren arabera, martxan egon beharko litzateke lehen fasea, Bergara eta Aretxabaleta artekoa, baina dakigunez lanak ez dira hasi; lehiaketara ere ez dituzte atera. Gai garrantzitsua izango da, eta eragin handia izango duelako bai ingurumenean eta bai biztanleengan".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Herriak aspaldian dituen gabezien artean garrantzitsuenetakoa kultur arloko baliabideena izan da.

GAZTEAK

"Oso aktibo dabilzate gateak, inizatibarekin eta baliabideak eskaini behar zaizkie"

Bukatzeaz dagoen kultur etxearekin arinduko da, modu baten. Orain, ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatu behar gara, Aretxabaleta erakargarriago bihurtzeko herritarrak eta, hala, gure kultur eta aisialdi premiak bertan asetzeko, batez ere gazteek.

Gazteak, azken aldian, oso aktibo dabilzate, inizatibarekin, eta hori aprobetxatu eta bultzatu egin behar da baliabideak eskainiz euren asmo eta proiektuendako".

EUSKARA

"Gehien kezkatzen gaituena erabilera da. Azken urteotako mailarik onena daukagu ezagutzan, baina erabilera ez doa ildo beretik, alderantziz. Kezkagarri egiten duen beste datu bat ere badago: erabilera beherakada gazteengan dela nabarmenagoa. Hortaz, horrek zehazten digu zein izan behar den helbururik nagusia, eta lanerako elkarlana bultzatu beharko dugula: eskolekin, gurasoekin eta beste eragileekin, Lora-mendirekin batez ere.



Anjel Bergaretxe
Ingeniari teknikoa
45 urte • Aretxabaleta

BERBA BITAN

UDAL ANTIDEMOKRATIKOA ETA ESKUBIDEEN URRAKETA

"Berritua udal antidemokratikoa jasango dugu. Herritarren eskubideak urratu dituzte, eta egindako eraso demokratikoen garaipen moduan saldu gura digute. Oinarrian PPK eta PSOE onartutako Alderdien Legea dago, baina ez litzateke posible izango hemengo alderdi batzuen laguntza barik, PNV aipatu behar".

Arlo honetan ere, Udala eredu izan beharko litzateke, baina zoritarrez beste legealdi baten ere zaila izango da, euskaraz ez dakiten hautagai larregi ikusten ditugulako zerrendetan, eta horrek traba asko jartzen ditu Udalaren euskalduntze prozesuan".

GIZARTE ONGIZATEA

"Zaharren egoitzaren gaia izango da kontua; izan ere, eraikuntza eta batez ere kudeaketa enpresa pribatu baten esku uzteak zalantza sortzen dizkigu. Ez dakigu Udalaren asmoa zein den, gaurko zerbitzua hobetzea edo beste egoitzaren ordezkia izatea, hau da, zerbitzua pribatizatzea. Honen ondorioak larriak izan daitezke: baliabide gutxienez daukatenei ateak itxi dakizkieke, eta ez dakigu zer gertatuko den Urats-Gaineko langileekin. Hortaz, gaiaren garrantzia ikusita, azterketa sakona egin beharko litzateke edozein erabaki hartu aurretik".

KIROLAK

"Egia da gure kirol etxeak bere onak eman dituela eta premien zerrendan sartu behar dela. Horretarako proiektua eginda dago, eta eztabaida erraztuko du. Hala ere, ekintza eskaintza ere egin beharko luke Udalak, eta azken urteetan ez da egin. Herriko taldeekin elkarlanean jarduerak gehiago antolatu eta bultzatu beharko litzateke. Eta beste arlo batzuekin uztartu, euskara edo ingurumena eta aprobetxatu arlo ezberdinetako helburuak betetzeko".

Aretxabaleta Biziberritu

“Aretxabaletan jauzi
kualitatibo bat eragin
nahi dut, bizitza
kalitate hobe baten alde
eta herria bizileku
erakargarriagoa izan
dadin. Atxabaltarron
aspirazioak aseko
dituen herria”

Lore Martinez Axpe
Alkategaia



BOZKATU

**eusko
alkartasuna**



AINHOA SAGARRIBAI > PSE-EE

"Babes ofizialeko etxeak egingo ditugu, gazteen arazo larrienetakoa da"

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA
PSOeko Gasteizko idazkaritzan egiten du lan, eta lehenengoz aurkeztu da udal hauteskundera.

HIRIGINTZA

"Babes ofizialeko etxebizitzak egingo ditugu, gazteen arazo larrienetakoa delako. Azken urteotan asko eraiki da, baina askea bereziki, eta berriak zein zaharrak 300.000 eurotik gorakoak dira; eta hori onartezina da.

Kezkatzen gaituen beste kontu bat traba arkitektonikoak dira. Kaleetan, udaletxean eta kanposantuan aurki ditzakegu, eta ez dugu nahi lehen eta bigarren mailako herritarrek egotea. Beste arazo bat berdeguneak dira. Toki batzuk txarto daude, eta berdegune guztiak zaintzea gura dugu, ez bakarrik erdiguneak".

INGURUMENA

"Garapen iraunkorraren alde egin ez ingurumena mantentzen lagunduko dugu, baina herritarrok gure ohiturak aldatu behar

ditugu; autoa gutxiago erabiliz, esaterako. Garraio kolektiboa gura dugu, eta tranbiaren alde egingo dugu, energia garbiko garraiobidea delako. Era berean, hiriburuekiko loturak hobetu behar ditugu.

Birziklapena bultzatu behar dugu. Badakigu kontzientzia handia dagoela, baina badaude birziklapen batzuk hain arruntak ez direnak -olioa eta tonerra-, eta horiek bultzatuko ditugu. Babes ofizialeko etxebizitzetan eguzki plaka termikoen erabilera bultzatuko dugu".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Gure biztanleen kexa da kultur ekintza gutxi daudela. Eskaera

nagusienetakoa da zinematik ez dagoela eta ondorioz Gasteizera joan behar dutela. Uste dugu Udala gutxi inplikatu dela zinema izateko, eta berreskuratzeko lan egingo dugu. Beste ekintza batzuk ere eragin gura ditugu: antzerki mintegiak, idazmenekoak, musika zuzenean... Horretarako jendearen parte-hartzea gustatuko litzaziguke, eta batez ere gazteena".

EUSKARA

"Gaur egun euskararen egoera, zorionez, ez da orain 30 urtekoa; hala ere, lanean jarraitu behar dugu, eta gure alderdiak beti euskararen alde egin du; adibidez, *Aretxagazeta*-ren sorkuntzaren alde jo genuen.

Bereziki txikien aldeko ekintzekin jo behar dugu euskararen alde, txikiak direlako etorkizuna eta euskararena ere bai. Euskaraz ekintza gehiago egotea gura dugu: antzerkiak, txotxongiloak eta karaoke saioak, besteak beste.

Azken urteotan etorkinak etorri zaizkigu, eta Udalak ikerketa



Ainhoa Sagarribai

Kazetaria

33 urte • Aretxabaeta

BERBA BITAN

APARKALEKUEN ARAZOA ETA KANPOSANTUA, KONPONDU

"Aparkalekuen arazoak arduratzen gaitu, eta proposatuko dugu ikerketa egitea lurpeko aparkalekuak egiteko. Eta kanposantuko alde zaharra eraberritzea nahi dugu.

Herritarrekin bat egingo dugu eta euren beharrak jakin. Horregatik, sozialistak gara herritarrengandik gertuen gauden alderdia".

egin behar luke zein asmo duten euskarekiko jakiteko, batez ere etorkin helduek, seme-alabek ikasiko dutelako ikastetxeetan".

GIZARTE ONGIZATEA

"Datorren legealdirako oso proiektu garrantzitsua dago: zaharren egoitza berria. Sozialistak egoitzarendako lurraren berrizendapenaren alde egin genuen proiektua entzun eta gero. 120 lanpostu sortuko ditu, eta mendekotasun egoeran dauden 170 lagunendako lekua izango du, eta, noski, gure zaharren egoitzan daudenendako. Hala ere, gu zuhur egongo gara, azpikorik ez dugulako onartuko ez proiektuarekin, ezta egoitzaren erabilerekin ere.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun planak arduratzen gaitu, eta gure herrian emakumearen egoera zein den jakin gura dugu. Eta genero indarkeriaren aurkako planak egin".

KIROLAK

"Proiektu garrantzitsua daukagu hemen ere: kirol etxearen eraberritzea. Beharrezkoa da bai, baina harritu gaituena kanpoko igerilekurik ez egotea da, ezta ikertzea ere aukera hori. Gure alderdiaren eskaera izan da urte askoan, eta EAJk ez du gura izan uda motza dela esanaz, baina herritarrek nahi dute eta horren alde egingo dugu.

Bestetik, minusbaliatuen beharrak jakin gura ditugu, gure herrian kirola egiteko aukera izan dezaten".

KIROLAK

"Kanpoko igerilekuaren alde egingo dugu, herritarrek nahi dutelako"

beste Udal bat egin daiteke

Aretxabaletako ezker batzen

Bozkatu

Ezker Batua ZUTIK Berdeak

zuk zeuk erabakiko duzu!!



Proiektu bat dugu Aretxabaletarako

Ainhoa SAGARRIBAI

ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

Eman botoa



TOMAS FERNANDEZ > EB-BERDEAK/ZUTIK

"Udaletik babestu gura dugu ingurumena neurriak hartuta"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Politikagintzan jardundakoa da Fernandez: orain dela 12 urte alkategaia izan zen. Hala ere, sekula ez du lanik egin Udalean. CCOOko ordezkari sindikala da.

HIRIGINTZA

"Hirigintza Saila da lan egin gura dugun arlorik garrantzitsuenetakoa bat, garbi ikusten dugulako herriko gazteek eta behar-suenek daukaten etxebizitza beharra. Horregatik, Eusko Jaurlaritzarekin batera bultzatuko ditugu etxebizitza sozialak eta babestutakoak behar handien dutenendako: gazteak, etorkinak eta behartsuak.

Horrekin batera, Bizigune egitasmoa bultzatuko dugu; hau da, bigarren eskuko etxebizitzak Udalak eskuratu eta ondoren errentan eman.

Bestetik, herriko oztopo arkitoniko guztiak ezabatzea gura dugu, ezintasunak dituzten herritarrak edozein lekutara iritsi ahal izateko".

INGURUMENA

"Udaletik babestu gura dugun beste alor bat ingurumena da. Datuak hor daude: egunetik egunera zabor gehiago sortzen dugu, erregai eta energia gehiago kontsumitzen dugu eta ur gehiago xahutu. Ingurumena arazorik garrantzitsuenetakoa da guretako, eta uste dugu gure Udalak erantzukizun handia duela; horregatik hainbat neurri proposatzen ditugu: ura eta energia elektrikoa neurrian erabiltzeko sentsibilizazio kanpainak egin; argiteria publikoaren xahutzea ekidin, kontsumo baxuko bonbilla jarrita; ur-hodien sarea konpondu ur-ihesik egon ez dadin eta

puntu berdeak jarri herriko auzo guztietan. Gainera, Abiadura Handiko Trenaren eta haren ibilbidearen aurka agertzen gara".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kulturari, aisialdiari eta gazteei dagokienez, ondorengo proposamenak ditugu: gure kultura ondarea sendotu eta suspertzea eta argazki artxiboa sortzea.

Eta lan egingo dugu gazteei aisialdi aukera ezberdinak emateko. Aretxabaletan 16 eta 21 urte arteko adin tartekoek ez daukate ezer, aukera bakarra tabernetan sartzea edo osasun etxearen inguruko etxepean egotea da; hortaz, gaztetxea eta euren lokalak eskatuko ditugu. Gazteak nahiko argiak eta erantzuleak dira hori guztia autogestionatzeko".

EUSKARA

"Helduen euskalduntzea, ikastaroen eskaintza handitzea, etorkinak gizareratzea baita kulturalki ere, bakoitzaren nortasuna errespetatuz eta kultura balora-

GAZTEAK

"16 eta 21 urte artekoek ez dute ezer, eta gaztetxea eta lokalak eskatuko ditugu"



Tomas Fernandez
Industria-langilea
48 urte • Aretxabaleta

BERBA BITAN

INDUSTRIA-DESLOKALIZAZIOA EZ DADIN GERTATU LANEAN

"Indar handia egingo dugu Udaletik herrian gertatzen dabilen industria-deslokalizazioa ez dadin gertatu, Lucio Garay, esaterako, badoa. Gure beldurra da *pelotazo inmobiliarioa* eman dezaketela industrialdean; horregatik, Udaleko gainerako taldeei konpromisoa eskatuko diegu alderdi hori ez dezaten lur hiritar izendatu".

tuz, eta ume etorkinendako harre-ra plana gertatu. Eta gurasoendako laguntza planak gertatu eta ikastaroak egin aisialdirako begirale euskaldunak gertatzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Hainbat neurri proposatzen ditugu: bakarrik bizi diren adinekoendako tutoretzapeko etxebizitzak, etxez etxeko zerbitzua zabaltzea, jenero indarkeria jasandako emakumeei zuzendutako egitasmoak garatzea. Era berean, proiektu berritzaileen aldeko apustua egiten dugu; esaterako, ortuak gure nagusiendako. Eta egokia ikusten dugu dirulaguntzak bideratzea Udaletik ikastetxeetara familiak prebentzio galetan hezteko; adibidez, droga, sexualitatea, bizikidetzeta eta abar".

KIROLAK

"Hainbat proposamen ditugu. Kirol etxea bultzatu, uste dugu eta ez dagoela %100ean. Era berean, esaten dugu udarako igerilekuaren kontua proiektu izateari utzi eta errealitate bihurtu dadila, horren alde lan egingo dugu Udalean hurrengo lau urteotan. Herrian dauden kirol talde guztiak babestuko ditugu; pilota taldea, esaterako. Baita UDako oinarritzako taldea ere, eta gurasoek ez dezatela izan bidaiak ordaindu beharrik; Udalak bere gain hartu dezala gastu hori. Eta noski, UDA bultzatuko dugu guztion taldea delako".

ANGEL SANTANO > PP

"Errentan ematen den etxebizitza babestua da egokiena gazteendako"

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Gasteiztarra da, baina ondo ezagutzen du Debagoiena; izan ere, bukatzera doan legegintzaldian Bergarako zinegotzia izan da. Gainera, Arabako Batzar Nagusietako kide da.

HIRIGINTZA

"Etxebizitza, eta batez ere, lehenengo etxea lortzea da herritar gehiengearen arduetako bat, eta halaxe diote aldiro-aldiro argitaratzen dituzten inkestek ere. Partidu Popularrak erakutsi du gobernuan dagoen erakundeetan, Gasteizko Udalean esaterako, eraginkorra den konponbidea duela eta itxaron zerrendekin bukatzen dabilela. Babes ofizialeko etxebizitzei bultzada erabakigarria ematearen alde gaude Partidu Popularrean. Errentan ematen den babestutako etxebizitza da lehenengo etxearen bila dabilzanek dituzten beharrendako egokiena. Gehienetan gazteak izaten dira egoera honetan daudenak, ekonomi-

koki konpromiso handiak hartzeko zailtasunak dituztenak hain zuzen".

INGURUMENA

"Ingurumena hobetu dezakeen proiektuetako bat eskualdeko tranbiarena da, Deba ibarreko herriak elkartuko dituen proiektua hain zuzen. Aipatutako azpiegiturak eskualdeko garraio publikoaren kalitatea hobetuko du, eta beste garraiobide bat eskaini. Gaur egun automobil asko dabil errepidean hara eta hona kutsadura handia sortuz, eta horrek ez dio egiten mesederik ingurumenari. Hortaz, aukera hona izango da hori ekiditeko".

INGURUMENA

"Deba ibarreko herriak elkartuko dituen tranbiaren proiektua bultzatuko dugu"

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Bukatzekotan dagoen kultura etxeari erreparatu behar gaude kultura sailean. Eta orain, gure herriak azpiegitura egokia izango duela ematen duenean, ezin dute hutsik egin giza baliabideek. Zera esan gura dut, Udalak kultura eta aisialdiari dagoen programa egokiak eskaini beharko dituela, eta bukatzen dabilzan kulturarako eraikin berriari ahalik eta probetxurik handiena atera".

EUSKARA

"Euskararen sustapenean sinisten dugu Partidu Popularrean. Hizkuntzaren garapenean aldeko neurri positibo guztien alde gaude, baita euskararen ezagutzarako eta ikasketetarako erraztasunak ematearen alde ere.

Era berean, eredu inposatzailen aurka gaude; eredu horiek hain zuzen ez direla batera eraginkorrak erakutsi dute. Gainera, eredu inposatzaile horien aurka gaude norbanakoaren askata-



Angel Santano
Industria maisua
50 urte • Gasteiz

BERBA BITAN

ASKATASUNA ETA ERRESPECTUA, ETA HERRITARREN ONGIZATEA

"Bi ardatz nagusik oinarritzen dute gure alderdiaren herriko jarduna: batetik, norbanakoaren askatasunaren babesa eta ideien errespetua; eta bestetik, pertsonen arazo errealean daukagun ardura. Izan ere, herritarren ongizatea hobetzeko herrien garapena bultzatuko dugu".

sunean sinisten dugulako; bakoitzak aske da aukeratutako hizkuntzan adierazteko.

Eta euskara borroka politikotik ateratzearen alde gaude. Izan ere, ezin dugu hizkuntza arma politikoa bihurtu".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte ongizatearen sailean behar bezalako lana egiteko derrigorrez behar da elkarlana eskumenak dituzten erakundeekin: Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzak. Jokaera protokoloak eta dirulaguntzak eskatu behar dizkiegu; batetik iritsi berri diren etorkinei erantzun bizkorrak emateko, eta bestetik, behartsu eta dependentsia duten taldeei laguntzeko.

Hirugarren adinekoei dagoen erakundeetan, garbi dago gero eta atentzio handiagoa beharko dutela gure gizarte zahartzen doalako. Irtenbide egokia dela erakutsi duen neurrietako bat tutoretzapeko etxebizitza da, eta horretarako ere laguntzak beharko ditugu Aldundiaren eskutik. Izan ere, Udalek ez dute arazo horiek bakarka konpontzeko ahalmenik".

KIROLAK

"Argi eta garbi dago herriko kirol etxea zahartuta geratu dela eta, gainera, egoera eskasean dagoela. Horregatik, derrigorrez bultzatu behar dugu instalakuntza berrien proiektua herritarren beharrek modu egokian asetzeko".

IRITZIA > ATXABALTARREN ESKARIAK

Denon parte hartzea eta elkarlana dira herritarren eskariak

HERRITARREN IRITZIA Atxabaltarren iritzia, hau da, herritarrak aintzat hartzea, eta haiei iritzia eskatzea hainbatean, da batzuen eskaria; zinegotzien arteko elkarlana ere nabarmendu dute

INGURUMENA ZAINDU Naturaz, zuhaitzez, kezkatuta dagoenik ere bada eta, alde horretatik, ingurumenaz eta naturaz arduratuko den taldea eratzea Udalean eskatu du atxabaltar batek: Angel Loidik

ARETXABAETA LOKARTUTA Bada herria eta herritarrak lokartu samar daudela uste duenik eta, horregatik, atxabaltarrek bertan geratzeko eta kanpotik jendea erakartzeko planak eskatzen ditu



Larraitx Iñurritegi

LORAMENDIKO DINAMIZATZAILEA

1. Nik eskaera orokor bat egingo nioke maiatzaren 27an auzeratuko dugun alkateari: herritarrak, aretxabaletarrak, kontuan hartzea. Bukatu den legealdi honetan, nire ustez herritarrak ez gaituzte aintzakotzat hartu.

2. Loramendi Euskara Elkarte-ko dinamizatzaile naizen aldetik, Aretxabaletan kultur heziketa falta dagoela uste dut. Gure herrian hainbat kultur ekitaldi antolatzen dira; alde horretatik, nahiko ondo dago. Baina kultur ekitaldietan herritar gutxi hartzen du parte. Ea, ba, eraikitzen ari diren kultur etxe berriekin, kulturaren aldeko mugimendua sendotzen den.



Angel Loidi

ERRETIRATUA

1. Ingurumena gustuko dudanez, nire eskaera naturaren inguruan egingo nioke: zuhaitz gutxi daude herrian, asko galdu egin dira eta beste asko moztu egin dituzte. Herritarrak sentsibilizatu beharko genituzke.

2. Aretxabaletan dugun gabezien galderari ere ildo beretik erantzungo nioke: ingurumenarekin ditugun gabeziak. Gure herriko natura zaintzeko, talde bat sortzeko beharra ikusten dugu. Guk, hainbat alditan, eskaera egin dugu udaletxean; baina, oraingoz, ez dugu ezer lortu. Ingurumena eta natura zaintzeko helburua izan beharko luke aipatu talde horrek.

1. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

2. Zein da zure ustez herriak une honetan daukan premiarik nagusia?



Jokin Antxia

UDA-KO PRESIDENTEA

1. Hona hemen nire eskaera: udaletxeko zinegotzi guztiek batera lan egin dezatela, elkarren arteko liskarrak alde batera utzita. Udala elkarlanen adibide izan behar da; eta horrek ondorio onak ekarriko ditu.

2. Aretxabaleta, azken urteetan, lokartu egin da. Gainera, autobidea egiten dutenean, kanpora joateko joera handitu egingo da. Gure herrira bisitariak ekartzeko saiatu behar dugu; adibidez, Elgetako Espaloia Kafe Antzokia bezalako eraikina aproposa izan daiteke Aretxabaleta bezalako herri txiki baterako. Espaloiak duen kudeaketa ere asko gustatzen zait.



Mari Karmen Gutierrez

HERRITARRA

1. Gurasoendako eskola bideratzea Udaletik. Gurasoek formazioa eskatzen dute, eta Udaletik bideratzea ikusten dut egokia guztiendako izango litzatekeelako.

Bestetik, beharrezkoak diren lanak derrigorrez egin behar dira, baina hain beharrezkoak ez direnak ere inori galdetu barik egiten dituzte, eta uste dut herritarren iritzia jaso beharko luketela lehenengo.

2. Kultura adierazpenak falta dira herrian. Ez dugu toki aproposik, baina egin ere ez da ezer egiten. Kultura aniztasunean bizi gara, eta adierazpenak sortu eta bideratu behar dira: antzerkiak, ikuskizunak...



BOZKATU

EAE  ANV

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Eskoriatza

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



JUAN CARLOS BENGEOA > EA

"Ingurumen eta kirol teknikari bana kontratatuko ditugu"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Juan Carlos Bengoa da gaur egungo Eskoriatzako alkatea. Azkenean urteotan EAn lanean dabil, eta aurretik Elizateetako ordezkaritza izan zen Udalean. Historia ikasketak egin zituen.

HIRIGINTZA

"Etxebizitzak egiteko aukera gutxi daude. Horregatik, Plan Orokorra egiteko premia dugu. Horrekin batera, Aingeru Guardia eta Esteibarko industriaguneak bultzatu gura ditugu; eta alde zahararen gaineko plan berezia idatziko dugu, monumentu izendatuta dagoelako.

Etxebizitza babestuak hiru gunetan egingo ditugu: erresidencia inguruan, Intxaurtxuetan eta herrigunean bertan. Horrez gain, bi berrurbanizazio garrantzitsu nabarmenduko nituzke: San Pedrokoa eta Aingeru Guardakoa. Bestalde, tranbia erabiltzearen aldekoak gara; eta ahalik eta azkarren egitea gura dugu".

INGURUMENA

"Modan dago, baina oso garrantzitsua da. Erroka nagusia da ingurumenaren gaineko batzordea eratzea, eta proposena da teknikari bat kontratatzea. Horrez gain, Agenda 21, orokorra eta eskolena, biak indartu behar ditugu.

Bestalde, Torrebaso eta kanposantu inguruko naturguneak antolatu gura ditugu; baita Mendiako parkea ere. Ezin da ahaztu, bestalde, bidegorriak bultzatu behar ditugula".

KULTURA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

"Gaur egungo kultura programazioa oso ona da. Horri eustea

lehenasuna da. Horretarako, dauzkagun kultura ekipamenduak hobetu egin behar ditugu; eta saiatu behar dugu legealdi honetan bertan entzunareto berria egiten.

Gazteriari dagokionez, legealdi honetan indarrean jarri dugun gaztelekua eta udal teknikariaren figura, biak kontsolidatu behar ditugu.

Aisialdia kontuan hartuta, berriz, Ibarraundi museoarekin jarraitu eta fundazioa bera indartu beharko dugu. Ez hori bakarrik, aisialdirako ekimen berriak sortu behar ditugu. Horretarako, Landaraino izango dugun bidegorria baliatu behar dugu".

EUSKARA

"Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia izan behar da ardatza. Orain arte arlo batzuk landu ditugu, baina hemendik aurrera beste batzuk izan behar dira erronkak. Batez ere, etorkinekin lan egin beharko dugu, eta lan munduari arreta berezia eman behar-



Juan Carlos Bengoa

Historialaria
40 urte • Eskoriatza

BERBA BITAN

LEGEALDIAN EGINDAKO LORPENAK BEGI-BISTAN DAUDE

"Azken lau urteotan egindako lana aipatzekoa da. Beste talde batzuen kolaborazioarekin lorpen handiak egin ditugu; horiek begibistan daude. Udal parte-hartzailea eta irekia egitea lortu dugu: talde guztiek batzordenen baten esku hartu dute; eta herritarren kezkek aztertu ditugu".

ko diogu. Bestalde, Eskoriatzarako Berbetan proiektuari zabal-kunde handiagoa eman behar diogu; eta toponimia lantzeko ahalegina da beste lehenasun bat.

Aretxabaletarekin batera daukagun euskaltegia indartzea eta berrirorientatzea da beste behar bat, ikasle kopurua gutxituz doalako.

ONGIZATEA

"Gaur egun eskaintzen ditugun zerbitzuak ematen jarraituko dugu. Baina, etxer etxeko laguntza antolatu dugun moduan, beste programa batzuekin ere antzeri egingo dugu. Gainera, ongizate zerbitzua dependentziaren gaineko lege berrira egokituko dugu. Helburu nagusia izango da benetan behar duenari laguntzea, eta horiek, premia dutenek, udaletxera jotzea lortzea.

Bestalde, zaharren egoitza berritzeko edo berria egiteko asmoa dugu, plaza gehiago egokitu eta kalitatezko zerbitzua emateko".

KIROLA

"Udal kirol ekipamenduen gaineko plana egiteko momentua da; eta kirol teknikari bat kontratatu gura dugu. Bestalde, kiroldegiko goiko solairuan kirol zerbitzuak emateko dirulaguntzak eskatu dizkiogu Aldundiari.

Kirol elkartearekin daukagun elkarlanari eutsiko diogu, eta Eskola Kirola Proiektua bultzatzen jarraituko dugu".

PEDRO LASAGABASTER > EAE-ANV

"Jendea eta nekazari lurrak aintzat hartu gura ditugu hirigintzan"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Honako hau da Pedro Lasagabaster hauteskudeetara aurkeztu den lehenengo aldia. Orain arte baserriarren eskubideak defendatzen ibili da, autobidearen eraginak direla-eta. Baserriarra eta biologoa da.

HIRIGINTZA

"Hirigintza eredu berri bat gura dugu, jasangarria izango dena. Orain arteko askotan negozio eta interes partikularrak bultzatu ditu, eta espekulazioa erraztu du.

Gure hirigintza ereduak jendea eta nekazari lurrak kontuan hartuko ditu. Horretarako, ezinbestekoa izango da jendearen esku-hartzea bermatzea eta euren iritziak jasotzea.

Horretarako, hainbat estrategia aurreikusi ditugu: arau subsidiario moderno eta aurrerakoiak egitea; Esteibarren puntapuntako industriagunea egitea; Agro-aldea ekologiko bat Aingeru Guardian egokitzea; eta Santa Marinaran hasitakoa bukatzea".

INGURUMENA

"Gai garrantzitsuenetako bat da. Arlo guztietan egon behar du. Bigarren mailatik lehenengora pasa behar da, merezi duen garrantzia izan dezan.

Administrazioa eredu izan behar da, eta erakutsi behar diegu herritarrei energia eta baliabideak aurreztu egin behar direla. Horren harira, Jaurlearitzarekin dugun hitzarmena baliatuta, energia berriztagarrien aldeko apustua egin behar dugu. Horrez gain, biodibertsitatea eta naturguneak defendatu egin behar ditugu. Horren barruan, aurreikusitako dugu Torrebaso parke natural txiki bat egitea".

GAZTETXEA ETA KAFE ANTZOKIA

"Gaztetxe bat egiteaz gain, zinema zaharra erabilera anitzeko areto bihurtu gura dugu"

KULTURA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

"Gai horiek herri bati nortasuna ematen diote. Horretan, batez ere, kultura oso garrantzitsua da. Herriko artista eta sortzaileei laguntza eman eta lan egiten utzi behar zaie, autogestioa ere bultzatuz. Horren harira, gazteei begira gaztetxe baten beharra dagoela uste dugu.

Kultura izan behar da ardatza, beste gai batzuk ahaztu barik. Ekipamendua ere hobetu behar dago. Hain zuzen ere, zinema zaharra, utzita dagoena, erabilera anitzeko eraikin bilakatu gura dugu, kafe antzoki moduan-edo.

Aisialdiari dagokionez, aire libreko ekintzak bultzatzeko premia dago: bidegorrien inguruan ekipamenduak...".

EUSKARA

"Gure herriaren hizkuntza da, eta une honetan berau dagoen egoeran ikusita, lan handia egin behar dugu erabilera hobetzeko, eta euskara herrian behar den moduan integratzeko. Horren



Pedro Lasagabaster

Baserriarra eta biologoa
37 urte • Eskoriatza

BERBA BITAN

UDALA KUDEATZEKO ESTILO ALDAKETA EGIN GURA DUTE

"Udala kudeatzeko estilo aldaketa behar da. Taldean kudeatu behar da, lanak delegatu egin behar dira eta herritarrekiko hurbildu behar gara. Irmoa izan behar da lanean, eta herritar guztiondako berdin. Jendea esku hartzeko eskatu gura diogu, euren iritziak kontuan hartuko ditugula".

barruan, etorkinekin harrera plan bat; zerbitzu eta komertzio-erabilera bultzatzeko estrategia; eta euskalkia indartzeko ahalegina egitea dira gure lehenasunak. Hori guztia egin aurretik Udalak adostu beharko du plan bat".

ONGIZATEA

"Eskoriatzar gehienok orokorrean ondo bizi gara, eta askotan erdi ahaztuta izaten dugu arlo hori. Baina gizarte ezin daiteke osasuntsua izan, batzuk txarto bizi badira edo guztiok aukera berak ez baditugu. Halako hainbat adibide daude: etorkinak, oinarriko soldatarik ez dutenak, langabeak, pertsona nagusiak... Gure arreta zuzena, babes eta laguntza behar dituzte. Jakin arren ez dela gai erraza, horren aldeko konpromisoa hartu dugu".

KIROLA

"Gizarte osasuntsu batek kirola egin behar du; horregatik, arlo hori dagokion lekuan jarri behar da. Arlo horretan gabezia handiak daude, eta kiroldegiko zerbitzuak desorekatuta edo txarto kudeatuta daude. Hala, kiroldegiko langileek egonkortasuna behar dute.

Edozein herritarrek edozein motatako kirola praktika dezan, Udalak kirol teknikari edo dinamizatzaile bat behar du egun erdiz. Horrez gain, aire libreko kirolak garatzeko asmoa dauka. Adibidez, bidegorri inguruan gimnasia zirkuitua jartzea".

AITOR URRUTIA > EAJ

"Tren garraioa indartu gura dugu, AHT eta tranbia erabilia"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Lehenengo aldia da Aitor Urrutia hauteskunde batzuetan zerrendagai aurkeztu dena. EAJ alderdiak alkategai izateko proposamena egin zion, eta baietza eman zuen. Erresidentziako zuzendaria da Urrutia.

HIRIGINTZA

"Gure asmoa da hasitakoak bukatzea: ditxosozko autobidea, Dorletako berrurbanizazioa, Arbiñoste-Santa Marina inguruko lanak eta Goiko kaleko lanak, besteak beste.

Etxebizitzari dagokionez, bi apustu nagusi aurreikusi ditugu: etxebizitza sozialen alokairua bultzatu eta tasatuak erakitzea. Horietan esku hartzeko ezinbestekoa izango da herrian erroldatuta izatea eta etxebizitzarik ez edukitzea. Egingo ditugun etxeetatik %80 etxerik ez daukatenendako izango dira. Horietatik %20 alokatzekoak izango dira; eta %60 tasatuak edo babes ofizialekoak".

INGURUMENA

"Ingurumenari diskriminazio positiboa edo lehentasuna ezarri behar diogu. Askotan erabiltzen da garapenari edo behar ditugun azpiegiturei traba egiteko. Baina guk uste dugu bien arteko oreka behar dela.

Horregatik, autobidea bukatuz gero, gure helburua da tren bidezko garraioa indartzea. Hala, Eskoriatzan bi tren egongo dira: AHT, munduarekin kontaktuan egoteko; eta tranbia, gure ibarrekiko komunikazioaren ardatza izango dena.

Aizkorriko parke naturala indartu gura dugu, eta hori ekoturismoarekin uztartu".

ETXEBIZITZAK

"Egingo diren etxebizitzen %80a etxerik ez dutenendako izango dira"

KULTURA/GAZTERIA/AISIALDIA

"Kultura ekipamenduak baditugu: Ibarraundi, kultura etxea eta biblioteka. Horiek babestu eta lagundu behar ditugu dituzten premietan. Eta Ibarraundi fundazioa ere indarrean jarri behar dugu. Baina, horiez gain, beste ekipamendu baten beharra dago, erabilera askotarikoa, zinema, antzerkia eta kontzertuak egiteko.

Bestalde, gazte eta nagusien dako aisialdia gehiago zaindu behar dugu; eta ahal den heinean gazteen ikuspuntua erakundeetan sartu".

EUSKARA

"Euskara indartu behar da, eta horretarako konpromiso bereziak hartu behar ditugu. Batez ere etxeetan indartu behar da euskara. Euskarak iraun badu, etxeetan egindako ahaleginagatik izan da. Horregatik, programa bat egin behar dugu etxeetan erabilera handitzeko; baina kalean, eskoletan eta erakundeetan ere landu behar dugu. Hain zuzen ere,



Aitor Urrutia
Erresidentziako zuzendaria
33- urte • Eskoriatza

BERBA BITAN

LAN EGITEKO GOGOAREKIN DATOZ, TALDE GUZTIEKIN

"Kanpaina guztietan promes asko egin ohi dira. Guk agintzen dugun gauza bakarra da lan egingo dugula, irabazi edo ez. Lan egin gura duten guztiek lan egiteko prest gaude. Horren barne daude, jakina, oraindik aurkezteko aukerarik izango duten ez dakitenak ere. Herriak behar du".

erakundeetatik ahalegin berezia egin behar dugu osoko bilkuretan eta bestelakoetan euskaraz egiteko.

Bestalde, Kontseiluarekin aztertu behar dugu zer premia nagusi ditugun; eta etorritako migrazioa integratu egin behar dugu; horretarako euskara izan behar da ardatz nagusia.

ONGIZATEA

"Orain arte aipatutako gai guztiak gizarte ongizatean sartu beharko genituzke. Diru gehiago jarri behar dugu...

Filosofia bat daukagu: Eskoriatzak bere seme-alabak babestu behar ditu jaiotzen direnetik hil arte. Horren barruan daude umezaintza, eskolak, unibertsitatea, lan politika, etxebizitzak, emakumeen arloa, erresidentzia, osasun zentroa...

Herria guztiondako bizigarria izan behar da; eta horretan zeresana du baita ere irisgarritasuna bermatzeak".

KIROLA

"Herrian daukagun kirol ekipamenduari behar duen arreta eman behar diogu. Bizimodu mota osasungarria indartzeko oinarriak jarri gura ditugu. Hala, kirola ulertzen dugu droga mendekotasunen kontrako lanarekin bat eginda. Aspaldi droga mendekotasunen planaren barruan kirola sartu zuten, eta guk hari horretatik jarraitu gura dugu. Eta Kirol elkarteari behar duen laguntza eman behar diogu".



Eskoriatzan,



egin behar dugu

Aitor Urrutia Oyanguren
Eskoriatzako Alkatetzarako hautagaia

eman botoa 
www.eaj-pnv.com

www.eginbehardugu.com

IÑAKI PIERRUGES > PSE-EE

"Etxebizitzaren Ituna sortuko dugu, horren eskubidea bermatzeko"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Iñaki Pierruges PSE-EEko kide da aspalditik. 1991n hasita, hiru legealditan Aretxabaletako Udalean zinegotzi izan zen. Horren ostean, Eskoriatzako Udalera jo zuen orain dela lau urte, eta PSE-EE taldeko burua da.

HIRIGINTZA

"Herriek etorkizunerako zer herri mota gura duten erabakitzeke eskubidea izan behar dute. Horretarako, erabaki garrantzitsuenak herrietan har daitezten Lurzoruaren Legea oso erreminta aproposa da. Hirigintzaren gaineko politika ordenatu eta arrazionala bultzatu gura dugu; eta kudeaketa modu esku-hartzaille, garden eta eraginkorra egin gura dugu, biztanle guztien onerako izango dena, eta ez bakarrik gutxi batzuen onerako. Hau da, hirigintza gizatiarragoa".

Arau subsidiarioak Lurzoruaren Legera egokituko ditugu, eta Etxebizitzaren Ituna sortu gura dugu, etxebizitza eskuratzeko

ko eskubide unibertsala bermatuko duena, eta gazteendako alokairuzko eskaintza erraztuko duena".

INGURUMENA

"Udalerrri osasuntsu bat da udalerrri ekologiko, jasangarri, eta kutsadura eta zaratarik ez duena. Horretarako, Agenda 21 planari behin betiko bultzada eman behar diogu. Eraikin publiko eta pribatuaren energia berriztagarrien aldeko apustua eginez eta Kyotoren protokoloa jarraituta energia aurrezte da gure beste helburuetako bat. Horrez gain, nekazaritzaren garapen eraginkor eta jasangarria lortu gura

dugu, ekonomia eta lurralde oreka banatu eta dibertsifikatuz, hain zuzen ere".

KULTURA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

"Udalerrriak izan behar dira gazteriaren garapenaren bultzatzaile nagusiak. Are gehiago, euskal gazteriaren kasuan, arazo larriak gainditu behar dituzte, estatistikek diotenaren arabera. Horren aurrean, sozialistek beti pentsatu izan dugu gazteria arloko politikak erakundeen aisialdi eta kirol eskaintzak baino haratago joan behar direla: etxebizitza duina eskuratzeko, kalitatezko lanpostua eta beste batzuk.

Hala, udalek problematika bakoitzari konponbidea bilatu behar diote".

EUSKARA

"Euskara alderdikeriak erabiltzearen kontrakoak gara; ez dadi inor baztertzeko erreminta izan; horren ordez, euskaldunen arteko komunikazio bide moduan ulertzen dugu.



Iñaki Pierruges

Talde sozialistaren aholkularia
50 urte • Eskoriatza

BERBA BITAN

HERRITAR GUZTIEN ONGIZATEA BERMATZEA

"Nire lehentasuna izango da askatasun publikoa, herritarren eskubideak eta eskoriatzar guztien ongizatea bermatzea. Dependentsien Legea, Etxebizitzaren Ituna, migrazioa, uraren saneamendua, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eta beste izango dira ildo nagusiak".

Ez dago politika txarragorik erabiltzen duten hizkuntzaren arabera euskaldunak diskriminatu eta banatzen dituenena. Ez dauka zentzurik euskara eta gaztelera kontrajartzeak eta hizkuntzaren gainean alderdikeriaz jokatzeko. Elebitasun integratzailea da gure apustua".

ONGIZATEA

"Ongizate Saila oinarritzkoa da udalerrri batendako. Gure ustean, batzorde horren inguruan egin behar du lan Udalak. Zerbitzu sozial aurrerakoia dira epe luzera begira egindako inbertsio onena eta komunitate baten garapenaren erakusle onena. Alderdi nazionalistek ez dakite XXI. mendeko giza arazoei zelan aurre egin. Sozialistak, ordea, erronka hori konpromisoz hartzeko gogoarekin gaude.

Hala, pobrezia eta bazterketaren kontrako estrategia aurkeztuko dugu, eta kontuan hartuko ditugu honako arloak: auzoa, haurtzarora, familia, gazteria, nagusiak eta zailtasun fisiko edo psikikoak dituztenak".

KIROLA

"Kohesio soziala eta herritarren bizitza kalitatea bermatzeko ezinbesteko erreminta da: aisialdi betetzeko aproposa da, ereduak transmititzen ditu, osasuna eta autoestimua hobetzen ditu, eta esku-hartzea eragiten du. Horretarako, Kirolaren Legea bultzatu, eta ekimen pribatu eta publikoak elkarlanean jarriko ditugu".

LEHIAKORTASUNA

"Zerbitzu sozial aurrerakoia dira epe luzera begira egindako inbertsio onena"

www.ezkerbatua-aralar.com

Eskoriatza
herria ezkerretera ekarri

bozkatu

aralar **EzkerBatua Berdeak**

Proiektu bat dugu Eskoriatzarako

Eman botoa

Iñaki PIERRUGES
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

PSE-EE PSOE

JUAN LUIS MERINO > EB-BERDEAK/ARALAR

"Udalerrian egiten diren lanei jarraipen zehatza egingo diegu"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Juan Luis Merino aretxabaletarra da, baina Eskoriatzan bizi da aspaldian. Aurreko legegaldian EB-Berdeak taldeko zinegotzia izan da (bigarrena). Orain, berriz, EB-Berdeak/Aralar taldeko alkatetagaia da.

HIRIGINTZA

"Etxebizitza tasatu eta babes ofizialekoak eraiki gura ditugu. Eta dentsitate txikia daukaten etxeak eraikitzearen kontrakoak gara, lur gutxi daukagulako. Horrez gain, bigarren eskuko etxebizitzak errentan jartzeko Bizigune programaren aldekoak gara. Oraindik herrian zortzi etxe bakarrik daude programan, eta premia oso handia da.

Bestalde, irisgarritasuna bermatzeko oztopo arkitektonikoak kentzearen aldekoak gara, batez ere eraikin publikoetan; eta udalerrian egiten diren lan guztien jarraipena egiteko asmoa daukagu, segurtasuna, epeak eta subkontratazioak kontrolatzeko".

INGURUMENA

"Agenda 21 programa, eskoletakoa eta orokorra, berreskuratzeko eta indartzeko ordua da. Bestalde, udalerriko ur kontsumoaren %25 bidean galdu egiten dela konturatu gara. Horren aurrean, ur zerbitzuaren banaketa konpondu beharra dago.

Bidegorriaren proiektua berreskuratzeko asmoa ere badugu; eta argitu gura dugu AHTren proiektuaren kontra gaudela. Azpiegiturakin jarraituta, Aldundiari autobideko lanak kontrolatzeko eskatuko diegu; eta eraikin publikoetan energia berriztagarriak erabiltzeko gailuak ahalbideratuko ditugu".

ONGIZATE ZERBITZUAK

"Bakarrik bizi diren pertsona nagusiei babespeko etxebizitzak utzi gura dizkiegu"

KULTURA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

"Kultura ekoizteko herritarren ekimen eta parte-hartzea bultzatuko diegu; eta lehenetsuna emango diegu udalerriko kultura ondarearen kontserbazioari eta hobekuntzari; eta baita udalerriaren gaineko ikus-entzunezkoen artxiboa egiteari.

Bestalde, Ibarraundi fundazioak herri ekimenak bultzatzea gura dugu; ludoteka eta gaztelekuak indartu gura ditugu; gazteekin gaztetxe proiektu bat adostu gura dugu; eta guraso elkar-teei laguntza handiagoa eman gura diegu.

Horrez gain, Kultura batzordea berriro orientatuko diegu, jaietakoek gain bestelako ekintzak ere antola ditzan".

EUSKARA

"Bermatu gura dugu herritarren eta Udalaren arteko harremanak euskaraz izatea. Euskaren normalizazio plana garatu; eta euskaraz ez dakitenei euskara hurbildu gura diegu".



Juan Luis Merino
Fagorreko espezialista
42 urte • Aretxabaleta

BERBA BITAN

HERRITARREK UDALAN ESKU HARTZEKO ARAUDIA

"Udaletxera lanera joango gara. Batzorde eta osoko bilkura guztietan esku hartu dugun talde bakarra gara. Herritarren ahotsa udalera eraman gura dugu. Horretarako, herritarren esku-hartzearen gaineko araudia garatzeko asmoa daukagu, eta informazioa herrian zabaldu".

ONGIZATEA

"Bakarrik bizi diren pertsona nagusiei babespeko etxebizitzak utzi gura dizkiegu; eta etxe-erretzeko laguntza zerbitzua handitu gura dugu.

Horrez gain, lehenetsunetako bat da genero indarkeriaren kontrako neurriak hartzea eta indarkeria horren biktimak direnei laguntzeko programak prestatzea.

Bestalde, proiektu berriztaileraren alde egiten jarraituko diegu, hala nola aisialdirako ortuak bultzatzeaz gain, psikomotrizitate lantzeko baliabideak dituzten parkeak prestatu gura ditugu, hirugarren adineko lagunendako proposak izango direnak.

Horrekin batera, udalerriko eskoletan droga menpekotasunen gaineko prebentzio programak finantzatzeko ditugu".

KIROLA

"Eskoriatza Kirol Elkartearen zeregina goraipatu beharra dago; eta horrekin batera behar dituen baliabideak eskaini behar zaizkio, eta laguntasuna eman indartu dadin.

Bestalde, Ezker Batua-Berdeak/Aralar koalizioak ezinbestekotzat du kirolaren gaineko kontzeptu berria lantzea. Hain zuzen ere, eredu esku-hartzaileagoa eta hain lehiakorra ez denaren aldekoak gara.

Bukatzeko, eskola mailako kirola bultzatzeko asmoa daukagu, eta horren barruan mota askotako kirolak indartu".

LEIRE OKARANTZA > ELIZATEAK

"Azpiegitura lanek sortutako kalteak saihestu gura ditugu"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Eskoriatza da ibarrean baserri-erretzeko eta baserri auzoetan bizi direnek zerrenda propioa aurkezten duten herri bakarra. Urte ugari daramatzate udal hauteskundeetara aurkezten eta ordezkari izaten, euren ahotsa udalaren erretzean dabilen. Leire Okarantza gaztea lehenengo aldiz aurkeztu da zerrendaburu hauteskunde batzuetara.

HIRIGINTZA

"Honako hau da elizate eta auzoetan bizi garen gehien eragiten digun atala. Adibidez, autobideari eta Abiadura Handiko Trenari dagozkien lanek zuzenean eragin edo eragingo digute. Autobideko lanek kalte handiak eragin dizkigute dagoeneko. Kalte horiek ekiditen saiatzea, horren gainean auzotarrok ditugun beharrak eta proiektuen gaineko informazio falta handiari konponbidea ematea, eta horren inguruko bermeak lantzea lehenetsunak dira guretzat. Abiadura

Handiko Trenak eragingo diguna ere ikustear dago, eta horri ere aurre egin beharko diegu udal-erretzean eta dagokion lekuan".

INGURUMENA

"Gu ingurumenera zuzenean lotuta bizi gara. Horren harira, Udalean eta Mankomunitatean askotan entzun dugu Agenda 21 proiektua helburu dutela eta horren gaineko ekimenak bultzatzen dabilzala, baina auzoetan bizi garen ez digute zuzenean eragiten. Horren hainbat adibide ditugu: adibidez, saneamenduaren gaia. Auzotarrok aspaldi horren alde lanean gabilta, baina emaitza txikiak lortu

KULTURA ONDASUNA

"Elizateetan dauden kultura ondasunei etekin txikia ateratzen zaiela uste dugu"

ditugu orain arte. Horrez gain, zabor bilketa ere ez da oso egokia. Orain arte baserri auzoetako biztanle bakoitzak, norberak, kudeatzen zituen sortzen zituen zaborrak. Hondakin moduan ezin zituenak aprobetxatu kalera jaitzen zituen. Orain, berriz, auzo bakoitzean edukiontzia jarri dizkigute, eta horietara bota behar izaten dugu zabor guztia. Neurri hori Agenda 21en helburuekin kontrajarria dela uste dugu".

KULTURA, GAZTERIA ETA AISIALDIA

"Horren harira, azpimarratu nahiko genuke kultura ekintza guztiak erdigunean antolatzen direla. Alde batetik, normala da bertan jende gehien bizi delako eta baliabideak ere han daudelako, baina kultura mailan ondasun handia dago auzoetan, eta horri guztiari Udalak eta herritarrok etekin txikia ateratzen diegu. Aprobetxatzeko moduko ondasunak, ikusteko gauzak eta denetarik daukagu.



Leire Okarantza
Emuneko teknikaria
33 urte • Oñati

BERBA BITAN

AUZOTARRON PREMIAK UDALERA ERAMANGO DITUGU

"Auzo alkateek eta Elizateetako zinegotziak talde bat osatzen diegu, eta auzotarren premiak aztertzen ditugu. Lortu gura dugun ordezkariak auzotarrok daukagun ikuspegi eta beharrak zuzenean landu beharko ditu Udalean; gure eskaera eta erabakiak kontuan har daitezken".

Horrez gain, elizateetako jaiak lehen indar handia zeukaten eta jende asko mugitzen zuten, baina aspaldian indarra galdu dute. Horiek sustatzea merezi duela uste dugu.

Aisialdiari dagokionez, udalerriko elizate guztietan oraindik ez daukagu auzo lokalik, eta horiek oso garrantzitsuak dira auzotarrek elkartzeko, aisialdia lantzeko eta, azken finean, auzo-erretze bizi handiagoa emateko".

EUSKARA

"Euskara gure hizkuntza da, eta auzo eta elizateetan batez ere euskara da erabiltzen den hizkuntza bakarra. Guk ez daukagu ezer berezirik planteatuta elizateetan euskara bultzatu edo garatzeko. Baina, hala ere, oso argi daukagu udaletxe barruan ere gure lan hizkuntza euskara izatea gura dugula, eta horren alde egingo dugula".

ONGIZATEA

"Azpimarratu gurako genuke auzo eta elizateetan bizi den adineko jendeak erdigunera jaitsi behar izaten duela edozer gauza egin ahal izateko. Horregatik, ondo litzateke aztertzea zer baliabide edo zerbitzu antola daitezkeen Udaleko zerbitzuetatik pertsona horiengana errazago hurbiltzeko. Edo bestela, arazo hori saihesteko beste aukera bat da ongizate zerbitzuak mugitu beharrean, pertsona horiek ongizate zerbitzuetara hurbildu daitezkeen moduak bilatzea".

IRITZIA > ESKORIATZARREN ESKARIAK

Herritarrek kontuan hartzea eta lanak amaitzea eskatu dute

PILOTALEKUA BERRITU Kirolari, garrantzia handiagoa emateko eskatu du Joseba Iñurrategi Pilota elkarteak; eta pilotalekua berritzeko ere bai: "kanpotik zein barrutik oso egoera kaskarrean dagoelako"

HERRITARRAK BATUTA Isabel Guridik eskatu dio hurrengo alkateari, herritar guztiak harremanetan jartzeko, batez ere ideia desberdinak dituztenekin, eta guztiak batasuna lortzeko

DENDARIENAKO PLANA Herriko dendariak zaintzeko plana eskatu du Iraia Artzamendik. Hala, jendeak erosketak herrian bertan egin ditzan, prezio lehiakorak eskaini ditzaten dendariak



Mario Padilla

TXISTULARIA ETA EUSKALTZALEA

1. Lehengo lanak lehenbailehen amaitzea eta herria apaintzea da alkate berriari eskatuko niokeena. Premia dago autopista eta herriko beste hainbat behar amaitzeko. Izan ere, hasi egiten dituzte lan ezberdinak, baina gero ez dituzte guztiz akabatzen.

2. Ni neu erretiratua naizen alde-tik, akaso ez dut bizi gazteek bizi dutena: etxebizitza arazoa eta antzekoak. Ikusten dudana premia da nagusiok pausoa ondo emateko herria egitea. Argi ibili behar gara kaletik goazenean, baldosak mugitu egiten direlako, edo puntaren bat dagoelako lurtean. Gauza horiek konpondu egin behar direla ikusten dut.



Joseba Iñurrategi

PILOTA ELKARTEKO KIDEA

1. Hauteskundeetan aukeratu dugun alkate berriari frontoiari itxura pixka bat ematea eskatuko nioke. Bai kanpotik begiratu, eta baita barrutik ere, oso txarto dago-eta. Frontoi baka-rik ez, kirolari, orokorrean, garrantzia gehiago ematea da eskatuko niokeena.

2. Herria bera nahiko ondo ikusten dut. Ez ditut premia asko ikusten. Izan ere, lanak ondo eginda daudelakoan nago. Baina zerbait esatekotan, baserrietarako sarrerak hobetzea eskatuko nuke: bertarako bideak-eta hobetzea. Ondo daude oraingoak, baina hobetzeko lanak ere egin daitezke.

1. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

2. Zein da zure ustez herriak une honetan daukan premiarik nagusia?



Isabel Guridi

KULTURA ERAGILEA

1. Alkateari eskatu nioke, batez ere, herritar guztiak harremanetan jartzeko, ideia desberdinak dituztenekin, hain zuzen ere. Eta guztiak batasuna lortzeko.

2. Premia handienak dira kultura eta turismo arloak garatzea; eta ingurumena babestea, hain zuzen ere.

Eskoriatzan industria oso indartsua daukagu, baina kultura eta turismoa landuta, oreka lortu behar dugu. Babestutako ondare handia daukagu, eta bada-ago aukera lanpostuak sortzeko.

Bestalde, autobideak eta AHTk botere handia daukate, baina ez dugu ahaztu behar ingurumena zaindu beharra dagoela.



Iraia Artzamendi

ARTISTA GAZTEA

1. Gaur egun oso beharrezkoa den gauza eskatuko nioke Eskoriatzako alkate berriari: herriaren alde lan egiteko pazientzia izatea; hau da, erabakiak bi aldiz pentsatzea.

2. Nire ustez gure herriak gabezia asko ditu: txakurrenako parke bat egitea komenigarria dela uste dut. Txakurrak lotuta eraman behar ditugu; baina lasai ibiltzeko tokia ere behar dute. Dendariendako plan bat ere beharrezkoa da; prezio lehiakorak eskaini behar dituzte, erosketak herrian bertan egiteko. Gainera, zine eta antzerki aretoak eta nagusiendako ekitaldiak beharrezkoak ikusten ditut.

HAUTESKUNDEAK

2007

HAUTESKUNDEAK GOITBn

Saio bereziak, herriz herri, Udal hauteskundeetara alkate izateko aurkezten direnekin.

• Maiatzak 18, egubakoitza: Eskoriatza.

Ordua: 21:45ean.

Eskoriatzan botoa herriarentzat nahi dugu ez partiduarentzat

Eskoriatzako Elizateen Elkarteak Udal Hauteskundeetan parte hartzen dugun zazpigarren legealdia da hau; beraz, datorren urtean 25 urte beteko dira gure Udaleko partaide izateko bide hau aukeratu genuenetik, batez ere baserri-azulo eta Elizateetako proiektuak eta konpromisoak aurrera ateratzeko asmoz.

Eskoriatzan dagokigun guntxo hori betetzen jarraitu behar dugu, hau da, hurrengo lau urteetan baserri-aldeari eragiten dion guztiari buruzko erabakiak hartuko diren lekuan aegongo gara: gure herriko Udaletxean.

Gure baserrietako bizimodua, ohiturak eta usadioak; auzoetako garapen iraunkorra, arte-lanak eta kultura bultzatzen jarraitu nahi dugu. Euskaldunak izanik, Eskoriatza euskaldun baten alde lan egingo dugu.

Aurtengo zerrenda buru Leire Okaranza Apotzarra-rekin eta Javier Villar, azken lau urteetan udalean lanean tinko izan den ordezkariarekin egon gara.

Kaixo Leire, animatuta?
Bai, beharrak eragindako erabakia izan da. Errealitate eta



Javi Villar eta Leire Okaranza.

egoera batzuk bizi ditugu eta emaitzak lortzeko, garrantzitsua da, elizateetako elkarrekin lan egitea.

25 urte betetzear dago taldea. Zer balorazio egiten duzue?

Orain 25 urte ikuspegia izan zutenen bigarren belaunaldian gaude. Talde-aren nor-tasuna zein den argi dugu. Bakoitzaren ideia politikoak alde batera uzita, Elizateen eta euren interesak defendatzeko elkarrekin lan egiten dugu. Hasierako proiektu gehienak gauzatu egin direla esan daiteke, baina arlo

batzuetan, bideetan, ur horniduretan, mantentze-lan eta jarraipen etengabea egin behar da.

Zein da Elizateetako legealdirako duzuen helburua?

Batez ere, udalean zinegotzi bat lortzea; berebiziko garrantzia du guretzat. Ikusi besterik ez dago azken lau urteotan zinegotzi bakarra udalean izanda lortu ditugunak: Telebista heltzen ez zen lekuetan jarri dugu, Internet, azpiegituren obrek jarraipena egiteko taldea, auzo-lokala, baso-bideak, eskoilerak...

Eta datozen lau urteotan zeri helduko diozue?

Gure leloak esaten duen moduan "oraindik badugu zer egin". Maila sozialean lan egitea da asmoa. Zahar eta gazteak, auzo-lokal gehiago egin eta daudenak dinamizatu egin nahi ditugu eta batez ere, azpiegiturek sorraraziko dizkiguten arazoei jarraipena egin eta kaltetuen alde lan egiteko konpromisoa dugu.

Ez dira helburu makalak, orain arte lortutako asko Javierren lanari esker ere izan da. Berarekin ere berba egin dugu.

Javi, zer balorazio egiten duzu pasa berri den legealdiaz?

Bi arlotan banatuko nuke balorazioa: alde batetik udalean izandako harremana, hau da, gobernu buru izan direnekin hasiera ona izan genuen harremanetan eta elkar ulertzen genuen; baina denborarekin, alderdikeriak indar gehiago izan du eta harremanak oso hotzak izan dira azkenean. Horregatik argi dugu elizatekook, herriaren alde lan egin behar dela eta ez partiduarentzat. Beste aldetik, zinegotzi bat izateak Leirek laburtu duen moduan

posible egin du finkatu genituen helburuak betetzea.

Kaletarrek baserriaren ikuspegi bukolikoa dute. Baina zein da gaur egungo baserriaren benetako errealitatea?

Baserritik bakarrik bizi den jende kopurua izugarri jaitsi da, eta gazte belaunaldiak nahiko etsita daude egoera ikusita. Adminis-traizioak babesten dituela esan arren, beste aldetik emandakoa baino gehiago kendu egiten du: Lurrak birkalifikatuz, etxe zein industrialdeak egiteko, azpiegitura erraldoiak bultzatuz...

Eta horren guztiaren ondorio bezala baserri bizimodua desagertzera kondenatua dago.

Aurrerapenaren kontra zaudetela ikusten duenik ere bada...

Gure ustez, ez da aurrerapena beharrezkoa izan daitekeen azpiegitura bat hiru urteetan inauguratu nahi izatea. Baserritarren ezaugarri nagusienetako bat presarik ez izatea izan da. Gauzak ondo egiteko ondo pentsatu behar baitira: esaerak esaten duen moduan "bi aldiz neurtu eta behin moztu"

25 urte **auzolanien** oraindik badugu zer egin

oskoriatzako elizateen elkartea

emun botue entzun gaitzen udalean izan behar dugu

HAUTESKUNDEAK 07

Leintz Gatzaga

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a

EUSEBIO VILLAR > LEINTZ GATZAGAKO HAUTES-ELKARTEA

"Herritarrek esandakoa plangintzan jasota dagoen aztertuko dugu"

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Politikagintzan jardundakoa da, Eskoriatzan zinegotzi izan zen orain dela urte asko, eta orain Gatzagako zerrendaren buru dator. Herritarren iritzia jakin gura du Leintz Gatzagak nora jo behar duen datozen urteotan jakiteko, eta gertu dago herri galdeketa egiteko.

HIRIGINTZA

"Oraindik Udalean lanean daudenei zertan dabilzan galdetzea da gure asmoa lehenengo. Gero herri galdeketa egingo genuke, eta bi horiekin herriak norantz jo behar duen datozen urteetan ikusiko genuke. Orain dabilta plangintza egiten, eta herritarrek esandakoak jasota dauden ikusiko genuke, eta, bestela, sartzen ahaleginduko ginatke.

Hirigintza kontuetan beheko urtegia ezin dugu ahaztu. Jausi egin zen, eta alboko lurak eta bidea ere beheara doaz eta gero eta pitzadura gehiago ikusten dira. Hortaz, begiratu egin behar

diogu Aldundiarekin edo behar denarekin".

INGURUMENA

"Mendi zoragarriak ditugu Gatzaga inguruan, eta denbora gutxian bailarako birika bihurtuko da gure herria. 20 urterako plangintza dago eginda, eta dagoeneko hamar pasatu dira. Hortaz, orain da momentua geratu eta begiratzeko zelan doan aipatutako plangintza.

Gatzagarrok oso harro gaudere gure mendiekin, eta horrek esan gura du orain dela 80 urte ondo egin zituztela lanak. Eta gura dugu 80 urte barru harro senti daitezela guk egindako

lanaz. Horregatik, orain da momentua plangintza aztertu eta erabakiak hartzeko".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Erdi Aroko herria da gurea, oso berezia, eta orain arte bezala mantentzen arduratu behar dugu guztiok. Hor dauzkagu Eugenio Otsa gatz museoa, oso garrantzitsua, eta Dorleta santutegia; hortaz, herri osoa dela museoa esan genezake. Zaindu egin behar dugu, ume, gazte eta atzetik datozen guztiek orain daukagun herri zoragarria izan dezaten".

EUSKARA

"Zorionez, gehienok euskaldunak gara herrian. Batzuetan gutxi egiten da, baina egoerari esku biek heldu behar diogu -guraso zein gainerako helduok- gazteek euren artean euskaraz egin dezaten.

Gazteek bakarrik ez, helduok ere euskaraz egin behar dugu, eta erdaldun bat egon arren



Eusebio Villar
Industria-diseinatzailea
56 urte • Eskoriatza

BERBA BITAN**HERRITARREK ESANDAKOAREKIN LAN EGIN**

"Datorren legegintzaldirako osatu dugun taldeko kideok gatzagarrek gura dutena jakin gura dugu, hala Udalak nora jo jakiteko.

Baserritarrak erdia inguru izango dira, eta eurek ere talde bat osatu beharko lukete, gainerako taldeekin batera, Udalarari zer egin esateko".

aurrean, ahal den guztietan euskaraz egiten saiatu behar dugu, horrela lortuko dugulako euskara aurrera eroatea".

GIZARTE ONGIZATEA

"Herrian Gurel guraso elkarte dago, erretiratuen taldea, gazteena eta Sorginak emakume taldea. Herri txiki batean lau talde egotea asko da, eta zaindu egin behar ditugu eta lagundu. Udalaren helburua izan behar da ahal den guztian laguntzea eta babestea. Gero hor dugu musika taldea ere, soinu-jotzaileak. Hortaz, esandako moduan talde asko dira eta zaindu egin behar ditugu".

KIROLAK

"Bi talde garrantzitsu ditugu kirol arloan: txirrindularitza eta pilota taldea. Azken honek arazoak izaten ditu frontoian, oraindik itxi barik dagoelako. Aurreko legegintzaldian hasi ziren ixten, baina ez zuten bukatu, eta euria egiten duenean ura sartzen zaie. Uste dut geuri tokatuko zaigula hasitako lana bukatzea, eta lehenbailehen ixtea komeni zaigu jokatzeko jarrai dezaten. Txirrindularitza taldeak, bestalde, lan handia egiten du eta horri ere lagundu egin behar diogu.

Bestetik, geure ohiturak gorde behar ditugula halako herri txikietan aipatu gurako nuke, eta hor daukagu bolatokia. Martxan jartzea lortu behar dugu, geure kirola gordetzeko".

MARIATXEN ARANTZABAL > SORGINAK

"Oso harreman sakonak sortu dira geure artean, zintzoak"

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Emakumeen ikuspuntutik ekintzak antolatzeke sortu zuten taldea orain dela 18 urte. Ezagutu dezagun hobeto egiten duen lana.

HARREMAN SAKONAK

"Bazkari batekin ekin genion taldearen ibilbideari. Ondoren Parisera joan ginen bidaiari. Esperientzia interesgarria izan zen, geure arteko harremanak sendotu egin zirelako. Eta

orduan hasi ginen sentitzen emakume taldeko partaide ginela. Ondoren hitzaldiak izan ditugu, ikastaroak, erakusketak eta beste kontu asko.

Dagoeneko talde heldua gara, eta moteltxoago ibili arren derrigorrez egin beharreko ekintza batzuk ditugu urtean: emakumearen eguneko bazkaria, irteera bat, San Milixanetan lagundu... Oso harreman sakonak sortu dira geure arte-



an, zintzoak, nahiz eta batzuk nagusiak izan, 80 urtetik gorakoak. Eta amama horiek, hain zuzen, oso aberatsak dira, eta oso garrantzitsuak taldean. Orain, gurako genuke gazteak sartzea, eta, hala, sasoi bateko indarra berreskuratzen hasi".

GURUTZE ORBEGOZO > GUREL

"Gurasoak elkartu eta umeendako ekintzak antolatzeke sortu zen"

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Lan handia egiten dabil guraso elkarte azken 12 urteotan umeen aisialdia antolatzen. Gurutze Orbegozo da orain presidentea.

PROIEKTUAK ETA ARAZOAK

"Gatzagako gurasoak elkartu eta ekintzak egiteko sortu zen. Ludoteka eta liburutegiaren ardura daukagu, eta, gainera, hainbat ekintza antolatzen ditugu: jokoen Inauterietan, Olentzero

egunean baserriz baserri joaten gara kantuan, eta udalekuak udarako. Berbaldiak eta ikastaroak ere egiten ditugu ume zein gurasoendako. Eta beti gaude gertu ideia berriak hartzeko.

Bestetik, buruhausteak ere baditugu. Ume asko daude herrian, baina handi egiten doaz batzuk, eta zer antolatu orain? Jokoein aspertu egiten dira, beste zerbait behar dute. Beste batzuk, ostera, oso



txikiak dira eta horiek beste behar batzuk dituzte. Eta herritik ateratzeko derri-gorrez behar dugu autoa, eta gurasoak nekatzen hasita gaude. Orain, autobus zerbitzuarekin laguntzatxo bat daukagu. Hori bai, badakigu arazooi guztion artean egingo diegula aurre".

Bergara

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



GERMAN MURUAMENDIARAZ > EAJ

"Adinekoak etxean zaintzeko laguntza indartuko dugu"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Ingurumenak eta gizarte ongizateak izugarriko garrantzia dutela uste du EAJko alkategaiak, German Muruamendiarezek, eta arlo bi horietan lanean jarraituko dutela dio. Euskara, kirola eta kultura ere ez ditu baztertu.

IRIGINTZA

"Herriko kaleak jasota egon dira azken urteetan ur zikinak biltzeko egindako obrenatik, eta agian jendea aspertu egin da. Baina hirigintza ez da obra bakarrik, baizik herria eta kaleak txukundu. Eta orain arte kolore iluna izan badu, gure asmoa da kolore berdea ematea aurrerantzean. Etxebizitzak batez ere gazteei zuzentzea da asmoa, hainbat forma ezberdinetan. Hutsik daudenak ere merkaturatu nahi ditugu alokairuen bitartez.

Aparkatzeko arazoak ere badaude herrian eta hori konpontzeko 220 aparkaleku berri egingo ditugu Seminarioan. Bestalde, auzoetan ere badago zeregina:

Zubiaurre, Mugertza, Zubieta eta San Antonio, adibidez, berpiztu egin behar ditugu".

INGURUMENA

"Gero eta garrantzi handiagoa eman behar zaio arlo horri; kezkatuta gaude ondorengoei ze herri, ze mendi utziko diegun. Horretarako, Agenda 21eko irizpideak jarraituko ditugu. Horrekin batera, bidegorriak egin eta mantendu behar ditugu, baita biodibertsitatea ere. Horrez gain, Bergarak ondare aberasgarria du oso: bost parke ditu eta horiek eta berdeguneak zaindu eta aberastu behar ditugu, jasangarritasuna kontuan hartuz".

HIRIGINTZA

"Zubiaurre, Mugertza, Zubieta edo San Antonio auzoak berpiztu egin behar ditugu"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Bergararrok beti egon gara nahiko harro herriko kultur mailarekin eta giroarekin: banda, orfeoia, dantzariak, margolariak... Baina azken denboraldian baretu egin da eta aitortu beharra dago, Udalaren aldetik ere, azpiegitura aldetik hutsuneak daudela. Hala ere, aurrera egin behar dugu eta EAJk asmoa dauka falta diren ekipamenduak jartzeko. Horien artean daude: Zabalotegiko aretoa egokitzea, auditorioa egitea eta Arrizuriagako liburutegi eta kultura etxea egitea".

EUSKARA

"Udalak asko landu eta bultzatu du euskara azken urteetan; harreman guztiak euskaraz dira udalaxe barruan. Kontseiluak bosgarren postua eman dio Bergarari, euskaldun peto-petoak diren herrien ostetik. Bergaran jendeak badaki euskaraz, baina hitz egin behar dugu, bai etxean, bai kalean, bai lantokian. Horretarako, Udalak hainbat programa



German Muruamendiarez

Nekazari ingeniari teknikoa
57 urte • Bergara

BERBA BITAN

ELKARRIZKETA ETA HARREMANAK BULTZATU

"Administrazio publikoak kudeatzen esperientzia dudalako, ilusioa eta jendearekin egoteko eta entzuteko gaitasuna dudalako aurkezten naiz alkate izateko.

Ondo prestatutako taldea dut ondoan eta elkarrizketa eta harremana bultzatzea eta lantzea da gure helburua".

ditu bideratuta bai kalean bai lan-tegietan euskara erabiltzeko; adibidez: Berpiztu eta Berriketan programak".

GIZARTE ONGIZATEA

"Izugarriko erronka dugu adinekoiei behar bezala erantzuten, garrantzitsua delako luzaroan bai, baina ondo ere bizitzea. Horretarako, lehengo zaharren egoitza handitzeko asmoa dugu. Horrez gain, etxeetako laguntza bultzatu nahi dugu. Une honetan 100 pertsonak jasotzen dute etxeetako laguntza eta uste dugu oso sistema ona dela hori: alde batetik, euren etxeetan daude ondoen edadetuak; eta, bestetik, benetako beharra dutenendako tokia uzten dute egoitzan. Gure ustez, diru iturririk ez duten lagunendako dirulaguntzak ere garrantzitsuak dira eta etorkinei lana bilatzen eta euren seme-alabei hezkuntza ematen lagundu behar diegu".

KIROLA

"Gaur egun gizarte osoak eskatzen du kirola egitea, ez bakarrik gazteek. Eskaera handia dago eta Udalak esfortzu handia egin du Agorrosinen jartzen hainbat kirol egiteko instalazioak. Baina hori osatu egin behar dugu: Agorrosingo bi futbol zelaiak eta aldagelak berrantolatu egin behar ditugu eta Labegaraietan tenisko beste pista bat egin nahi dugu. Horrez gain, nagusiendako zirkuitu berriak ere prestatu nahi ditugu, esertzeko tokiarekin, urarekin eta abarrekin".



Bergaran...



egin behar dugu

German Muruamendiarez Larrañaga
Bergarako Alkatetzarako
hautagaia

eman botoa 

www.eaj-pnv.com

www.eginbehardugu.com

AGURNE BARRUSO > EAE-ANV

"Bergara bizi eta kritiko baten aldeko apustua egiten dugu"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergarak aldaketa merezi duela uste du EAE-ANVk, eta aldaketa hori emateko gertu dago alderdi hori. "Herria bizirik mantendu eta lurraren antolamendua herriaren zerbitzura egin" nahi du, besteak beste.

HIRIGINTZA

"Ez gaude ados EAJk azken urteetan hirigintzan egin duen politikarekin, erabili dituelako hirigintza eta lurraren antolamendua diru iturri moduan. Hirigintza etxebizitzetara mugatu du eta guk uste dugu lurraren antolamendua herritarren zerbitzura egin behar dela, eta, gainera, ingurumena errespetatuz. Eta EAJk ez du bermatu herritarren etxebizitza duinerako duen eskubidea.

Gainera, hirigintzan egin dituen politika guztietan ez du herritarren iritzia kontuan hartu; Zabalotegiko errepidea da adibide bat. Bestalde, salatu nahi dugu ere Fraiskozuriko etxeak urte askotan daudela ordenazio-

tik kanpo eta Udalak oraindik ez diela irtenbide egokirik aurkitu".

INGURUMENA

"Defendatuko dugu ingurumena aparteko batzorde bat, aurrekontu bat eta dinamika bat izatea, gaur duen moduan. Gure bizi iraupenerako dugun ondasun garrantzitsuenetako bat da eta derrigorrezkoa da ingurumena babesteko eta errespetatuko duen politika bat egotea. Hori da batzorde horri legokiona.

Proposatuta dago herriko parke historikoak ondare kultural izendatzea. Udal gobernuak ez du erantzunik eman oraindik, baina guk jarraituko dugu hori eska-

tzen: goiko Kondeko parkea, behekoa, Arrizuriaga eta Usondo mantentzea. Bestalde, herriko errekek eta inguruak zaindu barik daude eta ahalegina egin behar dugu horiek zaintzeko".

KULTURA, ASIALDIA ETA GAZTEAK

"Bergara bizi eta kritiko baten aldeko apustua egiten dugu. Eta herria bizirik mantentzeak esan nahi ditu hiru gauza hauek: bertan lan egiteko aukera egon behar dela, sare industrialak babestu behar dela; kontsumo beharrak herrian egiteko aukera egon behar dela, komertzio txikien aldeko apustua eginez eta aisialdiaz gozatzeko aukera ere egon behar dela".

Kulturaren, baliabide asko galdu ditu Bergarak, politika zehatz baten ondorioz. Guk kultur herrikoaren aldeko apustua egiten dugu. Gazteen arteko batzorde bat sortzeko proposamena ere egiten dugu, gazteen autogestioa bultzatzen duen plan integral bat egiteko".

EUSKARA

"Bergara udalerrri euskaldunen mankomunitatean sartzea da proposamena"



EUSKARA

"Euskararen ezagutza eta erabileraren alde batera utzi barik, euskaraz bizitzeko pausoa eman behar du Bergarak eta udalerrri euskaldunen mankomunitatean sartzea proposatzen dugu. Herriko euskararen erabilpena arautuko duten udal ordenantzak egotea ere garrantzitsua da. Bestetik, euskalduntzea euskal herritarren eskubidea da eta doakotasunerako bidean jarriko gaituen egitasmoak bultzatuko ditugu. Lanbide Heziketa duten ikasleekin harremanetan jarri nahi dugu eta etorkinen euskalduntzea ere bermatu nahi dugu".



Agurne Barruso

Parte-hartze teknikaria
38 urte • Bergara

BERBA BITAN

BERGARARI ALDAKETA EMAN BEHAR ZAIOLA USTE DU EAE-K

"Ez gaude udal hauteskunde demokratiko batzuen aurrean. EAJk eta PSE-EEK nahi dute gu Udaleko langintzatik baztertzea, eta hori salatu nahi dugu".

Bestalde, uste dugu Bergarak aldaketa merezi duela, Udala herriarengandik urrun dagoela eta aldaketa hori eman behar diogula".

GIZARTE ONGIZATEA

"Emakumeen batzorde bat sortzea proposatzen dugu eta berdintasunean aditua den teknikari bat kontratatzea. Etxebizitzetara buruz, Bergaran 1.000 etxebizitza huts inguru daude eta beste 1.300 egin nahi dituzte eta guk huts horiek alokairu sozialen bidez herritarren esku uztea nahi dugu. Bestalde, etorkinendako harrera protokoloa ere landu nahi dugu".

KIROLA

"Herritar guztion eskura egon behar da, eta, Agorrosingo proiektua ikusita, hori ez da horrela, oso garestia da. Enpresa pribatu bat balitz moduan, autofinantzazioa planteatzen dute, eta Udalaren zeregina da zerbitzua eskaintzea. Moldaketak egin behar dira eta proiektu globala landu inguruko instalazioekin".



MIKEL ETXANIZ > ARALAR

"Oinez eta bizikletan dabiltzanei emango diegu lehentasuna"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Gauzak aldatzeko asmoz aurkeztu da berriro Aralar udal hauteskundeetara. Datozen lau urteetarako dituen asmoen artean daude: gazteendako musika lokala bultzatu eta euskararen plan estrategikoa martxan jartzea.

HIRIGINTZA

"Hirigintza arloan, herria fisiko ki egituratzeko orduan, oinezkoei eta bizikletan ibiltzen direnei emango diegu lehentasuna. Bergara ibilgailuendako hiri bat da, baina guk lehentasuna emango diegu bizikletan eta oinez ibiltzen direnei. Horretarako, pentsatu dugu dagoeneko zer egin, adibidez: eskailera mekanikoak, igogailuak edo garraio publikoa. Azken puntu hori bultzatuko dugu, batez ere.

Etxeak egiteko orduan, babes ofizialekoen alde gaude. Pentsatzen dugu gaur egun luxua dela etxebizitza edukitzea Bergaran. Etxebizitza izatea eskubidea da, baina gaur egungo prezioekin

luxu bihurtu da. Horri aurre egiteko, babes ofizialeko etxebizitzak bultzatuko ditugu, eta, batez ere, alokairu sozialak".

INGURUMENA

"Ingurumenaren barruan, Bergaran badaude bi proiektu erraldoi: Abiadura Handiko Trena eta Errekalde parketik pasako den errepidea, Zabalotegiko proiektua. Bi proiektu horiek astakeria dira, gure ustez, eta horien aurka gaude erabat. Datozen lau urteetan bi proiektu horiek aurrera ez egiteko egingo dugu lan, nahiz eta oso zaila izan.

Beste alde batetik, Bergarako fauna eta flora berreskuratzeko.

HIRIGINTZA

"Eskailera mekanikoak, igogailuak eta garraio publikoa dira ibilgailuen irtenbideak"

aren alde gaude eta herriko parkeen zaintzaren eta erabilpenaren alde gaude".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura eskaintza aberastu egin behar da, dinamizatu. Orain, bi proiektu daude guretako oso garrantzitsuak direnak: Zabalotegiko aretoa eta auditorioa. Bi proiektu horiekin ados gaude, aurrera egitea beharrezkoa da, baina uste dugu ondo egin behar direla; proiektuak eginda daudenean, erabiliko duten taldeekin egon behar da euren iritzia jakiteko, beraiek zer aldatuko luketen edo zein berrikuntza egingo luketen jakiteko.

Gazteriaren barruan, oraindik hor dago proiektu bat inoiz ez dena martxan jarri: musika taldeendako lokala. Horren alde gaude eta hori bultzatuko dugu".

EUSKARA

"Dударик barik, euskaldunok dugun altxorrik preziatuena. Horretarako, udaletxean lau urte-



aralar

Mikel Etxaniz
Langilea
43 urte • Bergara

BERBA BITAN

ALDAKETAREN BEHARRA DAGOELA USTE DU ARALARREK

"Aralar ilusio handiarekin doa Udalera. Azken lau urteetan ere egon da Udalean eta badu esperientzia, asko ikasi du.

Bergarako aldaketa behar du, ezkerre Udalera iritsiz. EAJK urte asko egin ditu agintean. Hori aldatu beharra dago eta Aralar da aldaketaren aukera onena".

ko plangintza baten beharra ikusten dugu, eta plangintza hori bultzatuko dugu. Hizkuntza urraketak ere gertatzen dira, erakundeetan sarri, eta urraketa horiek salatu egin behar dira. Gure lana izango da lau urteko plan estrategikoa martxan jartzea eta hizkuntza urraketak egoten diren neurrian, salatzea".

GIZARTE ONGIZATEA

"Umetatik zahartzarora arte bermatuta izan behar ditugu gutxiengo batzuk. Haurreskola publikoa martxan jarri da eta orain dugun gai garrantzitsua da zaharren egoitza. Datozen lau urteetan jarriko da martxan, baina Aldundiak zeresan asko du horretan. Ezin liteke onartu txandak egotea hor sartzeko, eta horren aurka egingo dugu.

Beste alde batetik, emakumeen aurkako genero indarkeria, etorkinak..., behar gehien dutenen aldeko planak egingo ditugu".

KIROLA

"Agorrosingo kirolgunearen proiektua hor dago, baina uste dugu Udalak ez duela behar bezalako harremanik izan Bergarako Kirol Elkartearekin, eta hor akatsa egin du Udalak. Guk uste dugu Udalak eta herriko kirol elkarteek harreman estua izan behar dutela. Uste dugu Bergarako Kirol Elkarte bera izan behar dela kirolaren beharrak eta nondik norakoak erakutsi behar dituen. Aralar alderdiak horren alde egingo du".

ausartu hadi Bergara aldatzen

Bozkatu

aralar



euskara

www.aralar.net

LAURI ASKARGORTA > EA

"Agorrosingo aukerak nola aprobetxatu aztertu behar dugu"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Lauri Askargorta bergararra da EA alderdiko alkategaia. Orain arte ez da politikan ibili eta agian esperientzia falta zaiola dio. Hala ere, herriarengatik lanerako gogoz eta ilusioarekin datorrela azpimarratu zuen alderdiak egin zuen aurkezpeneko prentsaurrekoan. "Etxebizitza tasatu gehiago, aparkalekuen arazoa konpondu, Agorrosinen aukerak nola aprobetxatu eta herriko auzoak kontuan hartu"; horiek dira EAren helburuetako batzuk.

HIRIGINTZA

"Hirigintza arloan, duela gutxi hasiera onartu zaion plan orokorrak jasotzen duen garapenari jarraitzea da asmoa. Horrez gain, etxebizitza libreen prezioak egokitzea da helburua, tasatuak adibidetzat hartuz. Baita gazteendako etxebizitza politika aurrera ateratzea ere: babestutakoak bultzatuz, alokairuak erraztuz eta erabiltzen ez diren baxu komertzialak etxebizitza bihurtuz.

Esandako hori guztia planifikazio batekin eta orden batekin egitea nahi dugu".

INGURUMENA

"Agenda 21ean agertzen diren pautak jarraitzea da helburu bat, baina baditugu Bergararako beste plan batzuk ere, adibidez: bidegorriak egokitzea, Bergarako saneamendua sare orokorrarekin lotzea Mekolaldeko araztegiarekin eta hirugarrenik, energia aurrezteko toki publikoetan.

Bestalde, zarataren azterketa plan bat egitea ere nahiko genuke, ondorio batzuk ateratzeko eta horien araberako erabakiak hartzeko".

ANBULATORIOA

"Anbulatorioak dituen beharrak aztertu behar dira eta beharrak bete ahal den neurrian"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura mailari dagokionez: Zabalotegiko aretoa egokitzea da gure asmoa, besteak beste, herrian hain beharrezkoa den zinema aretoa jartzeko. Auditorioaren proiektuak aurrera egitea ere nahi dugu, horrek eskaini dezakeen dena emateko.

Bukatzeko, gazteen parte-hartzea handiagoa izatea nahiko genuke, euren iritziak entzunez azpiegiturak hobetzeko eta aisialdiko eskaintza ezberdinak antolatzeko".

EUSKARA

"Berba elkartearekin hitz egin dugun moduan, gure asmoa da euskara herri mailan bultzatzea, bai kalean, bai udaletxean.

Horretarako, nahiko genuke bai dendariei baita gremioetako langileei ere laguntzak ematea euskara ikasteko. Etorkinendako edo euskara behar bezala menperatzen ez dutenedako ere, ikastaroak antolatzea da euskararen alde egin nahi duguna".



Lauri Askargorta
Komertziala
35 urte • Bergara

BERBA BITAN

UDALAREN ZORRA JAISTEA DA EA-REN HELBURU NAGUSIA

"Politikara heldu berria naiz eta esperientzia falta zait, baina ez herriaren alde lan egiteko gogoan.

Azpimarratzekoa da EAren helburu nagusia dela Udalaren zorra ahal den heinean jaiste, baina herritarren kolaborazioarekin eta parte-hartzearekin: euren kritikak eta ideiak jasoz".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte ongizatearen barruan, Mizpirualde egoitza handitzea eta ondo egokitzea da gure helburua, han dauden pertsonen zerbitzu hobeak emateko eta eurak gusturago egoteko egoitza horretan egon behar duten denboran.

Erretiratuekin harremanak zehaztea ere nahi dugu, euren kezkek eta iritziak ezagutzeko. Bestalde, etorkinei harrera ona ematea ere nahi dugu eta herrian integrazioa erraztea.

Horrez gain, gizon eta emakumeen berdintasunaren aldeko politikak martxan jartzea ere nahi dugu.

Azkenik, anbulatorioan dauden beharrak azterzea eta behar horiek ahal den neurrian betetzea da dugun helburua".

KIROLA


"Kirolaren arloari begira, Agorrosingo kirolgunearen instalazioak hobetzea gustatuko litzaiguke, aukera asko daudelako, leku asko dagoelako eta beharra dagoelako hori egiteko. Horretarako, Bergara Kirol Elkartearekin harremanetan jartzea gustatuko litzaiguke, denon artean zerbait ganorazkoa egiteko.

Bestalde, eskola kirola bultzatzea nahiko genuke, umeak txikitatik murgiltzeko kirolean.

Bukatzeko, kirola auzoetara hurbiltzea ere nahi dugu, bai auzoetako ekipamenduak hornituz edo bai mota ezberdinetako txapelketak antolatuz herrian dauden auzoetan".



Lauri Askargorta



HAUTESKUNDEAK GOITBn

Bi saio berezi Batzar Nagusietarako hautagaiekin.

- Maiatzak 16, eguaztena: Mahai-inguru berezia, Batzar Nagusien gainekoa.
- Maiatzak 22, martitzena: Batzar Nagusiak (Gipuzkoa).

Ordua: 21:45ean.

SALVADOR GONZALEZ > EB-BERDEAK

"Udalak hautsi behar du eraikuntza enpresekin duen mendekotasuna"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Urte batzuk politikatik kanpoan egin ostean, Udalera bueltatu nahi du EBko Salvador Gonzalezek. "Babestutako etxebizitzak, pertsona nagusien zaintzaileen soldatak eta bertako zuhaitzak" defendatzen ditu.

HIRIGINTZA

"Ikusi dugu Udalak mendekotasun handia duela eraikuntza enpresekin, eta hori akatsa da. Ezker Batua alderdiak hori konpondu nahi du. Azken urteetan etxebizitzaren prezioak asko igo dira eta gure asmoa da datozen lau urteetan etxebizitza babes- tuak eta alokairu sozialak bultzatzea. Beste herrialde batzuetan, Frantzia adibidez, alokairuan bizi da jende asko, alokairu onargarritan, eta guk eredu hori ezarri nahi dugu hemen.

Hori guztia bultzatzeko, ordea, murriztu eta bukatu egin behar da, betiko, Udalak eraikuntza enpresekin duen mendekotasun hori".

INGURUMENA

"Ezker Batua alderdian gaudenok ez dugu inolako tolerantziarik izango ingurumenari kalte egiten dioten azpiegiturekin. Denok bezala, guk ere herri garbi bat nahi dugu, zaratarik gabeko herri bat, eta horretarako, zarataren mapa edo ikerketa egitea proposatzen dugu, zarata nola murriztu daitekeen ikusteko.

Bestalde, pentsatzen dugu bertako zuhaitzak landatu behar direla gure basoetan. Gainera, murriztu egin behar dira enpresek egiten dituzten kontrolrik gabeko isurketak eta herritarrek kontzientzia hartu behar dute isurketak egitea gaizki dagoela.

INGURUMENA

"Zaratarik gabeko herria nahi dugu, eta zarata nola murriztu daitekeen aztertu behar dugu"

Bukatzeko, AHT proiektuaren aurka gaude".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura arloan, bultzada handi bat egin nahi dugu kultur azpiegiturak eraikitzeko. Garai baten hiru zinema zeuden, eskoletak ez gain, eta egun ez dago bakar bat ere. Horrekin batera, datoren legegintzaldian, auditorioa ere eraiki behar dela uste dugu. *Miserableak, Oliver!* eta beste ikuskizun batzuk ere prestatu dituzte herritarrek eta beste herri batzuetan ikusi ahal izan ditugu, hemen ez zegoelako behar bezalako tokirik. Horrelako lanak frontoian ikustea triste da. Horregatik da garrantzitsua auditorioa egitea. Pena da gazteek tabernaren kultura bakarrik izatea. Pentsatzen dugu gazteei euren inizatibak garatzen lagundu behar diegula".

EUSKARA

"Ezker Batuak konpromisoa hartzen du hizkuntz normalizazioa



EB
Ezker Batua
Berdeak

Salvador Gonzalez

Langilea
51 urte • Kordoba

BERBA BITAN

HERRIAREN PARTE-HARTZEA EKARRIKO DUELA DIO EB-K

"Ezker Batuari eman behar diozue botoa erakundean lan egiteko beste modu bat badaguelako.

Uste dugu herritarren parte-hartzearekin hobeto egin daitekeela lan; orain arte burokratikoak bakarrik egin dira gauzak, eta hori ezin daiteke egin, inor ez delako ezertaz enteratzen".

gauzatzeko eta euskara alor guztietan erabili ahal izateko. Proposatzen dugu euskara ikasteko zentroak publikoak izan behar direla eta euskara doan ikasi behar dela. Ikusi behar dugu euskara guztion ondarea dela eta inoren ezarpenik gabe garatu behar dugula".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte ongizatearen alorrean ikusi dugu gero eta jende gehiago dagoela beste norbaiten mende. Konturatu gara pertsona horiek zaintzen dituzten langileek enpresa pribatu baten menpe egiten dutela lan. Guk proposatzen dugu zaintza hori publikoak izatea eta mendekotasuna duten lagunekin ibiltzen diren langileek dagokien bezala kobratzea. Guk nahi dugu pertsona nagusiak ondo zainduta egotea, eta horretarako, ondo ordaindu behar zaie zaintzaileei".

KIROLA

"Ikuskizuna bailitza hartzen da askotan kirola, baina guk uste dugu oinarrizko kirola bultzatu behar dela. Horretarako, erakunde publikoak ekipamendu egokiz hornitu behar dira eta prezio egokien politika aplikatu behar da, dirua ez dadin inorendako arazo izan kirola egiteko. Bergaran ez daude azpiegitura aproposak eta daudenak, Agorrosin adibidez, gero eta garestiagoak dira. Kirola ez da gizartearen ondarea, zerbiztu moduan ikusten, negozio moduan baizik".

MARI KARMEN BARRENETXEA > PSE-EE

"Hilerria San Joxepera eramane nahi dugu, agindu duten moduan"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Herritar arrunt gisa aurkeztu du bere burua PSE-EE alderdiko alkategaiak. Gizarte zerbitzuak "ezinbestekotzat" hartzen ditu, kirola denen eskura egon behar dela pentsatzen du eta herritarren iritzia jasoko dituela dio.

HIRIGINTZA

"Etxebizitza begira, gazteendako etxebizitza babes- tuak eta alokairuen programa bat bultzatu-ko ditugu. Aparkalekuei buruz, Seminarioko 235 aparkalekuak egin nahi ditugu lehenbailehen, eta hilerria San Joxepera eramane, azken urte askotan agindu den bezala. Bestalde, autobus geltokiari dagokionez, argiteria hobetu nahi dugu, jendeak arazorik izan ez dezan, eta, horrekin batera, autobusen sarrerak eta irteerak behar bezala nabarmendu nahi ditugu".

INGURUMENA

"Behar diren lurzoruen kalifikazioa bermatzen dugu, bai lur

industrialena, bai nekazari lurrena ere. Ingurumena berreskuratzeko plan bat egitea ere nahi dugu eta Agenda 21 bultzatu nahi dugu, jasagarritasunaren irizpideak ezarri, udal ordenantzak modu egoki eta arduratsuan erabiliz. Modu horretan, hiriko elkarbizitza bermatuko dugu, ingurumenari kalterik egin gabe eta herriko bizitza lasaia aztoratu gabe".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Gazteak dira gure gizartearen etorkizuna, beraiek dira etorkizuneko gidariak. Horretarako, formazio egokia eman behar dugu. Beraz, langabezian dauden

GAZTEAK

"Langabezian dauden gazteek lana izatea ahalbidetu behar dugu"

gazteek lana izatea ahalbidetu behar dugu, eskola-tailerren bitartez.

Bestalde, gazteak beti kezak- tzen dira ez dutela herrian aisialdiko edo kulturako aukera nahikorik eta asteburu askotan kanpora joan behar izaten dutela kultur eskaintzaren bila. Horrek izugarriko arriskua dakarke gazteei eta sekulako urduritasuna euren gurasoei.

Arlo horretan, herritarren iritzia hartuko ditugu kontuan ekintza ezberdinak martxan jarri. Hori modu askotara egingo dugu: Internet bidez, euskari digitala duten osoko bilkurak, edo maiz egingo ditugun kale inkestekin. Kanpotik etorri diren herritarrek ere parte hartzea bultzatu behar ditugu, integrazioa bultzatuz. Beraieendako, immigrazioaren batzorde bat osatuko dugu".

EUSKARA

"Euskara nazio ondare bat da eta zaindu egin behar dugu, arlo guz-



PSE-EE
PSOE

Mari Karmen Barrenetxea

Administraria
49 urte • Donostia

BERBA BITAN

TXARTO DAUDENAK ALDATU NAHI DITU PSE-EE ALDERDIAK

"Bergarako herritar arrunt bat naiz eta edozeinek izan ditzakeen jakin-minak ditut nik ere. Alderdi Sozialistak gaizki dauden gauzak hobetzeko apustua egin du, eta, horregatik, zure botoa behar dugu. Boto horrek segurtasuna ematen digu eta gauzak aldatzen lagunduko digu".

tietan. Horregatik, uste dugu ez dakienak babestu behar ditugula eta euskaltegia joateko bideak aurkitu behar direla, euskara elkarteko tresna bat izan dadin, ez inor baztertzeko. Gure esku dagoen guztia egin behar dugu hori lortzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte zerbitzuak ezinbestekoak dira elkarbizitzarako eta bizi kalitateko. Udala ahalik eta parte-hartzaileena izan behar da eta erabateko gardentasuna izan behar du etorkinendako laguntza ekonomikoetan, larrialdi egoeratan, laguntza berezietan edo berdintasunean oinarritutako zerbitzu juridikoetan, adibidez.

PSE-EE alderdiak gizarte ongizateko batzordearen alde egiten du, askotan gertatzen diren oztopo politikoak gainditzeko, betiere gabezia gehien dutenen alde lan egiteko".

KIROLA

"Kirolak hainbat onura ditu guztiondako: kirolak osasuna ekartzen digu, jendearengana hurbiltzen gaitu, ondo eta pozik sentiarazten gaitu, gure osasun fisikoa zein psikikoa hobetzen du. Horregatik, kirol instalazioak guztion eskura egon behar dira, eta Bergaran ez daude. Kiroldegi, gimnasio eta igerileku onak ditugu, baina prezioak ez daude denon eskura. Bestetik, kanpainak egingo dira emakumeak berdintasunean egin dezaten kirola".

LUIS MIGUEL URRETXU > PP

"Pertsona nagusien defendatzailearen irudia sortuko dugu"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

Bergara oraindik ez duela ezagutzen dio Luis Miguel Urretxu PPko alkategaiak, baina herriaren alde lan egitera datorrela esan du. Kulturako Bergara saria sortzea da egiten duen proposamenetako bat.

HIRIGINTZA

"Etxebizitzaren gaietarako batzorde bat eta agentzia bat sortzea proposatzen dugu, arlo horretan Bergarak dituen arazoak konpontzeko. Etxebizitzaren agentzia sortzea oso garrantzitsua da, etxebizitza erosteko dauden laguntzei buruzko informazioa izateko eta gazteei aholkuak emateko, bai Udalak emango dituen laguntzen inguruan eta baita promozio sozialeko etxebizitzak egin daitezkeen lurzoruak erosteko kooperatibak egiteko. Agentziak, gainera, etxebizitza izatera denon eskura egotea ahalbidetuko du. Trafiko arazoak ere badaude, eta horri irtenbideak aurkituko dizkiogu".

INGURUMENA

"Hainbat proposamen ditugu ingurumen arlorako: horietako lehena, Kiotoko protokoloa betetzea. Horrez gain: zaborraren bilketa pneumatikoa; horrela, batu ezin daitekeen zaborra jasotzeko lur azpiko ontziak jartzea; 24 ordutan pintadak, kartelak eta antzerakoak garbituko dituen brigada bat sortzea; zarataren mapa egitea; herriaren ingurua indartzea; eraikin berrietan eguzki-energia termikoa hartzeko instalazioak egitera behartuko dugu eta arkitektura bioklimatikoa irizpideak ezarriko ditugu.

Horrez gain, *ekobonuak* emango ditugu; bonu horiek izan-

HIRIGINTZA

"Etxebizitza gaietarako batzordea sortu nahi dugu, arlo horretako arazoak konpontzeko"

go dira, adibidez, jasagarriak diren eraikinendako".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura irudimenetik eta herri-tarren sormenetik sortu behar dela uste dugu. Ez dugu sinisten zuzendutako edo agindutako kultura baten. Beraz, herri proposamen guztien alde egingo dugu.

Bergara saria sortuko dugu, kulturako balioak indartzeko. Horrez gain, Bergarako historiari buruz egindako urteko ikerketarik onena saritzeko nazioarteko lehiaketa bat ere deituko dugu".

EUSKARA

"Euskarari buruz, esan behar dena da hizkuntzek izateko arrazoi bakarra dutela: pertsonen ahalik eta ondoen elkar ulertzea. Hizkuntzaren beste edozein erabilpen egitea, izateko arrazoi hori bortxatzea da. Euskarak irau du orain arte erabiltzaileen borondateagatik, eta mantendu egin behar dugu. Baina gordetzeko



Luis Miguel Urretxu

Delineatzaile topografikoa

54 urte • Salinillas de Buradon

BERBA BITAN

ESPAINIAREN IDEIA DEFENDATZEN DUEN BAKARRA

"Elkartasun hazia erein behar da, eta horretarako gu gara aukera; abertzaletasunaren eta Madrilen arteko zubia gara. Espainiaren ideia defendatzen dugun bakarrak gara eta Espainiaren eta, beraz, Euskal Herriaren ongizatearen alde egingo dugu. PSE-EEren botoa EAJrekin hitzartuta dago".

modurik onena modu naturalean erabiltzea da, espainola bakarrik erabiltzen dutenen aurka egin barik, euskara bezain hementxo da eta espainola. Euskaren erabilpen politikoaren aurka gaude; erabilpen alderdikoia da bere areririk handiena".

GIZARTE ONGIZATEA

"Nagusiaren defendatzailearen ordezkari bat izendatzea proposatzen dugu. Baita errekurtsorik ez duten nagusi zein umeei begi eta aho osasuna eskaintzea ere. Bestalde, nagusiendako turismoa indartzea, igogailuak jartzea eta etxebizitzetan egokitzapen obrak egitea ere proposatzen dugu. Gutxituendako oztopoak kentzea proposatzen dugu eta familiarendako familiaren gaietako batzorde bat sortzea, laguntza guztiak kudeatzeko, eta Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga gutxitzea ere proposatzen dugu. Horrez guztiaz gainera, haurreskola gehiago zabaltzea eta berdintasunaren alde egitea ere nahi dugu".

KIROLA

"Kirolean proposatzen dugu: Udak Kirol Institutua sortzea; natur eta turismo kirola indartzea, bai gazteendako eta bai nagusiendako; eskola kirola eta gazteen kirola indartzea; herrian jokatzeko den torneo kopurua handitzea eta nazioarteko txapelketak bultzatzea. Gaueko kirola eta aisialdia ere bultzatu nahi dugu gazteendako eta familiendako, eta gutxituendako kirola ere indartzea".

HAUTESKUNDEAK 2007

**HAUTESKUNDEAK
GOITBn**

Saio bereziak, herriz herri, Udal hauteskundeetara alkate izateko aurkezten direnekin.

• Maiatzak 24, eguna: Bergara.

Ordua: 21:45ean.

Antzuola

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



BASILIO ORMAZABAL > EAJ

"Etxebizitza zaharrak birgaitzea da gure proposamena"

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Alkategai aurkezten den lehen aldia da Ormazabalendako, baina zinegotzi moduan badu eskarmentua: azkeneko bi agintaldietan zinegotzi izan da; Ogasun batzordeko burua izan da.

HIRIGINTZA

"Hirigintza batzordean hainbat asmo bete ditugu eta beste hainbat bukatzeaz daude. Guri tokatuko zaigu horiek bukatzea. Esaterako, 30 etxebizitza tasatuak, gizarte-kultura etxea eta baita herrirako sarrera berriak ere.

Etxebizitzaren gainean, gure proposamena da etxe zaharrak eraberritzea. Gainera, Balzers eta Seytraren gunean etxebizitzak egingo dira eta gure asmoa da hori kudeatzea eta babestutako etxebizitza ahalik eta gehien egin ahal izatea".

INGURUMENA

"Agenda 21 onartu zenetik, gure asmoa da baserrietara edateko ura eramatea eta baserrietako ur

zikinendako azpiegiturak egitea. Bestetik, kolektorea Bergararaino eramatea tokatuko zaigu.

Ezin dugu ahaztu, bestalde, oraingo agintaldian hasiko direla bi obra erraldoi egiten: Beasain-Durango eta AHT. Biak dira oso bortitzak eta guretatoko inposatutakoak. Ahalegindu behar dugu ahalik eta etekin handiena ateratzen. Adibidez, ahaleginduko gara Deskargan lautada bat egiten obra horietan ateratzen diren lurrekin, egunen baten hantxe kokatzeko industrialdea. Bestalde, badakigu AHT ez dela jendearen gustukoa; saiatuko gara ahalik eta eragin gutxien eduki dezan herriarengan".

BEASAIN-DURANGO ETA AHT

"Biak dira oso bortitzak; gu ahaleginduko gara ahalik eta etekin handiena ateratzen"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura gizakiok egiten dugu. Datorren agintaldian tokatuko zaigu kultura etxea bukatzea, hornitzea eta martxan jartzea.

Bestalde, larrugintzaren museoaren proiektua pare bat urte barru martxan egongo da.

Aisialdiari dagokionez, hiru puntu nabarmenduko nituzke: batetik, Sagastin, 4.000 metro koadroko parkea geratuko zaigu. Bestetik, gustatuko litzaidake San Jose parkean ukitutxo bat egitea; eta azkenik, trenbideko eta bide zaharreko bidegorriak ere egin behar dira.

Gazteen gainean, batetik, Gaztegunea berria inauguratuko dugu eta orain arteko dinamikarekin jarraitzea nahi dugu, oso positiboa izan da-eta. Gaztetxe berriarekin gazteak gehiago inplikatzea ere nahiko nuke".

EUSKARA

"Antzuola herri euskalduna da. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan etorkin asko jaso genuen, eta, pix-



Basilio Ormazabal

Administraria
50 urte • Antzuola

BERBA BITAN

ALDERDI GUZTIEK PARTAIDETZA
IZATEKO ESPERANTZA

"Gure taldea eskarmentu handiko lantaldea da. Guk bakarrik jardun behar izan dugu, bost lagunek, eta espero dut agintaldi berrian jende gehiago egongo dela eta denok elkarrekin lan egingo dugula. Gainera, poz handia izango litzateke aurkeztu diren alderdi guztiek partaidetza izatea Udalean".

ka bat galdu zen arren, berreskuratu dugu galdutakoa. Orain, etorkin asko dugu berriro, eta hori positiboa da, baina lan handia dago egiteko. Eskolak egiten duen lana azpimarratzekoa da. Politika da ikustea pakistandarrak edo errumaniarrak euskaraz".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte etxea eraikitzen dihardugu eta urtebete barru bukatuko dugu. Babespeko bost etxebizitza, eguneko zentroa, erretiratuaren egoitza eta osasun zentroa egingo ditugu gizarte etxean. Gero horiek hornitu eta kudeatzen lan handia edukiko dugu.

Bestalde, etorkinak geroago eta gehiago direnez, euren beharrei ere erantzun beharko diegu. Edadetuen beharrak ere geroago eta gehiago dira; hori ere kontuan hartuko dugu".

KIROLA

"Une gazi-gozoa bizi dugu. Taldeak emaitza onak lortzen ari dira: futbol taldea, txirrindulari eta korrikalariak hainbat garaipen lortzen dabiltza. Hala ere, kexu dira, instalazio faltagatik. Eguzki auzoko eraikinean gimnasioak egingo ditugu eta gure asmoa da Supide azpiko aldean lur sailak erostea, kirol-gunea egiteko.

Horretaz gain, plan estrategiko bat egin nahiko nuke kirol talde eta eragile guztiekin elkarlanean, egoera aztertu eta dauden gabeziei erantzun ahal izateko. Bidegorriak ere hor daude, kirola egiteko eta aisialdirako".

Antzuolan, egin behar dugu

Basilio Ormazabal Galartza

Antzuolako Alkatetzarako
hautagaia



PEDRO ITURBE > EAE-ANV

"Udal garden eta parte-hartzaile baten alde lan egingo dugu"

A.I. > ANTZUOLA

Antzuolako alkategaien artean gazteena da Iturbe. Zumarragarrara da, baina Antzuolan bizi da. Orain arte, batez ere, sindikalgentzan jardun du, LAB sindikatuan. Zumarragako Pagotxeta plataformako kide ere izan da.

HIRIGINTZA

"Etxebizitzak errentan hartzeko sare publiko bat osatu nahi dugu. Zenbat etxe huts dauden kontatuko dugu. Industriak duen garrantzia kontuan hartuta, kalifikatutako lurrik aprobetxatu nahi ditugu industriaguna bat garatzeko. Beasain-Durango egiteko hiru obra-hondakindegia beharko direnez lurrik botatzeko, bultzatuko dugu horietako bat Ipurtikan egitea, industriagunea egin ahal izateko. Beste aukera batzuk ere baloratuko ditugu".

INGURUMENA

"AHTri ezezko borobila ematen diogu, Antzuolan izugarritzko sarraskia eragingo lukeelako eta,

gainera, herriari ezer onik ekaritzen ez diolako. Bestalde, Beasain-Durango errepidearen trazatuak baserri askotan galera handiak ekarriko ditu; horregatik, beste trazatu baten alde lan egingo dugu. Gune berdeen plan bat egingo dugu, herrian ia ez dagoelako gune berderik. Gure beste asmo bat da eguzki panelak herriko instalazioetan jartzea. Nekazaritzak duen garrantzia ikusita, lurrik errentan emateko politikak indartuko ditugu".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Beharrezkoa ikusten dugu, batek, kultur arloko taldeak elkarlanean jartzea. Baita herrian

dauzkagun festak indartzea ere, bereziki festa txikiak, auzoetakoak. Gazteei, bestalde, Udalak baliabideak eman behar dizkielela uste dugu.

Kultura etxean egingo duten aretoa erabilera anitzekoa izatea nahiko genuke: kontzertuetarako, hitzaldietarako, antzerki eta bestelakoetarako...

Azkenik, gaueko garraio publikoa bultzatuko dugu".

EUSKARA

"Antzuola Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean dago, baina gaur egun ez dago elkarlan handirik. Gure helburua da hori berpiztea. Bestalde, arlo guztietan euskararen erabileraren diagnostea egingo dugu eta arlo bakoitzean zein ekintza egin beharko litzatekeen zehaztu. Bestalde, ostalaritzan etorkin ugari dabil lanean eta doaneko ikastaroak eta eurei egokitutakoak antolatuko ditugu. Azkenik, oso garrantzitsua deritzogu osasun zerbitzu euskalduna izateari".

GIZARTE ETXEA

"Gizarte etxea ondo aztertu eta dinamika aktibo bat ezarri behar zaio"



Pedro Iturbe

Langilea, tornularia
29 urte • Zumarraga

BERBA BITAN

HERRITIK ATERATAKO UDAL PROGRAMA

"Gure programa herritik ateratakoa da; herritarren artean inkestak egin genituen eta horien ondorioa da. Bestalde, Udal parte hartzaile eta gardena nahi dugu. Parte hartzeak bultzatzeko, udalbatzarrek ordutegi egokian jarriko ditugu eta batzordeak irekiak izango dira".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte etxe berria ondo aztertu eta dinamika aktibo bat ezarri behar da. Eguneko zentroa oso garrantzitsua da, eta hantxe jantoki publiko bat jarri nahi dugu, ezinduendako. Bestalde, oztopo arkitektonikoak kenduko ditugu, udaletxean, Olan etxean, eskolan eta beste hainbat lekutan. Igogailuak jartzeko laguntasunekin jarraitzearen aldekoak ere bagara eta komun publikoak jarriko genituzke. Presoei eta euren senitartekoei laguntasuna emango diegu. Etorikinei dagokienez, Antzuolara datozen herriaren gaineko informazioa emango diegu; herritarren artean ere etorkinen jatorritzko herrien eta kulturen gaineko informazioa zabalduko dugu.

Bestalde, herriko merkataritza indartu behar dugu, merkatarien arteko elkarlana bultzatuz; era horretan, izan daitezkeen merkataritza zentro handiei aurre egiteko".

KIROLA

"Gipuzkoan, kirol instalazioen maila baxuena duen herria da Antzuola. Ikerketa bat egin behar dugu herrian zein beharizan ditugun ikusteko. Gainera, futbol zelaia eta atletismo pista egoera negargarrian daude eta horri irtenbidea eman behar zaio. Eskola kirola ere beste puntu garrantzitsu bat da eta gure helburua da hori bultzatzea. Azkenik, kirol taldeen arteko elkarlana bultzatu nahi dugu".

PACO MORCILLO > PSE-EE

"Parke gorriaren zati bat estaltzea proposatzen dugu"

A. I. > ANTZUOLA

Alkategai aurkeztzen den laugarren aldia da Morcilloendako. Hamabi urte egin zituen zinegotzi, 1987tik 1999ra, hain zuzen ere. Sindikalgentzan hasi zuen bere ibilbidea; UGT sindikatuko Elayko ordezkaria izan zen.

HIRIGINTZA

"Lau urte hauetan Hirigintza batzordean jardun dut lanean eta hainbat proiektu landu ditugu. Agintaldi berrian, Beheko auzoaren urbanizazioari heldu behar dio Udalak. Auzoko bi etxebizitzak multzoen fatxadak eraberritu dituzte eta orain, auzoa urbanizatzea geratzen zaigu.

Parke gorriari erabilera handiago eman beharko genioke; guk proposatzen duguna da parkearen zati bat estaltzea. Horrela, eguraldi txarra edo hotz egiten duenean, esaterako, jendeak aterpean egoteko aukera izango luke; era berean, hainbat ekitaldi eta jarduerak egiteko aukera ere eskainiko luke estalpe horrek.

Bestalde, Sagastiko parkea, kultura eta gizarte etxearen ingurukoa, egin behar du Udalak eta aisialdirako parke bezala egokitu. Gai horren gainean asko eztabaidatu dugu lau urteotan.

Beste puntu oso garrantzitsu bat eta oraindik zintzilik geratzen dena da Kalegoi urbanizatzea".

INGURUMENA

"Antzuolan bizi garenok pribilegiatuak gara. Kanpotik datozen bisitariak txundituta geratzen dira. Ingurumena, hortaz, zaindu egin behar dugu.

Batetik, saneamendu lanak egin behar ditugu. Gaur egun, ur zikinak Aristi baserriaren inguru-

ruan isurtzen ditugu errekarra. Agintaldi berrian egin beharko dugu kolektorea, ur zikinak Bergarako araztegiara eramateko. Nire ustez, horixe da puntu garrantzitsuenetako bat.

Bestalde, bidegorria bultzatu behar dugu. Diputazioarekin egin beharreko akordioa eginda dago, eta datorren agintaldian hori errealitate bihurtu beharko dugu".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kultura batzordean elkarlanean jardun beharko dugu zinegotzi guztiok. Nik nahiko nuke kultura etxearen gaian kontsentsua lortzea, gune hori garatzeko.

Kultura etxea bere alderdi guztietatik, bere osotasunean, garatu behar dugu; hau da, irakurzaletasuna, musika ekimenak, mahai-inguruak eta abar bultzatu behar ditugu, eta Udalak zeresan handia du horretan guztian. Dena dela, gazteak kulturaren eta bereziki Antzuolako kulturaren integratu behar direla uste dut".

INGURUMENA

"Ur zikinak araztegiara eramateko kolektorea egitea izango da puntu garrantzitsuenetako"



Paco Morcillo

Langilea
56 urte • Antzuola

BERBA BITAN

OPOSIZIOAREN ETA GOBERNU INDARTSU BATEN BEHARRA

"Alkategai aurkeztzen naizen laugarren aldia da oraingoa. Hamabi urte zinegotzi izandakoa naiz. Korporazio berrian elkarlan ona izatea espero dut. Gauzak ondo joan daitezkeen beharrezkoa da oposizioa izatea eta era berean, gobernu indartsua, euren planak garatu ahal izateko".

EUSKARA

"Ni euskaldun berria naiz; lan-tegian plangintza bat egin zen euskara ikasteko, eta hantxe ikasi nuen. Sozialistok euskara hartzen dugu kultura bezala; bestela, galdu egingo da. Egokitzepea poliki-poliki egin beharra daukagu. Gaineratu nahiko nuke Antzuolan ez dagoela gaur egun euskara ikasteko aukera handirik; ez dakigu zenbat jende dagoen prest euskara ikasteko, baina nik uste dut jendea egon egongo dela. Sustrai sendoak dituen hizkuntza da euskara".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gizarte etxean dugu babespeko etxebizitzaren garapena, korporazio berriak hori eskuartean izango dugu. Gizarte ongizatearen barruan landu beharko dugu kontu hori. Igogailuak jartzeko laguntzarekin jarraitu behar du Udalak. Barrerak kendu, batez ere, administrazioa iristeko, herritar guztiak berमतुता izan dezaten irisgarritasuna".

KIROLA

"Gaur egun futboleko dabil jende gehien, baina ez dugu ahaztu behar pilotaren edertasuna, eta horiei laguntasuna eskaini behar die Udalak. Futbol zelaian, berriz, hamaikak egin eta aldageletan hobe-kuntzak egin beharko litzuzke Udalak. Bestalde, kirolgune berria egiteko lursailak erosi behar ditu Udalak, ekonomikoki ahal denean, hori gauzatzeko. Debate handia izango dugu horren gainean".

PILAR ETXANIZ > ZUTIK/EB-BERDEAK/ARALAR

"Beheko auzoa eta Errekalde lotu nahi ditugu oinezkoendako"

A.I. > ANTZUOLA

Urte asko darama Pilar Etxanizek politikan. Batez ere, hezkuntzaren, gizon-emakumeen berdintasunaren eta Hirugarren Munduaren inguruan jardun du. EILAS sindikatuan ere lan egingakoa da. Emakumezko alkategai bakarra da Antzuolan.

HIRIGINTZA

"Kalegoi konpondu egin behar da: espaloiak zabaltu eta norabide bakarrekoa egin. Beheko auzoa eta Errekalde lotu nahi ditugu, oinezkoendako. Antiguan, Iriarteazpikoa baserriaren eta bidegurutzearen eremuan, Goizperrera sarbide segurua eta kantxa estalia edo erdi estalia egin nahi ditugu. Trafikoa bideratuko da Sagastiko irteeraren inguruko biribilgunetik. Gure paneletan, plano baten bitartez azaltzen dugu".

INGURUMENA

"Dagoena zaindu eta horretarako neurriak hartu behar direla uste dugu: jolastokiak, eserle-

kuak... Kontsumo arduratsua bultzatuko dugu, batez ere urarena eta argindarrarena. Osasun ohitura onak bideratzeko lehengo trenaren bidea eta errepide zaharra berreskuratu nahi ditugu. Konpostajea bultzatuko dugu, ongari naturala lortzeko. AHTk ez ditu komunikabide arazoak konponduko. Herritarren beharretara egokitutako trenaren alde gaude".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Balio sozialetan oinarritutako kultura bultzatu nahi dugu: elkarbizitzan, berdintasunean eta pertsonen autonomian. Horren harira, dauden taldeak

altxor handia dira eta mantendu egin behar dira. Bestalde, alardearekin kezkatuta gaude, gerra ospakizuna delako eta mai ruak sinbolizatzen duen kultura gutxietsi egiten duelako; alardea aldatu egin beharko litzateke. Gazteen autonomia ere bultzatu behar dugu, betiere autonomia arduratsua. Eskubide osoa dute gaztetxea euren kabuz kudeatzeko. Tratu txarren aurkako prebentzio-lana egin nahi dugu gazte eta umee-kin; baita enplegua, familia eta zaintza bateragarri egiteko dauden eragozpenak aztertu ere".

EUSKARA

"Biztanleria aldatu egin da, ingururik zein beste herrialde batzuetatik jendea etorri da-eta. Premiak berraztertu behar dira eta erantzun egokienak eman. Euskara kulturarekin lotzen dugu, eta taldeen arteko elkarlanaren alde egingo dugu. Ikuspegi parte-hartzaitetik, garrantzitsua da herrikoa bultzatzea. Udalaren



Pilar Etxaniz
Irakaslea
53 urte • Antzuola

BERBA BITAN

UDALGINTZAN JARDUTEKO GOGOZ

"Bestelako Udal bat nahi dugu, bestelako Euskal Herri baten; zuzenagoa, non indarkeriarik gabe posible izango den gatazkak konpontzea eta eskubideak bermatzea. Gogoz gaude herritarrekin eta herritarren alde lan egiteko; zuzen eta garden jokatzeko konpromisoa hartzen dugu".

ekimena izan behar da elkarlan hori hobetzea eta zabaltzea; noski, kanpoko ekarpen positiboak jasota".

GIZARTE ONGIZATEA

"Aurrez ikusita dauden zerbitzuak aztertu behar dira: kokapena, erabilera eta abar, eta erabiltzaileekin adostu. Adinekoendako edo autonomia arazoak dituztenendako jantoki zerbitzua jartzea aztertuko dugu, pertsona horien bizimodua hobetzeko. Etxebizitza politika soziala egin behar da. Ezin dena da babes publikoa duten etxebizitzak, urte batzuetara, merkatu librean saldu ahal izatea, edozein prezioetan. Iruzurraren kontra eta prezioak kontrolatzera bideratuko dugu gure politika. Baita eskaintza dibertsifikatzera eta dauden aukerak hobetzera ere: igogailuak, beheko solairuetan etxebizitzak egiteko aukera...".

KIROLA

"Kirola da osasuna, harremana eta ongizatea. Batez ere ume eta gazteen kasuan, eduki konpetitiboak alde batera laga behar dira. Entrenatzaile eta gurasoen lana errekonozitu eta behar dituzten laguntzak eman behar zaizkie, bai formazioa, bai baliabide materialak. Kirola zentzu zabalean ulertu eta eskaintza dibertsifikatu behar da, adina, generoa eta abar kontuan hartuta. Azpiegiturak aztertu eta berriak egin daitezkeen baloratu beharko dugu".

KIROL INSTALAZIOAK

"Kirol kantxa estalia edo erdi estalia egin nahi dugu Antiguan, Iriarteazpikoa inguruan"

Antzuolako ezkerria batzen

beste Udal bat egin daiteke



Bozkatu

ZUTIK

EB

Ezker Batua Berdeak

aralar

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Elgeta

GOIENKARIAREN GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



IRITZIA > ELGETARREN ESKARIAK

Etxeak eta zerbitzuak herritarren kezkek



Zezilio Totorika
ERRETIRATUEN ELKARTEKO
PRESIDENTEA

1. Erretiratuen lokalari egonkortasuna ematea eskatuko nioke, gutxienez hurrengo agintaldia amaitu arte.

2. Uberatik gorako errepidea eta Bizkai alderako errepidea oso egoera txarrean daude. Errepide horiek konpontzea beharrezkoa ikusten dut. Bestalde, Torrealdeako urbanizazio lanak bukatzea ere beharrezkoa da eta garraio publikoa bultzatzea ere bai.



Fernando Rodriguez
ENPRESABURUA

1. Agintaldi berriko alkateari Elgetarako garraio bide duinak jartzea eskatuko nioke. Bergarako bidean bakarrik konpondu dira bi bihurgune; besterik ez da egin gai horren inguruan eta errepidea ez dago ondo.

2. Ni ez naiz Elgetan bizi, Durangon bizi naiz, baina Elgetan, ibiltzeko tokiak falta direla ikusten dut. Baita nagusientzako lekuak ere, eta kaleen arteko komunikazioa ez da oso ona.

1. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

2. Zein da zure ustez herriak une honetan daukan premiarik nagusia?



Gorka Arizmendiarieta
GOIBEKO ELKARTEKO KIDEA

1. Elgetarra izanda, alkateari zer edo zer aldatzeko ordua dela esango nioke. 28 urte ditut eta bizi osoan alkate bera ezagutu dut herrian. Aldaketa igarri nahi dut lantaldean.

2. Herri txikia gara, eta premiak alor guztietan ikusten ditut. Etxebizitza, kultura eta beste alor askotan gabeziak daude. Ez dut ezer eskatzen, ez naiz exigentea. Baina urtero gauza bera ikusten da, eta aldaketa da behar dena.



Begoña Usandizaga
IRAKASLEA

1. Erabakiak hartu aurretik, herriko biztanleen iritzia zein den jakitea eskatuko nioke. Bestalde, etxe berri asko egiten ari dira, baina zer gertatzen da zerbitzuekin?

2. Eskolako haurrentzat jolastoki egoki bat beharrezkoa ikusten dut, eta nerabeentzat ekintzak antolatzea. Baita herrian arrantdegia izatea eta pediatria zerbitzua. Bestalde, kaleen espalo asko apurtuta daude, eta horiek konpondu beharra dago.

Gure Hautagaiak



¡¡EMAN BOTOA!!



Nacionalistas de Elgeta Elgetako Abertzaleak



ELGETA egin behar dugu

Udal Hauteskundeak, 2007ko maiatzaren 27an

UDAL BERRIA HERRIKOLORBAK



BOZKATU

Elgetako

EAE  ANV

PATXI BASAURI > NACIONALISTAS DE ELGETA-ELGETAKO ABERTZALEAK

"25.000 metro koadroko kirolgune berria egingo dugu"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Euskal Autonomia Erkidegoan Patxi Basauri da alkatezkan urte gehien daraman pertsona. Otsailaren 31 urte bete zituen kargu horretan. Lantalde bera bada ere, hautesle-zerrenda baten buru da honako hauteskondeetan.

HIRIGINTZA

"Hiruzpalau proiektu ditugu abian, garrantzitsuena Salbador inguruan, 5. Gunea deritzon, eraikiko ditugun 115 etxebizitzak. 20 bat sozialak izango dira. Apar-kalekuak ere egingo ditugu, 160 bat, eta doakoak izango dira. Gero, beste parke bat egingo dugu Elgetako plaza baino hiru bider handiagoa. Asmoa da azpiegitura guztiak lurperatzea eta Salbador kalea oinezkoendako jartzea. Saihesbidearen 2. fasea ere egin behar dugu. Proiektua hasita dago eta 5-7 urteren buruan egitea da asmoa. Berraondokoa poligono industriala dagoen lekutik kentzeko asmoa dugu. Beste leku batera eramango dugu".

INGURUMENA

"Herrian egiten diren proiektu guztiak eduki behar dute kontuan ingurumena. Badaude, ordea, konpontzeke dauden kontu batzuk. Kasu baterako, Elgetako ur-zikinak. Bergarantz doaz eta asmoa dugu hodi baten bitartez birziklatzeko plantara bideratzea. Bestetik, energia gastuak jaitsi nahi ditugu; kaleko argindar kontsumoa, esaterako. Hondakinak lurperatzeko proiektua ere hor dugu. Beste proiektu garrantzitsua Asentzioko parkea da. Proiektua egin da dago. Inguru berrizatu eta aisialdirako egokituko dugu. Baserriak eta baserrietako bideak ere konponduko ditugu".

ETXEBIZITZAK

**"Salbador inguruan
115 etxebizitza, 160
aparkaleku eta parke
handi bat egingo ditugu"**

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Legealdi honetan, kultura arloan, 15 bat milioi pezeta inbertitu ditugula Espaloia Kafe Antzokian eta Maala parkean. Legealdi berriari dagokionez, liburutegia informatizatuko dugu gainerako liburutegiak konektatua egon dadin. Elgetako kultura eragileek gure laguntasuna izango dute eta Espaloia Kafe Antzokiari dirulaguntza puntualak ematen jarraituko dugu, baita Diputazioaren aurrean diru eskaerak aurkezteko gestioak egiten laguntzen ere. Gazteleku eta ludotekarekin jarraituko dugu eta aisialdirako Asentzio parkea egokituko dugu".

KIROLAK

"Pilotalekua berritzen 135 milioi pezeta inbertitu ditugu legealdi honetan eta hurrengorako beste proiektu garrantzitsu bat daukagu. Eibarrerako bidean 25.000 metro koadroko espazio bat jarriko dugu aire libreko kirolgune instalazioak egin eta aisialdirako gunea jartzeko. Mendiko museoa



ELGETAKO ABERTZALEAK

Patxi Basauri
Industria-maisua
62 urte • Elgeta

BERBA BITAN

"PROGRAMA SAKONA ETA ANBIZIO HANDIKOA DUGU"

"Udal hauteskundeotara aurkezten garenok egin dugu posible aurreko legealdian Elgetan egin diren hainbat gauza. Inbertsio handiak egin dira eta Elgetak sekula baino gehiago egin du aurrera. Programa sakona eta anbizio handikoa prestatu dugu. Espero dugu elgetarrek hori kontuan hartzea".

ere bultzatuko dugu. Patronatuko eraikinean jarri nahi dugu eta baditugu, dagoeneko, aurrekontu batzuk. Azkenean, esan, kirol mailan asko direla Elgetan lanean diharduten taldeak, eta horiek ere gure babesa izango dutela".

EUSKARA

"Konplikatu da beti euskararen gaia. Denok esaten dugu zerbait egin behar dela, baina gero ez dakit hainbeste egiten den. Elgetarren %75ek egiten dute euskaraz. Udal langile guztiak euskaraz ari dira eta Udaleko dokumentu ia denak euskaraz idazten dira. Gure asmoa da plan txiki bat egitea lau urtera begira zer egin daitekeen jasotzeko. Gure asmoa da, gainera, GOITB eta GOIENKARIA-ri diruz laguntzen jarraitzea, gure ustez garrantzitsuak direlako euskararen normalizazioan".

GIZARTE ONGIZATEA

"Gauza asko egin dira legealdi honetan: Eguneko Zentroa, etxebizitza tutelatuak... Orain, Bideberri programarekin hasi gara. Antzuola, Leintz Gatzaga eta Elgeta batu egin gara zerbitzu hobek lortzeko.

Beste bi proiektu nabarmenduko ditut: bata, haurreskolaren handitzea. Torrealdeko etxebizitza berrien azpian sortuko den lokal handi batera eramango dugu. Bestea, erretiratuekin egindako akordioa. Momentuan Ozkarbi elkartean daude, baina hortik atera nahiko balute ondoan izango gaituzte irtenbide bat topatzeko".

EDURNE ALBERDI > EAE-ANV

"Zama handiegia ekarri dute handikeriek, eta moztu egingo ditugu"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Zabaleta auzoan bizi da Edurne Alberdi elgetarra. Onartzen du ez duela esperientzia handirik udal kudeaketan, baina gogotsu agertzen da aurrean duen erronkarekin. Kezkatuta agertzen da Udalaren egoera ekonomikoarekin.

HIRIGINTZA

"Babestutako etxeak egin nahi ditugu, baina alokairuzkoak. Ekialdera begira dagoelako Berraondokoa leku egokia da etxeak egiteko. Industriagunea kendu eta etxeak egingo genituzke. Udaltxea bera ere konponketa premian dago. Bildegia ere behar du bere tresneria gordetzeko, egun material asko kanpoan dagoelako. Salbador kalea oinezkoendako jarri beharra dago.

Hauek dira egin nahiko genituzkeenak, baina Elgetako aurrekontuak nola dauden ikusita ezin dugu ia ezer egin. Udalaren lokalak alokairuan jarri eta hala edo nolako moldaketa batzuk eginda egin beharko dugu aurrera".

INGURUMENA

"Elgetak baliabide asko ditu, baina baita gauza asko konpontzeko ere. Lehenengo gauza ur-zikinak araztegiara eramatea da. Bai industrialdekoak, bai etxeetakoak errekatxo batera doaz egun. Zaborren bilketa selektiboa ere bultzatu behar da. Ez ditu inork zaborrak erraustu nahi; bada, birziklatu egin beharko dira. Ere mu naturalak autoengandik babestu behar ditugu; esaterako, Asentzio eta Aixola erreka inguru. Intxorta gunea ere berreskuratu egin behar dugu, motorrekin eta pinuekin nahikoa degradatua dagoelako. Gainera, baserriak mantendu eta baso-bideak zaindu behar dira".

ETXEBIZITZAK

**"Berraondokoa egin
nahi ditugu etxeak,
baina babestuak eta
alokairuzkoak"**

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Elgetan kultura azpiegitura asko ditugu: kultura etxea, Espaloia, gaztetxea... Jende mordoa dabil lanean, baina gure ustez Udalak beharko luke gauza horien guztien burua. Indar guztiak batu eta urte osorako programa bateratu bat egin beharko litzateke. Herri guztiari begira eta denon parte-hartzearekin. Aisialdian, berriz, Elgeta inguru ederrean dago eta parke zein baso-bide ugari ditu. Potentziatu egin behar dira. Gazteei dagokionez, gaztetxean dagoen mugimendua aprobetxatzen jakin behar dugu. Batzordeetan buru direla eta beraien beharrak kontuan hartuta Udaletik egindako programa bat osatzera iritsi beharko genuke".

KIROLAK

"Itxura denez Elgetan kirolari asko dago. Hainbat gauza daude martxan: pilota, txirrindularitza, futbola, boletoa... Baina hemen ere bakoitza bere aldetik. Batzordean batu eta guztiak elkarrekin urte-



Edurne Alberdi
Autonomoa
61 urte • Elgeta

BERBA BITAN

"EGOERA EKONOMIKOA JAKITEKO INBENTARIOA EGINGO DUGU"

"Alboratu egin behar dira hain kaltegarriak izan diren handikeriak. Elgeta ez da herri aberatsa eta handikeria horiek zama handia ekarri dute. Proposatzen dugu inbentarioa egitea Udalaren egoera zehatza zein den jakiteko. Bestetik, Diputazioari gehiago exijitu behar zaiola uste dugu".

ko egutegi bat osatu beharko genuke. Eta Euskal Herriko betiko kirolak bultzatu. Gauza asko egiten dira, baina uste dugu hobeto egin daitezkeela. Gauza txukunak egin daitezke".

EUSKARA

"Elgeta herri euskalduna izan da beti. Herritar gehienek dakite euskaraz, baina behar baino gutxiago entzuten da kalean. Penagarria da euskaldunak erdaraz hitz egiten entzutea. Kanpaina oso indartsu bat egin beharko litzateke euskararen erabilera ume zein nagusien artean bultzatzeko. Udalean, berriz, badira gabezia garrantzitsuak. Esaterako, egiteke dago euskararen gaineko protokoloa. Egin beharko da hori ere".

GIZARTE ONGIZATEA

"Legealdi honetan gauza garrantzitsuak egin dira gizarte ongizatean, baina guztiak hobetu daitezke. Eguneko Zentroak, esaterako, 10:00etan zabalitzen ditu ateak. Motz gelditzen da lanera joan behar duen batendako. Diputazioari zerbitzua luzatzeko eskiera egin behar zaio. Medikuz zerbitzua ere motz gelditzen da. Pediatria zerbitzu zabalago bat behar dugu eta ginekologia kontsulta lortu behar dugu. Erretiratuek, bestalde, egoitza propioa behar dute. Gustura daude hartzen dituen elkartean, baina egoera aztertu egin beharko litzateke. Lokal propio bat eman behar zaie euren jarduerak aurrera eramanez ahal izateko".

OXEL EROSTARBE > ARALAR-INDEPENDENTEAK

"Herriaren alde lanean diharduten guztiek gure babesa jasoko dute"

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Elgetako alkatezara aurkezten den hautagai gazteena da. Aurreko udal hauteskundeetan alkatezatzatik bost botora gelditu zen. Aralarren Gipuzkoako koordinatzailea da eta legealdi honetan zinegotzi lanak egin ditu Udalean.

HIRIGINTZA

"Argi dugu Elgeta ezin dela lotarako leku bat izan. Udaletik dauden zerbitzuak mantendu eta berriak bultzatu behar dira, kasu komertzio txikia lagundu eta bultzatzeko. Garrantzitsua deritzogu gazteei aukera emateari etxebizitzaren prezio duin batean erosteko. Etxebizitzak eraiki beharko dira, baina dauden beharren arabera, ez eraikitzearren soilik. Bestalde, uste dugu bi proiektu klabe daudela datorren legealdirako. Salvador kalea oinezkoendako egokitzea eta saihebidetaren bigarren fasea egitea. Hirigintza arloan Udalak eskaintzen duen zerbitzua ere hobetu daiteke teknikoak ondo antolatuz".

INGURUMENA

"Herriko arlo desberdinak kontuan hartuko dituen Agenda 21 bultzatu behar dugu Udaletik. Garen jasangarria benetan bultzatzeko herrian lanean dihardutenekin egin behar dugu lan. Elkartek, enpresak, tabernariak, dendariak... Gabeziak ere ikusten ditugu. Aixola errekan ur-zikinak ikusten ditugu, zaborrontziei kokapen hobeak eman behar zaizkie eta lurpean sartzeak plangintza bat eskatzen du. Gas naturala Elgetara ekartzeko aukera ikusten dugu. Garraio publikoari ere irtenbide bat eman behar zaio eta etorkizuneko tranbiara benetako sare bat jarri behar dugu".

ETXEBIZITZAK

"Etxebizitzak eraiki beharko dira, baina dauden beharren arabera"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Elgeta herri bizia da, herriko elkarteek lan asko egiten dihardutelako. Espaloian, guraso elkartean, gaztetxean... Argi eta garbi esan nahi dugu herriaren alde lanean dihardutenek gure babesa edukiko dutela. Gero, baditugu pare bat proposamen: bata, Iturbe Patronatua berreskuratzea eta berreskuratzea umiltasunetik. Gauza handietan baino gehiago, txikietan sinisten dugu. Uste dugu mendizaletasunak eta 36ko gerrak lekua edukiko duten erai-kin bat behar dutela herrian. Elgetatik Asentziorako bidegorria egitea ere proposamen polita da. Mendi ibilbideen berreskuratzea ere bai. Gauzak lotu egin behar dira kultura alorrean, eta ez banakabanaka egin".

KIROLAK

"Kulturaren moduan kirolean ere gure babesa jasoko dute herrian lanean diharduten elkarte guztiek. Legealdi honetan inbertsio handiak egin dira kiroldegian.



Oxel Erostarbe
Irakaslea
28 urte • Elgeta

BERBA BITAN

"SASOI BERRI BATI HASIERA EMATEKO ALTERNATIBA GARA"

"Hiru hamarkadatan Elgetan gauza batzuk ondo egin dira eta beste batzuk gaizki. Lanean aritu direnei egindako lana eskertu behar zaie, baina iritsi da sasoi berri bati ekiteko garaia. Aralar-Independenteak da alternatiba berria eta gure asmoa da udaletxeko atak herritarrei parez pare zabaltzea".

Egon gara gurearen moduko herri batzuetan udako igerilekuak ikusten, eta usten dugu Elgetak merezi duela horrelakorik. Hori bai, argi gelditzea nahi dugu lehenengo Udalaren egoera ekonomikoa zein den ikusi nahi dugula. Abiapuntua zein den ikusita hasiko gara halako proiektuak martxan jartzeko asmoarekin".

EUSKARA

"Gura dugu euskarak lekua edukitzea bai Elgetako kaleetan, bai udaletxean. Udaleko zerbitzu guztiak euskaraz ematea da gure helburua. Norberak hasi behar du besteei eskatu aurretik. Konpromisoa hartzen dugu herrirako plangintza bat egiteko. Legealdi hasieran egin behar da plangintza hori eta jaso behar ditu herrian dauden ahuleziak. Kontuan hartu behar ditu herrira etorri diren etorkinak eta irtenbidea eman behar die euskara ikasi nahi duten herritarrei".

GIZARTE ONGIZATEA

"Argi daukagu alor honetan ezin dela zentimo bat bere ere aurrez. Udalak laguntza behar dutenen ondoan egon behar du. Eguneko Zentroa, etxebizitza tutelatuak, haurreskola... Legealdi honetan martxan jarritako zerbitzuak dira eta Udalak zerbitzu horiek eskaintzen jarraitu behar du. Haurreskola handitu egin behar da eta irisgarritasun lanak ganoraz egin behar dira, ez azkeneko momentuan. Erretiratuak egoitza behar dute eta izango dute".

Herritik, herriarekin, herriarendako

Bozkatu



INDEPENDENTEAK



www.aralar.net



HAUTESKUNDEAK

Maiatzaren 28an
Asteleheneko Goienkaria-n:

- Debagoieneko datu guztiak
- Udalbatza guztien osaketa
- Zinegotzi guztien argazkiak
- Eguneko gorabeherak
- Ordezkaritza politikoen iritzia
- Analisi eta balorazioak

Erosi Asteleheneko Goienkaria ohiko tokietan edo egin zaitez harpidedun.

UDAL ETA BATZAR NAGUSIETARAKO
HAUTESKUNDEAK 07

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

UDAL HAUTESKUNDEAK 07

Oñati

GOIENKARIAren GEHIGARRI BEREZIA / Egubakoitza / 2007ko maiatzaren 18a



IRITZIA > OÑATIARREN ESKARIAK

Berba betetzea eta herriari entzutea, alkateari eskaria

TXARTEL BAKARRA

Garraio publikoetarako billete bakarra jartzea falta da Debagoiengan, beste toki batzuetan erretiratuek dituzten aukera berak eskatzen ditu Pake Lekuko Ana Mari Chacon-ek

LARRIALDI ZERBITZUA LUZATU

Osasun zentroan larrialdi zerbitzua luzatzea ezinbestekotzat jotzen du Juan Jose Sagarzazu medikuak; gaueko tartea betetzeko premia dagoela uste du hark

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK

Gutxitasun fisikoak dituztenendako herria ez dagoela oraindik egokituta dio Iñaki Igartua turismo bulegokoak; horiek arazo asko izaten jarraitzen dutela dio eta konponbidea eskatzen du



Jose Antonio Azpiazu
HISTORIALARIA

1. Alkateari eskaera zehatza egin-go nioke: plaza inguruan autoritate apur bat jartzea. Plaza zabal eta ederra daukagu, baina neska-mutikoak baloiarekin zein bizikletekin jolasean ibiltzen dira erreparatu gabe jende gehiago dabilela inguruan. Adinekoak beldurrez pasatzen diren bitartean, udaltzainek zein umeen gurasoek ez dakit nora begiratzen duten.


2. Ekitaldi ofizialetatik kanpo herri kulturari tarte zabalagoa egiteari egoki derizot. Oñatin kultura arloan dihardutenei aukera emateko bidea izango litzateke; era berean, herritarren eskariei erantzungo litzaietxe.



Alberto Elortza
SUKALDARIA

1. Zintzotasuna eskatuko nioke alkate berriari. Alkatearen lana enpresa handi bateko gerentearen parekoa da eta herritarrak ahalik eta gusturen uztea. Herriak aukeratu duenez eta harekiko konfiantza adierazi duenez, alkateak ere modu egokian erantzun diezaiela herritarren eskariei.

2. Arantzazun bizi naizen aldetik uste dut auzoetan badaudela premiak, eta gurekin ere akordatu daitezten esango nieke agintariei. Autobusa jarri dute domeketarako, baina azken elurtean, esaterako, isolatuta geratu ginen, eta hurrengorako neurriak hartzeko premia ikusten dut.



Juan Jose Sagarzazu
SENDAGILEA

1. Kargua hartzen duen unetik bertatik Oñatiko alkate berriari eskatuko nioke gainontzeko alderdiekin eta politikariekin harremanak hobetzeko ahalegina egin dezan. Herriak eskertuko du udalarekin zinegotzien arteko harremanak zenbat eta hobeak izan.

2. Anbulatorioan sendagile naizen aldetik, nire esparruan ikusten dut herriko premiarik nabarmena. Osasun zentroan larrialdi zerbitzua luzatzea ezinbestekotzat jotzen dut. Gaur egun iluntzeko zortziak arterainokoa da larrialdi zerbitzua, eta gaueko tartea betetzeko premia dagoela uste dut. Hori oso garrantzitsua da.



Jose Luis Madinagoitia
ULMA-KO PRESIDENTEA

1. Alkateari eskatuko nioke herria logikaz eta zentzuz kudeatzea. Horretarako, beharrezkotzat jotzen dut herri barruan partaidetza indartzea.

2. Ulmako presidente naizen aldetik gure taldeak industria lurren beharra du, eta ahal dela Oñatin. Horretarako badakigu mugak daudela. Beraz, Udalak definitu behar luke nolako herria eta enplegua nahi dituen eta horren arabera jakingo genuke herrian bertan geratzeko aukera dugun ala kanpora joan behar dugun. Beste premia bat heziketa arlokoa da. Enpresa Zientzien Fakultatea sendotzeko eta hobetzeko laguntza eman behar luke Udalak.



Juan Luis Letamendi
TXANDA MERKATARIEN ELKARTEA

1. Herriko merkatarien elkarte-ko presidente moduan, esan behar dut segurtasun falta handia dagoela Oñatin, eta hori hobetzeko eskatzen diot alkateari. Ez dago inongo kontrolirik, batez ere aste bukaeretan; horrez gain, ume batzuek gura dutena egiten dute, eta, azkenaldian, taberna baten bi aldiz sartu dira. Hori konpontzeko eskatuko nioke.


2. Esan bezala, segurtasuna premia handi bihurtu da. Horrekin lotuta, uste dut neska-mutikoendako irtenbide bat ere behar dela, ekintzak antolatu euren dako, zer eginga izan dezaten. Beste premia handi bat komunikazioa eta garraioak dira.

Proiektu bat dugu Oñatirako

Blanca RONCAL
ALKATETZARAKO HAUTAGAIA

Eman botoa

PSE-EE
PSOE



Ritxar Fernandez

KORRIKALARIA

1. Kirol arloan, orain dauzkagun azpiegiturak hobetzeko eskatuko nioke hurrengo alkateari, oinarritzko kirola egiten dutenendako, ume eta gaztetxoendako, gazteen-dako... Atletismoa, txirrindularitza eta futbola zaindu behar dira, bidegorriak behar ditugu...

2. Aipatu dudan moduan, kirol azpiegitura berrien eta hobeen premia ikusten dut. Baina ikusten dudan beste hutsune handi bat irisgarritasunarena da: gutxitasun fisikoak dituztenendako herria ez dago oraindik egokitu-ta, eta arazo asko izaten jarraitzen dute.



Iñaki Igartua

OÑATIKO TURISMO BULEGOA

1. Esandakoa betetzen saiatzea. Badakit lan potoloa dela, baina alkateak amore ematen ez badu, dena ondo joan daitekeela uste dut. Herritarrengan konfiantza izan behar du.

2. Gaztetxe berri bat. Gazteei gehiago entzun behar diegu; ezin ditugu alde batera utzi, beraiek baitira gizartearen etorkizuna. Bestetik, Udalak daukan dirua ondo bideratzea. Askotan, gauza batzuetarako diru asko dago eta minimo batzuk betetzeko ez dago inoiz dirurik. Betiko kontua da; horregatik, alkate berriari horrekin bukatzeko eskatuko nioke.



Anton Inza

ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

1. Kirolak gure herrian daukan eragina ikusita, kirolak udalean, sail bezala, pisu handiagoa izateko eskatuko nioke alkate berriari.

2. Oñatin, kirola egiteko instalazio egokiak falta dira. Orain egin berri duten kantxa berria, adibidez, ez da oso egokia. Kanpoko instalazioak ere oso egoera kaskarrean daude; batez ere Ibarra. Atletismo pista berri baten beharra ere badago; alde batetik kirola egoki egiteko, baina, bestetik, txapelketa legalak egin ahal izateko. Orain dugun pistarekin, ezin daiteke txapelketarik antolatu Oñatin.



Ana Mari Chacon

PAKE LEKUKO KIDEA

1. Orain dugun udal taldean konfiantza oso daukat. Alkate berriari, adibidez, Pake Leku elkarte handitzeko eskatuko nioke. Nagusiok gure lekua behar dugu eta Pake Leku txiki geratu da.

2. Oñatin, lana badago, baina garraio publiko aldetik eskas gabiltza. Garraio publikoetarako billete bakarra jartzea falta da Debagoienean. Beraz, beste toki batzuetan erretiratuek dituzten aukera berak eskatzen ditut guretzat ere. Gazteentzat, berri, babes-tutako etxebizitza gehiago; izan ere, oso garesti daude etxebizitzak, eta beharrezko zerbait da.



Gerardo Elortza

HISTORIALARIA

1. Aukera ematea herritar denei herriko kudeaketan: kanpoan gelditu diren alderdi politikoei, gazteei edo herriko taldeei, adibidez. Kaleko zarata eta zikin-eria gutxitzeko ahalegina egitea ere eskatuko nioke.

2. Etxebizitza berri gehiago egitea baino, etxeak merkeago erosteko edo eskuratzeko bideak bilatu beharko lirateke, hutsik daudenak alokairuan jarritz, adibidez. Kultura aldetik, kultur ondarea gehiago zaintzeko beharra ikusten dut, kalekoa ez ezik baita baserri eta auzoetakoa ere: ermitak, putzuak...



Larraitz Ugarte

ABOKATUA

1. Hautatuak izango direnak ez dira modu bidezkoan izango, bi zerrendek ez dutelako hauteskundeetan aurkezteko modurik izan; horrenbestez, alkate berriari Udala ez eratzeko eskatuko nioke, eta gobernurako beste moduren bat antolatzea: adibidez, alkatea jardunean izanda, behin betiko batzorde baten bidez...

2. Herriko lehenbiziko premia, momentu honetan, demokrazia da, beste edozein premiaren gainetik. Hori orain ez da betetzen. Herrigintza denon artean egin beharko genuke. Oraindik orain, demokrazia ez beste beharrak bigarren mailakoak dira.



Aitor Biain

GANBARA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

1. Hauteskundeak igaro eta gero, alkateari eskatuko nioke herriak esaten duenari entzutea, eta, eskaerak aurrera eraman badaitzke, horri kasu egitea. Bigarrenik, gazteendako ekintzak antolaten jarraitzea eskatuko nioke; gero, gazteendako etxebizitza politika egokia bultzatzea; eta, azkenik, musikaria naizenez, auditorio handi bat egitea.

2. Etxebizitza behar handia dugu gazteok. Adibidez, babes ofizialeko etxebizitzak gehiago bultzatu behar direla uste dut. Orain gero eta promozio gehiago egiten ari dira, eta Udalak hortik jarraitu beharko luke, gazteak ez daitezen herritik joan.

1. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

2. Zein da zure ustez herriak une honetan daukan premiarik nagusia?



Iñaki Olalde

LAIXAN EUSKARA ELKARTEA

1. Lehenengo eta behin, herri guztiaren hitza entzuteko eta partehartze zuzena eskatu eta eskaintzeko. Horrez gain, ikur politikoei ahazteko eta herriarendako lan egiteko. Baita energia zati handi bat gazteekin emateko; euskara planak bultzatzeko; etorkinei arreta berezia eskaintzeko eta abar.

2. Denok ezagutzen ditugu anbulatorioko arazoak, larrialdiak edo pediatria... Bestetik, futbol zelaia aspaldi bukatuta behar luke. Etxebizitzak ere arazo handi izaten jarraitzen du. Aparkalekuak ere, duda barik; gainera, azkenaldian, berriak zabaldu barik, zaharrak kendu dituzte.



Xabier Infante

IGERIKETA IRAKASLEA

1. Hauteskundeetatik irtengoden alkateari eskatzen diot talde guztiekin harremana izan dezala, orain arte ez bezala; talde nagusia ez dadila beste barik nagusitu, negoziatu gabe, baizik eta *kutsatuta* daudenekin ere harremana izan dezala.

2. Hirigintza premia handia da orain Oñatin. Leku asko hondatuta daude, batez ere auzo batzuk zeharo abandonatuta geratu dira-eta. Hori lehenbailehen konpondu beharko litzateke.


Kirolean, Debagoienari begiratuta, Oñati azpiegituratan eskas dabil: futbol zelaia, igerileku handiagoak... behar dira. Horretan oso gutxi gastatzen ari gara.

Beste udaletxe bat posible delako!!

OÑATI
ezkerretik

Ezker Batua Berdeak | aralar | ZUTIK

BOZKATU



Ritxar Fernandez

KORRIKALARIA

1. Kirol arloan, orain dauzkagun azpiegiturak hobetzeko eskatuko nioke hurrengo alkateari, oinarritzko kirola egiten dutenendako, ume eta gaztetxoendako, gazteen-dako... Atletismoa, txirrindularitza eta futbola zaindu behar dira, bidegorriak behar ditugu...

2. Aipatu dudan moduan, kirol azpiegitura berrien eta hobeen premia ikusten dut. Baina ikusten dudan beste hutsune handi bat irisgarritasunarena da: gutxitasun fisikoak dituztenendako herria ez dago oraindik egokitu-ta, eta arazo asko izaten jarraitzen dute.



Iñaki Igartua

OÑATIKO TURISMO BULEGOA

1. Esandakoa betetzen saiatzea. Badakit lan potoloa dela, baina alkateak amore ematen ez badu, dena ondo joan daitekeela uste dut. Herritarrengan konfiantza izan behar du.

2. Gaztetxe berri bat. Gazteei gehiago entzun behar diegu; ezin ditugu alde batera utzi, beraiek baitira gizartearen etorkizuna. Bestetik, Udalak daukan dirua ondo bideratzea. Askotan, gauza batzuetarako diru asko dago eta minimo batzuk betetzeko ez dago inoiz dirurik. Betiko kontua da; horregatik, alkate berriari horrekin bukatzeko eskatuko nioke.



Anton Inza

ALOÑA MENDIKO PRESIDENTEA

1. Kirolak gure herrian daukan eragina ikusita, kirolak udalean, sail bezala, pisu handiagoa izateko eskatuko nioke alkate berriari.

2. Oñatin, kirola egiteko instalazio egokiak falta dira. Orain egin berri duten kantxa berria, adibidez, ez da oso egokia. Kanpoko instalazioak ere oso egoera kaskarrean daude; batez ere Ibarra. Atletismo pista berri baten beharra ere badago; alde batetik kirola egoki egiteko, baina, bestetik, txapelketa legalak egin ahal izateko. Orain dugun pistarekin, ezin daiteke txapelketarik antolatu Oñatin.



Ana Mari Chacon

PAKE LEKUKO KIDEA

1. Orain dugun udal taldean konfiantza oso daukat. Alkate berriari, adibidez, Pake Leku elkarte handitzeko eskatuko nioke. Nagusiok gure lekua behar dugu eta Pake Leku txiki geratu da.

2. Oñatin, lana badago, baina garraio publiko aldetik eskas gabiltza. Garraio publikoetarako billete bakarra jartzea falta da Debagoienean. Beraz, beste toki batzuetan erretiratuek dituzten aukera berak eskatzen ditut guretzat ere. Gazteentzat, berriz, babes-tutako etxebizitza gehiago; izan ere, oso garesti daude etxebizitzak, eta beharrezko zerbait da.



Gerardo Elortza

HISTORIALARIA

1. Aukera ematea herritar denei herriko kudeaketan: kanpoan gelditu diren alderdi politikoei, gazteei edo herriko taldeei, adibidez. Kaleko zarata eta zikineria gutxitzeko ahalegina egitea ere eskatuko nioke.

2. Etxebizitza berri gehiago egitea baino, etxeak merkeago erosteko edo eskuratzeko bideak bilatu beharko lirateke, hutsik daudenak alokairuan jarritz, adibidez. Kultura aldetik, kultur ondarea gehiago zaintzeko beharra ikusten dut, kalekoa ez ezik baita baserri eta auzoetakoa ere: ermitak, putzuak...



Larraitz Ugarte

ABOKATUA

1. Hautatuak izango direnak ez dira modu bidezkoan izango, zerrenda batek ez duelako hauteskundeetan aurkezteko modurik izan; horrenbestez, alkate berriari Udala ez eratzeko eskatuko nioke, eta gobernurako beste moduren bat antolatzeke: adibidez, alkatea jardunean izanda, behin betiko batzorde baten bidez...

2. Herriko lehenbiziko premia, momentu honetan, demokrazia da, beste edozein premiaren gainetik. Hori orain ez da betetzen. Herrigintza denon artean egin beharko genuke. Oraindik orain, demokrazia ez beste beharrak bigarren mailakoak dira.



Aitor Biain

GANBARA ABESBATZAKO ZUZENDARIA

1. Hauteskundeak igaro eta gero, alkateari eskatuko nioke herriak esaten duenari entzutea, eta, eskaerak aurrera eraman badaitzke, horri kasu egitea. Bigarrenik, gazteendako ekintzak antolatzen jarraitzea eskatuko nioke; gero, gazteendako etxebizitza politika egokia bultzatzea; eta, azkenik, musikaria naizenez, auditorio handi bat egitea.

2. Etxebizitza behar handia dugu gazteok. Adibidez, babes ofizialeko etxebizitzak gehiago bultzatu behar direla uste dut. Orain gero eta promozio gehiago egiten ari dira, eta Udalak hortik jarraitu beharko luke, gazteak ez daitezen herritik joan.

1. Zer eskatuko zenioke hurrengo alkateari?

2. Zein da zure ustez herriak une honetan daukan premiarik nagusia?



Iñaki Olalde

LAIXAN EUSKARA ELKARTEA

1. Lehenengo eta behin, herri guztiaren hitza entzuteko eta partehartze zuzena eskatu eta eskaintzeko. Horrez gain, ikur politikoei ahazteko eta herriarendako lan egiteko. Baita energia zati handi bat gazteekin emateko; euskara planak bultzatzeko; etorkinei arreta berezia eskaintzeko eta abar.

2. Denok ezagutzen ditugu anbulatorioko arazoak, larrialdiak edo pediatria... Bestetik, futbol zelaia aspaldi bukatuta behar luke. Etxebizitzak ere arazo handi izaten jarraitzen du. Aparkalekuak ere, duda barik; gainera, azkenaldian, berriak zabaldu barik, zaharrak kendu dituzte.



Xabier Infante

IGERIKETA IRAKASLEA

1. Hauteskundeetatik irtengoden alkateari eskatzen diot talde guztiekin harremana izan dezala, orain arte ez bezala; talde nagusia ez dadila beste barik nagusitu, negoziatu gabe, baizik eta *kutsatuta* daudenekin ere harremana izan dezala.

2. Hirigintza premia handia da orain Oñatin. Leku asko hondatuta daude, batez ere auzo batzuk zeharo abandonatuta geratu dira-eta. Hori lehenbailehen konpondu beharko litzateke.

Kirolean, Debagoienari begiratuta, Oñati azpiegituran eskas dabil: futbol zelaia, igerileku handiagoak... behar dira. Horretan oso gutxi gastatzen ari gara.

Beste udaletxe bat posible delako!!

OÑATI
ezkerretik

Ezker Batua Berdeak | aralar | ZUTIK

BOZKATU

LOURDES IDOIAGA > EAJ

"Herritarren parte hartzean oinarrituko gara gure jardunean"

MAIDER ARREGI > OÑATI

Azken lau urteetan udal gobernu taldean egon da, eta iazko otsaila ezker hura da Oñatiko alkatea. Mendira joatea eta paseatzea atsegin du. Lagun Aroko Osasun Zerbitzu eta Pentsioen Saileko zuzendaria da. Jarraian azalduko dizkigu datorren agintaldirako asmoak.

HIRIGINTZA

"Hirigintzari dagokionez datozen lau urteetarako ez daukagu obra handirik egiteko asmorik. Kiroldegia egin berri dugu, eta ez dugu aparteko obrarik aurreikusit. Herritarren beharrik asetzen saiatuko gara. Horri erantzunez, San Lorenzo auzoan berrikuntza lanak egingo ditugu. Baita Errekalden ere.

Bestalde, bi lur eremu industrial berri zabalduko ditugu datorren agintaldian. Etxebizitza politikari dagokionez, 800 etxebizitza egiteko plana onartuta dagoela esan behar da eta horietatik %70 babes ofizialekoak direla. Nobe-

dade moduan esan behar da hirigintzako aholkulari talde bat sortuko dugula herritar ezberdinen parte-hartzearekin".

INGURUMENA

"Oñatin 477 baserri ditugu, eta lehen sektorea oso garrantzitsua da guretzat. Horrekin lotuta, Zubillagako hiltegiak zabalik iraun dezan lan egingo dugu.

Garapen jasagarriarekin lotuta, beharrezkoa ikusten dugu barne sare bat osatzea. Izan ere, Oñatin lanera joateko auto asko mugitzen dira, eta, horregatik, enprekin elkarlanean ekintza planetan sartzeko proiektua garatuko dugu".

HILTEGIA ZABALIK

"Zubillagako hiltegiak zabalik iraun dezan baserriarendako lan egingo dugu"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Kulturari dagokionez, herriko talde ezberdinen ametsak eta proiektuak martxan jarri nahi ditugu. Parte-hartzea bultzatzea da helburua. Horren eredu *Zu Zeu* programa dugu. Bertan, 12-16 urte bitarteko gazteekin ekintza ugari egin ditugu.

Orain ludotekako proiektua dugu esku artean. 3-12 urte bitarteko haurrak hartzen ditugu kontuan, eta programa hezitzaileak ditugu oinarri".

EUSKARA

"Zorionez Oñatin %85 euskaldunak dira. Baina Udalak erabilerraren aldeko kanpainak bultzatu nahi ditu. Betiere, Laixanen laguntzarekin.

Bestalde, haur etorkinen integrazioa indartu behar dela ikusten dugu. Izan ere, etorkinak ez baditugu gure programetan sartzten, euskalduntzen eta gure ohi-turak ez badizkiegu erakusten, herriaren fisionomia aldatu egin daiteke urteen ondorioz. Enpre-



Lourdes Idoiaga
Lagun Aroko langilea
56 urte • Oñati

BERBA BITAN

HERRITARREN HITZA ENTZUN ETA ASETZEA HELBURU

"Partaidetzan oinarrituko gara. Horren eredu ditugu *Zu Zeu* programa edota enpresetan egindako *Landuz* programa. Esperientzian, berritasunean eta herritarren parte-hartzean oinarrituko gara. EAJko lantaldeak orain arteko esperientzia hartuko du oinarri".

sa munduan lana eta elkarriketa uztartzeari ere gure babesa ematen jarraituko dugu".

GIZARTE ONGIZATEA

"Ezinduendako edo arazo sozialak dituztenendako apartamentu tute-latuak egingo ditugu San Martingo gunean.

Bestalde, eguneko zentroak kalitatezko ziurtagiria jaso du, eta horixe da, hain zuzen ere, gure bidea. Hala, datorren agintaldian lan egingo dugu kalitatezko ziurtagiria beste arlo batzuetan lortzeko.

Hirugarren Munduari laguntzeko ere egingo dugu lan. Orain %0,88ko laguntza bideratzen da. Helburua hurrengo agintaldirako %1eko laguntza eman ahal izatea da".

KIROLA

"Kiroldegi berria irailean amaitzea espero dugu. Hura amaituta, ekipamendu berrietatik etorriko diren zerbitzu berriak indartu behar dira; gimnasia mota ezberdinak, esaterako.

Aipatu behar da 2004an Oñatiko Eskolaz Kanpoko Kirolak Gipuzkoako antolakuntza onenaren izendapena jaso zuela, hain zuzen ere.

Gainera, Ibarako eta Azkoagaineneko futbol zelaia berritu egingo ditugu. Ibarren zelai artifizialeko eremua eta atletismoko pista egingo dira. Azkoagainen, berriz, zelaiain hainbat berrikuntza egingo dira. Aldagela eta argiak ere egokituko ditugu Azkoagainen".

Oñatin,
 egin behar dugu

Lourdes Idoiaga Urkia

Oñatiko Alkatetzarako
hautagaia



www.eginbehardugu.com

eman botoa 
www.eaj-pnv.com

MARIJO ALTUBE > EAE-ANV

"Irtenbide politikoari, demokrasiari eta elkarrizketari bai"

MAIDER ARREGI > OÑATI

15 urterekin Gazte Mugimenduan hasi zen lanean. 2003ko udal hauteskundeetan Ereitten herri plataformako zerrendaburua izan zen Marijo Altube. EAE-ANVko zerrenda legez kanpo utzi dute Oñatin, baina maiatzaren 27ko hauteskundeetan bozkatzera joan daitezela dei egiten diete herritarrei. Jarraian, EAE-ANVren proposamenak.

HIRIGINTZA

"Etxebizitza pertsona ororentzat oinarritzko eskubidea da. Horregatik udaletxetik politika justu eta integralak bultzatu behar dira.

Garraio publikoan daukagun defizita ere gaingitu beharreko puntua da. Garraio publikoaren aldeko politikak martxan jarri edota sentsibilizazio kanpainak herritarrei zuzenduz, adibidez.

Bidegorria da gure herriko beste aldarrikapen bat, eta erantzun egin beharko zaiona. Bestalde, herriko plazaren eta azoka-

ren berregituraketa proposatzen dugu. Baita herriko sarrera egokitzea ere; hilerriko bidea, esaterako, konpondu behar da".

INGURUMENA

"Zubillagako hiltegia zabalik mantentzea eskatzen dugu. Gainera, auzotarren hitza kontuan hartuz, auzoetako azpiegituren sakontze politika ere aurrera eraman behar du Udalak. Baita Berpiztu programarekin ere.

Turismo berdeari bultzada eman behar zaio, betiere Natur Eskolarekin elkarlanean.

Aipatu ere, Udalak erosi berri duen Iturrigorriko zelaiak herriarentzat altxor bat direla. Horre-

gatik, herriaren interesen aldeko erabilera eman beharko zaio Iturrigorriko zelaiguneari".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Gazteendako alternatiba errealak planteatu behar dira eta ez da errepresioaren bidea erabili behar. Udalak gazteekiko izan duen politika gaztetxea sunstutzea edota Ertzaintza gazteak jipoitzera herrira ekartzea izan da. Ikusten da herriko gazte talde bat autogestioaren aldekoa dela, eta eskubidea dute herritarrek direlako. Autogestioaren aldeko politikak bultzatu behar dira Udaletik.

Kulturaren berriz, askoz ekitza herrikoioagoak egin behar direla uste dugu, deszentralizatuagoak".

EUSKARA

"Udal ordezkari guztiek euskara jakin behar dutela uste dugu. PPko zinegotziak, esaterako, oso jarrera bortitza erakutsi du. Ezker Batuko ordezkariak,



Marijo Altube
Irakaslea
40 urte • Oñati

BERBA BITAN

ESKUBIDE ZIBIL ETA POLITIKOAK URRATUTA

"ASB alderdia eta EAE-ANVren zenbait zerrenda legez kanpo uztea oso erabaki larria izan da. Arduradun zuzena PSOE izan da, EAJ-PNVren laguntzarekin. Non geratzen dira 83.500 sinatzaileen eskubideak? Hautes-ontziak bete behar ditugu bozka abertzale, gorri eta independenteekin".

horren gogorra ez bada ere, adierazpen sutsuak ere egiten ditu euskararen gainean.

Beraz, maiatzaren 27an irten-go den udalbatzari eskatuko nioke orain arte euskararen alorrean jarraitu den politikarekin tinke eta beldur gabe jarraitzeko".

GIZARTE ONGIZATEA

"Etorikinendako politikak bultzatu behar direla uste dugu. Elkartasunean eta talde lanean oinarritutako politikak egin behar dira.

San Martingo egoitza egun dauden beharretara egokitu behar dela ere uste dugu.

Aipatu ere, gure programaren aldarrikapen nagusi eta garrantzitsuenetarikoa bat emakumeen aldeko batzorde berezi bat dela. Bertan, emakumei tratatu txarren gainean babesa emateko edota emakumea lan munduan integratzeko lan egingo da".

KIROLA

"Auzoekiko deszentralizazioa eskatzen dugu eta azpiegituren berrikuntza. Gainera, multikiroloak praktikatzeko leku egoki baten beharra dagoela aldarrikatu nahi dugu. Izan ere, astebururo ehunka gaztetxok praktikatzen du makina bat kirol Oñatin.

Aloña Mendi elkarrekin elkarlanean jarraitu behar da. Gainera, Euskal Herriraren izaera mantentzearen alde egin behar da. Hau da, euskal selezioaren aldeko ekimenekin edota herri kiroleko txapelketekin".

EMAKUMEEN BATZORDEA

"Emakumeen alde lan egiteko batzorde berezi bat eskatzen dugu udaletxean"

"La obra maestra de la injusticia es parecer justo sin serlo"
PLATON, filosofo ospetsuak duela hainbat mende esandakoa eta egun gure eguneroko bizitzan, zoritxarrez, guztiz txertatua dagoena.

"ERALDAKETAREN OÑATI. GURE HERRIAREN HITZA HELBURU."

BOZKATU



ERNESTO MURGIONDO > EA

"Plazako aparkalekua umeendako jolasleku bilakatuko dugu"

MAIDER ARREGI > OÑATI

Ernesto Murgiondok zortzi urteko esperientzia dauka udal gobernuan. Musika, bidaiatzea, gastronomia eta irakurtzea ditu, besteak beste, zaletasun. Hona hemen EAk datorren agintaldirako dituen asmoak.

HIRIGINTZA

"Etxebizitza libreei eta babes ofizialekoei erantzun positiboa eta zabala eman zaiela uste dugu. Bereziki Ugarkalde eta San Martineko sektoreei. Casablancan pauso batzuk eman diren arren, oraindik etxebizitza tasatuekin lanean jarraitu beharra dago.

Aparkalekuei dagokienez, erdiguneari arnasa eman zaio Kalegoienan eta kiroldegian egin diren aparkalekuekin. Orain, alde zaharreko guneari, Kale Zaharrari, konponbidea bilatu beharko zaio Olaiturrin.

Hilerrirako bidea txukuntze eta zabaltzeko asmoa ere badaukagu. Saihesbideko proiektuari ere bultzada bat

eman nahi diogu Diputazioaren laguntzarekin".

INGURUMENA

"Bidegorri proiektua egiten hasi gara. Helburua da Ugarkalde, San Lorentzo eta Olakua auzoak erdiguneko leku estrategikoekin lotzea.

Bestalde, Sandaili eta Araotzeko guneei arreta handiagoa jarri beharko zaie. Izan ere, Arrikrutzeko proiektua laster batean martxan jarriko da bertan.

Aipatu ere, garraio publiko eraginkor, eroso eta ez horren kutsakorra indartzen jarraitu beharko dugula. Energia berriztagarrien aldeko politikak egiten

jarraituko dugu. Agenda 21eko aholkuak ere kontuan hartu beharko ditugu".

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTERIA

"Ekipamendu aldetik beharrik handienak aseta daude kulturari. Orain, zerbitzuak hobetzeko lan egin behar da. Inbertsio handiena Santa Anako zinea umeendako egokitzen egin dugu.

Orain, herri mailako aisialdi eredutik jauzia eman eta Mankomunitateko ekintzetara jo behar dugu. Mundumira jaia dugu horren eredu.

Gazteendako, berriz, Gaztelekua eta *Zu Zeu* programa ditugu martxan".

EUSKARA

"Euskara hezkuntzarekin lotuta dago. Hezkuntzaren alorrean, aipatu, orain onartu dela ludotekaren proiektua eta martxan jarri beharko dela.

Euskarari dagokionez, Euskararen Kontseiluak 3. postua aitortu dio Oñatiri. Hala, aurre-

JAUZI KULTURALA

"Herri mailako aisialditik jauzia eman behar da Mankomunitatekora"



Ernesto Murgiondo
Irakaslea
40 urte • Oñati

BERBA BITAN

HILTEGIA ZABALIK MANTENTZEKO KONPROMISOA

"Lur industrialia aurkitzen eta egokitzen jarraituko dugu. Olaburu zentroarekin elkarlanean segituko dugu enpresa txikiak bultzatuz. Zubillagako hiltetgia zabalik irauten dezan lan egingo dugu. Gainera, Arantzazun, Araotzen eta Urruxolan saneamendu lanak ere egingo dira".

rantzean orain arte egindako bidean jarraituko dugu. Laixane-kin elkarlanean ere jarraituko dugu.

Bestalde, ez dugu ahaztu behar etorkinen integrazioa lortzeko lanean jarraitu behar dugula. Hizkuntza bermatzeko kolektibo garrantzitsua da".

GIZARTE ONGIZATEA

"Herriko elkarteei sostengu ekonomiko eta tekniko ematen jarraituko dugu.

San Martin egoitzan egindako lanek egoera ezin hobean utzi dute egoitza; are gehiago zentro psikogeriatrikoa egin ondoren.

Gainera, aurrerantzean etxe tutelatu beharra hazi egingo da eta kontuan hartu beharko da etxebizitzak egiteko orduan. Eta, noski, kolektibo kaltetuen aldeko programak egiten jarraitu beharko du Udalak Diputazioarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean".

KIROLA

"Aloña Mendi Kirol Elkartearekin sinatzeko hitzarmena prestatu dago. Hala, kirol azpiegiturak hobetuko dira behar batzuei erantzuna emateko. Batetik, San Lorentzoko kirolgunea eraberritu eta egokituko da. Hala, auzotarrendako ez ezik, beste kirol jardunaldietarako ere erabili ahaliko da kirolgunea.

Bestetik, azpimarratu nahi dut futbol zelai baten beharra dagoela. Horretarako, Ibarako kirolgunea berrituko dugu".

KARMELO PEREZ > OÑATI EZKERRETIK KOALIZIOA (EB-BERDEAK/ARALAR/ZUTIK)

"Alokairua bultzatzeko etxebizitza gune bat eskatzen dugu"

MAIDER ARREGI > OÑATI

Azken lau urteetan Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia izan da Karmelo Perez. Gipuzkoako EB-Berdeak alderdiaren zuzendaritzako kidea da. Irakurtzea, mendira joatea eta bizikletan ibiltzea gustuko du. Oñati Ezkerretik koalizioa Aralar, Zutik eta Ezker Batua-Berdeak alderdiek osatzen dute. Hona hemen datorren agintaldirako koalizioak dituen proposamenak.

HIRIGINTZA

"Oñati Ezkerretik koalizioak eraikuntza masiboak saihestu eta eraikita dauden ondasunak babestu eta zaintzea dauka helburu. Guk errehabilitazioaren aldeko apustua egiten dugu.

Bestalde, aipatu, San Martin guneari goiko aldean egingo dituzten etxebizitzak luxuzkoak direla. Horregatik, etxebizitza horien kopurua gutxitu nahi dugu. Gainera, gazteendako etxebizitzak eta nagusiendako etxebizitza tutelatu gehiago eskatzen

ditugu. Alokairua bultzatu nahi dugu eta horretarako alokairua bermatuko duen etxebizitza gunea aldarrikatzen dugu".

INGURUMENA

"Ingurumenaz arduratuko den zinegotzig konkretu bat eskatzen dugu. Horretarako lantalde eta aurrekontu bat bideratuko genituzke.

Turismo berdearen alde gaudete eta eraikuntza masiboak saihestu nahi ditugu. Hala, adi egongo gara Arrikrutzeko proiektuak izango duen kudeaketarekin.

Garraio publikoaren eta tranbiaren aldeko apustua egiten

ARIKETA FISIKORAKO PARKEAK

"Nagusiek ariketa fisikoa egin dezaten bi parke jarri nahi ditugu hurrengo urteetan"

dugu, baina betiere herritarren beharretara egokituta. Natur Eskolako lantaldea egonkortzeko ere lan egingo dugu".

KULTURA, AISIA ETA GAZTEAK

"Gaztetxearen auzia gaizki amaitu zen. Guk uste dugu berrituko ireki behar dela kasua. Izan ere, ekintza ezberdinak antolatuz autogestiorako gai direla erakutsi dute. Gainera, onartu beharra dago auzi horrek alkatetzan aldaketa eragin zuela.

Bestalde, nagusiek ariketa fisikoa egin dezaten parke bat egiteko proiektua ikertzen ari gara. Haurrendako, berriz, ludoteka egitasmoa ondo ikusten dugu aisialdirako espazio itxi bezala. Baina, espazio irekiari dagokionez, Dukearen etxeko parkea zabaltzea proposatzen dugu".

EUSKARA

"Euskararen ezagutza oso altua da Oñatin. Baina kaleko erabilera ez da horrenbestekoa. Horregatik, euskararen erabilera gizar-



Karmelo Perez
Administrari kudeatzailea
41 urte • Oñati

BERBA BITAN

JUSTIZIA SOZIALA, BAKEA ETA NORMALIZAZIO POLITIKOA

"Oñati Ezkerretik koalizioan ilusioz beteriko jendea dago lanean. Ez gara *statu quo*-arekin konformatzeko. Herritarren parte-hartzea bultzatzen dugu eta gazteek udal erabakietan esku hartzea nahi dugu. Justizia sozial, bake eta normalizazio politikoaren aldeko apustua egiten du gure koalizioak".

tean bultzatzeko programa konkretuak egin nahi ditugu. Gainera, administrazioaren eta herritarren arteko harremana bermatu nahi dugu.

Oñatiarren euskalkia galdu ez dadin neurriak hartu behar dira. Esaterako, hedabideetan oñatiarrez egongo den tarte bat jarritz, *Kontzejupetik* aldizkarian eta Oñati Irratian".

GIZARTE ONGIZATEA

"Guk bi zinegotzigo konkretu aldarrikatzen ditugu: batetik, emakumearen gaia eramango duen zinegotzigoa. Bertan, emakumearen berdintasunaren alde egingo da. Eta tratatu txarrak jasaten dituzten emakumei babesa emango zaie. Emakume hauendako harrera etxe bat egitea da gure asmo nagusia.

Bestetik, etorkinendako zinegotzigoa ere aldarrikatzen dugu. Bertan, etorkinak herrira iristen direnetik integrazioa lortzen dutenera arteko bidean laguntza eskainiko genieke".

KIROLA

"Kirol eskaintza zabalagoa nahi dugu herrian. Kiroldegia berritu dute, baina oraindik zenbait gune egokitu beharra dago gaitortzeko kirol eskaintza hobetzeko. Esaterako, Ibarako eta Zuzola-Larrañako kirolgunek konpondu behar dira. Hala, herriko haur eta gazteek erabiltzeko aukera izango lukete. Baita ikasketxe edota kirol federatua egin nahi dutenek ere".

Ondo egindako lana

Zurekin

BOZKATU EA!!



**eusko
alkartasuna**

Ernesto Murgiondo

JULIO PEREZ ARRILUZZEA > PP

"Hirigintzako aurrekontuen %10 herritarren esku"

MAIDER ARREGI > OÑATI

2006ko otsailaz geroztik Alderdi Popularreko zinegotzia da Oñatiko udaletxean. PPK aurkeztu duen zerrendan ez dago oñatiarrik. Zerrendan bigarrena, Carmelo Barrio, PPren idazkari nagusia da. Jarraian PPK datorren agintaldirako dituen asmoak.

HIRIGINTZA

"Alderdi Popularretik egiten dugun proposamen eta apusturik sendoena hirigintzako udal aurrekontuen %10 herritarrek kudeatzea izango da. Garrantzitsua da herriak erabakitzea; izan ere, eurek gertutik ezagutzen dituzte zeintzuk diren arazo eta kezka nagusiak herrian.

Uste dut bizilagunak izan behar direla hirigintzako udal aurrekontuetan gehien parte hartu behar dutenak.

Horrela, hirigintza arloan egingo diren inbertsioak bizilagunengandik gertuago egongo dira; guztien eskura, alegia".

INGURUMENA

"Ingurumena ez da gastua, inbertsioa baizik. Askotan, ez dugu kontuan hartzen ingurumena inbertsioei buruz hitz egitean. Adibidez, ur hodian egin daitezkeen inbertsioetan. Kasu konkretu hau Udalarentzako inbertsio zaila da; izan ere, efektua ez da berehala ikusten. Oso garrantzitsua da ur sarea ondo zainduta izatea ingurumenak ere badaukalako zuzeneko eragina.

Bestalde, Oñatiko auzoetatik gertu birziklatzeko edukiontzia jartzea garrantzitsua da. Nik uste dut auzo bakoitzak zaborra eta birziklatzeko materiala jasotzeko bere gunea izan behar duela".

ELEBITASUNA

"Euskaraz ez dakitenak ez diskriminatzeko informazioa elebiduna izatea eskatzen dugu"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Arlo honetan, gure proposamen nagusia gazteentzako webgune bat egitea da. Garrantzitsua da behar duten informazioa zuzenean jasotzeko gune bat izatea. Nik uste dut gazteek ez dutela informazio nahikorik jasotzen. Hala, webguneak ondorengo gaiak batuko lituzke: sexualitatea, ingurumena, aisialdia eta kultura.

Gainera, uste dut politikariok ez dugula gazteen gaineko informazio nahikorik. Hala, garrantzitsua ikusten dut ikerketa bat egitea gazteen gainean, eta dituzten arazoan analisia egitea. Ikerketa horiek gazte plan batean bildu behar dira; ibarrean ez dago gazte planik".

EUSKARA

"Euskara oso egoera onean dago, bai Oñatin, eta baita ibar osoan ere. Kaleko erabilera ere handia da. Horregatik, Alderdi Popularrak euskaraz ez dakiten alde egin nahi du diskriminaziorik



Julio Perez Arriluzea

Soziologoa
31 urte • Gasteiz

BERBA BITAN

OPOSIZIO SENDOA ETA GOGORRA EGITEKO GAITASUNA

"EAJ-PNVk herri ordezkarien %90 izatea ez da ona. Alderdi Popularra izan da legealdi honetan benetako oposizioa egin duena. Zinegotzi bakarra daukagu eta oñatiarrei eskatzen diegu Alderdi Popularra babestea. Izan ere, garrantzitsua da oposizioak duena baino indar handiagoa izatea".

egon ez dadin. Uste dugu komunikazioa eta informazioa erraztu behar zaiela euskaraz ez dakitenek. Horretarako, herritarrendako aldizkari eta seinaleak euskaraz eta gazteleraz jarri beharko liriteke. Hau da, euskaraz ez dakitenenganako bereizkeriarik egon ez dadin informazioa elebiduna izatea eskatzen du Alderdi Popularrak".

GIZARTE ONGIZATEA

"Oñatin, Arrasaten eta inguruko herrietan, pertsona nagusien kopurua goraka doa etengabe; azterketa soziodemografikoek hala diote, gainera.

Alderdi Popularrak horren erantzunkizuna eta konpromisoa hartzen du. Hala, zerbitzu edota azpiegiturak euren beharretara egokitu behar direla deritzogu.

Beraz, hau kontuan izanik, pertsona nagusiendako dirulaguntzak eta erraztasun guztiak bideratu behar direla uste dugu.

Gaur egun, Oñatin biztanleen %10ek daukate 65 urtetik gora. 2010ean kopuru hori dezentz igoko da. Pertsona kopurua %30 haziko da, hain zuzen ere. Horregatik, hirugarren adinako pertsonak Alderdi Popularren lehentasuna izan behar dira".

KIROLA

Alderdi Popularreko Julio Perez Arriluzea zerrendaburuak ez du egin nahi izan inolako adierazpenik kirolen gainean.

BLANCA RONCAL > PSE-EE

"Etxebizitza sozial gehiago egiteko lan egingo dugu"

MAIDER ARREGI > OÑATI

Arrasateko Udaleko zinegotzia izan da hamasei urtez. Eusko Legebiltzarreko parlamentaria da. Osasun batzordeko Euskadiko Sozialistak taldeko bozeramailea ere bada. Gainera, PSE-EEren Gipuzkoako eta Euskadiko batzorde exekutiboko kidea da. Hona hemen PSE-EE alderdiak agintaldi honetarako dituen asmoak.

HIRIGINTZA

"Hirigintzak une honetan duen arazo nagusia larregi garatutako etxebizitzaren eraikuntza da. Gainera, ez da errealitatean herritarren eskaeren beharretara egokitzen. Ingurumenarekiko ere ez dauka batere errespeturik.

Etxebizitza babestuen gaitetik negozioa eta interesa dago. Ideia sozialistak justizia sozialean oinarritzen dira. Aberastasunaren birbanaketa eta gutxien dutenekiko elkartasuna adieraztea du helburu. Beraz, etxebizitza sozial gehiago egiteko eta hirigintzak ingurumenarekiko

errespetua izateko lan egingo du alderdi sozialistak".

INGURUMENA

"Ingurumenaren arazoa etxebizitzarekin lotu behar dugu. Hau da, elementu kutsagarriak saihestu behar dira. Esaterako, berogailuaren erabilera mugatuz, gutxiago kutsatuko dugu eta gastua ere murriztagoa izango da.

Ingurumenarekiko gure ardura udal ekintzetara bideratu behar dugu. Horretarako, prebentziozko ekintzak hezkuntzara bideratu behar dira bereziki.

Zaborren auzia ere kontuan izan behar dugu ingurumena babestu eta zaintzeko".

EUSKARA BABESTU

"Gure bete beharra da euskara babestea eta herria euskararekin liluratzea"

KULTURA, AISIALDIA ETA GAZTEAK

"Gazteak ez nituzke soilik kultura eta aisialdiarekin lotuko. Izan ere, gazteak herriko kezken parte-hartzaile dira. Gainera, ingurumenaz, etxebizitzaren egoeraz edota lanaz arduratzen dira. Oñati arlo horretan pribilegiatua da; izan ere, gazteek lana aurkitzeko ez dute aparteko arazorik. Bai, ordea, etxebizitza duin bat.

Hala ere, horrek ez du kentzen gazteak kultura eta aisialdi kontsumitzaileak ez direnik. Oñati oso aberatsa da kulturaren eta transmititu eta erakutsi egin behar diegu gazteei".

EUSKARA

"Ez dakit euskaraz hitz egiten, baina nahiko ondo ulertzen dut. Gainera, euskara ikasten jarraitzen dut. Nire ustez, euskara gure ohituraren alor garrantzitsua da.

Gure betebeharra da euskara babestea eta herria euskararekin liluratzea. Ikasteko zaila



Blanca Roncal
Medikuntzan lizentziaduna
56 urte • Burgete

BERBA BITAN

JUSTIZIA SOZIALA, ELKARTASUNA ETA ANIZTASUNA

"Alderdi Sozialistaren helburua programa ezberdinak herritarren beharretara erantzunez garatzea da. Balioen sisteman, ondasunaren birbanaketan, elkartasunean eta aniztasunean oinarritzen gara. Beraz, uste dugu ez lukeela egon behar Alderdi Sozialistatik ez daukan udalik".

den arren, ondasun preziatu bat dela erakutsi behar da.

Hala, euskara ikasteko oztopoak saihesteko laguntzak emateari ondo deritzot. Adibidez, euskaltegiei eta botere publikoari dirulaguntzak ematea".

GIZARTE ONGIZATEA

"Oñatiko herritarren zati handi batek gizarte zerbitzuen beharra dauka. Orain gutxi onartu da Dependentsia Legea. Ondorioz, lege honek eskubideak emango dizkie herritarrei. Herritarrek erreklamazioak egiteko eskubidea ere izango dute.

Zerbitzu bat nabarmentzearen osasun arloa aipatuko nuke. Gai honetan lan asko dugu egiteko bai Diputaziotik eta baita Jaurlaritzatik ere".

KIROLA

"Medikuntza ikasketak ditut eta esan beharra daukat ariketa fisikoa egitea behar-beharrezkoa dela adin guztietan. *Mens sana in corpore sano* esaerarekin guztiz bat nator. Izan ere, kirola egiteak, egoera fisiko ona ez ezik, egoera psikikoa ere sustatzen duela frogatuta dago.

Kirola egitea haurtzarotik bultzatu behar da. Egun, gazte txoek ariketa fisiko gutxi egiten dute eta ondorioz, diabetesa eta obesitatea ugaltzen doaz.

Kirola egiteko, beraz, erraztasun eta baliabide ekonomikoak jarri behar dira, inor kirola egin gabe geratu ez dadin".

nire bidaia hura

Josu Lete

Guatemala eta Mexiko > 2006ko uztailan eta abuztuan

"Hara joateko mentalizatuta egon behar da, errealitatea eta baldintzak gogorrak dira-eta"

MIRIAN BITERI > BERGARA

Lau asteko bidaia egin zuen joan zen udan Josu Lete bergararrak. Guatemala eta Mexiko ezagutu zituen, neskalagunarekin eta beste lagun batekin batera. Leteren anaiak ia urtebete eman zuen Guatemalan, boluntario, eta hura bisitatzeko aukera ez zuen galdu gura izan.

Hasieran, Guatemala baino ez zuten bisitatu behar. Aukera "paregabea" suertatu zitzaizen herria ederki ezagutzeko, anaiak gidari lanak ere egiten zituelako. Baina, joan-etorria Madrildik Mexikora egin behar zutela aintzat hartuta, Mexiko bera ere ezagutzera erabaki zuten. Bina aste igaro zituzten bakoitzean.

Mexikoko hiriburuan hasi zuten ibilbidea. Handik Txiapase-ra jaitsi ziren, San Cristobal de las



Argazkian, Josu Lete.

Casasera. Gau bakarra pasa zuten han. Guatemalarrainoko bidea samurragoa egiteko asmoz geratu ziren-eta lo egiten. Xela herrian egin zuten hurrengo geldiunea, anaia bizi zegoen tokian.

Bost egun egin zituzten han. Hango familiak ezagutu, gober-

nuz kanpoko erakundeak sortutako eskolako umeak bisitatu eta kaleko haurrak jasotzen dituzten zentroan izan ziren, besteak beste. Xela herriko inguruak ere ikusi zituzten.

ATITLAN ETA PACAYA

Horren ondoren, hiru eguneko trekkinga egin zuten. Gobernu kanpoko erakunde lan egiteaz gain, mendiko gidari ere ibiltzen zen anaiak txanpon batzuk lortu ahal izateko. Atitlan laku ikusgarriaraino joan ziren. San Pedron eta Antiguan ere zenbait egun eman zituzten. Hala, Antiguan, Pacaya sumendia bisitatu zuten.

Handik iparralderantz jo zuten, Tikaleko aztarna maiak ikustera. Txiapase egin zuten hurrengo geldiunea. San Cristobal de las Casasen hiru egun "zora-

garri" pasa zituzten. Sumideroko arroilan izan ziren: "Bidaia guztitik toki ikusgarriena izan daiteke hori", dio Letek.

Handik Ozeano Bareko kostaldera joan ziren. Puerto Escondidoko eta Masunteko txoko ederak ezagutzen izan ziren, baita arrautzak jartzeko dortoka gehien biltzen diren hondartzan ere. Anaia Guatemalara itzuli zen orduan, eta hirurak Mexikorantz hurbiltzen joan ziren. Monte Albarako aztarnak ikusi zituzten erdian.

Inongo zalantza barik bidaia errepikatuko zuela esan du Letek. Gainera, gaztea den edonori gomendatuko liokeela ere aipatu du. Hala ere, mentalizatuta egon beharra dagoela adierazi du, "hango errealitatea gogorra delako eta bizi baldintzak ere ez direlako hemengoak bezalakoak".

bere ustez



Yon Suinaga

Baleak eta Bergarako aiztoak

Euskaldunak munduko lehenak izan ziren baleak harrapatzen. Garai batean balearen ehiza jarduerara nagusia izan zen Euskal Herriko kostaldeko herrietan.

Taldea puntatik keak balearen presentziaren berri ematen zuten. Herrian zalaparta handia sortzen zen eta bizilagun guztiak portura jaisten ziren "Baleak! Baleak!" oihukatuz.

Txalupa bakoitza arpoilari bat, lemazain bat eta bost arraunlarirekin bete bezain laster, balearen atzetik irteten

"Balearen bizarrak hain famatuak ziren Bergarako aiztoaren luxuzko kirtenak egiteko"

ziren. Oso gogor egiten zuten arraunean ondoko herriko arrantzaleak hain preziatua zen ehizakia ez kentzeko.

Arpoilariak bere indar guztiakin arpoia jaurtitzen zuten. Animalia zaurituta ur azpian urperatzen zen, txalupa abiadura handian narrasten. Balea arnasteko urgaineratzen zen momentuan, arrantzaleak mota guztiko lantzak iltzatzen zizkioten. Nahiz eta animalia amorruekin defendatu, azkenean odolustuta hiltzen zen.

Balea enkante publikoan jartzen zen. Mingaina elizarendako. Koipeko barririk Bergara eta Gasteiztik pasatuz Gaztelera. Haragia frantsesak jateko. Eta balearen bizarrak, hain famatuak ziren Bergarako aiztoaren luxuzko kirtenak egiteko.



Josu Lete, Ainara Muga neskalagunarekin batera, Mexikoko Oaxacako Monte Albanen ateratako argazki batean.

OGIZUN

koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Ion Murgizu Pinturak

Margoketa orokorrean

- Enpapelatuak
- Iztukoak
- Fatxadak
- Eskilarak eta patioak
- Pintura industrialak

Zabalotegi 9, 2. esk • Bergara Esozia 24- 2º behea • Soraluze

Tel.: 943 75 13 24
Mug.: 652 77 70 30

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Musikak ez du adinik anima zaitetz...



**Bergarako
Musika
Eskola**

Espaloia kalea z/g
943 765780

**Instrumentu
musikalak**

**Aurre hizkuntza
musikala
(5 urtetik aurrera)**



**Hizkuntza musikala
(helduentzat ere)**

**Biolina
Suzuki metodoa
(3 urtetik aurrera)**

Hezkuntza berezia

**Taldeak:
Orkestak, Banda,
Abesbatza**

Matrikula zabalik ekainaren 15erarte



UDALEKUAK

Maiatzaren 21ean zabalik izen emate epea

Kultura etxera joan behar da 11:00etatik 13:00etara; azken eguna hilaren 30a da

M.A. > ARETXABAETA

Uztailerako udaleku irekiak gertatzen hasi da Udala, eta aste honetan bertan egin du izena emateko deia. Horretarako, kultura etxera joan behar da, 11:00etatik 13:00etara bitartean, eta agiri hauek aurkeztu behar dira: izenemate orria beteta eta Euskadiko Kutxan ume bakoitzeko 40 euro sartu direla egiaztatzen duen orria; hiru anai-arrebak izena emanez gero, hirugarrenak doan du. Eta, lehen aldiz etorri gero, familia-liburuaren fotokopia behar du. Hilaren 30ean bukatuko da izenemate epea.

UZTAILAREN 2TIK 2ORA

Udalekuak uztailaren 2tik 2ora egingo dituzte, eta 1993a eta 2003a bitartean jaiotakoek parte hartuko dute. Txikiak goizez bakarrik ibiliko dira, 10:00etatik 12:30era, eta gainerakoak arratsaldez ere bai, 15:00etatik 17:00etara.

> EUSKARA

Sendabelar ikastaroa egingo dute Malats elkartearen eskutik

Loramendi Euskara Elkartek antolatuta du sendabelar ikastaroa, eta datorren martitzenean, hilak 22, hasi eta ekainaren 19a bitartean egingo dute. Martitzenero etorriko dira Malats elkarteko adituak, 18:00etatik 20:00etara, eta udaletxe zaharrean elkartuko dira. Ikastaro praktikoa izango da.

Izena emateko epea astelehenean bukatuko da; interesatuek Loramendi EERA deitu behar dute.

MUGARRIAK > LIBURUAN JASO DITUZTE

Herriko mugarrri guztien berri jaso dute liburuxka baten

Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalek egindako mugarrri berrikusketa jaso dute

Hiru euroren truke jarriko dituzte salgai kultura etxean eta hainbat dendatan

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Iazko ekainean elkartu ziren Eskoriatzako eta Aretxabaletako udalak Aldundiko ordezkariekin batera mugarrri berrikusteko. Orduan egindako lana liburuxka baten jaso dute, eta herritarren eskura jarriko dute laster.

MUGARRI BAKOITZAREN FITXA

Mugarrri gainera lana aurreko agintaldian hasi zuten, eta iaz bukatu. Horretarako, batzordeak osatu zituzten bi udaletan, eta



LIBURUXKA Dotorea da argitaratu duten liburuxka; planoak, argazkiak eta mugarrri gainera datu asko ditu.

M.A.

Foru Aldundiko Lurralde Antolaketan eta Sustapenerako Departamentuko ordezkariak etorri ziren lana egiaztatzen.

Guztira 44 mugarrri dira, eta bakoitzaren fitxa jaso dute liburuxkan: argazkia, non kokatuta dagoen, zelan jo bertara eta mugarrri-

ren deskribapena. Airetik egindako argazkiak ere badaude, eta egiaztapen aktak. Udalak salgai jaritzeko asmoa du, hiru eurotan.

Biharko jaiak bukatuko du Euskararen Astea

Euskararen Astea egiten dabil Loramendi E E, eta ekitaldi asko egin ditu asteon; martitzenean, esaterako, Julio Ibarra etorri zen berbaldia egitera. Gaur, ostera, kontzertua eskainiko du Mahaster River taldeak, Ezkutun.

Eta bihar, astea bukatzeko jai giro bikaina izango dugu: mendi ibilaldia, tailerrak, bertso saioa, gazta eta sagardo dastatzea, babarrun jana, antzerki emanaldia, kalejirak eta beste asko.



M.A.

Bozkatu aralar INDEPENDENTEAK

ausartu Aretxabaleta aldatzen

euskara

KIROLAK > ARETO FUTBOLA

Igoera fasea jokatzen hasiko da bihar, etxean, UDA taldea

Denboraldi polita egin du orain dela urte bi sortuzen taldeak, eta igotzeko aukerari eutsi gura dio

MIRARI ALTUBE > ARETXABAETA

Bigarren denboraldia bukatu du UDA-Mercedes Goiko Leniz areto futboleko taldeak hirugarren B mailan. Txukun egin du lana aurten, eta orain, igoera fasea jokatuko du. Bihar eta datorren zapatuan dira partiduak, kirol etxean.

ENTRENATZAILE BARIK LANEAN

Iazko denboraldian sortu zuten taldea hainbat gaztek: "Gehienok UDAko futbol talderen baten jokatutakoak gara, baina hainbat arrazoirengatik utzi egin genion. Futbola zaletasuna genuenez, elkartu eta taldea sortzea erabaki genuen", azaldu digu Martin Antxia jokalaria.

Bi urte horietan ezin izan dute entrenatzailerik topatu, eta dakiten guztia euren kabuz ikasi dute: "Horretan meritu handia

dugula esango nuke, entrenatzaile barik egin dugulako aurrera. Haserrealdiak izaten ditugu, eta, ikasleak eta langileak gaudenez taldean, ordutegiak bateratzea ez da samurra. Hala ere, aurrera egiten jakin dugu, eta igoera fasean sartzea sarria izan da guretzat", dio Antxiak.

Gainera, askok ez uste arren, futbola eta areto futbola oso ezberdinak dira, eta Eskoriatzako taldean jokatzen duten lagunak aholkuak jaso dituzte: "Bizkorragoa da gurea, estrategiak garrantzi handiagoa du, eta hiru minutuan gol asko egon daitezke. Ikusteko politagoa dela esango nuke".

HILAREN 19AN ETA 26AN, 16:30EAN

Iazko denboraldia kirola eta maila ezagutzeko behar izan zuten. Aurtengoa, ostera, indartsu hasi



ENTRENATZEN UDA-Mercedes Goiko Leniz taldeko jokalaririk gehienak, martitzenean, entrenamendu saioa hasi aurretik. M.A.

zuten eta hasieran aise eskuratutako puntuek igoera fasea jokatzeke aukera eman diete. Partiduak, gainera, Aretxabaleko kirol etxean jokatuko dituzte, eta zaleen berotasuna izango dute lagun. Lau talde izango dira norgehiagokan bihar, hilak 19, eta datorren zapatuan, 16:30ean hasi-

ta: Mutrikukoa, Hernanikoa, Astigarragokoa eta Aretxabalekoko. "Play-off edo igoera fasea sailkapeneko lehen lau postuak antolatzeke da; hau da, partiduetan lortutako emaitzek esango dute zein geratzen den lehenengo, zein bigarren...", argitu digu Antxiak, eta gaineratu: "Gu ahu-

lenak garela esango nuke, baina etxean jokatzeak abantaila emango digu". Eta onenak hirugarren A mailara igoko dira.

Antxiak ez du bukatu gura bi urte horietan diruz lagundu dieten taberna, denda eta gainerakoei eskerrak eman barik. Baita UDARI ere.

KIROLAK > ZUZENDARITZA ALDAKETA KIROL ELKARTEAN

Zuzendaritza berritzeko dei egin du UDAk, eta zabalik dago zerrendak aurkezteko epea

Zazpi izen dituen zerrenda aurkeztu beharko dute interesatuek, eta boto gehien jasotakoa hautatuko du hauteskunde batzordeak

M.A. > ARETXABAETA

Aretxabaleta Kirol Elkarteko (UDA) zuzendaritzak batzordea berritzeko hautagaiak aurkezteko dei egin du aste honetan bertan. Hain zuzen ere, hilabete daukate orain bazkide interesatuek osatzen duten zerrenda UDARA bideratzeko.

HILABETE AURKEZTEKO

Dagoeneko hiru urte pasatu dira gaur egun dagoen zuzendaritza batzordeak elkartearen ardura hartu zuenetik, eta, estatutuek dioten moduan, hautagai berriak aurkezteko garaia heldu da. Zazpi izen dituen zerrenda aurkeztu behar dute interesatuek; zaz-

pi horietatik bost sartuko dira zuzendaritzan eta beste biak ordekoak izango dira. Zerrendek itxiak izan behar dute, eta aldaezinak. Aurkeztutakoen artetik boto gehien jasotzen dituen zerrenda hautatuko du hauteskunde batzordeak, eta kirol elkarteko presidente zerrenda horretako burua izendatuko du.

Hilabete daukate bazkide interesatuek zerrenda aurkezteko, hau da, ekainaren 16ra arte. Eta Aretxabalekoko 10. postakutxara bidali behar dute.

BELAR ARTIFIZIALA BERRITU

Bestalde, Udalak Ibarra futbol zelaiko belar artifiziala berritu eta ureztatze sistema egokitzeko lehiaketa deitu du. Aurrekontu garrantzitsua bideratu du horretarako, 348.205 euro, eta lanak egiteko bi hilabete emango dizkio hauteskunde enpresari. Deialdia maiatzaren 9ko GAON argitaratu zuten, eta 26 egun izango dituzte eskaerak aurkezteko.

Ibarrako belar artifiziala orain dela 12 urte inguru jarri zuten, eta egoera eskasean dago.

> PARROKIA

Santa Ritaren bederatziruena egiten dabilta

Santa Ritaren omenez bederatziruena egiten dabilta Agustindarren komentuan. Gaur 19:00etako meza da, bihar, 18:30ean egingo duten bezperatan izango da, eta domekan 09:00etako meza.

Astehenean, hilak 21, Santa Rita eguna da, eta Agustindarren komentuan meza bi esango dituzte: 11:00etan eta 19:00etan.

> OSPAKIZUNA

Garagardo jaia hilaren 23an, Liverpool lagunarteak antolatuta

Garagardo jaia antolatu du Liverpool lagunarteak Orly tabernan. Hilaren 23an da, 20:30ean hasita, Txapeldunen Ligako finala jokatuko delako.

> KINTOAK

Bazkaria egingo dute 1943an jaiotakoek maiatzaren 26an

1943an jaiotako kintoak bazkaria egiteko elkartuko dira. Maiatzaren 26an izango da, zapatua, 14:15ean, Baster-Alde jatetxean.

PIENSOS
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABAETA

Tel.943 77 00 33/79 42 56

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAETA

Ritxar Fernandez > Korrikalaria

"Korrika egiten duen edonor sar daiteke dendara, ez da goi mailakoendako bakarrik"



Ritxar Fernandez, zabaldu duen denda berrian.

O.E.

Ez dut uste moda kontua denik. Uste dut zaletasunagatik eta osasunagatik egiten dutela. Lasterketetan ondo dabilzanak dira ezagunenak, baina Oñatin askok egiten dute korrika. Niri gertatu izan zait Berlingo eta Rotterdameko lasterketetan oñatiarrak ikustea.

Zein etxerekin egiten duzu lan?

Momentuan zortzi etxerekin egiten dut lan, baina neguan, zabaldu egingo dut aukera.

Beste zer eskaintzeko asmoa duzu?

Korrikariendako aholkularitza eta prestaketa pertsonalizatua eskaini gura dugu, planifikazioarekin. Gura duenari entrenatzaile pertsonala izateko aukera ere eman gura diogu, eta taldeko entrenamenduak bultzatu.

Nork bere kasa egiten du korrika Oñatin?

Bergaran eta Durangon, adibidez, taldeak daude elkarrekin entrenatzeko, eta Oñatin hori falta da. Agian, orain arte elkartzeko punturik zehaztu ez delako da hori. Nik saiatu gura dut taldeak egiten, Behobia-Donostia eta antzerako lasterketak egiteko. Bestalde, ekitaldiak antolatzen ere hartu gura dut parte.

Zer izan behar da kontuan zapatila egokiak erosteko?

Norberak duen pisua eta hanka zapaltzeko modua, batez ere. Horrez gain, baita zertarako behar duen ere: lasterketak prestatzeko, astean behin korrika egiteko, mendi lasterketarako...

Aholkulari lanak ere egiten dituzu?

Batzuk plantillarekin etorri dira dendara eta zuzenean probatu dituzte zapatilak. Baina bai, aholkulari lanak ere egiten ditut. Hankaren malgutasuna eta zabalera ere neurtzen dugu; makina berezi bat dugu dendan.

Neskak ala mutilak dira korrikalari gehienak?

Gaztetxoaren artean, adibidez, neskak dira gehienak. Baina helduen artean, mutilak.

Arrasate-Oñati lasterketa da irabazi duzun azkena. Zein lasterketetan hartuko duzu parte hurrengo?

Datorren hilabetean Bizkai-ko bi lasterketetan hartuko dut parte eta abuztuan AEBetara noa, Coloradora, 30 kilometroko proba baten parte hartzera. Ametsa da hara joatea. Udazkenean, berriz, Donostiako maratoian parte hartzeko asmoa dut.

"Lasterketetara joaten direnendako eta astean behin korrika egiten dutenendako da denda"

"Bakarka ibili beharrean, taldeak sortu gura ditut elkarrekin korrika egiteko"

"Denbora onak egiten dituztenak dira ezagunak, baina Oñatin korrikalari asko daude"

izan da denda zabalatzeko arrazoiaren beste zati bat.

Korrika egiten gero eta jende gehiago ikusteak ere izan da zerikusia?

Bai, hori ere kontuan izan dut, bai. Duela 10 urtetik hona, jende asko hasi da korrika egiten; edozein ordutan ikusten duk nik norbait antxintxika egiten, baita gaueko hamaiketaren ere.

Zaletasuna da ala modan dago korrika egitea?

OIHANA ELORTZA > OÑATI

Zero Kilometroa izeneko kirol denda zabaldu du Ritxar Fernandez korrikalariak. Hain zuzen ere, antxintxika egiteko materialean espezializatuta dagoen denda da eta Erremerteri kalean dago.

Nolako denda zabaldu duzu?

Korrika egiteko materiala saltzen dut. Zapatilak, praka motzak eta nikiak ez ezik, pulstometroak eta antzerako osagarriak ere baditut.

Goi mailako korrikariendako denda da?

Ez, ez. Korrika egiten duen edonorendako da, bai lehiaketetan parte hartzen dutenendako eta baita korrika astean behin edo birritan gustatzen zaizelako egiten dutenendako ere. Trekkingak egiteko edo mendian korrika egiteko materiala ere badut.

Zergatik erabaki duzu orain zabaltea Oñatin horrelako denda bat?

Duela sei bat urte Arrasateko Forum dendan hasi nintzen lanean, eta ordutik hona izan dudana ametsa izan da neure denda propioa zabaltea. Neuk ere korrika egiten dut, eta hori ere



UDALTAINGOIA Udaltzainen gaur egungo bulegoa, udaletxean.

O.E.

LANPOSTUAK > UDALTZAIN GEHIAGO

Udaltzainen lan poltsa osatzeko deialdia egin dute

O.E. > OÑATI

Udaltzainen lan poltsa osatzeko deialdia egin du Oñatiko Udalak. Hala, ekainaren 1ean bukatzen da eskaerak egiteko epea, eta prozesuaren oinarriak udaletxean daude, bulego orokorretan.

TALDEA OSATZEKO BEHARRA

Herriko beharrei erantzuteko hartu du erabakia Udalak. "Asmoa dugu denborarekin gauetako zerbitzua ere jartzeko, eta hori eskaintzeko 11-12

udaltzainek osatutako lantaldea beharko dugula kalkulatu dugu. Deialdia egin eta udaltzainek formazioa jaso bitartean bederatzi hilabete inguru pasatzen dira, eta erabaki dugu oraintxe egitea deialdia", dio Lourdes Idoiaga alkateak.

Alkateak berak argitu duenez, oso gaitz izaten dute udaltzainen lantaldeari eusteko: "Bertakoak ez dira aurkezten eta kanpokoak euren herrietara bueltatzen dira han lana aurkitutakoan", esan du.

> KONTZERTUAK

Hainbat musika eskaintza daude asteburuan Santa Anan, gaztelekuan eta Errekalde auzoan

Musika kontzertu bat baino gehiago daude antolatuta asteburu honetarako Santa Anan, gaztelekuan eta Errekalden. Hain zuzen ere, Santa Anan, Ganbara abesbatzak eta Gasteizko Da Voce abesbatzak elkarrekin abestuko dute domekan, 19:30ean. Ordu erdi geroago, Jonah Smith estatubatuarra kontzertua emango du bere taldearekin gaztelekuan. Eta gaur, egubakoitzea, berriz, Errekalde auzoko jaietan lau taldek joko dute: Sospechosos, Obligaciones, Sex Museum eta Gatillazo izango dira taula gainean.

> KIROLA

Hiru Tenpluen Ibilbidea egiteko eta plazako pilota txapelketan aritzeko epeak zabalik

Joan den urteko Mundumiran egin zuten moduan, aurten ere mendi ibilaldia antolatu du Aloña Mendik Mundumira jaiaren aurreko astebururako, maiatzaren 26rako. Loiola, Antigua eta Arantzazuko santutegiak batzen dituen ibilbidea egingo dute aurten, 45 kilometro. Izena hilaren 24a baino lehen eman behar da Aloña Mendi tabernan. Bestalde, plazako pilota txapelketan parte hartzeko izenemate epea ere zabalik dago Aloña Mendiko bulegoetan. Txapelketa ekainaren 5etik uztailaren 27ra izango da.

> POLITIKA

EAE-ANV alderdiak afaria egingo du udal hauteskunderako kanpaina ospatzeko

EAE-ANV alderdiak deituta, afaria egingo dute Arrano elkartearen udal hauteskunderako kanpaina ospatzeko. Bertsolariak, trikitilariak eta sagardo kupela egongo dira menuan. Afariarekin batera, Iruñeko manifestaziora joateko autobusa ere antolatu dute, eta txartelak salgai jarri dituzte Arranon: 15 euro afaria, 10 euro autobusa eta 20 euro biak. Bestalde, atzo, eguena, iluntzean, herri programa eta legez kanporatzearen inguruko iritzia eta egoera zen ematekoa Oñatiko EAE-ANV.

> OSPAKIZUNAK

Gaur, egubakoitza, Txomin-Txapel eguna HUHEZIN

Gaurko, egubakoitza, HUHEZIKo Euskara Taldeak Txomin-Txapel eguna antolatu du. 11:00etan argazki rallya eta herri kirolak egingo dituzte; 13:00etan tortilla txapelketa eta triki-poteoa; 15:00etan bazkaria; 16:30ean bertso-partxisa; eta horren ostean, jokoa, kontzertua eta beste.

> AUZOAK

Gellao eta Apotzaga arteko bidea, konpondu barik

Gellaoko eta Apotzagako auzotarrek jakinarazi digute bi auzoen arteko bideak konpondu barik jarraitzen duela. Hala, Udalarari eskatu diote behin baino gehiagotan pitzatu den bide hori behin betiko konpontzeko. Azkeneko aldiz martxoan pitzatu zen bi auzoen arteko bidea.

> LANAK

San Juan kaleko lanak egiteko bi eskaintza jaso dituzte

San Juan kalean espaloia eta zubia handitzeko lanak egingo dituzte. Enpresen eskaintzak aurkezteko epea bukatuta, bi aurkeztu dira: Construcciones Sukia eta Canalizaciones de Gas. Astelehenean Hirigintza batzordean aztertuko dute eta egueneko osoko bilkuran esleitu egingo dute lana.

> HEZKUNTZA

Matrikulazio epea zabaldu dute Kulunka haurreskolan

Atzotik, eguena, hilaren 31 bitartean haurreskolako matrikulazioa zabalik dago 2006an eta 2007an jaiotako umeendako. Interesatuak 943 71 57 70 telefonora zebakira deitu edo jo dezatela haurreskolara 10:00etatik 11:30era edo 12:30etik 14:00etara.

ONDAREA > IBARRAUNDI FUNDAZIOA

Ibarraundi fundazioa eratzea eta estatutuak onartzea aztertu zuten

Eskoriatzako eta Leintz ibarreko ondarea kontserbatu, ikertu eta ezagutzera emateko helburua du eratu gura duten fundazio irekiak

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Atzo, eguena, ezohiko osoko bilkura egin zuten udaletxean. Eta aztertu beharreko gaitako bat izan zen Ibarraundi fundazioa eratzea eta haren estatutuak sortzea.

Udal gobernua aspalditik dabil fundazio hori eratzeke lanetan, eta dagoeneko Eusko Ikaskuntza eta herriko hainbat enpresa inplikatu dira proiektuan. Zoritxarrez, orrialde hauek idazteko orduan ez dakigu osoko bilkurak zer erabaki hartu behar duen fundazioa eratzearen gainean.

IRABAZIRIK GABEKO EKIMENA

Fundazio horrek ez dauka irabazirik lortzeko asmorik, eta haren helburu nagusiak dira Eskoriatzako eta Leintz ibarreko ondarea kontserbatu, ikertu eta ezagutzera ematea. Horrekin batera, fundazioa saiaturako da Eskoriatzaren eta ibarraren garapen iraunkorra bultzatzen.

Fundazioaren egoitza Ibarraundi museoa bertan jarriko dute, eta handik ibar osoan era-

gingo lukete. Hain zuzen ere, batetik, ibarraren orainaren eta etorkizunaren gaineko eztabaidak bultzatzeko asmoa dute. Horretarako, hainbat ekimen egingo dituzte inguruko udalerrietan; bestetik, ezagutza eta

ikerkuntza landuta turismo ekoizpen berriak sortu eta ibarrera jendea erakartzen saiatuko dira; eta azkenik, ibarreko talde desberdinen arteko lotura eta elkarlana indartzeko ahaleginak egingo dituzte.

PATRONATUA ERABAKIGARRIA

Fundazioaren erabaki nagusiak patronatuak hartuko ditu. Patronatu hori fundazioan esku hartuko duten erakunde publiko,

ekimen pribatu eta bestelako elkarteetako ordezkariak osatuko dute. Gutxienez hiru kide izango dira eta gehienez hamabost lagun.

Dagoeneko ibarreko hainbat erakunde eta enpresa daude inplikatu fundazioan; eta oraindik Aretxabaletako eta Leintz Gatzagako udalak ere aztertzen dabilza noiz eta zelan esku hartu behar duten ekimen berritzaile horretan.



ONDAREA KONTSERBATU Argazkian, Santa Ana auzoan dagoen garbitokia.

IKER BARANDIARAN

Azkeneko hiru urteotan ikasleek hainbat eskaera egin dizkiete udal ordezkariari

INGURUMENA > ESKOLETAKO AGENDA 21

Ingurumenarekin lotutako eskaerak egin zituzten ikasleek

I.B. > ESKORIATZA

Atzo, eguena, Luis Ezeiza eta Almen ikastetxetako ikasleek Udaleko osoko bilkuran esku hartu zuten, Udaleko agintariari ingurumenarekin lotutako hainbat eskaera egiteko; izan ere, Agenda 21 programaren barruan

hainbat gai jorratu dituzte Oñatiko Natur Eskolan, eta, hain zuzen ere, horren gaineko eskaerak egin zituzten. Ikasturte honetan ura eta energia aztertu dituzte, eta ikasleek eurek hainbat konpromiso hartu dituzte, hala nola etxean ur gutxiago

erabiltzeko ahaleginak egingo dituzte; berogailua gutxiago erabiliko dute; eta aparailu elektrikoak erabiltzen ez dituztenean itzali egingo dituzte.

Bestalde, Udalarari hainbat eskaera egin zituzten: lehenik eta behin, udal ordezkariari eska-


tu zieten iaz eta orain dela bi urte hartutako konpromisoak lehenbailehen betetzeko.

Horrez gainera, beste eskaera sorta bat ere egin zuten: hain zuzen ere, araztegiaren proiektuaren gainean informazioa zabaltzeko eskatu zieten, eta kontsumo txikiko bonbilak erabiltzeko aholkatu.

IBAIAREN GAINEKO KEZKA

Deba ibaiaren egoerak ere asko kezkatzen ditu ikasleak. Hala, Udalarari esan diote Aldundiari ibaia garbitzeko eskatzeko; Erreka Eguna antolatzeko baliabideak jartzeko; eta lanak egiten dituztenean ibaia babesteko, besteak beste.

Horrez gain, ikasleek eskatu dute etxeak egiteko erreka bazterretik kendutako zuhaitzak berriro landatzeko. Baita energia berriztagarriak erabiltzeko, industriren kutsadura kontrolatzeko eta argindarra sortzeko.

FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
GipuzkoaTel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01

IKUSKIZUNA > EGUENEAN ENKARNI GENUAREN TXOTXONGILOAK

Txotxongiloen talde beteteranoa eramango dute bibliotekara

Enkarni Genuaren txotxongilo taldeak 3 eta 10 urte artekoendako ikuskizuna egingo du eguenean bibliotekan, 18:00etan

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eguenean Enkarni Genuaren txotxongilo taldeak *Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?* ikuskizuna egingo du bibliotekan, 18:00etan. Udaleko Kultura Sailak antolatu du, Kutzaren laguntzarekin.

Enkarni Genua eta Manolo Gomez beteteranoak dira txotxongiloen alorrean. Hain zuzen ere, orain dela 26 urte, 1971n, Txotxongilo Taldea sortu zuten, umeendako eta familiendako ikuskizunak egiteko.

22 IKUSKIZUN EGIN DITUZTE

Ordutik gaur egunera arte ez dute atsedetik hartu. Hain zuzen ere, 22 ikuskizun antzertu dituzte, 15 ipuin, hainbat



26 URTE Enkarni Genuaren txotxongilo taldea 1971n sortu zuten.

GOIENKARIA

liburu didaktiko eta 21 disko. Horrez gain, nazioarteko hainbat jaialdi garrantzitsutan esku hartu dute.

Une honetan, errepertorioan hamalau ikuskizun dituzte aukeran. Horietan guztietan, 3 eta 10 urte bitarteko ikusleenganako errespetua eta ikuskizunaren *plastika* asko zaintzen dituzte. Horiek dira Enkarni Genuaren taldearen bi marka nagusiak, eta hala egin da ezagun.

Egueneko *Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan?* ikuskizunak honakoa kontatuko du: 8 urteko Xabi ez dago konforme irakurtzen dituen liburuekin. Haren iritziz, ipuinek ez dute informazio guztia ematen. Hori argitzeko, Xabi detektibe bihurtuko da eta Txotxongilo Taldearekin batera ipuinetako gertaerak ikertzen hasiko da. Bukaeran irribarrea geratuko zaio ezpainetan, eta kezka eta galderak bihotzean.

HAUTESKUNDEAK > ABERTZALE SOZIALISTAK

Eskoriatzako Abertzale Sozialistak, haserre

Ilegalizazioak herritar zati handi bat ordezkartza barik utzi duela salatu dute

I.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Abertzale Sozialistak taldeak jakinarazi digu ilegalizazio prozesuaren ondorioz eskoriatzar talde handi batek ordezkartza izateko aukera galdu duela. Hala, nabarmendu dute hautagaitza horrek 318 sinadura batu zituela.

Abertzale Sozialisten esanetan, Kontzejupe herri plataformak jasan duenaren jarraipentzat hartu dute orain ezarri dituen ilegalizazioa.

Horren aurrean ondorioztatu dute Euskal Herriko egoera, bake prozesua, erabakitze eskubidea eta bakearen alde egiteko aukera bakarra dela EAE-ANVri babesa ematea; eta hala egingo dutela.

Bestalde, gogoratu dute Eskoriatzako Ezker Abertzaleak, alkatetzan izan zenean, erakutsi zuela herri bat kudeatzeko gaitasuna duela.

> MUSIKA

Gaur, egubakoitza, hari laukote batek kontzertua egingo du Ibarraundin gauean

Gaur, egubakoitza, Arrasateko Musika Eskolako hari laukoteak emanaldia egingo du Ibarraundi museoa, 22:30ean. Kontzertu hori estreinako aldiz entzuteko aukera izango dugu, eta laster Donostiako Kurasaalean egingo dute. Joan den urtean laukote horrek beste emanaldi bat egin zuen Ibarraundin, eta oso harrera ona izan zuen. Amaia Garrok (biolin jotzailea), Amaia Artzamendik (biolin jotzailea), Domentx Uzinek (biola jotzailea) eta Igor Egidonek (biolontxelo jotzailea) osatzen dute laukotea.

Emanaldian Mozarten eta Hendelen piezak joko dituzte, eta, horiez gain, *Euskal kanta herrikoiak* eta *Berpizkundeko dantzak* kantuak ere entzun ahal izango dira.



IKER

%25eko DESKONTUA sukalde altzarietan
Apirilaren 15etik ekainaren 15era.

SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

BAINUAK: ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42

FAGOR

> UDALEKUAK

Begiraleak behar dituzte uztaileko udaleku irekietarako

Uztailaren 2tik 12ra udaleku irekiak izango dira herrian, Udalak antolatuta. Udaleku horietarako begiraleak behar dituzte. Interesa dutenek ize-na eman behar dute udaletxean, maiatzaren 25a baino lehen. Aldez aurretik, egun osoko ikastaroa egingo dute begiraleek.

> HAUTESKUNDEAK

EAE-ANV alderdiak kanpaina amaierako afaria egingo du

Datorren egubakoitzean, hilak 25, hauteskunde kanpaina bukatzen dela eta, EAE-ANV alderdiak afaria egingo du. Arin jatetxean izango da, eta hantxe eman behar da ize-na. Afalostean, Txente Rekondok Gabinete de Analisis Internacional taldeko kideak berbaldua egingo du.

> ERRETIRATUAK

Bakardadearen gaineko berbaldua martitzenean

Datorren asteko martitzenean, hilak 22, berbaldua izango dute, 18:00etan, Olaran etxean. Berbaldiaren izenburua da *Hirugarren adinean bakardadea eta alarguntasunari zela aurre egin*. Eibarko Adindu elkarteak kideak arduratuko dira berbaldi hori egiteaz.

> PILOTA

Pilota txapelketako bigarren fasea bihar bukatuko dute

Olalde elkarteak antolatutako Eskuz Binakako Pilota Txapelketako bigarren fasea bihar, zapatua, amaituko da. Hantxe, erabakita geratuko da zein bikotek jokatu duten finala. Maiatzaren 26an jokatu dituzte finaleko partiduak.

SAN ISIDRO > BIHAR, ZAPATUA, OSPATUKO DUTE SAN ISIDRO EGUNA HERRIKO BASERRITARREK

Goñi eta Berraondo aurkari bihar, zapatua

Goizeko azoka frontoi inguruan egingo dute, Herriko Plazan aldaketak egon direla eta; hantxe egingo dute azoka aurrerantzean

AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA

Martitzenean, maiatzak 15, izan zen San Isidro eguna eta bihar, zapatua, ospatuko dute herrian. Goizean, ganadu eta artisauen azoka egingo dute. Herriko ganaduzaleek animaliak erakutsiko dituzte frontoi inguruan: behorrak, zaldiak, behiak, ardiak, astoak eta abar. Herriko artisauak ere izango dute euren produktuak erakutsi eta saltzeko aukera. Bestalde, gastronomiako hainbat postu ere jarriko dituzte: gaztak, gozoak, ogiak...

Aurten frontoi inguruan egingo dute azoka, plazan aldaketak egin dituztelako eta ez dagoelako nahikoa toki. Lehengo tokira itzuliko da, hortaz, azoka.

ARRATSALDEAN, PILOTA JAIALDIA

Hordago enpresak pilota jaialdia antolatu du arratsalderako. 18:00etan hasiko da, eskuz bana-



GOÑI Berraondo antzuolarrak aurrez aurre izango du Mikel Goñi.

GOIENKARIA

kako partidu batekin: Ubera II.ak eta Bilbaok jardungo dute lehengo partidu horretan. Ondoren, jaialdiko partidu nagusia jokatu dute: Mikel Goñi eta Ola-

ran, Berraondo eta Galartza IV. aren aurka. Sarrerak Ongi-Etorri eta Larrea tabernetan daude salgai, 8 eurotan. Egunean bertan 10 eurotan salduko dituzte.



A.I.

Zutik-EB-Aralar koalizioaren aurkezpena

Antzuolako Udalako duen programa aurkeztu du Zutik-Ezker Batua Berdeak-Aralar koalizioak. Pilar Etxaniz alkategaiak eta Jose Mari Iturbe zerrendako bigarrenak berba egin zuten martitzenean. Antzuolako ezkerria batzeko helburua dutela eta bestelako udal bat posible dela azpimarratu zuten. Esku-programa etxerik etxe banatuko dute. Eta kalean hainbat panel jarri dituzte, euren asmoen berri emateko.

bere ustez



Ainhoa Ugarteburu

Barrez argazki baten

Enbidia sentitzen dot: Irlandara etorri eta hurrengo egunian, goizeko periodokuan, Ian Paisley eta Martin McGuinness ikusi ditut argazkixan elkarrekin, barre baten, Ipar Irlandan alkarren etsai, gorrotatuak, Orangistak eta Errepublikarrak, boteria banatu bihar dabelako... Eta Bake Prozesuari Baietz garbi bat emun dotselako. Bixak ala bixak, trintxera gogorretatik urten eta urteetako borroka eta minak alde batera laga dituzte eta Eraikitzen

"Ipar Irlandakoek luzera jokatzeko dabe; gerua eraikitzen hasi dira"

hasi die... Ipar Irlandarrek eurek erabakiko daben gerua eraikitzen. Luzera jokatzeko dabe, borondatia dauke aldatetarako.

Ez dot asko ulertzen Ipar Irlandako politikaz, baina nere uste apalian, Euskal Herriko hainbat politikoko, poltrona gosez edo, ez dira Ipar Irlandako politikoko hauen belaunetara be irixten.

Ilegalizazioak dakarren bentaja makurrak beste lau urterako garantizauko jae boteria eta beti motxera jokatuko dabe, bakia, berba egiteko gogua eta hurrengo pausua zihurrenik boteretik urrunduko dituelako, Ipar Irlandan pasau dan bezela. Euskal Herriko argazkixan gauza bat ikusten dot, mauka galanta.

LARREA**TABERNA**Kalebarren 17
ANTZUOLA

EGAÑA

Era guztietako arrotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatua eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

Jose
Gomez
AbadErrekalde 6, 4-B.
Antzuola
943 76 60 19
943 76 60 43
Faxa:
943 76 60 19

INDUSTRI MANTENIMENDUA



HAURRAK KANTUAN 12 umek egingo dute kantuan Espaloiko finalean. ETB

IKUSKIZUNA > MAIATZAREN 24AN, 17:00ETAN

Egin Kantu! lehiaketaren finala Espaloian egingo dute

Euskal Telebistak Espaloia Kafe Antzokia aukeratu du lehiaketaren finala grabatzeko

L.Z. > ELGETA

Euskal Telebistako *Betizu* tartearen *Egin Kantu!* lehiaketaren finala Espaloian grabatuko dute. Urrian jarri zuten martxan lehiaketa ibiltaria, eta, 26 herritan egon ostean, final handia Elgetan izango da maiatzaren 24an.

"Elgetan kafe antzoki ederra daukazue, eta guk behar ditugun baldintza teknikoak betetzen ditu", esan du saioko zuzendari Lorea Perez Albenizek. "Elgeta, bestalde, leku ederra eta aproposa da. Euskal Herriaren erdialdean gelditzen da, eta hori garrantzitsua da, Euskal Herri guztiko haurrak etorriko baitira finalera".

Nerea Aliasek aurkezten duen saioaren ekipoa goizetik hasiko da lanean Espaloian, baina saioari 17:00etan emango zaio hasiera. Elgetako haur guztiak daude gonbidatuta. Gurasoek eta haur txikitxoek ez dute sartzetik izango.

250 UME ELGETAN

Egin Kantu! lehiaketaren final handira Euskal Herri osoko 250 ume etortzea espero dute. Finalean 12 hurrek abestuko dute eta lau dantza taldek egingo dute dantza. Irabazle bana aukeratu da Elgetan. Saioa ekainaren 3tik 7ra emitituko dute Euskal Telebistan.



L.Z.

Esteban Oroz margolariaren lanak

Hilaren 31ra arte Esteban Oroz margolari eibartarraren margolanak daude ikusgai Espaloia Kafe Antzokian. Orozek paisaiak margotzen ditu normalean. Horrela, Espaloiko erakusketan, Donostia, Legazpi, Bergara, Berriz, Zumaia, Ortuella, Mutriku, Elorrio eta Beasainen margotutako paisaiak ikus daitezke. Bi natura hil ere jarri ditu.

ASENTZIO EGUNA > OLATZA BASERRIKO FAMILIAK JASOKO DITU ERMITAREN GILTZA ETA ARDURA

Asentzio Eguna domekan ospatzeko guztia prest

Gaztetxekoek prestatutako egitaraua 11:00etan hasiko da karramarro harrapaketaekin, eta baltsa lehiaketa 13:00etan egingo dute

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Guztia prest dago domekan, hilak 20, Asentzio Eguna ospatzeko. Meza 12:30ean egingo dute aurten. Leonardo Esnaolak, Angiozarko parrokoak, esango du. Orain arte Santa Marinako parrokiaren kargura egon da Asentzioko ermita, baina iaz Angiozarko parrokoaren eskuetara pasa zen eta aurten lehenengoz hark esango du Asentzioko meza. Mezaren aurretik Elgetako umek hiru dantza eskainiko dituzte.

Giltza aldaketa ere egiten dute Asentzio Egunarekin. Domekan Olatza baserriko familiak hartuko du ermitaren giltza eta haren ardura Jarikotxokoaren eskutik.

HERRI BAZKARIA 14:00ETAN

Aurtengoan ere Gazte Asanbladakoek barra jarriko dute Asentzion, eta trikitilari talde batek girotuko du Asentzio Eguna. Gure Bordakoek, berriz, salda eta pintxoak emango dituzte.

Gaztetxekoek egitaraua 11:00etan hasiko da. Karramarro lehiaketa antolatu dute Asentzioko putzuan. Norberak eraman

beharko du harrapaketarako arrantza-aparailua. Baltsa lehiaketa ere antolatu dute gaztetxekoek. Esan digutenez, gutxienez bi baltsa izango dira lehiaketan.

Bestalde, bazkaria 14:00etan egingo dute. Aurtengo menua honako hau da: patatak errio-

xar erara, oilaskoa, postrea, kafea, kopa eta purua. Prezioa zortzi euro da. Gainera, bertsolariak eta trikitilariak girotuko dute bazkalostea.

KONTZERTUA GAUR 22:30EAN

Musikak ere izango du tartea Asentzio Egunean. Tuboskapi eta Stierkools talde ondarrutarrek egingo dute kontzertua gaur, barikua, 22:30ean. Tuboskapi azken kontzertuak ematen ari da. Elgetakoa azken aurrekoa izango da.



DANTZAK Umek hiru dantza prestatu dituzte domekarako.

JOSETXO ARANTZABAL

> ELGETA FUTBOL TALDEA
Sailkapeneko azken postuan dagoen Gazteak hartuko du

Elgetak Eibarko Gazteak taldea hartuko du bihar, zapatua, Unben. Norgehiagoka 15:30ean jokatu da. Hiru puntu lortzeko aukera polita du aurrean Elgetako taldeak; izan ere, Gazteak sailkapeneko azken postuan dago.

Taldeak, bestalde, bi lagunendako lau afari banatu ditu. ONCEko zozketarekin batera ezagutu dira zenbaki sarituak. Ondorengoak dira: 284, 190, 876 eta 920.

> FERIXA EGUNA
Uztailaren 1ean egingo dute eta 7.700 euroko aurrekontua dauka

Asteon, astelehenean, egin dute Ferixa Eguna antolatzeko lehenengo batzarra.

Iaz, Ferixak 7.698 euroko kostua izan zuen eta aurtengo ediziorako 7.700 euroko aurrekontua izango dute antolatzaileek. Ferixa, beraz, iazkoaren oso antzekoa izango da artisau postu eta abere buru kopuruari dagokionez. Herriko abeltzainen parte-hartzea bultzatuko dute.

> HAUTESKUNDEAK
Elgetako EAE-ANVk gaur, barikua, egingo du aurkezpen ekitaldia

Eduarne Alberdi buru duen Elgetako Eusko Abertzale Ekintza-ANV alderdiak gaur, barikua, egingo du aurkezpen ekitaldia herrian.

20:00etatik aurrera bertsolariak, trikitilariak, luntxa eta ekitaldi politikoa egingo dute Elgetako Herriko Plazan. Zerrendakideak aurkezteaz gain, euren proiektu politikoaren berri emango dute ekitaldian.

Jatetxea
zentzumena

Jaki goxoak eta giro aparta!

Tel.: 943 78 91 07 • Faxe: 943 78 91 06

hotelrosena@terra.es
www.casaruralegeta.com
San Roke 26 • Elgeta

HOTELA

Elgeta

> HAUTESKUNDEAK

Nagusiendako egoitza berria nahi du EAJk Aramaion

Alkatetzarako Euzko Alderdi Jeltzaleko hautagai Iñaki Nafarratek nabarmendu nahi du EAJk Aramaiorako duen erronka garrantzitsuenetako bat dela nagusiendako egoitza bat egitea.

Bestalde, EAJko hitzorduei dagokienez, iragarri dute astelehenean, hilaren 21ean, Xabier Arzalluz EBBko buruzagi ohiak eta Iñaki Gerena-barrenak, Araba Buru Batzarreko presidentek, Aramaio bisitatuko dutela. Hitzordua da 19:30ean kultura etxean. Deialdi irekia dela azpimarratu dute; beraz, interesa daukan edozein joan daiteke.

Bukatzeko, datorren eguaztenean osoko bilkura egingo dute, agintaldiko azkena. Gainera, arratsaldean izan beharrean, eguerdian egingo dute, 12:00etan hasita. Besteak beste, Mertxe Mondragon alkateak (EAJ) lau urteotako balorazioa egingo du.

> EMAKUMEAK

Ituri Zuri elkarteak txangoa egingo du, Asturiasera

Ekaineko lehen asteburuan egingo dute Ituri Zuri Emakume Elkarteak antolatutako txangoa, Asturiasera. Zapatu goizean aterako dira (08:00etan) autobus geltokitik, eta Ribadesellara joango dira; han bazkaldu eta hura bisitatuko dute eta arratsaldean Candasera joango dira, hotela duten lekura. Hurrengo egunean, gosalduta ostean Covadonga lakuak ikustera joango dira, basilika eta Cangas de Onis, bisitaldi gidatuan. Domekan bueltatuko dira.

Izena emateko zerrendak ipini dituzte kultura etxean eta herriko saltokietan.



PRENTSAURREKOA Aramaioako AHT Gelditu Elkarlanekoak, martitzenean. U.M.

> AZPIEGITURAK > AHT-REN GAINEKO GALDEKETA

AHTri ezezko botoa ematera gonbidatu dituzte herritarrak

"Herria bitan zatituko" duela salatu dute eta hiru zabortegei sortuko dituztela, besteak beste

UBANE MADERA > ARAMAIO

Aramaioako AHT Gelditu! Elkarlanak ezezko botoa eskatu du maiatzaren 27an Abiadura Handiko Trenaren gainean Aramaion egingo den erreferendumerako. Hauxe gaineratu dute: "Herriak AHTri ezetza ematen badio, Udalak emaitza dagokion tokian defenda dezala bultzatuko dugu".

HERRIA ERDIBITU

Ezezko botoa eskatzeko orduan, AHTk herrian eragingo dituenak aipatu dituzte. Etxez etxe ere bidali dituzte arrazoioak.

Oro har, Aramaioako "bizi kalitatean kalteak igarriko" dituztela azaldu dute.

Hala, bestelakoan artean, trenak "herria bitan zatituko" duela adierazi dute: "Trenaren ibilbide guztia alantzeko eta bi metroko altuera duen hesi batek inguratuko du, pertsonen eta abereen ibilbidearen kalterako".

Zenbait baserriengan eragingo duela ere gaineratu dute: "Lugartei baserria desagertu

egingo da, Untzillan. Bolinburun bizi diren hiru familien etorkizuna kolokan jartzen da. Bertan bizitzen jarraitu ahal izango duten zalantzan dago, trenbidea etxeetatik 40 metro-ra egongo da-eta".

HIRU ZABORTEGI

Horrez gainera, Aramaion hiru zabortegei sortuko direla jakinarazi dute: "Handiena, Suña azpian, 11 hektareakoa, eta 2.000.000 m³-ko hondakinak jasoko dituela aurreikusten da. Orain, toki hartan zelaiak daude". Zabortegekin jarraituz, jakinarazi dute, baita ere, "Kuatrobientos baserriaren azpiko tunelaren hasieran, lur azpian, hondakinen hormigoizko biltegi bat" eraikiko dutela, eta, gainera, ez dutela zehazten zein hondakin mota botako duten.

Bukatzeko, besteak beste, gogorarazi dute "Aramaion, trenbidearen zati handi bat zubian" doala. "Horri eusteko 24 zutabe jarriko dira eta 80 metroko altuera baino gehiago izango dute".

> PRESOKAK > JON AGIRREK, 26 URTE KARTZELAN

Agirrereren omenaldian poliziaren jarrera salatu dute

U.M. > ARAMAIO

Joan den barikuan manifestazioa egin zuten, Jon Agirrek kartzelan 26 urte bete dituela salatzeko. Baina salatu dute Ertzaintzak manifestazioa gerarazi, zenbait lagun identifikatu eta "aurrean megafoniarekin autoan zihoanari isuna jarri ziotela, zirkulazioa galaraztearren". Horren hari-

ra, salatu dute polizia sekula ere ez dela etorri Aramaiora horren "erasokor".

Bestalde, zapatuan, Langraizera -Jon Agirre dagoen kartzela- egin zuten martxan ere Ertzaintzarekin arazoren bat zein beste izan zutela salatu zuten. Bezperan isuna jarri zioten berari beste isun bat jarri zioten, besteak beste.

> POLITIKA > HAUTESKUNDEAK 07

EAE-ANV, "aramaioarren alde lan egiteko" gertu

Domekan 13:00etan ekitaldia egingo dute herriko plazan, trikiti eta bertsolariekin

eta PSE horrela jolasean ibiltzea legalitatearekin. Hauteskunde hauek ez dira demokratikoak, herritarren ahotsa berriro ere ez dutelako errespetatu".

Aramaioari begira, berriz, jakinarazi dute ANVk aurkeztu dituela zerrendak "ilusioarekin eta gaitasun handiko jendearekin; eta herritarrendako lan egitera gatz". Helburu garrantzitsuenak dute "ahalik eta udal parte-hartzaileena izatea eta auzoei eta kaleari tratamendu bera ematea".

U.M. > ARAMAIO

Aramaioako EAE-ANV herri-tarrei argitu nahi die ASBko eta ANVko zerrenda asko legez kanpo utzi dituzten arren, Aramaio-koak "salbatu" egin direla. Horren harira, hauxe aditzera eman dute: "Onartezina da EAJ



HAUTAGAIK EAE-ANVko bost hautagaiak udaletxe aurrean. U.M.

**URONDO**

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

HIRIGINTZA > ARLABAN GAINEKO PLAN BEREZIA

Arlaban gaineko plana aurkeztu zuen Udalak, eta alegazioendako epea zabalik dago

Ostatu eta aisialdirako gunea zehazten du plan bereziak Arlabanen, eta nekazaritza-turismoko jarduerendako tokia

MIRARI ALTUBE > GATZAGA

Arlaban gaineko plan bereziaren eta hiri antolamenduko arau aldaketaren berri emateko herri-

tarrei, batzarra egin zuen Udalak joan zen astean. Proiektua egin duen Toledo taldeko aditua izan zen azalpenak ematen.

OSTATUAK JARTZEKO GUNEA

Udalak gura zuen Arlaban ingurua -Gure Ametsa, Gaztainuzketa...- antolatzea, eta horregatik erabaki du plan berezia egitea. Ikusi du turismoaren alorra dela egokiena bertarako, eta bost esparru zehaztu dituzte bertan: babes-

tu beharreko gunea (basoa eta erreka); Aizkorri-Aratz parkean sartutako lurak; abereak ibiltzen diren gunea; ostatu eta aisialdirako gunea (guztia %24,5); eta nekazaritza-turismoko ekipamenduendako gunea (Jakion eta antzeko jarduerak jartzeko, %0,68). Planak ondo zehaztu du zer eraiki daitekeen eta zer ez, eta ostatuaz gain aisialdirako gunea izan beharko du: igerilekua, zaldian edo bizikletan ibiltzeko tokia, tenisean jokatze... Gainera, sarrera errazteko biribilgunea egingo lukete errepide zaharra eta Arlabangoa elkartzen diren inguruan.

ALEGAZIOAK EKAINAREN 11 ARTE

Arlabango antolamendua aprobetxatuta lur hiritarrezinari dagokion arau aldaketa egin gura du Udalak. Hala, abeltzaintzako eta nekazaritzako jarduera duten baserriak handitu ahal izango dituzte, eta 200 metro koadrotik gora dituztenek bi etxebizitza egin.

Bai Arlabango plan bereziaren dokumentua, bai arau subsidiario aldaketarena udaletxean daude ikusgai, eta ekainaren 11 arte izango dute herritarrek alegazioak aurkezteko.



AURKEZPENA Herritarrak planaren gaineko azalpenak entzuten batzarrean. M.A.

> PILOTA

Bertan behera geratu zen egubakoitzean Amurriion gazteendako antolatutako pilota txapelketa

Joan zen egubakoitzean joan behar zuten herriko 14 pilotari gaztek Amurriora txapelketa jokatzera, baina, hainbat arazo tarteko, bertan behera utzi zuten txapelketa. Antolatzaileek ez dute jarri data berririk. Ekainaren 9 eta 10erako, ostera, herri mailako eskuz binakako txapelketa antolatu dute. Izena Labidean eman behar da.



EDORTA ARANA

Haize zakarra Urkiola aldean

Urkiola aldera joan ziren Gurel guraso elkarte kideak joan zen domekan, eta haize zakarra topatu zuten. Urkiolatik Pol-Polera egin zuten ibilalditxo, eta, haizetik babesteko parajearen bila ibili arren, ezin izan zuten topatu... Arratsaldean Otxandio aldera joan ziren, eta ardiak dituzten baserria ezagutzeko aukera izan zuten.

Maiatzak 31 baino lehenago erreserba eginez gero, honako eskaintzak izango dituzu eskuragai Arrasate Bidaiak-en.

SAN JUAN JAIK

Kanariar irlak

Astebetez • 3 izarretako hotela
Pentsio erdia

345 eurotik aurrera

JAMAICA

(Uda - Abuztua barne)

%25erainoko deskontua
Astebetez • 5 izarretako hotela
800 eurotik aurrera

TUNISIA eta MAROKO

(Uda - Abuztua barne)

%21erainoko deskontua
Astebetez • Pentsio erdia
274 eurotik aurrera

COSTA RICA

(Uda)

%25erainoko deskontua
11 egun 9 gau
1.448 eurotik aurrera



ARRASATE BIDAIK
Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es

FUTBOLA > PREFERENTEA

Atxabalpeko azken partiduan, Aloñaren kontrako derbia

Mondrako zaleek bihar ikusiko dute azkeneko talde nagusia Atxabalpen; partidu historikoa izango da, Aloñaren kontrako derbia (16:30)

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Maila gazteagoko taldeek oraindik Atxabalpen hainbat partidu jokatu badituzte ere, Mondrako talde nagusiak (49 puntu) bihar esango dio agur Atxabalperi. Eta, horrelako norgehiagoka berezi baterako, ez dago derbia jokatzeko modurik. Hala, Oruetaren mutilak (39 puntu) izango dira Atxabalpen bisitari, azken bi jardunaldietan egindako partiduak zuzentzeko irrikan dagoen taldea, hain zuzen ere.

TALDE ITXURA EMATEA

Hori da Oñatiko taldeko entrenatzaile Aitor Oruetak gura duena, talde izaera berreskuratzea, alegia: "Azken partiduetan nor bere kontura ibili da, eta hori da zuzendu behar duguna. Partidua irabaztea ondorio bat baino ez da, lana ondo egin den seinale. Eta, lan hori egiten ahalegindu behar dugu". Bi jardunaldien faltan, Oruetak badaki azken partiduetan ondo jokatzeko, neurri hain batean, urte osoko lana laburtzen duela: "Eta, bi partidu baino ez ditugu hori egiteko, urtea zapore onarekin amaitzeko, alegia".

Hori horrela, Oruetarendako biharko partidua derbi izateak ez du horrenbesteko garran-



DERBIA Mondra-Aloña derbiarekin agurtuko zaio Atxabalperi.

GOIENKARIA

tzirik: "Taldeak joan den urtean zuen izaera erreperatzea gura dut, eta, akaso, horregatik ez diot garrantzirik ematen derbiaren kontuari. Dena dela, joaneko partiduan Aloñak eta Mondrak Azkoagainen egindako partidua ikus-

garria izan zen (3-3). Bi taldeek ikuskizun ederra eman genuen, eta garbi jokatu genuen denok, ondo konpontzen garen bi talde garen seinale. Gainera, Atxabalpeko azken partidua izango denez, berezia izango da".

HIRU TALDE LEHIAN

Mondrak ere gogotsu hartuko du Aloña Mendi, oñatiarren kontra jokatzen dituzten partiduak erakargarri izatearekin batera, Arrasateko taldeak oraindik hainbat helburu ditu eta betetzeko. Hasteko, esan barik doa ibarreko edozein taldek gura izaten duela eskualdeko lehena izan, eta Mondrak gertu du Aretxabaleta (47 puntu), 2 puntura. Horrekin batera, orain momentuan hiru talde daude sailkapeneko laugarren postuagatik lehian, eta Berio eta Ordiziarekin batera, Mondrak ere jomuga hori du.

Bestalde, UDak ere ez du eskuin hanka azeleragailutik altxatzeko asmorik. Aurreratu moduan, Aretxabaletak gertu du Mondra, eta urteari agur esateko gozoki gozoa da hori. Hala, jaisiera arriskuan dagoen Martutene etorriko da bisitan domekan

ANTZUOLAK, GORA

Denboraldi ederra egin eta gero, bigarren erregionalean lehian ibili den Antzuola mailaz igo berri da, igoera faseko azken jardunaldian Intxurre 0-2 mendean hartu eta gero.

Hala, Andoni Azkargortaren mutilek egindako lanari esker, hamar urte bigarren erregionalean igaro eta gero Antzuola lehenengo erregionalean izango da berriro: "Igoera fasea azkenean luze egin zaigu, baina lortu dugu helburua. Hala, oraindik erregionaleko finala jokatu behar dugu, Lazkaoen kontra, eta dagoeneko mailaz igo bagara ere, finalak irabazteko jokatzen dira. Betera noek diotenez, finala irabazten ez bada poztasuna ez da erabatekoa izaten", esan digu Azkargortak.

> ESKUBALOIA

Ford Mugarrik liderraren kantxan jokatuko du bihar

Lehenengo eta Bigarren Nazional Mailako Kopan, Ford Mugarrik lider dagoen Elgoibar izango du bihar arratsaldean zain (16:30). Balerdiren mutilak azken postuan dagoen Urola mendean hartzeko gauza izan ziren joan den astean, eta orain, puntu bakarrekin daude bai Elgoibar eta baita Arrate ere. Hala, txapelketako azkeneko jardunaldia jokatuko dute asteburuan.

> GOLFA

Jon Galdosek dagoeneko bi torneo irabazi ditu aurten

Jon Galdos golf jokalaria gaztea Mikel Galdos anaiaren bidetik dator. Anaia nagusia Peugeot Tourrean lehian dabilen bitartean, Jon Galdosek bi torneo irabazi ditu Larrabeako zelaian (Araba). Hala, oraingo asteburuan Wilson txapelketan hartuko du esku, eta lehen mailako jokalaria moduan estreinatuko da.

> MAHAI FUTBOLA

Kilometroen alde txapelketa egingo dute Bergaran

Bihar arratsaldean egingo dute Bergarako San Martin plazan Kilometroak 07ren aldeko mahai-futbol txapelketa.

Txapelketan esku hartzeko bikoteek 17:00etan eman ahal izango dute izena, eta ordubete geroago hasiko dira partidak. Guztira 8 mahai-futbol jarriko dituzte, eta txapelketa hiru mailatan banatuko dute: 12 urtetik beherakoak, 12 urtetik 16 urtera arte eta 16 urtetik gorakoak.

Etxebarri auzoa, 2/g
Tel.: 943 79 79 00 / 943 77 09 55
E-mail: ia@iaretxabaleta.com
Web orria: www.iaaretxabaleta.com

INSKRIPZIO EPEA
Ekainaren 1etik 7ra



Aretxabaletako Lanbide Heziketa institutua Eskaintza akademikoa A eta D erduetan

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Erizaintzako laguntza osagarriak
- Kontsumorako ekipo elektronikoak
- Ibilgailuen elektromekanika
- Soldadura eta galdaragintza
- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA

- Fundizio eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa

- Praktikak atzerrian (Leonardo programa)
- Orientazio zerbitzua (LANBIDE)
- Enplegu zentrua

FUTBOLIN TXAPELKETA

Saria: Mercedes SE 400 edo 5.000 euro txapeldunarentzat eta beste horrenbeste tabernarentzat (taberna bakoitzak zazpi jokalaria)



www.ehmff.com
943 76 42 31 / 652776051

Antzuola: Mox – Surpe Aretxabaleta: Haizea – Izotz – Kixkor Arrasate: Biona – Iturriotz
Equis – Udala – Wiskeria Bergara: Agirrebeña – Agorrosin – Avenida – Biko – Ganbara
Gaztetxea – Mitor Eskoriatza: Aldatz – Naira Oñati: Arrano – Ongi – Otamendi

asteburuko hitzorduak

FUTBOLA

Preferente maila
Mondra-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.
Martutene-Aretxabaleta
Domeka. 11:30. Martutene.

Bigarren erregionala
Soraluze-BTLS
Zapatua. 16:30. Ezozia.
Elgeta-Gazteak
Zapatua. 15:30. Unbe.

Bigarren erreg. Kopa
Aloña Mendi-Beasain
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Anaitasuna-Mondra
Domeka. 16:30. Txerloia.
Aretxabaleta-Kostkas
Zapatua. 18:00. Ibarra.

Ohorezko mailako gazteak
Amaikak Bat-Bergara
Zapatua. 16:30. Deba.

Lehen mailako gazteak
Soraluze-Arizmendi
Zapatua. 11:00. Ezozia.

Gazteak. Kopa
Urki-Bergara
Domeka. 16:15. Unbe.

Ohorezko mailako kadeteak. Igoera fasea
Bergara-Real Union
Zapatua. 18:00. Agorrosin.
Kostkas-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 12:00. Matigoxot.

Ohorezko mailako kadet. Kopa eta jaitsiera
Arrasate-Sanse
Domeka. 12:00. Atxabalpe.
Beasain-Aloña Mendi
Egubakoitza. 19:00. Igartza.

Infant. Ohorezko maila
Sanse-Arizmendi Aretx.
Zapatua. 11:00. Donostia.

Infantilak Kopa eta jaitsi.
Sto. Tomas Lizeoa-Arrasate
Zapatua. 12:00. Berio.
Aloña Mendi-Touring
Zapatua. 11:30. Azkoagain.

ARETO FUTBOLA

Nazional B maila
Eskoriatza-Kenci
Zapatua. 18:30. Intxaurtxu.

Lehenengo maila
Aloña Mendi-Zaldibi
Gaur. 22:30. Zubikoa.

SASKIBALOIA

Gipuzkoako ligako senior maila
Candy Bergara-Ordizia
Zapatua. 16:00. Labegaraie.

Kevin Sport-Aloña Mendi
Zapatua. 20:15. Donostia.
Donibane-Ointxe Arrasate
Zapatua. 16:00. Pasala.

Gipuzkoako ligako gazte maila, gizonen maila
Lasao Altz.-Mugarri Alkesa
Zapatua. 18:00. Azpeitia.

Gipuzkoako ligako kadete maila, gizonen maila
Ford Mugarri-Gros Xake
Zapatua. 10:00. Arrasate.
Aloña Mendi-Bergara
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Infantil maila
Tolosa B-Arizmendi B
Zapatua. 10:30. Tolosa.
Tolosa A-Arizmendi A
Zapatua. 10:30. Tolosa.
Goierri-Leintz Eskola A
Zapatua. 10:30. Urretxu.

LEK B-Bergara 94
Zapatua. 12:00. Musakola.
BKL-Bergara 93

Gaur. 18:00. Beasain.
Ikasi ISB-Aloña Mendi
Zapatua. 09:30. Azpeitia.

Infantil maila, emakumezkoak
Aloña Mendi-BKL
Zapatua. 11:00. Zubikoa.

Laskorain B-LEK D
Zapatua. 11:00. Tolosa.

BKL A-LEK E
Gaur. 17:45. Idiazabal.

Laskorain A-LEK B
Zapatua. 11:00. Tolosa.

BKL D-LEK A
Gaur. 17:45. Beasain.

ESKUBALOIA

Lehenengo eta Bigarren Nazional mailako Kopa
Elgoibar-Ford Mugarri A.
Zapatua. 16:00. Elgoibar.

Lehenengo eta Bigarren territoriala. Kopa
Aloña Mendi-Arrasate Esk.
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

Emakumezkoen seniorrak. Kopa
Verkol Aloña-Leizaran
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Kadeteak gizonen maila
Bidasoa-Irun-Aloña Mendi
Domeka. 11:30. Irun.

Kadeteak emakumezkoak. Kopa
Leizaran-Verkol Aloña
Zapatua. 11:30. Andoain.

MAHAI-FUTBOLA

Kilometroen aldeko txapelketa
Zapatua. 18:00. Bergara.

ERRUGBIA > KOPA

Kopako azken jardunaldia zaleen aurrean jokatu du Arrasatek, Ordiziaren kontra

Arrasatearrek 52-8 galdu zuten joan den astean Irungo taldearen kontra; bihar, garaipenarekin gura dute denboraldia agurtu



AZKENA Zaleek azkeneko jarraituko dute euren taldea Garagartzan. GOIENKARIA

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Azkeneko partidu hori irabazteko, baina, ikusi egin beharko da Ordiziak ze talde ekartzen duen, hori da-eta kopa txapelketak daukan tranpa. Taldeko kide Unai Lazkanok eman digu horren berri: "Hernanirekin gertatu zitzaigun moduan, Ordiziak lehenengo taldea ekartzen badu ezer gutxi egin ahal izango dugu. Kontua da klub batzuek hainbat talde dituztela, eta talde nagusiak partidurik izaten ez badu, kopara etortzen dira, gure kontura entrenatzera".

Egoera horrek goitik behera baldintzatzen du txapelketa; hala, ligan indarrak parean egoten diren moduan, kopan gaitza izaten delako erreferentziarik izatea. Nahikoa da goiko taldetik

lauzpabost jokalarik beheko taldera jaitea, partidu bat goitik behera baldintzatzeko.

Egoera horretan, Lazkanok badaki Ordiziak euren mailako taldea ekartzen badu Arrasatek partidua irabazteko aukerak izan ditzakeela. Hori bai, talde nagusia badator, akabo. Arrasatearren eta ordiziarren arteko norgehiagoka 16:30ean hasiko da.

GARAGARTZAN AZKENA

Biharkoa denboraldiko azken jardunaldia izatearekin batera, Arrasateko errugbi taldeak agur esango dio Garagartzako zelaia-ri. ARTk urteak egin ditu zelai horren egoera penagarria salatzen -salatzeko modukoa zen-, eta irailetik aurrera klubak behar den moduko zelaia izango du Mojategin.

Haurdunaldian ere, kirola

Haurdunaldia bost egun laburragoa izango da eta erditze unea azkarragoa izango da

Aurreiritzi faltsutan oinarrituta aurkakoa esan bada ere, egokitutako jardura fisikoa mesedegarria da haurdunaldian ere. Are gehiago, hainbat onura jaso ahal izateko, jardura fisiko egokia egitea ezinbestekoa da, baina edonola egindako ariketek ez dakartzate hobe-kuntzarik.

AMARENDAKO ONURAK

Ariketa fisiko egiteak onura hauek ekartzen dizkio amari, besteak beste: amaren osasuna hobetzen du; gehiegizko pisua izatea saihesten du; likidoen erretentzio-arriskua gutxitzen du; gorputza hobeto kontrolatzen laguntzen dio, bai itxura fisikoari, jarrerari eta tonuari dagokionez; energia eta sasoi hobe izatea bermatzen dio; seguruago eta trebeago ikusiko du bere burua; bizkarreko mina izateko arriskua murrizten du; eta haurdunaldia laburragoa izango da: bost egun laburragoa, batez beste.

MESEDEGARRIA ERDITZE UNEAN

Erditze unearekin lotutako mese-deak eta abantailak ere baditu



PASEATZEA Jardura fisiko egokia egitea ona da amaren eta umearen osasunarendako.

haurdunaldian kirola egiteak, hala nola erditze unerako gorputzaren egoera hobetzen du; nekei eta esfortzuei erantzuten ohi-tuta egongo da; arnasketa eta zirkulazio ahalmen handiagoa

izango dute amak eta umeak; dilatazio aldia motzagoa izango da; erditzeko unea azkarragoa izango da; bultzadak emateko eta laguntzeko prestatuagoa egongo da, besteak beste musku-

lu abdominalak garatuagoak dituelako; laguntza kirurgiko gutxiago eta errekupeartzeko denbora laburragoa beharko du amak; eta fetuak sufritzeko arrisku txikiagoa izango du.

KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:

Antzuola	943 76 62 46
Aretxabaleta	943 71 26 28
Arrasate	943 77 16 77
Bergara	943 77 91 67
Elgeta	943 76 80 22
Eskoriatza	943 71 53 28
Oñati	943 71 63 75



DEBAGOIENEN MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida



ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

hemen bada
giro!



EZKUTU
TABERNA

Zatoz gure musikoz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel.: 943 79 92 01

VALDEZATE



Bokatak eta plater konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel.: 943 25 07 40

IOSU

taberna harategia

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak


Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08




EXPRESS TABERNA

Santa kurtz 16 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 23 43

Dorleta



Loteria primitiboak eta kinielak

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA



Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE

Menuak eta afariak



Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Gurea
TABERNA



Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95



hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68



> **KULTURA**
Erdi Aroko azoka ospatuko dute aste bukaeran Arrasaten > 45



> **KOMUNIKAZIOA**
'Zu kazetari', herritarrek kazetari bihurtzeko aukera GOITBn > 45

> **XABIER ARANGUREN**
Cafes Baque taldean ari da txirrindulari elgetarra; aurretik Lokatzen eta Debabarrena taldeetan ibilitakoa da. Harekin izan gara > 50



GAZTEMANIAK ZIRKUITUA

Jonah Smithen bisita Oñatira

MUSIKA

Abeslari eta piano jole estubatuarrak kontzertua emango du domekan Oñatiko gaztelekuan

EDU MENDIBIL > OÑATI

Bere izena daraman diskoarekin nazioartean ezagutzera eman zen Jonah Smith joan zen urtean. Aurretik, 2000. urtetik aski ezaguna zen New Yorkeko *indie* klubetan eta AEBetako mendebaldeko kostalde osoan. Soul musika oinarri hartuta, jazz, rhythm and blues eta rock ukuitua daukate Smithen kantuek. Esan bezala, kritikak zein publikoak harre-
ra beroa eskaini diote abeslari, piano jole eta konpositore estatubatuarri. Soul modernoaren erreferente nagusizat jo dute hainbat adituk.

Ahots hunkigarria eta magnetikoa dauka eta Smithen Fender Rhodesen doinu bereziek ukitu propioa ematen diote haren musikari. "Entzuleengan inpaktu emozionala pizten saiatzen naiz, erreakzioa probokatzeko. Kantuen bitartez espresatzen ahalegintzen naiz, behin eta berriz azalpenak ematen ibili beharrean. Uste dut hori dela kantuek idazteko arrazoia", dio Smithek berak.

Besteak beste, *Little black angels*, *Stay awhile*, *Killing time* eta *Both sides* eskainiko ditu Oñatin. Smithi laguntzen David Soler (gitarra), Andy Stack (gitarra eta ahotsa), Ben Rubin (baxua) eta Marko Djordjevic (bateria) arituko dira. Gaztemaniak zirkuituaren barruan ohiko parada bilakatu da Oñati. Sarrerak 5 eurotan salduko dituzte. Hitzordua domekan, 20:00etan. Txapela alde batera, badator Jonah Oñati aldera, lotsati samar baina xarmaz beterik.



MUNDUMIRA > III. EKITALDIA ARETXABALETAN

Kiko Veneno, Mariana Ramos eta Gecko Turner, Mundumira jaialdian

Kiko Veneno
beteranoak
'Un hombre invisible'
diskoko kantuak
aurkeztuko ditu
ekainaren 2an
gauerdian

E.M. > ARETXABALETA

Kiko Veneno, Mariana Ramos eta Gecko Turner musikariak etorriko dira aurtengo Mundumira jaialdian. Munduko kulturen festa Aretxabaletan ospatuko da aurten, ekainaren 1etik 3ra bitartean. *Euskal Herria* aldizkaria eta Debagoieneko Mankomunitatea dira antolatzaileak. Jaialdiak kultura askoren topagune bilakatzea du helburu. Era berean, Debagoieneko natura eta kultura ondarea ezagutzera eman nahi dute antolatzaileek.

Ekaineko lehen asteburuan artisautza eta gastronomia azokak izango dira Aretxabaletan eta mendi azoka ere egingo dute ber-



MUNDUMIRA Munduko kulturen festaren hirugarren ekitaldia Aretxabaletan ospatuko da, ekainaren 1etik 3ra.

GOIENKARIA

tan: ikus-entzunezkoen proiektzioak, argazki erakusketak, ikastaroak, mahai inguruak, mendi irteerak eta Euskadiko Boulder

Txapelketaren finala tartean. Iturri gorri frontoian jarriko duten rokodromoan jokatu da finala, ekainaren 3an.

Bestalde, aurreko bi ekitaldietan egin bezala, gobernuz kanpoko erakundeek parte berezia izango dute Mundumiran: elkarte

ezberdinen lana gertutik ezagutzeko aukera izango da Aretxabaletan.

MUSIKA PROTAGONISTA

Musika proposamenen artean, esan bezala, izen handiko artistak izango ditugu gure artean: egubakoitzean, ekainaren 1ean, Cabo Verdeko Mariana Ramos abeslariaren erritmo eta melankolia eta Gecko Turnerren musika mestizoa izango dira protagonista. Turnerren bakarkako bigarren diskoak kritika bikainak jaso ditu: Afrika eta Brasil aldeko doinuen eta musika elektronikoaren arteko nahasketa egingen du Turnerrek.

Zalantzarik gabe, Kiko Veneno beterranoa izango da Mundumirako izarretako bat: andaluziar-katalanak bere azken lana aurkeztuko du zapatuan, gauerdian. *Un hombre invisible* disko-kantuak eta bere kantu ezagunenak ekarriko ditu Aretxabaletara. Bartzelonako Orkestra Arabiarra, Jaipurko Brass Band eta Tomas San Miguelen trititia dira Mundumiraren beste proposamenetako batzuk.

ELKARTASUN BRIGADAK

Maiatzak 22, 19:00etan, Bergarako Kultura Etxean

KI KOMITE
INTERNAZIONALISTAK

DONOSTIA
Iruresoro plaza (EGIA)
635 009 870 • 943 286 504

BILBO
Maionako galtzadak I, behea
Telf: 699 687 087 • 944 790 703

KUBA

VENEZUELA

BRASIL

KOLONBIA

PALESTINA

www.herriak.org

ARRASATE > ERDI AROKO AZOKA

Erdi Aroak jantziko du Arrasateko erdigunea

Zapatuko 11:30etik domekako 21:00etara, saltoki, tailer, ikuskizun eta animazio ugari alde zaharrean

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Bihar eta etzi, Erdi Aroko azoka egingo dute Arrasaten. Honako hau egiten duten laugarrena da. Udalak antolatzen du, baina Pegasus enpresa kataluniarra arduratzen da koordinazioaz eta azokaren kudeaketaz.

JENDEAREN GUSTUKOA

Lehenengo edizioak ika-mika batzuk piztu zituen, batez ere euskararen tratamendu eskasa zela eta, baina gerora arazo hori saihesten ahalegindu dira. Hala, badirudi jendearen gustukoa dela azoka hori.

Iturriotzen, Erdiko kalean, Seber Altuben eta Herriko Plazan 90 bat saltoki jarriko dituzte. Horietako batzuk tailerrak ere izango dira; hau da, saltokietan



JENDETZA Jende ugari ibiltzen da azokan. Argazkian, iazko azoka.

bertan zuzenean lanean arituko dira, jendeak langintza horien berri zehatza izan dezan.

EZKONTZA, DOKEREN ESKUTIK

Aurten ere artisau eta saltzaileen artean hainbat debagoiendar izango dira.

Bestalde, musika, antzerki eta bestelako ikuskizunak ere egingo dituzte. Horien artean, nabarmenezkoa da Doke antzerki taldeak antzeztuko duen *Ezkontza*. Josemari Velez de Mendizabalek idatzi du, XVI. mendeko ezkontzatan oinarrituta.

ARRASATE > 33 CL TALDEAREN KONTZERTUA

Hard rocka eta hardcore melodikoa 3.60 aretoan

Gaur, egubakoitza, 33 cl talde bartzelonarra eta Scam talde aretxabaletarra zuzenean

I.B. > ARRASATE

3.60 aretoan kontzertua iragarri dute gaurko, egubakoitza. Bartzelonako 33 cl taldeak *La siembra* diskoa aurkeztuko du. Talde horrez gainera, Scam talde aretxabaletarra ere izango da agertokian. Kontzertua doan izango da.

33 cl taldeak hard rocka egingo du, gazteleraz abestuta. Hala ere, nabarmendu beharra dago rock urbanoaren eragin handiak dituela; hala nola Barricada eta Marearena, esaterako. Hain zuzen ere, taldearen estreinako lanean Barricada taldeko *Drogas* izan zuten lagun.

Orain, *La siembra* bigarren diskoa aurkeztu dihardute, eta, aspaldian, Marea, Loquillo, Dikers eta beste talde askorekin batera jotzen dabilta.

SCAM TALDE SASOITSUA

Kataluniarren aurretik Scam talde aretxabaletarra arituko da. Iazko Danbaca lehiaketan maila ona erakutsi zuten, eta sasoiaren daude. Gaur egun Euskal Herrian hardcore melodikoa egiten duten taldeen arte-

an nabarmendu egin dira. Gazteak dira oso, baina emanaldi trinkoak egiten dituzte.

GAZTETXEKOA, BERTAN BEHERA

Bestalde, gaur, egubakoitza, Arrasateko gaztetxean egitekoa zen kontzertua bertan behera gelditu da. Antolatzaileek, esku hartu behar zuten herriko taldeek, uste dute Hate Edge talde madrildarra faxista dela. Haiekin, Aggressive Combat, Last Rebels eta Acero Condal taldeek jardun behar zuten.



MUSIC BUS

Estetikan azken iraultza

VelaSmooth

irradi-frekuentzia + argia

Estetikan azken iraultza aurkeztu dizu **Lirainek**

VelaSmooth

Modelatu zure gorputza teknologia berrienarekin

Pisua kentzeko, gorputza modelatzeko eta sendotzeko tratamendua bilatzen ari bazara, **zatoz Lirainera.**

Debagoiengan, **Lirainen bakarrik** aurkituko duzu **VelaSmooth teknologia** berria.

Teknologia, edertasunaren menpe

LASER promozioa!

Besapeak + izterrendoak = 99 €

VELASMOOTH promozioa!

10 saioko txartela = 2 doan + mantentze krema

Eskaintza baliogarria maiatzaren 31 arte.


LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA
Bixente ferrer, 1 ARRASATE

Informa zaituz:

943 79 52 17

KOROSTI
INMOBILIARIA

Ibargarai 3 • BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 97 97
www.inmokerosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Ibargarai 74 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua.
- Masterreka 92 m². Ondo.
- Osintxu 80 m². Berritua.
- Angiozar. Bi solairu. Berrituzko.
- San Pedro 110 m². Estreinatuzko.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- San Pedro 65 m². Prezio ona.
- Aranerrika 87 m². Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Ondo.
- Zubietza 60 m². Prezio ona.
- Ortubiar 97 m². Oso ondo.
- Osintxu 95 m². Prezio ona.
- Zubiurre 60 m². Berritua.

Elgeta:

- Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajea, terraza. Bista politik.
- San Roque 90 m². Berritua.
- Salvador 90 m². Igoailuarekin.
- San Roque. Prezio ona.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

BERGARA

- Bidekurutzeta, 82m², ia berria
- Anizuri, 97m², oso ondo
- Juan XXIII, 80 m², berritua
- Masterreka, 87m², oso ondo
- Zabalotegi, 50 m², berritua
- Bidekurutzeta, 60 m², oso ondo
- Zubiurre, 60 m², aukera ona
- Ibargarai, 80 m², ondo
- Arte kalea, 62 m², oso ondo
- Barrenkalea, 40 m², berritua
- Arte kalea, 158 m², duplexa
- Mugertza, 60 m², berria
- San Lorenzo, 18 etxebizitza berri garaje eta trastelekuarekin.

SORALUZE

- Gabolatz, 65 m², oso ondo
- Atxuri, 93 m², oso ondo.

ANTZUOLA

- Duplex berria, erdialdean.
- Eguzki auzoa, 85 m², erdi berritua.

IRAGARKI SAILKATUAK

Egubakoitz eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU; GAINERAKOAK 18 EURO (+BEZ-A) ORDAINDU BEHARKO DIRA MODULUKO. PREZIO BEREZIA: EGUBAKOITZETAKO ETA ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N, BIETAN ARGITARATUZ GERO, 25 EURO (+BEZ-A).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ONDATIKO UDALA

UDALTZAIN LAN POLTSA BAT ERATZEKO DEIALDIA

2007ko maiatzaren 10ean Oñatiko Udalak honako deialdia egitea onartu zuen eta baita hautaketa prozesua arautu behar duten oinarri arauak ere:

- Udaltzain lan poltsa**

Eskaerak aurkezteko epea **2007ko EKAINAREN 1ean** amaitzen da.

Hautaketa prozesuen oinarriak Oñatiko Udaleko Bulego Orokorretan jaso ahal izango dira.

Oñatin, 2007ko maiatzaren 15ean
Alkateak

Alfa
INMOBILIARIA
HIPOTECAS
Parroquia ondoan

Tel.: 943 77 19 19 / 677 49 89 89

ARRASATE

- Uribe Auzoa. 3 logela, sukaldea eta bainugela. 58.000.000 negoziagarriak.
- San Andres. 37.000.000
- Loramendi tonea.
- Uribuza. 3 logela. 38.000.000
- Galizia kalea. 3 logela, garbarra. 27.000.000
- Santa Marina. Primerako etxebizitza. 36.000.000
- Jauregi Barria. 72 m², garaje berritua. 42.000.000
- Zentroan. Etxebizitza berria, logela bat, igogailua.
- Zentroan. 115m², garajea.
- Erguin. Lokala

ESKORIATZA

- Zentroan. Etxebizitza berria. 51.000.000
- Intrabuzeta. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainu eta garajea. 55.000.000
- Olaeta. 3 logela, egongela, sukaldea eta bainua.

www.alfamondragon.com
orrialdean 7.000 etxebizitza baino gehiago aukeran

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasate Duplexa Otolara kalean. 2 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, igogailua eta 20 m²ko terraza. 696 79 43 89.

Bergara. Baseria salgai. Berritua. 350.000 euro. Telefonoa: 660 04 58 60.

Bergara. Boni Laskurainen 90 metro koadroko etxebizitza salgai. Erdia moldatua. Bizitzeko gertu. Prezio interesgarria. 628 26 65 77.

Bergara. Etxea salgai Simon Arrietan. 57 m², bi logela. Trastelekuarekin eta igogailuarekin. 649 63 11 74.

Debagoiena. Mutil gazte bat gertu edozein lanetarako. Telefonoa: 609 98 02 52.

Jaca. 2007ko abenduan jasota; urbanizazio pribatua, igerileku... Handia, 2 gela, sukaldea jantzitza, 2 terraza, garajea eta trasteleku. Kalitate handikoa eta gasa. Eguzkitsua eta Orol mendira begira. Aukera. 678 72 89 18.

Mijas Costa. Luxuzko urbanizazioaren etxea salgai edo errentan. 73 m², terraza handia, igerileku eta garajearekin. Aukera paregabea. 617 41 49 14.

Oñati. Aurten eraikitako etxea. 110 m². Lau logela, sukaldea, egongela, bi komun eta garajea. 670 85 85 41.

ARETXABAETA

Baster Alde jatetxeak esperientziadun zerbizaria behar du.

679 45 57 75

DEBAGOIENA

Arantzazurako garbitzaileak eta zerbizariak behar dira. Interesatuak bidali CV: gandiatopotagunea@gandiatopotagunea.com

Postaz: GANDIAGA TOPAGUNEA

Arantzazu auzoa z/g Oñati 20567

Erref.: Lan eskaintza GARBITZAILEA/ZERBITZARIA

ARRASATE

Esperientzia duen zerbizari eskalduna behar da jatetxe batean lana egiteko zapatuetan.

695 78 81 53

Oñati. Duplexa salgai erdialdean. 120 metro koadro. Kalitatezko materialak. Dena kanpaldera begira. Egongela-jangela, sukaldea, hiru logela, bi bainugela, ikasgela eta trasteleku. 943 78 34 89.

Oñati. Ugarkalden 1. eskuko pisuak salgai: 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta terraza handiak. oso eguzkitzua. 649 44 60 92 edo 645 71 98 84.

an. Leku zoragarria. La Barrosa hondartza oso gertu. 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

Noja. Apartamentua alokagai daukat Nojan. Duplexa da eta hondartza ondoan dago. Telefonoa: 696 90 94 43.

Peñiscola. Apartamentua eman-gotz nuke errentan Peñiscolan. Ekain, uztaile, abuztu eta iraileko. Igerilekua eta aparkalekua ditu. Hondartzatik gertu dago. Telefonoa: 943 79 48 82 edo 605 75 61 69.

Peñiscola. San Juanetan apartamentua errentan ematen dut. Guzti hornitua. Instalazio pribatuak. Hondartzatik 50 m-ra. 610 87 83 57.

Salou. Lau pertsonarendako apartamentua errentan. Ekainean, uztailean edo irailean. 689 21 72 08.

Tarragona San Carlos de la Rapita herrian, Ebroke deltako zonan. Urbanizazio pribatua etxeberria errentan ematen da. Hiru logela, egongela, jangela, bi komun, sukaldea, terraza, igerilekua eta garajea. Aire giro-tua. Uztaile eta irailekoak. 617 96 08 edo 687 63 90 22.

ESKORIATZA

Sukaldari eta sukaldari laguntzailea behar dira jatetxe-erretegi batetan aste bukaeretan lan egiteko.

662 13 27 55

DEBAGOIENA

Langileak behar dira Debagoieneko lantegi baterako

943 79 87 77

Vera (Almería). Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza errentan ematen da. Guzti jantzitza. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

105. ETXEA OSATU

Arrexabaeta. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Ekainetik aurrera. 653 70 50 68 edo 650 93 96 93.

S-MAX your life.



Ford S-MAX berria. Urteko Autoa 2007an European

24.000 € -tik aurrera

MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g ARRASATE



2/ GARAJEAK

201. SALDU

Arrasate. Garaje itxia alokagai Uarkapen. Deitu telefono honetara: 605 77 59 03.

Bergara. Garajea salgai San Antonian. 21 m², bi altuera. 21.000 euro. Deitu telefono honetara: 619 65 10 87.

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Roneon dagoen garajea errentan ematen dut. 90 euro hilean. 615 70 22 68.

Bergara. 108 m²-ko garaje itxia alokatzen da. Trasteleku, garajea... Zubiurren. Deitu telefono honetara: 943 76 23 53.

Bergara. Garajea errentan ematen da Ibargarai kalean. Telefonoa: 943 76 23 53.

4/ LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxea garbitzeko norbait behar dut astean bi aldiz, orduka. Deitu telefono honetara: 600 67 38 65.

Oñati. Emakume eskalduna behar da bi ume zaintzeko arratsalde. Deitu telefono honetara: 680 97 06 31.

402. ESKAERAK

Arrasate. Behebarruak, etxeak, tabernak... garbitzeko nituzke aste bukaeretan. Telefonoa: 678 40 57 04.

Arrasate. Emakume eskalduna gertu etxeko lanak edo pertsonak zaintzeko. 659 82 75 18.

Arrasaten bizi den neska gazte bat gertu etxeko lanak egiteko (orduka edo barneko langile), umeak edo nagusiak zaintzeko, garbitasun lanak egiteko (elkarrean edo komunitateetan). 620 72 27 30.

Bergara, Antzuola. Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko edota gaixoak, nagusiak edo umeak zaintzeko. Nineth. 630 42 56 84.

Bergara. Gizonezkoa gertu nagusiak zaindu edota etxeko lanak egiteko. 650 17 74 87.

Debagoiena. Emakumea prest garbitzeko lanak egiteko eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). Deitu telefono honetara: 637 21 97 04 edo 943 79 39 76.

Debagoiena. Emakumea gertu garbitzeko lanak egiteko (taber-

nak eta elkarrekin) eta umeak edo zaharrak zaintzeko (orduka). Deitu telefono honetara: 697 93 73 32.

Debagoiena. Emakumea gertu nagusiak edo umeak zaintzeko, sukaldari laguntzaile lan egiteko edo garbiketarako egiteko. Deitu telefono honetara: 695 78 48 25.

Debagoiena. Mutil gaztea gertu dago garbiketa lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko, zerbizari edota sukaldari laguntzaile lanak egiteko. 627 65 02 71.

Debagoiena. Neska gaztea prest zerbizari lanak egin edo ontziak garbitzeko. Autoa du. Telefonoa: 629 80 77 73.

Land Rover Discovery TDi. 1997ko maiatzekoa. 148.000 km. Ondo. 659 04 20 99.

Mobilette GAC 49 cc salgai. Matrikulatua dago. Oso egoera onean. 659 18 20 45.

Opel Astra salgai, 1200 euro. 1991 urtekoa eta 180.000 km. ditu. 620 53 83 27.

Renault Express furgoneta salgai. 55-AG. 600 euro. 943 76 18 96.

Trialerako motorra salgai. 1.600 euro. 690 81 64 39.

VW California. 1996. urtekoa. 636 28 00 07.

602. EROSI

Golf IV edo A3 TDi autoa erosi nuke. 3 atekoa. Beltza edo gris iluna. Gehienez 140.000 km. 646 80 21 96.

8/ DENETARIK

801. SALDU

Bizikleta estafitakoa eta abdominalak egiteko taula. 678 40 57 04.

Kanpin denda Boomerang salgai. 2 gela eta hall. 2006koa da oso ondo zaindua. 699 86 29 93.

Piragua. Prijon markakoa. 635 75 70 18.

802. EROSI

Txanpon eta bankuko billete zaharrak erosten eta saltzen ditut. 688 61 85 02.

806. GALDU

Bergara. Motxila eta kotsolako zortzi joko galdu ditut Espoioan. 659 05 63 82.

807. AURKITU

Patineteka aurkitu nuen Bergarako espooian. 666 21 57 72.

Super BM-k

Aukeratzen dituz Eskaintzen duguz

- Harakinak
- Kontratu mugagabeak
- Txarkuteriako dendariak
- Ekonomi baldintza onak
- Kutzazainak

Arrasate, Oñati, Legazpi, Eibar eta Zumarragako dendentzat.

Interesaturik daudenak dei dezatela Giza Baliabidetako departamentuko telefono honetara
638 824 020 / 943 668 208 eta Xabiergatik galdetu.

Erabaki al duzu non jarraitu zure ikasketak? Lan munduari zuzendutako unibertsitate batean ikasterik nahi?

Hala bada, etorri eta ezagutu MONDRAGON UNIBERTSITATEA bertatik, ATE IREKIEN SAIOETAN

➤ Oñatiko Campusa Maiatzak 24 (osteguna) 18:00

- Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Lizentziatura
- Zuzendari Idazkaritza

Lekua gorde telefonoz: Oñatiko Campusa 943 71 80 09

www.eeto.mondragon.edu

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES

hildakoak

- **Eugenio Igartza Loidi.** Bergaran, maiatzaren 10ean. 83 urte.
- **Felipa Urrutia Azkarate.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 83 urte.
- **Fermin Urkiola Velez de Guevara.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 74 urte.
- **Julio Ugalde Agirregabiria.** Arrasaten, maiatzaren 11n. 65 urte.
- **Antonio Osinaga Agirre.** Bergaran, maiatzaren 13an. 80 urte.
- **Elena Garitano Lizarralde.** Bergaran, maiatzaren 11n. 91 urte.
- **Julio Ibarluzea Orbe.** Elgetan, maiatzaren 13an. 83 urte.
- **Miren Galartza Zulueta.** Oñatin, maiatzaren 16an. 89 urte.



Bergarako **Julian Etxeberria** eta **Ventura Zumelaga** orain dela 50 urte ezkondu ziren, maiatzaren 14an, San Pedro elizan. Domekan ospatuko dituzte urrezko ezteiak familiakoekin batera. Zorionak, bioi, etxeko guztien partetik.



Arrasateko **Imanol Kerejeta** eta Zamorako Morales de Toro herriko **Lola Lopez** ezkondu zirela 40 urte beteko dira datorren eguenean, maiatzaren 24an. Egun berezi horretan etxekoek zoriondu egin nahi dituzte. Zorionak, bikote, eta urte askotarako.

URTEURRENA

Maria Pagaldai Etxeberria

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 12:30ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Javier Iturbe Linzoain

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

Luis Antonio San Torcuato Perez

Alcala de Henaresen hil zen 2007ko maiatzaren 5an, 49 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2007ko maiatzaren 18an.

URTEURRENA

Maritxu Gartzia Etaio
Antonio Iñarra Lizarralde



Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 12:50ean, Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Ignacio Zubillaga Leunda

Lehen urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 11:50ean, Antzuolako Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

VI. URTEURRENA

Gillermi Llano Etxegibel

Seigarren urteurreneko meza domekan, maiatzaren 20an, 11:30ean, Aretxabaletako San Migel parrokiaren.

Urak dakarrena urak daroa, zuk emandakoa gurekin gelditzen da.



Elizkizunetara joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:

OROITLORE
Hileta eta beilatoki zerbitzuak

Zerbitzu etengabea 365 egunean

Behar bagaituzue aski duzue dei bat, laster joango gara zuekin egoteko: etxera, ospitalera...

Erantzun azkarra, tratu pertsonala

Eskelak: egunkari, irrati eta paperetan
Aukera lore apainketan: koroak, erramuak eta zentroak

Bete beharreko tramiteak

Gorpua prestatu eta dotore ipini

Zerraldo aukera, denetariko prezioak

Oroilore beilatokiak hiru gela ditu, beila egiteko

Amillaga 27, Bergara
Tel.: 617 44 21 55 - 943 76 94 73 / Faxe: 943 76 94 76

ESKER ONA

Eugenio Igarza Loidi

Bergaran hil zen 2007ko maiatzaren 10ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2007ko maiatzaren 18an.

ESKER ONA

Ignacio San Jose Zua Zua

Andresa Loiti eta seme-alabeen izenean, urteurreneko mezara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi, eskerrik asko.



Bergaran, 2007ko maiatzaren 18an.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 01

Eskelaren prezioa: 87 euro.
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **100 euro.**


Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.




bila-bila 7



hitz gezidunak

	Pl., txori mota	Arras, oso	Zelaia
	* Irudiko aberea	Baldarra	Hitzarmen
	Jardun		
	(Infin.) Ezarri		
Bilkura	Antolatua		
Eskuko luzakinak	Garraio mota		
		Nitrogenoa	Biba!
		Aiako	
Zintzurra			Kontso-nantea
Zerbait			Kontso-nantea
		Jaurtiketa	
		Omen	
Non atzizkia	Nafarroako urtegia		Röntgen
Irakekoa	Potasioa		Kontso-nantea



umore giroan

Kike Amonarriz

BUSH-EN ESKAERA

Gutuna Etxe Zuriaren anagramarekin:

Adiskide horiek: AEBetako presidentek, terrorismoaren aurkako borrokan lagun diezadazuen.

Derrigorrezkoa da non eta nortzuk diren jakitea.

Musulmanak alkoholaren kontsumoaren aurkakoak dira eta bekatu dute beraiena ez den emakumea biluzik ikustea.

Langile deia, bihar 12etan: - Emakumeak biluzik joango dira eta gizonak atzetik, garagardoa edaten.

Gutuna benetakoa zirudien, Donostian zigilatuta zegoen!


Azkar jakin genuen etxe barruko bidaltzailea nor zen!

sudokua

8								
7			3	9				1
	6						3	
1	9	7						
	4		1	5		9		
				3	8		2	
	5				3			
6		9	4					7
2								8

hieroglifoa

Emakumezkoen izena




hizki salda

5 loren izena

M	A	N	A	P	I	L	U	T
N	A	L	A	R	R	T	A	G
A	O	R	I	M	A	G	E	R
E	R	U	G	R	E	R	I	T
D	K	D	H	A	A	E	U	R
I	S	E	A	N	R	L	D	R
K	N	F	I	E	I	I	O	A
R	A	O	A	J	I	O	T	H
O	A	L	A	R	R	O	S	A

soluzioak



A	R	A	K	A	I	R	A	I
R	S	E	N	A	S	A	R	E
O	R	T	R	E	Z	E	R	E
G	A	K	E	A	T	R	A	T
N	K	Z	A	K	H	A	T	H
A	U	A	T	E	R	A	T	B
U	T	A	R	I	A	R	I	A
A	X	I	N	U	A	I	A	A
L	T	E						

bono fotoa



Aretxabaletak dituen auzoetan ezezagunetariko batean daude argazkiko baserriak. Zein da auzo hori?

Argazkia eta galdera > Jose Felix Diaz de Tuesta

Super BM IFA

Super BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

Danone jogurtak zapozekoak
8ko packa

1,62 €
Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
Arrasateko TOMAS ERRARTErendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Sandaili edo San Elias.

8	6	9	1	5	3	4	7	2
7	5	1	2	4	6	8	3	6
4	2	3	2	4	6	7	8	6
2	1	8	3	4	9	7	4	5
6	9	6	5	7	9	6	3	4
3	4	2	1	8	5	7	2	6
4	3	4	3	1	8	9	7	2
9	4	1	6	5	7	8	2	3
1	7	2	5	6	3	9	4	8
5	8	9	3	2	1	4	6	7

Jeroglifiko: Elena.

A	L	A	R	O	S	A		
R	A	O	A	J	I	O	T	H
K	N	F	I	E	I	O	A	
I	S	E	A	N	R	L	D	R
D	K	D	H	A	A	E	U	R
E	R	U	G	R	E	R	I	T
A	O	R	I	M	A	G	E	R
N	A	L	A	R	R	O	S	A
M	A	N	A	P	I	L	U	T

Erdi Aroko IV. azoka

Maiatzak 19-20
Arrasate



ARRASATEKO UDALA

Diseinua: www.adoxnet.com

Laguntzailea:



Xabier Aranguren > Txirrindularia

"Aurten, oraindik, ez dut lasterketarik irabazi, baina ihesaldietan egon naiz"

Xabier Aranguren elgetarra Cafes Baque taldeko txirrindularia da. 12 urterekin hasi zen txirrindularitzan; lehenengo Lokatza taldean aritu zen, gero, amateur mailan ibili zen Debarrena taldearekin eta gaur-egun, Cafes Baque taldean arit da. Horrez gainera, Proiektu Mekanikoen Garapenerako Zikloa ikasi zuen Aranguren, Elgoibarko IMH institutuan.

ARANTZAZU EZKIBEL > ELGETA

Xabier Aranguren joan den astean izan zen azkeneko Gipuzkoako selekzioarekin. Urtero deitzen diote Gipuzkoako selekzioetik, baina, esan digunez, oraindik ez diote Euskadiko selekzioetik deitu. Denboraldian buru-belarri harrapatu du elgetarra.

Urte asko daramazu txirrindularitzan. Zenbat urterekin hasi zinen?

Txikitxotan hasi nintzen txirrindularitzan, 12 urte ingururakin. Lehenengo urteak Bergarako Lokatza taldean eman nituen, gazte mailara arte. Gero, amateur mailan Debarrena taldera pasa nintzen eta orain, Baque taldean nago. Hiru urte daramat Baquen; talde handia da, eta gogor entrenatu beharra daukagu.

Aurtengo denboraldia ondo doa, orain arte gustura egon naiz parte hartu dudana lasterketa ezberdinetan. Ez dut lasterketarik irabazterik lortu, baina hainbat ihesaldi hartu ditut eta gustura aritu naiz. Gainera, tarteko helmuga batzuk irabazi ditut.

Txirrindularitzan, irabazi duzun zein lasterketak egin dizu ilusio handien?

Bakarra irabazi dut, gazte mailan Arraten irabazi nuena. Izen handiko lasterketa zen sasoi hartan eta ilusio ikaragarria egin zidan Arraten irabazteak.


Nola uztartu dituzu ikasketak eta txirrindularitza?

Ez dut arazorik izan. Elgoibarko IMH institutuan ikasi dut ziklo bat eta ondo uztartu ditut ikasketak eta kirola. Goizetan izaten nituen eskolak; Elgoibartik bueltan, bazkaldu, eta arratsaldean entrenatzera ateratzen nintzen. Baina, egia esan, gaztetatik nabil txirrindularitzan eta ohituta nago eguneroko erritmorra. Ikasketak orain urte batzuk amaitu nituen, eta orain, txirrindularitzan bakarrik arit naiz.

Egunero, goizean jaiki, gosaldia eta entrenatzera ateratzen naiz. Entrenamenduak ez dira beti berdinak izaten; bi edo hiru ordu entrenatzen naiz egunean. Bestalde, neguan eta udan, entrenamenduak ezberdinak izaten dira. Neguan, gimnasioan egiten ditut entrenamenduak eta udan, bizikletan ateratzen naiz.

Gogorra izango da eguraldi txarrarekin errepidera atera behar izatea.

Egia esan, niri gustatu egiten zait. Ez dut arazorik izaten egu-



JOSETXO ARANTZABAL

PERTSONALA

Herria: Elgeta. **Adina:** 25 urte. **Ikasketak?** Proiektu Mekanikoen Garapena, Elgoibarko IMHn. **Zaletasunak?** Txirrindularitza eta musika. **Gorrotatzen duzu zer edo zer?** Gezurra eta faltsukeria. **Gomendatzeko moduko film bat?** *Perl Harbour*. **Egon zaren**

azken kontzertua? Ez naiz kontzertuzalea, musika irradian entzuten dut. **Baduzu maniarik?** Bai: oinetakoak janzten ditudanean ez ditut lotzen. **Gustuko duzun txirrindularia?** Armstrong; baita Vinokourov ere, txirrindulari gogorra da.

raldi txarra dagoen egunetan errepidera ateratzeko; hori bai, neguan, elurrarekin gehiago kostatzen da. Ni atera izan naiz, baina ez dakit merezi duen. Elur asko dagoenetan mendiko bizikleta hartzen dut.

Ze eremutan aritzen zara guturago, lauan ala mendian?

Elgetan bizi naiz; beraz, Elgetara etortzeko bai alde batetik bai bestetik igo egin behar dut; igotzera ohituta nagoela esan daiteke. Entrenamendua lauan egin gura badut, autoa hartu beharra daukat, itzultzerakoan Elgeta bizikletan ez igotzeko.

Bestalde, ez nuke esango lauan edo mendian, non naizen hobe. Nik uste dut gaztetan eremu guztietan ibili behar dela ondo. Gainera, egunaren arabea ere izaten da; ondo zoazenean, eremu guztietan mugitzen zara ondo, baina egun txarra izanez gero, orduan izaten dira kontuak! Eremu batean edo bestean hobeto ibiltzearena profesionalen kontua dela uste dut.

Txirrindularitza oso kirol sakrifikatua da; gaztea izanda, nola moldatzen zara parranda eta entrenamenduak ondo uztartzeko?

Ez dut arazorik izaten, ez naiz-eta ateratzen. Denboraldi amaieran ateratzen naiz, urrian, eta orduan aprobetxatzen dut parrandak egiteko. Urteko beste hilabete guztiak etxean ematen ditut, eta ez zait gogorra egiten. Gaztetatik ez ateratzera ohituta nago; beraz, ez dut faltan sumatzen. Urria aprobetxatzen dut parrandak egin eta atsedean hartzeko; gero, azaroan, berriro ere hasten gara entrenamenduetan.

Zapatuan hasi zen Italiako Giroa. Jarraitzen duzu telebistaz?

Bai, beti ikusi izan dut txirrindularitza telebistaz; baita ere beste kirol batzuk, baina txirrindularitza da gehien gustatzen zaidana. Markel eta Iban ondo ikusten ditut; nik uste dut ondo ibiliko direla eta ihesaldiren bat hartzeko aukera asko dutela. Velasco, gainera, sailkapen orokorrean nahiko ondo ibili da. Markel, berriz, ihesaldietan ikusiko dugu.

Zein da Giroa irabazteko zure favoritoa?

Savoldelli eta Simoni ikusten ditut gogor aurtengo Giroan.



SAIO BERRIA Miren Arregi oñatiarrak aurkezten du Zu kazetari GOITBko saio berria.

GOITB

GOITB > 'ZU KAZETARI'

GOITBko ikusleen grabaketak emango ditu 'Zu kazetari' saioak

Norbanakoek, elkarrekin, taldeek, ikastetxeek... eurek egindako grabaketak GOITBra bidaltzeko aukera dute, 'Zu kazetari' saio berriari emititzeko

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

GOITBko ikusleak kazetari, gidolari, kameralari... izan daitezke orain, Zu kazetari saio berriari esker. Joan den eguaztenean ikusi ahal izan zen emaitza bat: Arizmendi ikastolako ikasleen moda desfilea eman zuten, eta berriro ikusteko aukera ere izango da bihar, zapatua, 16:00etan, eta etzi, domeka, 19:00etan.

Edozein norbanakok, lagun taldek, elkartek, ikastetxeek... parte har dezake programa berriari. Horretarako, GOITBko egoki izan daitekeen grabatutako materiala bertara bidali besterik ez du; harremana egin daiteke goitb@goiena.com e-postan edo 943 71 23 96 telefonoan. Ez da aparteko maila teknikorik eskatzen, baina bai gutxienezko kalitate maila. GOITB material hori ikusiko du, eta, emateko moduko ikusten badu, tartea egingo dio Zu kazetari-n.

OSO ALDAKORRA

Saioa ordu erdikoa da; eguaztentean aurrerapena emango dute, eta aste bukaeran emango dute osorik. Hala ere, oso saio aldakorra izango da, jasotzen den materialaren eta, batez ere, horrek irauten duen araberak: adibidez, bidali daitezke bideoak

edo grabaketa laburrak, eta, orduan, horrelako hainbat batu eta saio berean emango dituzte. Miren Arregi kazetariak aurkeztuko ditu grabaketak.

Eduki aldetik, saioa oso zabala da: mendi irteerak, antzezlanak, taldeko ekintzak, bideoak eta beste asko kabitzen dira Zu kazetari-n. Emisio ordua edukaren, iraupenaren... araberak aldatuko da; ez da finkoa izango.

ALBISTEAK ERE BAI

Ikusleei gonbidapena harutzago doa, Oihane Agirre GOITBko programazio zuzendariak dioenez bezala: "Saio honetarako bakarrik ez; albiste izateko moduko ezer gertatzen bada eta herritarra gure kamerak baino lehenago iristen bada, guretzat interesgarria da material hori jasotzea, berdin kamerarekin, poltsikoko telefonoz... grabatuta egon".

teknologia berriak

> ORDENAGAILU ERAMANGARRIAK

MacBook gama eguneratua: prozesagailu azkarragoak, RAM eta disko gogor handiagoekin

Apple etxeak martitzenean MacBook gama eguneratu zuen. Modelo berriek 2,0 GHz-ko Intel Core 2 Duo prozesagailuak dituzte, gigabit bateko RAM memoria (512 MBko bi SODIMM modulu) modelo guztietan (2 GBraino handiago daitezkeena). Disko gogorraren edukiera 200 GBraino handitu daiteke.

Hiru modelo ezberdin daude eskuragarri, hirurak 13 hazbeteko pantailarekin. Salneurriak: 999 eurotik 1.399 eurora bitartean.



MacBook bera da oraingo hori, baina lehengo baino azkarragoa eta salneurri berean.

> MP3 ERREPRODUZIGAILUAK

Tune Phones: MP3 erreproduzigailua barneratuta duten aurikularrak

Herrington etxearen aurikularrak kirolarientzako aproposak izan daitezke. MP3 erreproduzigailua barneratuta dute eta buruaren atzealdean sostengatzen dira, betaurrekoekin, kaskoarekin eta bestelakoekin trabarik ez egiteko. Eskuineko aurikularrean dituen botoiekin maneiatzen da. 512 MBko memoria (160 abesti MP3 formatuan) du eta ekoizlearen arabera zortzi orduko iraupena du.

Salneurria: 60 euro.



Eskuineko aurikularrean dituen botoiekin maneiatzen da erreproduzigailua.

> USB GAILUAK

51 txartel formatu irakurtzen duen bluetootha eta hiru USB konektore dituen txartel irakurgailua

Hori ez da ohiko txartel irakurgailua. USB bidez ordenagailura konektatzen da eta 51 formatu ezberdin irakurtzeko gai da. Formatuen artean daude argazki kamera eta sakelako telefonoetan ohizkoak diren txartelak. Brando aparailuarekin, bluetooth estandarra ez duten ordenagailuekin haririk gabe komunikatzeko aukera dago. Horrez gain, Hub bat balitz erabil dezakezu barneratuta dituen hiru USB portuak erabiltzeko.

Salneurria: 22 euro.



Askotariko txartelak irakurtzeaz gain, hiru USB konektore eta bluetooth gailua barneratuta ditu Brando aparailuak.

Erantzun webgunean eta iPod bat irabazi!



Praktikak eginez enpresetan, zenbat ordu egiten dira Arizmendi ikastolako LANBIDE HEZIKETAN?

www.arizmendi.ikastola.net/lanbide

Arizmendi Ikastolako Lanbide Heziketa

A
Arizmendi
ikastola

berriak

> GOITB

'Zu kazetari' saio berrian zuek zarete protagonista

Aste honetan estreinatu da Goiena Telebistan *Zu kazetari* saioa. Izenak berak dioen moduan, herritarrak izango zarete protagonista saio berri horretan; izan ere, kazetari, kamerari eta giduigile lanean jarduteko aukera eskainiko zaizue.

Lehenengo saioa zapatuan 16:00etan eta domekan 19:00etan eskainiko dute. Arizmendiko ikasleen moda desfilea ikusiko dugu.

> GOITB

Etxeko txikienei eskainitako zorion agurrak GOITBn

GOIENKARIAn eta *Goiena.net* webgunean egiten den moduan, GOITBk ere badu etxeko txikienei eskainitako zorion agurren tartea. 0-12 urte bitarteko haurrei eskainitako tarreak dira eta, egunero, marrazki bizidunen aurretik eta ondoren emititzen dira. Beraz, etxeko txikiak telebista bidez zoriondu nahi badituzu, bidali zorion agurra www.goiena.net-era eta bertatik bideratuko dute.

> ARRASATE IRRATIA

Lorategiaren geltokia, besteak beste, asteburuan entzungai

*Asteko gainbegiratu*a saioan, astean irradian egindako hainbat elkarrizketa berreskuratzen ditugu; oraingoan, Irene Zenitagoia lore adituak kontatutakoak batuko ditugu. Horrela, bada, Bergarako Gorosti loradendako adituak etxeko balkoiak landare usaintsuekin janzteko aholkuak emango dizkigu.

Horrez gain, AUKEA saria jaso duten kirolarien esanak ere eskainiko ditugu.

> ARRASATE IRRATIA

Inazio Lakuntza egubakoitzean 'Igo autobusera' saioan

Udal hauteskundeak hurbil daudela-eta, Arrasateko alkatezarako hautagai batzuekin izan gara astean. Helburua alderdi guztien esanak entzutea dugunez, datorren astean beste ordezkari batzuk izango dira irradian.

Egubakoitzean, Inazio Lakuntza izango da FMko 107.7an. Amaitzean dagoen agintaldiaren balantzea egiteko eskatuko diogu, ekainaren 16ra arte alkate kargua utziko ez duen arren.

FUTBOLA>ZAPATUAN (20:00) ETA DOMEKAN (12:00)

Mondra-Aloña, denboraldiko azken derbia ikusgai

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Atxabalpen jokatu da denboraldiko azken derbia

GOIENKARIA > ARRASATE

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan jokatu dute Aloña Mendik eta Mondrak denboraldiko azken derbia. Mondra, 49 punturekin, bosgarrena da sailkapen nagusian, eta Aloña Mendi, berriz, 39 punturekin, hamai-kagarrena. Ez dago ezer jokoa, eta, beraz, lasai asko jokatzeko partidua da asteburukoa. Azkoagainen jokatu zuten joaneko partiduan 3-3 egin zuten. Aipatzekoa da, baita ere, Atxabalpen jokatu den azken partidua izango dela asteburukoa, datorren urtean Mojategin izango du eta Mondrak futbol zelaia.



DERBIA Mondra-Aloña derbia eskainiko du GOITBk zapatuan.

GOIENKARIA

'HAUTESKUNDEAK' > KANPAINAREN JARRAIPENA

Hauteskundeen inguruko saio bereziak emititzen jarraituko du Goiena Telebistak

GOIENKARIA >

Aste honetan hasi dira hauteskundeen inguruko saio bereziak eskaintzen Goiena Telebistan, eta datorren astean ere, herririk herri, hautagaien proposamenak ezagutuko ditugu falta diren herrietan. Gaur

bertan, Eskoriatzako hautagaien txanda izango da; astelehenean, hilaren 21ean, Aretxabaletako hautagaiena; eta eguztenean, hilaren 23an, Oñatiko hautagaiak ikusi ahal izango dituzue. Bergarako hautagaien proposamenak maiatzaren 24an,

eguna, eskainiko dira eta Arrasateko hautagaien proposamenak, aldiz, hilaren 25ean. Bestalde, martitzenean, hilaren 22an, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako hautagaiak izango dira Goiena Telebistan: EAE/ANVtik Antxon Gomez, EAJtik Markel Olano, EAatik Iñaki Galdos eta Aralar-EB taldeetik Rebeka Ubera. Saio horiek guztiak 21:47an izango dira. Gainera, asteburuan (ikus GOITBko programazioa), aste honetako hauteskundeetako bost saioak izango dira berriro ikusgai.

telebegi

Unai Loidi

'Dutifri'

Lehenengo astean ikusmina neukalako, eta bigarren astean zereginik ez neukalako, azken bi domeketan ikusi dut Javier Sardaren programa berria: *Dutifri*. Sardaren bidaia programa dela irakurri dut nonbaiten. Sardaren bidaien programa zela iruditu zitzaidan niri, lehenengoa ikusita batik bat. Oso protagonista da bera. Amazonasera joan, Loles Leon takoidun zapatekin eramán (bere paperean, noski), behin eta berriz esan turista tipikoaren begirada albora utzita ibili nahi duela, Amazonasera tribuekin ritoetan parte hartu (ez dakit ondo haien kontura barre egin nahi zuen, ala berak agertu nahi zuen barregarri)... Telebista kate batek Sarda edo antzekoren bati bakarrik baimendu diezaioketen produktua da *Dutifri*.

Munduan zehar dabil bidaiari, eta bertan bizi diren espainiarrekin egoten da. Bigarren programa, Filipinetakoa, erabat desberdina izan zen lehenaren aldean. Interesanteagoa, fribolidade gutxiagokoa. Ez bakarrik Paco Larrañagarekin egon zelako. Hurrengo domekan ere, ea zereginik gabe nagoen eta ikusten dudana.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Jon Garai, Erdi Aroko azokaren gainean; lorategiaren geltokian, landare usainduak berbagai; AUKEA sariei buruz sarituekin elkarrizketa; eta abar.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzea

10:00-12:00 Igo autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Merkatu txikiaren geltokia
Elkarrizketak
Meteorologiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 Igo autobusera! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

17:15 Zorion agurren tartea (errep.)

20:00 Hauteskundeak 2007 saioa

GOITBko programazioa

Egubakoitzea, 18

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07:Antzuola. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Ikusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu. 16:15Eltze beroa 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45Gaurkoak. 17:47 Erreportajea. 18:15Musikantoi. 18:45Albisteak. 19:15 Erreportajea. 19:45Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15Tecnopolis. 21:45Gaurkoak. 21:47 Hauteskundeak 07-Eskoriatza. 22:15Ilunpean. 22:45Berriak. 23:15Ikusten. 23:45Gaurkoak. 23:30Kirolari. 00:15Emisio amaiera.

Zapatua, 19

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Boboboak, Calimero eta Trikitraka trikitron. 11:00 Ikusmira. 11:30Kirolari. 12:00 Astekoak. 12:15Klip@. 12:30 Hauteskundetarako saioak. 16:00 Zu kazetari. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30Klip@. 20:00Ikusten. 20:30 Erreportajea. 21:00Klika. 21:305+5. 22:00Astekoak. 22:15Ikusten. 22:45Ilunpean. 23:15Didjeridu. 23:45Musikantoi. 00:15 Emisio amaiera.

Domeka, 20

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Calimero, Boboboak eta Trikitraka trikitron. 11:00Ikusten. 11:30Musikantoi. 12:00Ur eta lur. 12:30Klip@. 13:00Kirolari. 13:30Erreportajea. 14:00Didjeridu. 14:30Ilunpean. 15:00 Ikusmira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00Tecnopolis. 18:30Ikusten. 19:00 zu kazetari. 20:00 Ur eta lur 20:30 Hauteskundetarako saioak. 00:00 Musikantoi. 00:30Emisio amaiera

Astelehena, 21

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07-Eskoriatza. 14:15 Ikusten. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klika. 16:15Erreportajea. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta lur. 18:45Albisteak. 19:15Kirolari. 19:45Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15Harmaillatik. 21:45Gaurkoak. 21:47 Hauteskundeak 07-Aretxabaleta. 22:45Berriak. 23:15Didjeridu. 23:45Gaurkoak. 23:30Ikusmira. 00:15Emisio amaiera.

Martitzena, 22

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07-Aretxabaleta. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Harmaillatik. 16:15Ikusmira 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45Gaurkoak. 17:47Ilunpean. 18:15 . 18:45Albisteak. 19:15 Harmaillatik. 19:45Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45Berriak. 21:15Berbaire. 21:45Gaurkoak. 21:47Hauteskundeak 07-Batzar nagusiak. 22:45Berriak. 23:15Ikusten. 23:45Gaurkoak. 23:30Musikantoi. 00:15Emisio amaiera.

Eguaztena, 23

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak: Calimero. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07-Batzar nagusiak. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Berbaire 15:45 Gaurkoak. 15:47Didjeridu. 16:15Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Calimero. 17:45Gaurkoak. 17:47Harmaillatik. 18:15Erreportajea. 18:45Albisteak. 19:15 Tecnopolis. 19:45Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Calimero. 20:45 Berriak. 21:15Zu kazetari. 21:45Gaurkoak. 21:47Hauteskundeak 07-Oñati. 22:45Berriak. 23:15Berbaire. 23:45Gaurkoak. 23:30Ur eta lur. 00:15Emisio amaiera

Eguena, 24

13:15Emisio hasiera. 13:20Marrazki bizidunak: Boboboak. 13:45Gaurkoak. 13:47 Hauteskundeak 07-Oñati. 14:45Albiste aurrerapena. 15:15Eltze beroa. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Teleaia. 16:15Ikusmira 16:45 Albisteak. 17:15 Boboboak. 17:45Gaurkoak. 17:47Eltze beroa. 18:15 Tecnopolis. 18:45Albisteak. 19:15 Klika. 19:45Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Boboboak. 20:45Berriak. 21:15Berbaire. 21:45Gaurkoak. 21:47Hauteskundeak 07-berbaire. 22:45Berriak. 23:15Didjeridu. 23:45Gaurkoak. 23:30Musikantoi. 00:15Emisio amaiera.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behe, ezk / 943 77 13 34

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behe / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ARATZ KLINIKA (LAZPIUR ROMAN)

Bergara / Zurradero 6, behe / 943 76 70 67 / 607 48 71 19

ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENeko ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOIEN VICTOR

Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / Zerkaosteta 19, behe / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behe / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behe / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

OÑATI / ATZEKO KALEA 6, BEHEA / 620 124 843 / 943 71 61 82

DIETISTAK

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka 11, behe / 943 76 33 99 / 646 43 34 58

RAQUEL PEREIRA GALDOS (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Nafarroa etorbidea 3 / 943 79 44 22

ENTZUMEN ZENTROAK

GAES

Arrasate / Otalora Lizentziaduna 18 / 943 71 27 93

INSTITUTO OPTICO - BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ITZIAR UGARTE OPTIKA - AMPLIFON

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXE

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

BASTERRETXE MARIA

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

EKIN FISIOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Belorrieta 6 - 7 / 943 79 95 64

IONE MOÑUX FISIOTERAPIA ZENTROA

Bergara / Burdiñate 2 / 943 76 21 31

IRATZARRI FISIOTERAPIA LOGOPEDIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri etorbidea 7 / 943 53 39 90

UNZUETA IRENE. SAN MARTIN OSASUNDEGIA.

Bergara / Ramon Maria Lili 2 / 943 76 59 39

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

IRATZARRI LOGOPEDIA FISIOTERAPIA ZENTROA

Arrasate / Uribarri Etorbidea 7 / 943 53 39 90

MASAJISTAK

ABUIN JOSE LUIS

Arrasate / San Josepe 10, behe D - Kiroldegian
943 77 01 33 / 943 77 16 77

ARANTZABAL SAIOA

Elgeta / Domingo Iturbe 10 / 646 50 00 29

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salvador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behe / 943 76 73 43

CASANELLAS JABIER

Bergara / Boni Laskurain 5-2E / 943 76 03 78

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

ITZIAR OPTIKA

Oñati / Kale Barria 32 / 943 71 82 88

ITZIAR UGARTE OPTIKA

Arrasate / Arrasate Pasealekua 35-37 / 943 08 26 87

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Arrasate / J. Carlos Guerra 1 / 943 79 29 95

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEBERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behe / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behe esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA ZENTROA

Bergara / Herri lagunak z/g / 943 76 14 80 / 610 05 99 55

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerías 56 / 943 79 44 22

YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behe / 943 76 11 38 / 639 235 753

Maiatzak 18-25

MONIKA BELASTEGI

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Musika



ARETXABAETA

> Azkaiter Pelox musikariak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza

Unai Azkarate –Azkaiter Pelox– musikariak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza, Ezkutu tabernan. 22:00etan izango da kontzertua. Bergarako musikariaren hurrengo emanaldia hilaren 28an izango da, Bergarako Pazkoetan.

Azoka



ARRASATE

> Erdi Aroko azoka egingo dute aste bukaeran erdiguneko kaleetan

Laugarren aldiz egingo dute Erdi Aroko azoka Arrasaten. Erdiguneko kaleak jaki eta artisaun postuz eta ikuski-zun ugariz jantziko dira. Zapatuan eta domekan egongo da zabalik azoka, egun osoan zehar, 11:30etik aurrera.

Musika



OÑATI

> Sospechosos, Obligaciones, Sex Museum eta Gatillazo, Errekalden

Errekalde auzoko jaien barruan egingo dute emanaldia Sospechosos (Oñati), Obligaciones (Gasteiz), Sex Museum (Madril) eta Gatillazo (Euskal Herria) taldeek. Gaur, barikua, izango da emanaldia, 21:00etan. Doan da.

ARRASATE

> San Juanetako kartel lehiaketa deitu du Udalak

Lanak teknika librean egin ahalko da, baina kartelak derrigorrez 2007 San Juan jaiak Arrasate testua izan beharko du. Irabazleak 750 euroko saria eroango du. Lanak aurkezteko azken eguna da maiatzaren 25a.

Informazio gehiago: www.arrasate-mondragon.org.

ARRASATE

> Indarkeria sexistaren kontra diseinu lehiaketa

Emakumeekiko Indarkeriaren Kontrako Plataformak deitu du eta kanpaina baten barruan dago. *Tratu egokien edo harreman duinen aldeko kanpaina* izendatu dute. Besteak beste, kamisetak aterako dituzte; hala, kamiseten diseinuaren lehiaketa deitu dute. Edonork har dezake parte. Freehand formatuan egin beharko da, eta CDan aurkeztu. Bestalde, leloa ere izan beharko du diseinuak. Hilaren 31 da mugaeguna.

Informazio gehiago: 943 79 41 39.

Musika

ESKORLATZA

> Arrasate Musikaleko hari laukotearen emanaldia

Amaia Garro (1. biolina), Amaia Artzamendi (2. biolina), Dometx Uzin (biola) eta Igor Egidon (biolontxelo) arituko dira.

Gaur, egubakoitza, 22:30ean, Ibarraundi museoa.

OÑATI

> Jonah Smith AEBetako bakar-lariaren kontzertua

New Yorken bizi den kantari eta piano joleak rock-and-rolla ekarriko du.

Etzi, domeka, 20:00etan, gaztelekuan.

BERGARA

> Musika Eskolaren XIX. Udaberriko Kontzertua

11:30ean trikiti taldeak kalejira egingo du eta 12:30ean izango da emanaldi nagusia, pilotalekuan. Han, Musika Eskolako talde gehienek egingo dute emanaldia. Gero, herri bazkaria egingo dute Espoioan.

Etzi, domeka, 12:30ean, pilotalekuan.

OÑATI

> Oñatiko Ganbara eta Gasteizko Da Voce abesbatzen saioa

Musikegunak egitarauaren barruan egingo dute emanaldia. 1950. urtetik aurrerako polifonia erlijiosoan oinarrituko dira. Esteban Urtzelai izango da zuzendaria.

Etzi, domeka, 19:30ean, Santa Ana aretoan.

Erakusketak

BERGARA

> Aitor Sarasketa eta Manu Muniategiren lanak ikusgai

Gaur irekiko dute erakuske-

ta, 19:00etan. Sarasketa eibartarrak margoak erakutsiko ditu. Muniategi bergararrak *Instrucciones para naufragos. Soilik itxuraz* liburua. Marrazki erotikoz eta Harkaitz Canoren testuz egindako tirada mugatuko liburua da hori; Arco ferian aurkeztu zuen.

Hilaren 29ra arte, Aroztegi aretoan.

BERGARA

> Elorrioko Eskulan Margo taldearen erakusketa

Begarako Juanjo Akizu margolariaren ikasleak dira erakusketa jarri dutenak.

Hilaren 19ra arte, kultura etxeko erakusketa aretoan.

Antzerkia

ESKORLATZA

> Enkarni Genuaren txotxongilo taldearen emanaldia

Zergatik bizi da Txanogorritxoren amona basoan? izeneko antzezlan eskainiko dute.

Hilaren 24an, eguena, 18:00etan, liburutegian.

Hitzaldiak

BERGARA

> 'La guerra civil de 1936 en Euskal Herria' hitzaldia

Santiago de Pablo historiariari egingo du hitzaldi hori.

Hilaren 23an, eguaztena, 18:30ean, Miguel Altuna institutuan.

Lehiaketak

BERGARA

> Kirol argazkien lehiaketa deitu dute Udalak eta Pol-Polek

Euskadin bizi den edozein zalek har dezake parte. Gaia

kirola da eta zuri-beltzean zein koloretan aurkeztu ahalko dira lanak. Lanak Bergarako udaletxera eroan daitezke edo postaz bidali: Udal Kirol Zerbitzua (argazki lehiaketa). San Martin plaza.

Irailaren 12a da mugaeguna.

ESKORLATZA

> San Pedro jaietarako esaldi eta kartel lehiaketa deitu ditu Udalak

Esaldi lehiaketan 13 urtetik gorako edozein eskorlatzarrek har dezake parte, 3-5 lagun bitarteko taldeak sortuz. Esaldiok aurkeztu beharko dira hilaren 25etik ekainaren 3ra bitartean. Jaietako egitarauko azalaren kasuan, edonork har dezake parte. Kartelak derrigorrez eroan behar du esaldi hau: *2007ko San Pedro Jaiak, Eskorlatza*. Lanak aurkezteko mugaeguna da ekainaren 1a. Informazio gehiago kultura zerbitzuan.

PROPOSAMENA

ARETXABAETA

> Euskararen Eguna ospatuko dute bihar, zapatua

Loramendi Euskara elkarteak antolatuta, Euskararen Eguna ospatuko dute. 10:00etan, mendi ibilaldia egongo da Murruxikorekin; 11:00etan, Leizarra musika eskolako trikitilariak kalejira egingo dute; 12:00etan, inguruko baserrietako gazta eta sagardo dastatzea egongo da; 12:45ean, txalaparta saioa; 13:00etan, bertso saioa; 14:30ean, baba-jana; 19:00etan, Larrain dantza eta 20:00etan, Tirri Tarra fanfarrea.

Bihar, zapatua, egun osoan.



Ospakizunak

BERGARA

> Kilometroen aldeko kantu poteoa deitu dute

Herritar zein herriko abesbatza guztiei dei egiten diete kantu poteoan parte hartzeke.

Gaurko, egubakoitza, egin dute hitzordua, 19:30ean, San Martin plazan.

BERGARA

> Zubiaurre-Martoko auzoko jaiak aste bukaeran

Aszensioko jaiak ospatuko dituzte. Besteak beste, egongo dira: bihar, zapatua, umeendako jolasak 17:00etan, herri afaria 21:00etan eta dantzaldia Tucan taldearekin, 23:00etan. Domekan, txokolate-jana egongo da 09:00etan.

Zapatuan eta domekan.

Ikastaroak

BERGARA

> Jardun elkarteak gitarra ikastaroa antolatu du

Gitarra espainiarreko ikastaroa antolatu du eta Ibon Larrañaga izango da irakaslea. Maiatzaren 26an hasi eta sei aste iraungo du, eguaztenetan, 19:00-20:00.

Izenematea Jardunen: 943 76 36 61.

BERGARA

> Beart taldeak margo eta marrazketa ikastaroa egingo du

Uztailean izango da, 5 eta 13 urte artekoendako. 10:00etatik 12:00etara izango dira eskolak.

Izenematea: 626 73 38 79 (Ainhoa), 635 71 32 69 (Maite) eta 665 70 31 75 (Oihana).

Arizmendi pizza Kalifornian

ARIZMENDI Hiru okindegik osatzen dute Arizmendi Bakery Kooperatiba: Oaklanden, San Frantziskon eta Emervillen daude

SAN FRANTZISKO Badiako biztanleak naturaz eta ingurumenaz arduratzen dira; uharte moduko bat da badia

KALIFORNIA 1960ko hamarkadan hippy mugimenduaren sorlekua izanik, orduko hainbat baliori eusten diote

PAULA SAENZ DE VITERI > KALIFORNIA
San Frantziskoko badiako biztanleek Estatu Batuetako uhartetzat daukate euren bizilekua. Natura eta ingurumenaz asko arduratzen da jendea hemen, eta inguruko supermerkatuetan, esaterako, zaila da coca-colak aurkitzea: produktu naturalak dira nagusi. 1960ko hamarkadan hippy mugimenduaren sorlekua izanik, ulergarria da oraindik ere orduko hainbat baliori eustea. Horren harira, ez da harritzekoa Jose Mari Arizmendiarrak sortutako kooperatiba mugimendua ezaguna izatea Kalifornian.

Orain dela 15 urte inguru Oaklandeko gazte ekintzaile talde bat elkartu zen kooperatiba bat sortzeko asmotan. Hasiera baten, San Frantziskoko Rainbow kooperatiba hartu zuten eredu, baina ondoren MCCren berri izan zuten eta bide hura jarraitzea erabaki zuten. Gaur egun, hiru okindegik osatzen dute Arizmendi Bakery Kooperatiba: San Francisco, Oaklanden eta Emervillen

kokatuta daude. 100 langile inguru dira kooperatiban, eta etorkizunean, erabiltzen dituzten produktuen ekoizpena euren esku izatea da haien asmoa. Era berean, Oakland inguruan beste bi okindegi irekitzeko asmoa daukate hurrengo urteari begira.

ARIZMENDIARRIETA 'PIZZA EGILEA'
Oraingoz, hiru okindegiaren produktu berak saltzen dituzte: inguruko baserrietako produktu ekologikoekin egindako ogi, pastel eta gozokiez gain, entsaladak eta pizzak eros daitezke bertan. Pizza kaxetan Arizmendiarrietaren irudia dator, pizza labean sartzeko unean. Era berean, esperientzia kooperatiboaren berri ematen dute testu labur batekin. Kaliforniako Arizmendi okindegiko kooperatibista da Aron. Hark esan digunez, euskaldun ugari joaten da okindegira. Harrigarria iruditu zaie Aroni eta haren lankideei Arizmendi izenaren itzulpena; izan ere, Oaklandek haritz lurra esan nahi du. Kointzidentzia bitxia.



KALIFORNIAN Arizmendi okindegiaren bat eta alboan Arizmendiarrietaren irudia duen pizza.

PAULA SAENZ DE VITERI

ahobero

"Zinemako izar bat jainkosa izatera heltzeko, beharrezkoa da 60 urte gailur zinematografikoan egotea"

Sara Montiel
> Aktorea

Beharbada ez da horrenbesterako, ala? Momentu egokian erretiratzea ez da erraza gertatzen, baina behin adin batera heldu eta gazte jarraitzen ahalegintzea ere...

iturri onetik

Afrikako errealitatearen gaineko astea Arantzazun, ekainean

Afrikaren gaineko astea ospatuko da Arantzazun ekainaren 4tik 10era bitartean. *Arantzazu, Afrikarekiko elkargune* da ekimenaren izenburua eta Baketik zentroak antolatuta du. Afrikako egoera gure gizartera hurbiltzea da antolatzaileen helburu nagusia. Afrikako errealitateetara hurbiltzeko ikastaroak izango dira Arantzazun eta asteburuan hainbat jarduera sozio-kultural egin dituzte bertan.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Hautagaiak

Epaitegiek azken hitza esan dute eta ofizialak dira dagoeneko zerrendak, ofizialki atzera botatakoak barne. Aldez edo moldez, horiek ere aterako dira 27ko argazkian.

Gaurkoan, errespetua azaldu nahi diet hautagai izateko urratsa eman duten herrikideei. Ez baita gauza samurra hautagai izatea, are gutxiago sari handirik espero ez denean. Kalkulu azkarrean, mila inguru hautagai izango ditugu Debagoienean, bederatzi alkate, ehun inguru zinegotzi eta batzarkide apur batzuen postuak betetzeko. Ehuneko hamarrak izango du balizko saria.

Besteei buruz, ibiliko da esamesa: 'zer dela uste du horrek', edo 'nahiko du halako'... Ez dira hurbileko politikaren garai onenak, ospe onaren aldetik. Bihoakie, beraz, nire aitortza ausartu direnei.

ai, ene!



Kapela ez, kasko bakeroa motorzaleentzat

Ez dakizula zulatutako praka bakeroekin zer egin? Motorreko kaskoa egiteko erabil ditzakezu; motorrik baldin baduzu, noski.

<http://tinyurl.com/27zg6j>

Bisita ezazu Gipuzkoako sukalde, armairu eta bainugelaren erakusketa handiena

Armeko
Sukalde Integrala

31 sukalde baino gehiago ikusgai
600 m2 baino gehiagoko erakusketa
Europako lehen markak

KSM talde laneran indarra

K S M GROUP

VENTANAS AISLANTES
MUEBLES COCINA - BAÑO

Orduetgia: 10 - 13 eta 16 - 19:30 . Larunbatak: 10 - 13

25 urte
Zurekin

Fabrikazio eta muntaia profesionala
Aurrekontuak eta aholkularitza konpromisorik gabe

YOSU THERMIK
LEIHO ISOLATZAILEAK

Merkatuko prezio hoberenak Kataide Poligonoa 4 - ARRASATE - 943 770157 Kalitate-prezio erlazio paregabea